

Komunikazioaren  
eta  
informazioaren oinarriak

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA  
BILBO, 1997

© Jose Inazio Basterretxea Polo

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-87-2

Lege-gordailua: BI-?-96

Inprimategia: RGM Servicio de Impresión. Larramendi 4. BILBO

Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzaileak: UEU. General Concha 25, 4. BILBO telf. 4217145

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

*Marian, zeuri.*

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	11
<b>1.- Komunikazioa, Informazioa eta Masa kontzeptuak .....</b>	<b>19</b>
1.1. Komunikazioa ikergai, hurbilketa .....	22
1.1.1. Shannon, teknologia komunikatiboak .....	22
1.1.2. Jakobson, giza komunikazioaren paradigma .....	23
1.1.3. Scheflen, orkestra komunikatiboa .....	24
1.2. Hiru kontzeptu funtsezkoak .....	25
1.2.1. Komunikazioa, harremana .....	25
1.2.2. Informazioa, erreminta .....	28
1.2.2.1. Informazioa historian .....	28
1.2.2.2. Informazioa gaur eguneko munduan: agentziak ..	30
1.2.3. Masa-komunikazioa, prozesu soziala .....	31
1.3. Masa-komunikazioaren berbaldia .....	32
1.3.1. Egitatea albiste bilakatzen da .....	33
1.3.2. Errealitatea barik, errealitateak .....	33
1.4. Hedabideak gizartearen eratzaile .....	36
1.4.1. Albisteen errituala .....	36
1.4.2. Hedabidea ez da ispilua .....	36
1.4.3. Zer gelditzen da albisteetatik? .....	37
1.5. Kultura, komunikazioaren jario etenbakoa .....	39
1.5.1. Komunikadoreak kultura berriaren sortzaile .....	39
1.5.2. Nora doa komunikazio mundializatua? .....	41
1.6. Irakurgaiak .....	42
<b>2.- Giza komunikazioa, hastapenak .....</b>	<b>43</b>
2.1. Seinaleen bidezko giza komunikazioa .....	47
2.1.1. Ahoskatze-organorik eza .....	48
2.1.2. Komunikazio primitiboaren bereizgarriak .....	48
2.1.3. Pentsatzeko gaitasunaz .....	48
2.2. Lengoia, giza komunikaziorako baliabide aurreratua .....	49
2.2.1. Lengoaiaren funtzioaz .....	50
2.2.2. Lengoia eta gizartea .....	50
2.2.3. Lengoia eta pentsamendua .....	51

2.3. Idazkera, informazioa finkatzeko tresna .....	53
2.3.1. Piktograma idazkeraren oinarrian .....	53
2.3.2. Hieroglifikoa .....	56
2.3.3. Idazkera-sistema zaharrak .....	57
2.3.3.1. Ameriketako sistemak .....	57
2.3.3.2. Ekialde hurbileko sistemak .....	58
2.3.4. Idazkera logografikoak .....	58
2.3.4.1. Mesopotamia .....	58
2.3.4.2. Egipto .....	60
2.3.4.3. Indus ibarra .....	60
2.3.4.4. Kreta .....	60
2.3.4.5. Anatolia .....	60
2.3.4.6. Txina .....	60
2.3.5. Idazkera fonetikoak .....	61
2.4. Irakurgaiak .....	63
<b>3.- Giza komunikazioaren oinarritzko egitura linguistikoa .....</b>	<b>65</b>
3.1. F. de Saussure, berba-komunikazioa eta zeinua .....	68
3.1.1. Zeinua, komunikazio-trukearen oinarria .....	70
3.1.2. Komunikazio linguistikokoaren faseak .....	72
3.1.3. Zeinu linguistikoa .....	72
3.1.4. Saussure, teoria eta hedabideak .....	73
3.1.4.1. Linealtasuna hedabideetan .....	73
3.1.4.2. Hautazkotasuna hedabideetan .....	74
3.2. R. Barthes, berba-sistema lotuak .....	74
3.2.1. Denotazioa eta konnotazioa .....	75
3.3. R. Jakobson, berba-komunikazioaren prozesua .....	76
3.3.1. Hizkuntzaren funtzioak .....	77
3.4. Irakurgaiak .....	78
<b>4.- Informazioaren eta Komunikazioaren garapena .....</b>	<b>79</b>
4.1. Hedabide idatziak, agerkundea eta garapena .....	82
4.1.1. Inprenta tipografikoa .....	82
4.1.1.1. Zeinu idatziaren kopiaketa zaharra .....	82
4.1.1.2. Idazkeraren berrikasketa mendebaldeko Europan .....	85
4.1.1.3. Tipografiaren jaiotza .....	86
4.1.1.4. Inprenta Euskal Herrian .....	89
4.1.1.5. Tipografiaren ondorioak .....	90

4.1.2. Hedabide idatzien aroa .....	91
4.1.2.1. Masa-egunkarien sorkuntza .....	91
4.1.2.2. Prentsa-mundua XXI. mendeari begira .....	98
4.2. Zinema, teknologia eta masak .....	100
4.2.1. Teknologiaren garapena .....	100
4.2.1.1. Proiekzioa eta kamara iluna .....	100
4.2.1.2. Irudi jarraituaren ilusioa .....	101
4.2.1.3. Irudia eta kamara iluna .....	102
4.2.1.4. Zinemak ehun urte .....	103
4.2.1.5. Zinema, propaganda eta informazioa .....	103
4.2.2. Zinema eta masak .....	104
4.2.2.1. Hasierako edukiak eta ikusleria .....	104
4.2.2.2. Nickelodeon .....	104
4.2.2.3. Zinema heldua .....	105
4.2.2.4. Zinemaren garapen arina .....	105
4.2.2.5. Hasierako zinema eta legeria .....	105
4.2.2.6. Zinema Sovieten Herrian .....	106
4.3. Telekomunikazioak hedabideen garapenean .....	108
4.3.1. Telegrafo elektrikoa .....	109
4.3.1.1. Kable bidezko telegrafoa .....	109
4.3.1.2. Telegrafoa eta komunikazioa .....	110
4.3.1.3. Kable gabeko telegrafoa .....	111
4.3.2. Irratia .....	111
4.3.2.1. Marconi-ren aparatua .....	111
4.3.2.2. Telegrafotik irrati-telefonora .....	111
4.3.2.3. Irratia etxera doa .....	112
4.3.2.4. Gatazka airean .....	112
4.3.2.5. Irratia, ideologia eta gizartea .....	113
4.3.3. Telebista .....	115
4.3.3.1. Telebista, hedabide masiboa .....	115
4.3.3.2. Telebistan digitalizazioa .....	117
4.4. Irakurgaiak .....	118
<b>5.- Sareartea eta Informazioaren Gizartea .....</b>	<b>119</b>
5.1. Ezagutzaren autobideak .....	122
5.1.1. Zer dira infobideak? .....	122
5.1.2. Teknologia berriak gure inguruan .....	124
5.1.2.1. Aisiarako sistemak .....	124
5.1.2.2. Informaziorako eta kalkulurako sistemak .....	125

5.1.2.3. Mezu-igorpeneko sistemak .....	126
5.1.2.4. Komunikazio interperstonalerako sistemak .....	126
5.1.3. Informaziorako azpiegitura nazionalak .....	128
5.1.3.1. Sare-ereduak .....	128
5.1.3.2. Erabilerak .....	130
5.2. Informazioaren Gizartea .....	131
5.2.1. Egitura ekonomikoa .....	132
5.2.1.1. Teknologia berriak eta lan-harremanak .....	132
5.2.2. Informazioaren kontsumoa .....	133
5.2.3. Egitura teknologikoa .....	134
5.2.4. Ikuspuntu kritikoa .....	135
5.2.5. Ikuspuntu multidimentsionala .....	136
5.2.6. Autobideak gizartearen oinarri .....	136
5.2.6.1. <i>Gore</i> plana .....	136
5.2.6.2. <i>Delors</i> plana .....	137
5.2.6.3. <i>Bangemann</i> txostena .....	138
5.2.6.4. Europar Komunitatearen plangintza .....	138
5.3. Irakurgaiak .....	139
<b>6.- Desinformazioaren mundua .....</b>	<b>141</b>
6.1. Albistea bera propaganda denean .....	148
6.1.1. Iragazkia albisteetan, propagandaren oinarria .....	148
6.1.2. Biktima <i>duinak</i> eta <i>ezduinak</i> albisteetan .....	151
6.1.3. Informazioaren <i>globaltasuna</i> , desinformazioaren bideratzaile .....	153
6.2. Pertsuasioa eta propaganda .....	154
6.2.1. Estrategia psikodinamikoa .....	154
6.2.2. Estrategia soziokulturala .....	156
6.2.3. Adierazpenaren ekoizpena .....	157
6.2.4. Isiltasunaren espirala .....	159
6.2.4.1. Iritzi publikoa .....	159
6.2.4.2. Isolamenduari beldurra .....	161
6.2.4.3. Iritzi publikoa eta isolamendua .....	162
6.2.4.4. Isolamendua eta isiltasuna .....	164
6.2.4.5. Iritzi publikoa .....	165
6.3. Diskurtsoaren manipulazioa .....	165
6.3.1. Gezurra komunikazioaren paradigman .....	166
6.3.2. Gezuraren prozedurak .....	170
6.3.2.1. Ezabaketa .....	170

6.3.2.2. Iratxetura .....	171
6.3.2.3. Desitxuraketa pobraganda eta publizitatea .....	173
6.4. Prentsa presiopean .....	174
6.4.1. Informazioa: ondare soziala .....	174
6.4.2. Boterearen bideak prentsaren kontrolean .....	175
6.4.2.1. Lege- eta administrazio-neurriak .....	176
6.4.2.2. Kontrol ublikoaren estrategiak .....	179
6.5. Irakurgaiak .....	180
<b>7.-Teoria arau-emaileak masa-komunikazioan .....</b>	<b>181</b>
7.1. Araubideen bila .....	184
7.1.1. Teoria marxisten abiapuntua .....	184
7.1.2. Funtzionalisten ikuspuntua .....	185
7.1.3. Eredu alternatiboak botere-harremanetan .....	185
7.1.4. Integrazioa marxistengan .....	186
7.1.5. Integrazioa eta funtzionalistak .....	186
7.1.6. Hedabideek gizarte-aldaketako bi eredurako bidea ematen dute .....	187
7.2. Teoriak masa-komunikazioan .....	189
7.2.1. Aginte-teoria .....	189
7.2.2. Prentsa-askatasunaren teoria .....	190
7.2.3. Gizarte-erantzukizunaren teoria .....	191
7.2.4. Teoria soviatarra hedabideetan .....	192
7.2.5. Teoria desarroilista .....	193
7.2.6. Teoria demokratiko-partehartzailea .....	194
7.2.7. Azken aburua .....	194
7.3. Irakurgaiak .....	195
<b>8.- Ordezkapena, ezkutaketa eta ilusioa masa-komunikazioan .....</b>	<b>197</b>
8.1. Hedabideetako komunikazioaren oinarritzko paradigmatik .....	199
8.1.1. Komunikazioaren osagaiak hedabideetako jardueran .....	202
8.1.2. Komunikazioa, egitatea barik ilusioa .....	205
8.2. Ilusioa, ordezkapena eta ezkutaketa .....	205
8.2.1. Masa-komunikazioa, ilusioak egitatea ezkututzen du .....	206
8.2.2. Autobabesa: irakurketa kritikoa .....	208
8.3. Irakurgaiak .....	209





## SARRERA

*Vocabula sunt notae rerum. Cic.\**

Komunikazioak, jakin ezazu hasiera-hasieratik, egitateak ordezkatzeko dituzten zeinuen bitartez funtzionatzen du. Komunikazioak gogora ekartzen digu pertsonen elkarri komunikazioak igortzearen prozesua; prozesu hori ez da bakarrik berba-lotura, komunikazio-prozesuan gizakiak era askotako seinaleak baitarabiltza komunikazioak igortzeko; guretzat, hala ere, ohikoena, berbaren bidez gauzatzen den hori da *komunikazioa*.

Duda-mudarik onartzen ez duen abiapuntu nagusi batetik hasten da eskuarte hartu duzun lan hau: komunikazioaren hedadura da gizateriaren garapenaren gidaliburua, komunikazio barik ez baitago gizarterik.

Komunikazioaren historiak gizateriaren historia dakarkigu gogora eta komunikazioaren garapena gizateriaren garapenari dago lotuta. Komunikazioaren *era eta ereduak* kontutan hartuz, komunikazioaren historia nagusia bost epetan bil dezakegu:

- berbaren aurreko komunikazioaren aroa,
- gizarte oralaren aroa,
- idazkeraren aroa,
- aro elektronikoa, eta
- aro zibernetikoa.

*Berbaren aurreko komunikazioaren aroak* aurre-hominidoen garaietara garamatza. Berbaren aurreko komunikazioaren oinarrietan ugaztunen arteko harreman informatibo primitiboa aurkitzen dugu: berehalako ekintzekaz, espeziearen ugalketaz eta eguneroko bizitza-beharrizanez lotutako informazio-trukaketa. Keinuak, jauziak, gorputz-mugimenduak, orroak eta zantzoak dira seinale informatzaile giza komunikazioaren aro primitiboan.

*Gizarte oralaren aroan*, komunikazioaren oinarria berba da, hitza, elea. Gizakiak bere lehen asentamenduak abian jarri ditu eta bizitza urbanoak kultura ekarri du. Berbak keinuari laguntzen dio harreman informatiboan eta garapen sozialean. Berbak, hitzak, eleak zehaztasuna ekarri du giza harreman komunikatibora.

*Idazkeraren aroak* ahozko harreman informatibo zuzena –emozioz beterikoa eta aurrez-aurrekoa, pertsonala– aldatu egin du; idazkerak informazio-trukaketa

---

\* “Berkak gauzen zeinu dira”. Zizeron, Ad C. *Treatium Topica* VIII, 35.

inpersonal eta abstraktu bihurtu du. Hori dela eta, idazkerak atek zabaltzen dizkio harreman informatibo masiboari, espazio- eta denbora-mugak hautsi ditu; interlokutoreek ez dute aurrez aurre egon behar eta nola informazioaren igoerak hala haren hartzaileak ez dute zertan denbora sinkroniko bera konpartitu.

*Aro elektronikoa* eremu komunikatibo berriak ireki ditu gizaterian. Komunikazioak berriro egin ditu bere sentimenak oro, eta informazioaren igoerak mintzatu eta ikoniko bilakatu dira. Telegrafoak inauguratu du aro berria; gerora etorri dira zinema, irratia, telefonoa, telebista... Jada, argi-indarrari esker, komunikazioaren oralitatea, paralengoaia, kinesia, irudia eta elea batera igo daitezke berehalako batean munduaren edozein bazterretara.

*Aro zibernetikoa* sareartean integratu gaitu; egun, haren menpeko dira giza harreman komunikatiboak oro: bai pribatuak –lagunen arteko gutunak, pertsonen arteko harremanak, sexua, aisia, hobbyak, jolasa, jokia...– eta bai publikoak ere –prentsaren bidezkoak, ikusentzunezkoak, zuntzaren bidezkoak...–.

Komunitate primitiboan, lanaren banaketa oraindik bermatu barik dagoenean, gizakiaren zeregin nagusia naturak berak eskaintzen dituen produktuez baliaturik bizimodua aurkitzea denean, komunikazioaren beharrak oso dira oinarri-oinarrizkoak. Komunikazioa gauzatzeko, gizaki primitiboak, paralengoia eta kinesiaz gain, objektu errealek erabili ei zituen hasiera hartan ekintzak adierazteko ahaleginean. Gerora etorri bide ziren informazio-marrakiaz, oinarri ikonikodunak lehenik eta gero abstratuagoak. Goragoko fase batean, komunikazioak abstrakzioan irabazi zuen heinean, ideograma agertu zen komunitate primitiboetan; ideogramen marrakiaz ideia eta sentimentua adierazten ditu. Fase fonetikoak zarratzen du ibilbide primitibotzat har genezakeen hori; horretan, azkenean, zeinuak soinuak errepresentatzen ikasi du.

Mundu esklabistan, gizarte-klaseak, jada, indarrean daude eta lanaren banaketa gorengo maila batera heldu da. Gizarte-mota horretan, agintari-klaseak produkzio-bideez jabetzeaz gain, komunikazio-bideez ere jabetu dira. Komunikazioa, informazioa, kultura eta pentsamendua, beraz, esku gutxi batzuetan biltzen dira. Klase batzuentzat eskulana eta beste batzuentzat hitza, pentsamendua; horra hor lanaren banaketa.

Feudalismoan, jauntxoek beren probetxurako klase xeheak gazteluaren inguruan biltzen dituztenean, paradoxikoa dirudien arren, *komunikazioa inkomunikazio* da, hots, komunikazioak inkomunikatu egiten ditu klase desberdinak. Hitza eta marrazkia dira komunikatzeko zeinu nagusiak; hitza eta marrazkia, hala ere, botere bakar biren esku daude: elizaren eta koroaren menpe. Komunikazioa norabide bakarreko bilakatzen dela eta, komunikazioa agindu bihurtzen da. Klase agintariak etengabe komunikatzen dute, xeheak ezin dute egin. Giza taldeen arteko harreman komunikatiboan haustura dago.

Kapitalismoan, gizakien arteko harremanak produkzio-harreman bilakatzen direnean, komunikazioak helburu unibertsala bereganatzen du, garaiko egitura ekonomikoek mundua merkatu bihurtu baitute. Zeregin merkantilak informazio-trukaketa modernoa eskatu du. Zeregin merkantilak eta munduaren merkantilizatze-joerak informazio merkantzia bilakatzea lortu dute, truke-

-baliorako merkantzia bihurtzea. Ekoizpen industrialia eta salmenta merkantila bermatu dituen harremana bilakatu da komunikazioa.

Gizarte modernoan, egun bizi dugun gizarte modernoan, publikorako ekoizten den komunikazioa, hedabideek bere pertsonifikatzen duten hori, gertatu eta gertatzen diren aldaketen lekuko izateaz gain, aldaketa zenbaiten eragile ere bada; giza eta gizarte-aldaketa horiek gauzatu ostean, gainera, sortu den eredu berrien barne-lokarri bilakatzen da komunikazio publiko eta inpersonala hori; gizarte berriaren barne-lokarri bilakatzen dira, jakina, hedabideak berak. Masa-hedabideei buruz hausnartzen eta pentsatzen hasten garenean, interes publikoa eta zerbitzu publikoa dira burura datozkigun lehen ideiak. Zerbitzuaren publikotasuna eta interes orokorraren zainketa dira gizarte demokratiko modernoaren lorpena eta babesa; hala ere, egun urrun gaude egoera liluragarri horretatik. Esan gura baita, gure inguruko hedabideek interes publikoetan barik interes partikularretan jartzen dutela beren arreta. Bestalde, kontutan hartu beharko genuke, gainera, komunikazio-publikoa bilakatzen ari dela gizartearen eta zibilizazioaren beraren oinarri, zutabe eta euskarri; komunikazio publikoa eta masiboa da, gaur egun, zibilizazioaren beraren bizitzaren erreferente bakar. Komunikazioaren eta pentsamendu-eraketa kolektiboaren ikuspuntutik begiratuta, gizarteak bere barne-garapenerako duen arazo nagusia honetan datza, alegia, hedabideen jarduna zerbitzu eta interes publikoetatik aldentzen ari den heinean, harreman komunikatiboaren oinarriak, hots, egitate eta gertakari sozialak berak, informazio publikatuaren eskutik kontsumorako produktu huts bilakatzean, galdu egiten duela bere arrazoi eta izate sozial eta kolektiboa. Beste berba batzuetan esanda, interes partikular batzuek, masa-hedabideen bitartez publiko egiten diren heinean publiko osoarenak direla diruditelarik, partikular bilakatzen dira berriro ere baina, orain distantziak eta legoa luzeak korritu ondoren, gorputz arrotzetan ernalduta, besteen pentsamenduez apropiaturik; hedabideen jarduera hori dela-eta, interes partikularrak publikoek jabetzen dira. Hartara, esku pribatuetan dagoen komunikazio publikoa da gizartea, eta esku-pribatuetako komunikazio publikoaren menpekota da gizakia.

Goazen aurrera. Eskuardean duzun lan honek zenbait atal diferente dauzka:

\* *Lehen gaia: Komunikazioa, informazioa eta masa.*

Atal honetan ikastaldirako giltz berba diren hiru kontzeptu nagusi horien deskribapena egin da. Komunikazioa aztertzeke eta ulertzeke gaur egungo ikerlariak garatu dituzten oinarriko paradigmak azalpenak betetzen ditu lehen ataleko lehen orriak; ondoren, atal honetan, ikasleak *komunikazioa* giza harreman moduan definiturik aurkituko du, *informazioa* harremana bideratzen duen erreminta gisa eta *masa* komunikazio publikoak duen testuinguru sozial legez. Era berean, komunikazioa eta kultura eskutik lotuta datozen kontzeptuak direla azaltzen da.

\* *Bigarren gaia: Giza komunikazioa, hastapenak.*

Giza komunikazio primitiboaren garapena azaltzen da hor. Seinaleen bidezko komunikazioa, berbarean bidezko komunikazioa eta komunikazio idatziaren lehen

urratsak aurkituko ditu ikasleak. Era berean, lengoia eta pentsamenduaren arteko loturaz dihardugu liburuaren pasarte horretan.

\* *Hirugarren gaia: Giza komunikazio mintzatuaren oinarritzko egitura.*

Hiru autoreren lanak ekarri dira gogora giza komunikazio mintzatuaren egitura azaltzeko unean: Saussureren ikuspuntu estrukturalista, Barthesen ekarpen kritikoa eta Jakobsonen azalpen funtzionalista. Zeinu linguistikoa, denotazioa, konnotazioa eta hizkuntzaren funtzioak dira atal horretako giltz berbak.

\* *Laugarren gaia: Informazioaren eta Komunikazioaren garapena.*

Giza komunikazioaren garapena azaltzea du helburu atal honek. Ikasleak inprentaren eta hedabide idatzi modernoan agerkundeari buruzko hitzak, zinemaren lehen urteen gaineko berbak eta telekomunikazioen inguruko eleak irakurriko ditu bertan.

\* *Bosgarren gaia: Sareartea eta Informazioaren Gizartea.*

Ezagutzaren autobideak, infobideak, teknologia berriak komunikazioaren munduan, informazioarako azpiegitura nazionalak, sare-eredu nagusiak eta amaraun informatikoak dira atal honetako giltz berbetako batzuk. Atal honetan, Informazioaren Gizartea azaltzen eta kritikatzeko da. Informazioaren Gizartea eratzeko eta eraikitzeko, gure inguruan diharduten plan estrategikoak ere aurkituko ditu ikasleak: Gore-rena, Delors-ena, Bangemann-ena...

\* *Seigarren gaia: Pertsuasioa, propaganda eta manipulazioa.*

Bost epigrafe nagusi planteatzen dira atal honetan: a) egitatea eta desinformazioa, b) albistearen rola propagandaren eskuetan, c) pertsuasioa eta propaganda bera, d) diskurtso publikoaren manipulazioa eta e) prentsaren aurkako presiobide gubernamentalak.

\* *Zazpigarren gaia: Teoria arau-emaleak masa-komunikazioan.*

Hedabideek gizarte-kontrolaren mailak sendotu ala gutxitu egiten al dituzte? Teoria diferenteak daude horretaz, eta atal honetan korrante nagusiei egiten zaie errepassoa.

\* *Zortzigarren gaia: Ordezkapena, ezkutaketa eta ilusioa.*

Atal honetan agerian uzten da komunikazio publikoaren paradoxikotasuna, alegia, masa-komunikazioan, egitatearen ordezkapenak ilusioak sortzen dituela publikoarengan. Batetik, informazioa ez da egitatea, ezin da izan, informazioa egitatearen ordezkoa baita; eta bestetik, ikusle/entzule/irakurleak bere errealitatea informazioen gain eraikitzen du, ez egitateen gain. Beraz, komunikazio publikoak ilusiozko mundua eraikitzen du publikoarengan, informazioa, egitate barik, ilusio baita; horra hor paradoxikotasuna.

Lehen orrialde hauetatik bertatik gogoratu behar dugu, bestalde, komunikazioa, gaur egun ulertzen dugun moduan ulertuta, *lanaren banaketaren* kontzeptuagaz lotuta datorrela bere hasieratik bertatik. XVIII. mendearen azkenaldian, 1723-1790 bitartean bizi izan zen Adan Smith-ek formulatu zuen lehenengoz modu teorikoan, zentzu modernoko komunikazioa zer zen. Komunikazioak, formulazio horretan, fabrika barruko lan kolektiboa antolatzen laguntzen duena da, eta baita espazio ekonomikoak egituratzen dituen ere. Lanaren banaketak bere helburu

ekonomikoak bermatzeko, ekoizpenak aurrera ateratzeko, beharrezkotzat jo zen XVIII. mendearen azkenaldian prozesuan esku hartzen zutenen arteko *komunikazioa*.

Pixka bat beranduago, 1760-1825 bitartean bizi izan zen Claude Henri de Saint Simon-ek hauxe argitaratu zuen: *gizartea sare moduko bat da, organismo bat da eta giza gorputzari odolagaz gertatzen zaionaren antzera gertatzen zaio gizarte industrialari diru-zirkulazioagaz; gizartearen barruko komunikazioan diruak betetzen du, odolak giza organismoan betetzen duen funtzioa: zirkulazioa bermatzea, atal diferenteen arteko komunikazioa*. Harremana garapenaren isla bilakatu da, beraz.

Ikusten denez, gizakiaren funtzionamenduagaz, fabriken produkzio-sistemagaz eta gizartearen antolamenduagaz erlazionatu zen komunikazioa XVIII. mendean; komunikazioa *harremana* dela dioen ideia ez da berria. XIX. mendean, komunikazioa garapenaren ideiagaz erlazionatu zen: 1798-1847 bitartean bizi izan zen Auguste Comte-k azaldutakoaren arabera, gizartearen garapena ahalbidetzen duen organismo kolektiboaren funtzionamendua bermatzen duen osagaia da komunikazioa.

XIX. mendeak, komunikazioaren gaineko formulazio berriak ekartzeaz gain, beste zerbait berri ekarri zuen komunikazioaren mundura: komunikazioa bera industria bihurtzea; harremana eta garapena, hartara, *industria* egin ziren; *mundu zibilizatuan* indarrean ezarritako industrializazio bortitzaren beharretara makurtu zen komunikazioa. Industriaren eta gizartearen funtzionamendurako ezinbesteko gailu izateari utzi gabe, komunikazioak eginkizun berri bat eskuratu zuen: dirua egitea, dirua sortzea, produktu industrialia izatea.

Industrializazioak zabalduetako bideak direla-eta, kontraesanak direla medio, XIX. mendea oso emankorra izan da diskurtso idealistetan eta teoria utopikoetan. Sozialismoak, anarkismoak eta soziologia modernoak bizitza komunitario berriaren promesa deszentralizatzaileak aineratu dituzte lau bazterretara; gero, haizeak hautsak harrotu eta estali egin ditu amets horiek.

Testuinguru garatzaile batetik begiratuta, XX. mendeak ekarpen bikoitza egin du komunikazioaren munduan: komunikazioaren beraren ikerketa zientifikoa eta komunikazioaren beraren presentzia sozial erabatekoa bizitza kolektiboaren esparru guzti-guztietan.

Lehen ekarpen modernoari buruz, komunikazioaren beraren ikerketaz alegia, esan dezagun ezen komunikazio publikoari eta industrializatuari buruzko lehen analisi sakon eta zientifiko serioek 1910. urtean ikusi zutela argia Mundu Berrian: hain zuzen ere, Chicago-ko eskola enpirikoak betekizun soziologikoa aitortu zionean komunikazioari, mendearen hasiera hartatik Munduko Lehen Gerrara bitartean. Hurrengo urrats metodologiko serioa 20-30ko urteetan etorri zen, Bigarren Gerratearen bezperetan, 1902-1978 bitartean bizi izan den Harold D. Lasswell-ek egina; autore horrek ondokoa zioen: *hedabideak, komunikazio publiko eta industrializatuan, iritzien gestio gubernamentalerako sortu eta garatu dira*. Lasswellek propagandari buruzko ikerketa entzutetsuak argitaratu zituen bere garaian, baita komunikazio publikoaren lehen paradigma funtzionalista ere,

hurrengo galdera anizkun hau aiereratuz: **nork dio zer, zein bidez, nori eta zein emaitzaz?** Galdera anizkun horren erantzunak bilatzeko urratsek bete dute komunikazio-ikerketaren mundua mende honetan. Lasswellen paradigmaren korapiloa askatzen, *kontrol-analisiek, edukien analisiek, euskarrien analisiek, audientzia-analisiek eta efektuen analisiek* ikusi dute argia XX. mendearen joan-etorrian.

Arestian esan dugun XX. mendeko bigarren ekarpenaz, komunikazioaren presentzia soziala bizitza kolektiboaren esparru guztietara hedatu dela dioen horretaz, zer esan dezakegu Informazioaren Gizartea terminoa modu masiboan erabiltzen hasi garen honetan? Komunikazioak bere eskuetan hartu du garapenaren lekukotasuna eta bere burua aurkezten ari da gizakiaren eta gizartearen garapenaren beraren bideratzaile gisa, gizartearen iparra eta etorkizunaren zentzua ezarriko dituen paradigma orojakile moduan. Enpresa, erakunde eta etxeetan komunikazioa, publiko eta industrializatua, presente dago gaur egun. Komunikazio publiko eta industrializatu horrek gidatzen ditu gizarte moderno eta aurreratuen aztura berriak. Komunikazio publiko eta industrializatua da, egun, gizarte aurreratuen bermea, gizarte aurreratuen iraupenerako tresna baliotsu eta beharrezkoa.

Eta, XXI. mendeari begira, zer? Informazioaren eta komunikazioaren mendea izango ei da XXI. hori. Informazioaren Gizartea bezalako terminoak jaio izanak argiro aldarrikatu du informazioaren beraren garrantzia zein puntutaraino den ezinbestekoa, gizartearen, ekonomiaren eta industrializazioaren garapen eta finkapenean. Terminoen jaiotzak berak argiro azaltzen du elite politiko eta ekonomiko internazionalak zeren aldeko apostua egiten diharduten eta zein eratako gizarte-ereduak dituzten begien aurrean. Informazioa boterea dela zioen maxima, gorengo mailetara aupatua izango da jaiotzear dugun mende berri honetan.

Testuinguru horretan, zilegi bekigu galdera bat egitea: komunikazio publiko eta industrializatuaren exaltazioa dela medio, mende berrian, Informazioaren Gizarteak berak zelan moldatuko ditu gure pentsamenduak; bestela esanda: demokrazia eta askatasuna bermaturik al daude *informazioaren bonbardaketa* iraunkorren? Mattelart-tarrek inoiz argitaratu dutenez, *askatasun politikoa ez da norberak bere borondatea betetzearen ariketa hutsa; askatasun politikoak eskubide bat bermatu behar du: borondate hori ekoiztearen prozesua kontrolatzearena*. Eta, galderagaz segituta, zelan moldatuko dituzte gure pentsamenduak, gure azturak, hedabide guztiz ahaltu berriek, informazioaren gizartearen oinarri diren hedabide berri orojakileek? Galderaren erantzuna jaiokizun da.

Harrigarriena zera da: zer-nolako konfiantza islatu duten guran guztiongan komunikaziorako teknologiarik ez diren. Teknologia ez dira inoiz neutralak izan baina, egun, inoiz baino neutralago eta horizontalago agertzen zaizkigu; harrigarria benetan. Hedabide-teknologia berriei esker, komunikazioaren magnateek *aukeraren aukera, elekzioaren aukera* damaigutela aldarrikatu dute lau bazterretara, baina, zer-nolako aukera demaigute magnate telebisibok, esate

baterako, katea guzti-guztietan estilo bereko programak etengabe eskaintzen direnean, alegia, katea baten emanaldi diakronikoaren espektroa katea diferenteen emanaldi sinkronikoaren itzala denean?

Ez dago ezkutatzerik aro digitalak bere bekatuak dauzkala: Informazioaren Gizartea deitutakoak gizakien arteko aukera-desberdintasunak gutxitu beharrean, areagotu egiten ditu, aro digital modernoak gainesplotazio komertziala erantsi dio informazioari, testuinguru komunikatibo modernoak bizitza pribatuari zor zaion errespetua galarazi du, telekomunikazioen bonbardaketak komunitatearen bizimodu tradizionala desintegratzen du, tele-plebiszito ustelek demokrazia bera ulertzeko moduak distortsionatzen ditu, teknologia komunikatibo berriek erantzukizun soziala eta zerbitzuaren publikotasuna galbidean jarri dituzte... Ez dira, ba, bekatu gutxi.

Inork dudarik badu, gogora ditzala Clinton presidente estatubatuarrak behinola esan zuen hura: *Lehen, aberastasuna lurretan neurtzen zen; lurra, urregorria, petrolioa eta makineria ziren aberastasunaren ispilu. Gaur, aberastasunaren lehen isla informazioak ematen du: informazioaren kalitateak, kantitateak eta igortzeko abiadurak ezartzen dute aberastasunaren muga*. Etorkizunean, beraz, komunikazioa dirua izango da, edo ez da komunikazioak izango.

Inperialismo ekonomikoak, transnasionalek (estatubatuarrak batez ere), burujabetasun kulturalak eklipsatu gura dituzte etekin ekonomikoaren izenean. Erakunde ekonomiko apatridek, multinasionalek, abian jarritako globalizazio informatiboak, globalizazio kulturala ekarri du: produktu kultural estatubatuarrak munduaren azala bete du. *Star Television* kateak, Rupert Murdoch magnatearenak, esate baterako, Estatu Batuetan ekoiztutako programak aireratzen ditu batez ere, ingelesez dihardu, ingelesez emititzen du Hong Kong hiritik eta beraren programak 38 estatutan hartzen dira: Kuwait, Hego Korea, Tailandia, Pakistan, Israel, Taiwan, Txina... *Star Television* horren bitartez 360 multinazional komertzialek aireratzen dituzte beren produktuak: Audi, Canon, Coca-Cola, Levi Strauss, Motorola, Reebok, Shell...

Testuinguru horretan, zilegi zaigu komunikazio globalerako enpresek funtzio ekonomiko eta politiko oso argiak dituztela esatea. Informazioa dominatzen duten enpresek munduaren ikuspuntu eta ikuspegi bateratzailea ematen dute, unidirekzionala, bakarra; gogoratu, esate baterako, Golkoko Gerra eta han gertatutakoaz CNNk eskaintako bertsio monopolistikoa.

Gaur egun, mundu osoan kontsumitzen dira Estatu Batuetan ekoiztutako irudiak, soinuak, ideiak, produktuak eta zerbitzuak. Produktu informatibo monopolistikoak eta komunikazioaren kontsumo masiboak eragina dute eta, hori, politikoa ere bada. Kultura masiboaren igorle diren konpainia multinasionalek aireratzen dituztenek, badute beren ondorio soziokultural argia: Estatu Batuek eta konpainia transnasionalek produktu eginak (fikzioa edota informazioa) igortzeaz gain, eredu-sozial argiak transmititzen dituzte (eredu kapitalistak, kontsumistak, matxistak, anglofonoak, biolentoak...). Enpresa nazional txikiek, beren produktu propioak ekoizten dituztenean, osmosi enpresarialak kutsaturik, transnasionalek aireratutako ereduie jarraituta ekoizten dituzte, haien eredu soziopolitikoie segituta



(kapitalistak, kontsumistak, matxistak, biolentoak...).

Alarmista izan gabe, kontutan hartu beharrekoa da hurrengo hau, alegia: informazioaren ekoizpena, prozesamendua eta igorpena esku pribatuetan kontzentratu dira azken urteetan, enpresa pribatuek enpresa publikoak ordezkatu dituzte Informazioaren Gizartearen zuzendaritzan; ordezkapena ez da dohain egin eta haren kostuak, nola ekonomikoak hala kulturalak, gizarteak berak ordaindu beharko ditu, ari da, jada, ordaintzen. Indar kreatzaile autoktonoak baztertuak izan dira merkatutik, ekoizle erraldoiek gainezkatu egin dituzte merkatu kulturalak beren produktuez eta ekoizle txikiek ez dute beren produktua erakusterik ere.

Informazioaren multinazionalak sumisio-kultura bilatzen dute. Panorama benetan beltza gure begien aurrekoa, konpromezu handiak exijitzen dituena.

# **Lehen atala:** **‘Komunikazioa’, ‘informazioa’ eta** **‘masa’ kontzeptuak**

## **1.1.- Komunikazioa ikergai, hurbilketa**

- 1.1.1. Shannon, teknologia komunikatiboak
- 1.1.2. Jakobson, giza komunikazioaren paradigma
- 1.1.3. Scheflen, orkestra komunikatiboa

## **1.2.- Hiru kontzeptu funtsezkoak**

- 1.2.1. Komunikazioa, harremana
- 1.2.2. Informazioa, erreminta
  - 1.2.2.1. Informazioa historian
  - 1.2.2.2. Informazioa gaur eguneko munduan: agentziak
- 1.2.3. Masa-komunikazioa, prozesu soziala

## **1.3.- Masa-komunikazioaren berbaldia**

- 1.3.1. Egitatea albiste bilakatzen da
- 1.3.2. Errealitatea barik, errealitateak

## **1.4.- Hedabideak gizartearen eratzaile**

- 1.4.1. Albisteen errituala
- 1.4.2. Albistea ez da ispilua
- 1.4.3. Zer gelditzen da albisteetatik?

## **1.5.- Kultura, komunikazioaren jario etenbakoa**

- 1.5.1. Komunikatzaileak kultura berriaren sortzaile
- 1.5.2. Nora doa komunikazio mundializatua?

## **1.6.- Irakurgaiak**

Komunikazioaren eta Informazioaren Teoria Orokorra eremu diziplinartekoa da, zenbait teoria partikular berezi bere baitan biltzen dituena.

Komunikazioaren eta Informazioaren Teoria Orokorrak iturri desberdinetako urak biltzen ditu eta ikuspuntu diferenteko analisi-lerro urrun bakoitzari bere burujabetasuna aitortzen dion arren, estalki komunaren ikuspuntutik begiratzen diei den-denei.

*“... teoria honek zurrunbilo-bidegurutzearen antza hartzen du; hala ere, ur diferenteak beren artean jira-biraka nahasten diren arren, gure kasuan ur-lerro bakoitzak bere autonomia formal-erlatiboari eusten dio”*

Valbuena, F. (1984). “Teoría General de la Información y Gnoseología del cierre categorial” in *Revista de Ciencias de la Información*, 1. U.C.M., Madril.

## 1.- Komunikazioa, Informazioa eta Masa kontzeptuak

*Komunikazioa* berba polisemikoa da, esangura asko dituena, eta beragaz dauzkagu lotuta beste biak, nola *informazioa* hala *masa*. Komunikazio berba honen azpian esangura ugari aurkitzen dugu, lehen hurbilketa egiteaz batera; komunikazioaz berba egiterakoan espezifikatu beharra daukagu, argi utzi behar dugu zertaz dihardugun: garraioaz (trena, autobusa...), hedabideez (telegrafoa, telebista, egunkariak...), giza harremanez (laztanak, lengoaiia...), edota erakundeez (kultura eta komunikazio-ministerioa, warner communications...).

Komunikazio berbak historia eta soka luzea ditu mendebaldeko zibilizazioan<sup>1</sup>. XIV. mendean, esate baterako, latinetiko hizkuntzetan, *komunikatu* edo *komunikazio* berbek *zerbaitetan parte hartzea*, *zerbait amankomunean jartzea* ekartzen zuten gogora. XV. mendera bitartean, testuinguru honetan, *komunikatu* eta *komunikazio* berbek Elizaren inguruan zabaldu ziren gehienbat eta “komulgatu” eta “komunio” zentzua bereganatu zutelarik.

XVII. mendean *komunikatu* eta *komunikazio* berbek, Elizaren mundua gainditu eta zientzilarien laboratorietara egin zuten jauzi. Zientzia esperimentaletan *hodi komunikatzaileen* kontzeptua garatu zen, likidoak hodian bidez garraiatzerakoan: elkarri lotuta zeuden tutuetan –komunikatuta zeudenetan– likidoak, egoera normalean, beti altuera berberera heltzen ziren, batetik bestera igarotzeko bidea zutelako.

XVIII. mendean komunikatzea eta *igortzea* identifikatzen hasi ziren. Garraioaren bilakaera industrial eta modernoak herrien arteko komunikazioa ahalbidetu zuen, kulturen arteko harremana.

XIX. mendean egokitu zaio komunikazio/komunikatu binomioari gaur egun ezagunen eta aitortuen duen zentzua: elkarri informazioa igortzea. Prentsa-industriaren garapenak, zinemaren agerkundeak, irratia hedapenak eta telebistaren asmaketak aitortu diote termino zahar xamar honi, gaur egun eskuartean darabilgun adieran ulertzeko arrazoia.

Guretzat **komunikazioa** harremana da, **informazioa** harreman horretako langaia eta **masa** testuingurua.

Komunikazioa harreman moduan definitu dugu, zeren gune biren edo gehiagoren arteko lotura legez ulertzen baitugu, kontzeptu polisemiko eta definitu gaitza den hori. Pertsonen arteko harreman komunikazionala, giza taldeen arteko harreman komunikazionala, makinaren arteko lotura zibernetiko-komunikazionala...

---

1. Bateson et al. (1994). *La nueva comunicación*. Kairos, Bartzelona.

Gaur egungo mundua ez dugu ulertzerik komunikazio barik: mundua ez litzateke mundu, pertsonen arteko harremanik ez balego, makina eta enpresen arteko loturarik ez balego, giza-taldeek beren artean erlaziorik ez balute. Komunikazioa, beraz, harremana da. Eta harremana, munduaren motore.

Informazioak ahalbidetzen du harremana, komunikazioa. Informazioa da harremana gauzatzen duen lehengaia. Pertsonak berba egiten dutenean, elkar laztantzen dutenean, gutunak idazten dituztenean... informazioa helarazten diote elkarri. Muntaiak-katea batean, ordenagailu sare batean, aireportu batean... makinek elkarri esateko dutena informazioa da. Erakundeek, publikoek eta pribatuek, beren zereginak aurrera eramateko, informazioaren trukaketa dute beharrezko, ezinbestezko.


Masa testuingurua da. *Masa* kontzeptuak gizarte-eredu zehatz batera garamatza: gizarte garatuarenera. Masa-testuingurua gizarte kontsumistarena da, gizarte urbanoarena, gizarte kompetitiboarena... auzo mundutarrarena.

### 1.1. Komunikazioa ikergai, hurbilketa

*Komunikazioa* berba zaharra den arren, komunikazioa informazioaren munduagaz identifikatzen duen zentzua, mende honetako ideia da. Komunikabide/hedabideen azterketa gaztea da; zientzia gisa, komunikazioaren ikerkuntzak ez du mendea bete.

#### 1.1.1. Shannon, teknologia komunikatiboak

1949. urtean Shannon irakasleak teknologia komunikatiboak aztertu zituen Illinois Unibertsitatean; alegia, makinaren arteko loturak eta harremanak. Teknologia komunikatiboaren lehen ikerketa horietarako, ondoko lan-eskema lineala proposatu zuen<sup>2</sup>:



2. Claude Shannon. (1949). *The Mathematical Theory of Communication*. University of Illinois Press.

Zortzi eskema-gune horiei prozesu komunikatiboak ematen die lotura; horien artean dagoen harremana *harreman komunikatiboa* da. Gune batetik bestera jario komunikatiboa hedatzen da; jario horretan, informazioa da garraiatzen dena, eramaten dena. Ikus dezagun funtzionamendua adibide batean:

- ◆ 1.- *informazio-iturria*, esate baterako: ordenagailu-sare batean, aginduak ematen dituen aparatu nagusia.
- ◆ 2.- *mezua*, alegia: sarean hedatu gura den informazioa.
- ◆ 3.- *igorgailua*, hots: mezua zabaltzeko erabil daitekeen aparatua, modema.
- ◆ 4.- *igorritako seinalea*: mezuak seinale itxura hartzen du puntu batetik bestera bidaiatzeko (inpulstu elektromagnetikoak, adibidez).
- ◆ 5.- *zarata*: igortze- eta hartze-prozesuak oztopa ditzakeen beste seinalaren bat, inoiz harremana eten dezakeena.
- ◆ 6.- *hargailua*: helmugan hartutako mezua deskodetzen duen aparatua.
- ◆ 7.- *mezua*: komunikatua izan den informazioa.
- ◆ 8.- *hartzailea*: mezuaz baliatzen dena: beste aparaturen bat komunikazio zibernetikoan, pertsonaren bat pantaila ondoan balego, esate baterako...


### 1.1.2. Jakobson, giza komunikazioaren paradigma

Hamarkada bi beranduago, 1963. urtean, Roman Jakobson hizkuntzalariak *giza komunikazioaren paradigma* izenaz bataiatua izan den oinarrizko komunikazioaren eskema<sup>3</sup> eman zuen argitara Parisen. Komunikazio-zientzien azterketan, funtsezkoa bilakatu da sistema, eskema edo paradigma hau.

Hala ere, Jakobsonen komunikazio-eskema, behean ikus dezakezuna, fikziozkoa da, balizkoa; zuzeneko giza komunikazio-prozesuetan gutxitan izaten baitira komunikazio-egintza unidirekzional hutsak.

Esan gura dena ondokoa da, alegia, Jakobsonen paradigmatik balizko egoera bat azaltzen duela; egoera hipotetiko horretan *pertsona batek berba egiten du eta besteak entzun*; lanak, eginkizunak, ez dira trukutzen.

Eskemak klasean gertatzen denaren azalpen funtzionala ekar diezaguke gogora baina ez asko gehiago, zeren komunikazioa, pertsonen artean, norabide askokoa baita. Ikus dezagun oinarrizko paradigma, Jakobsonena:



3. Roman Jakobson. (1963). *Essais de linguistique générale*. Minuit, Paris.

Berba bidezko balizko giza komunikazio-prozesu batean, eskema horretako osagaiak honela ulertzen dira:

- ◆ 1.- *igorlea*: berba egiten duena, informazioa igorri gura duena eta horretan diharduena, hiztuna.
- ◆ 2.- *mezua*: igorlea komunikatzen ari dena, berba.
- ◆ 3.- *hartzailea*: igorlearen komunikazioa jasotzen duena, entzulea.
- ◆ 4.- *kodea*: igorleak hartzaileari informazioa helarazteko erabiltzen duen komunikazio-sistema naturala, hizkuntza.
- ◆ 5.- *erreferentea*: informazioaren iturburuan dagoena, zertaz berba egiten den, errealitatea.
- ◆ 6.- *kanala*: informazioaren garraibidea, komunikazioaren bide fisikoa.

Diogun legez, balizko komunikazio unidirekzionalaren kasua aztertzeko balio digun eskema dugu goiko hori, komunikazio-zientzien azterketan klasiko bilakatu dena eta gerora etorri diren eskemen oinarri metodologikotzat hartu beharko litzatekeena.

### 1.1.3. *Schefflen, orkestra komunikatiboa*

Beste hamarren bat urte beranduago, 1973. urtean, eman zuen argitara Schefflen ikerleak, Indianako unibertsitatean, giza komunikazioa *ulertzeko eskema globala*<sup>4</sup>. Paradigma berriago horren arabera, komunikazioa gizartearen prozesu iraunkorra da, prozesu horretan osagai desberdinek hartzen dutelarik parte; eta ez lengoaia naturaltzat kontsideratzen diren horietako (frantsesa, errusiera, euskara, etab.) osagai linguistikoez bakarrik. Gauzak horretara, giza komunikazioa Schefflenen arabera ulertzeko, ondoko osagai hauetan guztietan jarri beharko genuke arreta:


- \* berbetan;
- \* begiratueta;
- \* pertsonen arteko espazioan;
- \* mimikan...

Schefflen ikerleak aurkeztutako paradigma horren arabera, komunikazioak orkestra baten antzera dihardu: gizabanako bakoitzak *oso batean* hartzen du parte. Gizabanakoak komunikazioan hartzen du parte, komunikazioan ezartzen du bere zantzua eta ez da komunikazio horren iturria edo helburua bakarrik. Pertsonak uneoro komunikatzen du; modu aktiboan edo pasiboan, gizakiak beti *dio* zerbait.

Horren arabera, komunikazioa ez da norabide bakarreko erreka, urak goitik behera daramatzen ibai. Komunikazioa ulertzeko modu horretan, urak goitik behera legez behetik gora ere joan daitezke. Komunikazioa ez da norabide bakarrekoa, norabide askokoa baino, komunikazioak joan eta etorriko txartela du.

Komunikazioa ulertzeko *hasierako zentzuetara* garamatza Scheglenen paradigmatik: *zerbait komunean jartzera, zerbaitetan parte hartzera, zelanbaiteko*

4. Albert Schefflen. (1973). *Communicational Structure*. Indiana University Press.



*komunioan modu aktiboan jardutera. Eskema batean ikusteko:*

Lehenago esan dugun legez, giza-komunikazioa norabide aniztunekoa da, Schefflenen teoriaren arabera. Hizketa-lagunek batera hartzen dute parte komunikazioan; informazioaren trukaketaren harremanean, elkarrekiko eragina presente dago uneoro.

Modu aktiboan, horrela gura duelako; edo modu pasiboan, horrela gura izan edota konturatzeke, gizakiak beti igortzen du bere informazioa; harremanean gizakia ez da ikaragaitz.

Hizketakidearen informazio zuzenak, edota zuzenik ezak, solaskidea jakitun jartzen du; harremanari buruzko ezagutza horrek eragin zuzena du solaskideengan.

## **1.2. Hiru kontzeptu funtsezkoak**

Irakasgaiak, badakizu, hiru giltz berba dauzka: Komunikazioa, Informazioa eta Masa. Zer gordetzen dugu berba horien barruan? Goazen banan-banan zehaztasunaren bila.

### *1.2.1. Komunikazioa, harremana*

Komunikazioa pertsona bi edo gehiagoren arteko harremana dugu. Hartara, berba egitea komunikatzea da, laztantzea komunikatzea da, borrokatzea komunikatzea da, begiratzea komunikatzea da, ahotsaren tonu diferenteez baliatzea komunikatzea da... Gune biren arteko loturatzat jotzen dugu komunikazioa.

Azpiegitura legez ere ulertzen dugu, ikastaldi honetan, komunikazioa. Testuinguru horretan, ordenagailu-pantaila eta erabiltzailearen artean hedatzen den lotura bera ere komunikazioa da.

Komunikazioaren ingurua, ikusten denez, askotarikoa da eta zientzia desberdinek analizatu dute: psikologiak, antropologiak, hizkuntzaren filosofiak, semiotikak, zibernetikak...

Itxurazko desberdintasun guztien gainetik, komunikazioaren funtsa definitu beharko bagenu, ondoko hau litzateke definizio posibleetarikoa bat, ortodoxoena agian:

- *Igorleak hartzaileari mezu bat bidaltzea, biek ezagutzen duten kodea erabiliz.*



Ikus ditzagun berbazko adibide bi:

“Мои друзья приехали”.

“Ni mwene Petero”.

Lehen kasuan *nire lagunak heldu dira* komunikatu gura izan da; berba-kodea errusiera da. Bigarren kasuan *Pedroren semea da* komunikatu gura izan da; erabilitako kodea, kinarwanda. Igorlearen eta hartzailearen arteko kodea biek ulertzeko modukoa ez baldin bada, komunikazio-egintza ez da gauzatuko; *gizakia izaki entzule eta hautemailea* da<sup>5</sup> eta, hartara, hautematerik ez dago, baldin eta kodea amankomuna ez bada.

Berba-hizkuntzen kasuan gertatzen zaiguna, gainerako kodeekaz ere gerta dakiguke. Demagun ume bategaz ari garela jolasean eta ume horri sudurrean laztan bat egin ostean sudurra lapurtu diogula esaten diogula; umeak hasarre-aurpegia jarriko du; atzamar erakusle eta luzearen artetik atzamar lodia erakutsiko diozu esanez *hementxe dago*; horren ostean, keinuen eta mimikaren kodeen arabera irteera bi dauzka pasadizoak: a) umeak bere eskuaz aurpegia laztantzea, bere sudurra dagokion lekuan aurkitzea eta barre egitea –alegia jolas-egintza ulertzea–, esanez *ez, hor barik, hementxe daukat*; eta, b) negarrari ekitea –alegia jolas-egintza ez ulertzea–, pentsatuz b1: esanikoa egia dela eta benetan lapurtu diozula; b2: eskuagaz egindako keinua gustukoa izan ez eta antzarrak ferratzera bidaltzen duzula.

Beraz, kodearen komuntasuna beharrezkoa da, nola berbazko komunikazioan hala komunikazio para-berbalean ere.

- *Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik begiratuta, komunikazioa* beste hiztun batenganantz zuzendurik doan enuntziatuak sortzen duen hiztunaren eta solaskidearen arteko berbazko trukaketa da, solaskidea enuntziatu horri inplizituki edo esplizituki erantzuteko gauza delarik.
- *Komunikazioaren teoriaren ikuspuntutik ikusita, komunikazioa* puntu batetik besterako mezuaren igorpena da.

Komunikazio-egintzan parte hartzen duten osagaiak sei dira. Lehenago ere aipatu ditugu, baina ikus ditzagun orain lasaiago:

1.- **igorlea**: bidaltzailea, kode jakin baten arauen arabera mezua sortu duena, mezua leku batetik bestera eramatea gura duena; eramaile hori biziduna edo bizigabea izan daiteke.

2.- **hartzailea**: jasotzailea, mezua hartzen edo jasotzen duena. *Bihar emango dizut* aurrez aurreko testuinguru linguistikoan, mezuaren hartzailea *zu* da eta igorlea *ni*.

5. Johan Gottfried. (1995). *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua*. Klasikoak SA, Bilbo.

3.- **kanala**: zeinuak, mezuak edo informazioa igortzen diren bidea. Oinarri fisikoa dute kanalok: kable elektrikoa komunikazio telefonikoan eta telegrafikoan, papera komunikazio idatzian, uhin hertziarrak irrati-komunikazioan, airea berbazko komunikazio hurbilean.

4.- **kodea**: zeinuteria. Kodea seinale-sistema da, aldeztu aurretiko hitzarmen bat dela medio, egitatea irudikatzeko eta informazioa igortzeko erabiltzen dena. Kode linguistikoan, seinaleak soinuak dira; mortse-kodean, seinaleak inpulso elektrikoak dira; zirkulazio-kodean, seinaleak indizeak eta ikurrak dira. Zeinuteria osatzen duten osagaien kopurua mugatua da; eta, osagaiak berak eta beraien kopurua ez da aldatzen, erabiltzaileen akordioz ez baldin bada.

Euskararen alfabetoak hogeita zazpi osagai dauzka Euskaltzaindiak 1994an erabakitakoaren arabera, ez gehiago ezta gutxiago ere; eta, letra bakoitzak bere esangura du, eta hori bakarra da.


Errusieraren alfabeto zirilikoak hogeita hamahiru osagai dauzka.

5.- **mezua**: informazioa. Mezua kode ezagunaren bidez igortzearen operazioari, kodeketa deritzo; mezuaren zeinuak hartu eta interpretatzeari, deskodeketa.

6.- **erreferentea**: testuingurua. Zeinuteriaz kanpoko osagai komunikatiboa da, baina zeinuak haraxe hurbiltzen gaitu. Zertaz hitz egiten dugun, horixe da erreferentea. Hizkuntza guztiek ez dute egitatea edo gertakizuna berdin *ikusten*; erreferentea ez da egitatea bera, hizkuntzaren ikuspuntutik irudikapena baino. Egitateaz kodeak egiten duen *itzulpena* da erreferentea.

Ikus ditzagun adibide bi:

<p>balizko egitatea</p> 	<p>egitatearen irudikapen linguistikoa</p> <p><b>zuhaitza</b> <b>tree</b> <b>árbol</b> <b>дерево</b></p>
---	--

<p>egitatearen irudikapen linguistikoa</p> <p><b>ahizpa</b> <b>arriba</b></p> <p><b>hermana</b></p>	<p>balizko egitatea</p> 
---	--

Baldin eta egitatea marrazki horiek balira, hizkuntza natural bakoitzak bere erreferentea edukiko luke errealitate horren gainean.

Berba-kode batean, lehen marrazkiak *zuhaitza* ekar dezake gogora, beste batean *tree*, hirugarrenean *árbol*, *derevo* laugarren batean; berba-kode bakoitzak *bere* erreferentea du.

Bigarren adibidean, errazago ikus dezakegu, agian, erreferentearen ideia. Marrazkia *irakurtzerakoan* euskarak erreferente desberdin bi dauzka egitate bera-entzat –ahizpa/arreba–; gaztelaniak, esate baterako, ostera, bakarra –hermana–.

### 1.2.2. Informazioa, erreminta

Komunikazioaren lehendabiziko definizioa eman ostean, informazioaren txanda heldu da orrialde hauetara. Komunikazioa eta informazioa eskutik daude lotuta, ez dugu bata bestea barik ulertzen, bata bestearen bidea da eta. Informazioa komunikazioaren erreminta da.

Testuen, irudien edo soinuen bitartez horien jasotzaile edo hartzaile denari ezagutarazten zaion oro da informazioa. Datuak interpretatzearen eta prozesatzearen ondorioz lortzen den emaitza dugu informazioa.

Pertsonen arteko harremanetan, nola ofizialetan hala pribatuetan ere, informazioa dugu harreman hori ahalbidetzen duena. Ofizialetan, esate baterako, legeak edota inprimakiak dira harreman hori arautzen duten erreminta informatiboak. Intimoetan, jarrera bat, berba bat, abesti bat edota begiratu bat dira komunikazioaren erreminta, informazio.

Gizarte-ekintza ororen oinarrian dagoen komunikazio-prozesuaren muina, informazioa da. Gizarteak berak du informazioa aurrerapen ororen oinarri. Informazioaren historiak gizartearen historia dakarkigu gogora. Informazioaren garapena gizartearen garapen ekonomikoak, politikoak, sozialak eta kulturalak baldintzatu dute.

#### 1.2.2.1. Informazioa historian

Gizakiak bezainbeste dirau informazioak munduaren azal gainean.

Ez da gure helburua gizarte eta zibilizazioen historia hemen laburbiltzea, baina azken bi mila urteotako Europari begiratzea nahikoa dugu, informazioak gure gizartearen bilakaeran eduki duen presentziaz konturatzeko.

Erroma zaharrean informazioa zerbitzu publiko legez ezagun zen. Kristo aurreko bigarren eta lehen mendeetan, Erromako plazetan arrunta izan ei zen, informazio militarra eskaintzen zuten oholtxoak aurkitzea. Historiak gorde duen informazio publiko-ofizialaren lehen agerkundearen lekukoak dira oholtxo horiek.

Julio Zesarren garaian, Kristo baino hirurogeiren bat urte lehenago, politikari profesionalak arduratu ziren albisteak ahorrak aho hedatzeaz, iritzi publikoa sortzeko. Julio Kaio Zesar, alderdi popularreko politikarien propagandari esker, 65. urtean *kuestor* izendatu zuten, 63an *pontizipe* eta 62an *pretor*. Informazio propagandistikoa datorkigu burura kasu horretan.

Erdi Aroan, V.-VI. mendeen garaian, literatura-genero bereziak sortu ziren eta berauek hartu zuten informazioa hedatzearen ardura. Ezagunak dira, gaur egun, garai hartako jostako kantuak: *Chanson de Roland* edo *Cantar del Mio Cid*. Informazioa, pertsuasio nazionalistaren oinarri legez agertzen zaigu horietan.

618. eta 959. urte bitartean, Europa gaingitu eta ekialde urrunera jauzi eginda, Txinan, T'ang dinastiaren garaian, eskuizkribuzko albisteen kopia-zerbitzuek modu erregularrean zihardutela, jakina eta ezaguna da gure artean. Txinatarrak, informazioaren garapen- eta hedapen-lanetan europarrak baino goiztiarragoak izan dira beti: zelanbaiteko inprentaren bitartez egin eta ezagutzen den lehen liburuak, XI. mendean ikusi zuen argia hango lurretan.

Monarkia absolutuaren garaian, bigarren mailako idazleek txostenak egiten zituzten hiriburuan gertatzen zirenei buruz, kortetik urrun bizi ziren jauntxoei igortzeko, horien berri izan zezaten. XVII. eta XVIII. mendeetako kontua da hori. Informazioaren lehen profesional europarrak ditugu gogoan pasarte honetan.

Aurkikuntza geografikoen mendeetan, XVII. eta XVIII. mendeetan, informazio-gune garrantzitsuak sortu ziren portu handietan eta hiriburu nagusietan: Sevilla, Venezia (non barkuek ekarritako albistek *avvisi* izena hartu baitzuten), Londres edota Alemaniako feria-hiriak (non azoka-iragarkiei *zeitungen* izena eman zitzaion). Informazio politiko-profesionalduari informazio ekonomikoa erantsi zitzaion.

Inprenta modernoaren asmakuntza entzutetsuak ezarri zuen jauzi koalitati-boaren muga informazioaren munduan. Hori baino lehenago, informazioaren zabalkundea mugaturik zegoen, kopiak egiteko beharrezkoa zen denbora luzearen kausaz (monasterioetan gordetzen diren zenbait liburu, eskuz egindako kopiak dira; haien orrialdeetan artearen gorengo maila aurkitzen du edonork, baina edonork daki ehun kilotik gorako paper edertu horiek ekoiztea, behar handiko zeregina zela, eta edozeinek ikus dezake komunikazio idatziaren igorpena astuntzen zutela). Gutenberg-ek XV. mendean jarri zuen martxan bere tipografia, sekulako iraultza ekarri zuena kopiagintzaren mundura eta, bide batez, informazioaren garapenera, zabalkundea erraztu baitzuen.

Lehen egunkariak, egunerokotasun erregularrez argia ikusi zuten lehen paper inprimatuak, XVIII. mendean jaio ziren, Gutenbergen asmakizuna patentatu eta hiru mende beranduago. Horien arteko lehenak *Daily Courant*, *Le Journal de Paris*, *American Daily Advertiser* eta *Diario de Barcelona* ditugu.

Egunkaria XIX. mendean heldu zen masetara; gizateriaren historiari begiratuta, lehen hedabide masiboa egunkaria bera dugu. Mende horretako iraultza industrialak bere baitan hartu zuen kazetagintza eta Mundua albiste-merkatu bilakatzen hasi zen.

Konturatuko zinenez, arin-arin aipatu ditugun garaioetan, informazioa botereagaz egon da lotuta bere jaiotzatik bertatik. Informazioa eta propaganda bat izan dira hasiera-hasieratik, baina batez ere *bat*, informazioa eta boterea izan dira hasiera-hasieratik. Informazioa ez da neutrala izan aipatu ditugun garaioetan;

informazioa giza portaerak bideratzeko erabili den erreminta izan da eta halaxe izaten segitzen du. Gauzak horrela izan direla eta badirela ikusteko, oso urrun joan barik, nahikoa dugu hurrengo hau kontutan hartzea:

- \* Erroma zaharreko oholak agintari militarren esku zeuden.
- \* Julio Zesarren garaiko ahozko informatzaileak politikariak berak ziren, beren propaganda lau bazterretara hedatzen zutenak.
- \* Erdi Aroko jostako kantuek heroi nazionalak sortu gura zituzten, naziotasunaren lehen erreibindikazioak betetzeko.
- \* Monarkia absolutuaren garaian, gortesauen idazkariak idazten zuten gortesauentzako informazioa.
- \* Aurkikuntza handien garaian, merkataritzak kontrolatu zuen kolonietatiko informazioa.
- \* XVIII. mendean, burgesiak eta aristokraziak egin zuten *beren* informazioa.
- \* XIX. mendean burgesia industrialak hartu zuen bere gain informazioaren kontrola.
- \* XX. mendeko adibideak ugariak eta ezagunak dira. Gaur egungo informazioaren jabegoa nortzuen eskuetan dagoen ikusteko, nahikoa dugu begiak zabaltzea eta, esate baterako, Golko Pertsiarreko gerrari buruz gure artean hedatu den informazioa begi kritikoz ikusten hastea, hots, nork *egina* eta *zabaldua* den ikusten hastea.

#### 1.2.2.2. Informazioa gaur eguneko munduan

Kontrolaren eta boterearen ideiaz segitzen dugu. Botere-egiturek informazioa kontrolatzeko eduki duten eta, egun daukaten borondatearen eskutik jaio dira, munduan gertatutakoaz informazioa lau haizetara hedatzen duten albiste-agentzia guzti-guztiak. Albiste-agentzia horiek dira, ez dudarik izan, informazio mundiala botere-egitura politikoen eta finantzieroen nahikarietara makurtzen duten komunikazioaren gainegiturak.

Informazioa haundika kontrolatzeko lehen ahaleginak XIX. mendekoak dira, burgesia industrialak mundua bere ekoizpenez bete behar zuela deliberatu zuen garaikoak.

Albisteak zabaltzeko, usoak, seinale optikoak eta zaldi bidezko korreoak erabili ziren; baina albiste-agentzien benetako garapena eta, garapenagaz batera, kontrola, teknologiak ekarri zuen: telegrafiak.

Lehen albiste-agentziek aurreko mendearen azken urteetan ikusi zuten argia:

- Associated Press 1848. urtean sortu zen Ameriketako Estatu Batuetan.
- Wolff etxeak 1849. urtean zabaldu zituen bere ateak Alemanian.
- Reuter etxea 1851. urtean jaio zen Britainia Haundian.

Mundua merkatu-interesen arabera partitzeko, koloniatan eta jabegoetan banatzeko, hiru agentziok 1870. urtean hitzarmena izenpetu zuten elkarrekiko konpetentzia ekidinez.

Partiketa geoinformatibo hori, garai hartako Estaturik indartsuenen interes ekonomikoen arabera egin zen. Partiketa horrek informazioa esku gutxi batzuetan biltzea ahalbidetu zuen eta ahalbidetzen du gaur egun ere; munduaren informazioa sortu, igorri eta hedatu egiten duten albiste-agentziak gutxi dira, gutxi baitira *munduaren jabe*:

- ◇ REUTER: Commonwealth-en batzorde para-estatalak kontrolatzen duena.
- ◇ ASSOCIATED PRESS: New York-eko egunkaririk indartsuenen kontrolpean.
- ◇ FRANCE PRESSE: Frantziako Asanblada Nazionalak emandako diruari esker bizi dena.
- ◇ ITAR-TASS: Errusiako agentzia estatala.
- ◇ UNITED PRESS: agentzia pribatua.

Mundu-mailako monopolio konpartitu horri aurre egiteko, eta albiste-agentziok duten informazio-kontrolaren garrantziaz jabeturik, estaturik gehienek beren albiste-agentzia propioak sortu dituzte mugaz barruko informazioa kontrolpean edukitzeko, kanpokoa ezin-eta.

Estatalak izanik, munduan beren lekua egin dutenen arteko garrantzitsuenak hauexek dira:

- ◆ R.A.V.: albiste-agentzia islamiarra.
- ◆ TXINA BERRI: Txinako albiste-agentzia estatala.
- ◆ EFE: Espainiako agentzia estatala.
- ◆ PRENSA LATINA: Kubakoa.

Informazioa erreminta da. Informazioa komunikazioaren erreminta da, mantendu gura den motako harremanerako erreminta; informazioa, informazio publikoa, masa-komunikazioarena, gutxitan da desinteresatua.

Informazioa nolakoa, harremana edo komunikazioa halakoa. Boterezko harremana gura baldin bada, informazioa menperatzailea eta alienatzailea izango da; berdintasunezko harremana gura baldin bada, informazioa integratzailea izango da.

Badakizu, lortu gura denaren arabera transmititzen da informazioa; ez egitea bera edota gertakaria, horien irudikapen interesatua baino.

### *1.2.3. Masa-komunikazioa, prozesu soziala*

Masa osotasun bat da, tamaina handikoa. Itsasoa ur-masa erraldoia da, basoa zuhaitz-masa da. Pertsona-multzo handia, era berean, masa da.

Zer dugu, baina, masa-komunikazioa?

- ⇒ Handika egindako informazioaren ekoizpena eta igorpena.
- ⇒ Hedabide interpersonal eta instituzionalizatuen bitartezko (egunkari, liburu, irrati, telebista, zinema, kartel, plakat...) informazioaren igorpena da masa-komunikazioa.

Masa-komunikazioan igorle- eta hartzaile-eginkizunak giza komunikazio pertsonaletik apartatzen dira; igorlea eta hartzailea ez dira elkarren ezagun, nahiz

eta elkarren beharra duten; masifikazioak *ezezagutza* areagotzen du komunikazio-prozesuan<sup>6</sup>:

- masa-komunikazioaren kasuan, **igorlea** erakunderen bat izan ohi da: egunkaria, irratia edota telebista;
- **hartzailea**, ostera, multzo heterogeneo handia, kulturari eta bizimoduari dagokienez homogeneo bihurtzen doana, hala ere.

Masa-komunikazioa gizartearen testuinguruan ulertzen dugu. Masa-komunikazioak giza komunikazioa –pertsonala– gainditu egiten du, gainean jartzen da eta, zenbait kasutan, berori oztopatzen du, ordeztu ere bai, inoiz.

Prozesu sozialak pertsonala ordezkatzeko du. Gaur egun, sinesgarritasun handiagoa dio gizarteak –masak– hedabide erraldoiek munduaz diotenari, informatzaile partikularrek, inoiz familiakoek, diotenari baino.

Prozesu sozial erraldoi horretan, ezezaguna zaigu etxeko eta bertokoa kanpoko; etxekoari informazio-iturri izatea ukatzen diogu eta, ostera, kanpokoari ate guztiak zabaltzen dizkiogu.

Prozesu sozialean, goldeak aitzurra ordezkatzeko du; handiak txikia iluntzen du. Prozesu sozialean, masak miresmena zor ei die erakunde sozialei eta horien menpeko bailitzan funtzionatzen du.

Prozesu sozialean, informazioa (eta ez egitatea edota gertaera, ez nahastu terminoak) erreminta soziala da. Prozesu sozialean, informazioa goldearen erreminta da, handiarena, txikia iluntzen duen horietakoa.

Prozesu sozial horretan, boteretsuaren informazioak menpekoaren egitatea iluntzen du, ordezkatzeko du. Informazio *interesatuak*, egitate *desinteresatua* ordezkatzeko du.

Masa-komunikazioa, hartara, handika egiten dena da, igorlearen interesen arabera funtzionatzen duena, egitate eta gertaera batzuk informazio bihurtzen dituena. Masa-komunikazioa, hartara, mirestua eta ordezkatzailerak da.

### **1.3. Masa-komunikazioaren berbaldia**

*Entzulego heterogeneoari eta anonimoari eduki sinbolikoak helarazteko talde espezializatuek, bai publikoek baita pribatuek ere, darabiltzaten teknika berezien bidezko komunikazioa, zuzena edo agerikoa, da masa-komunikazioa* <sup>7</sup>.

Masa-komunikazioan, beraz, espezializazioa dugu: igorleak *igorle* dira eta hartzaileak *hartzaile*, funtzioak trukatzetik ez dago; igorle-igorlea erakundeak da (pribatua zein publikoa) eta hartzaile-hartzailea publiko anonimoa. Igorle-igorlearen eta hartzaile-hartzailearen arteko harremana teknika komunikatibo berezietan oinarritzen da, harremana –komunikazioa– profesionalizaturik dago eta espontaneitatekin urrun.

6. Denis McQuail. (1991). *Introducción a la teoría de la comunicación de masas*. Paidós, Bartzelona.

7. Teresa Velázquez. (1992). *Los políticos y la televisión*. Ariel Comunicación, Bartzelona.

### 1.3.1. Egitatea albiste bilakatzen da

Hedabideak dira, gaur egun, berbaldi sozialaren eraikitzaile eta ekoizle; hedabideotako profesionariak dira egitate sozial horretako aktore. Hedabideetako profesionariak eraikitzen dute errealitatea, egitateetan eta gertaeretan (inoiz gezurretan ere) oinarriturik.

Errealitate sozial horren eraiketak balore sozialak, sinismen komunak eta iritzi publikoak sortzen eta finkatzen ditu entzule edo hartzaileen artean, berbaldi hori kontsumitzen dutenen artean.

Egitate batzuk albiste mailara heltzea, egitate horiek adierazkorrak izatea, den-denek ezagutzeko moduko balioa edukitzea, hedabideetako profesionarien eskuetan dagoen *dohaina* da.

Egitate batzuk *albiste* bilakatzea eta beste batzuk, ostera, ahaztea edota informazio-kategoriarik ez irabaztea, komunikazioaren profesionariak erabakitako gauza da eta ez egitateei berei dagokien ezaugarria.

Egitate eta gertaerak albiste bilakaztea ez da lan hutsa, ezta manipulazio arrunta ere; egitateak albiste bihurtzea botere-egintza da, ordena instituzionalak eta hedabideek batera burutzen duten botere-egintza garrantzitsua. Hedabideetako profesionariak boterea ejerzitatzen dute, boterean dihardute.

Botere-jarduera hori ez da beti bera izaten hedabide guztietan. Egitateak eta gertaerak, albistearen kategoria irabazi dutenean, modu desberdinez erakusten dira, hedabide bakoitzak bere erara erakusten du, hedabide bakoitzak *bere erara* ulertzen du *bere errealitatea*.

Hedabideetako berbaldiaren helburu nagusia ondokoa da: albiste-kontsumitzaileari *bigarren eskuko errealitatea* eskaintzea.

### 1.3.2. Errealitatea barik, errealitateak

Aski eztabaidatua den kontzeptua dakargu orrialdeotara. Ekartze honen bitartez ez dugu agortu gura eztabaida, ezta gutxiago ere. Argi pixka bat egin gura genuke eztabaida honetan, *geure* argia besterik ez bada ere.

Errealitateaz berba egiterakoan, egin dezagun berba errealitate biri buruz, izenda ditzagun errealitateok *1-errealitate* (E1) eta *2-errealitate* (E2) modura.

#### **E1: egitateak gertatzen diren espazioa**

Pertsona bakoitzak bere erara hautematen ditu bere inguruko egitateak. Nork bereak diren irudikapenak dauzka egitateez; egitateak irudikapenak dira gizabanakoarentzat. Irudikapen horiek, jakina, ez dira egitatea, egitate horren eredu bat, irudi bat baino. Irudikapen horiek osatzen dute norberarentzako errealitatea, ez egitateek berek.

Ordezkapen-prozesuaren azken muturra da errealitateak eraikitzea. Egitatea ez baina, errealitatea eraikia da, amestua. Irudikapenak egitateekaz nahasteko joera dugu; hala ere, izatez, diferenteak dira. Irudikapenak gizakiarenak dira;



egitateak, ostera, munduari dagozkio. Egitate baten lekuko izatea, haren lehen eskuko irudikapenaren jabe izatea da, ez besterik. Egitate bat kontatzea, eraikia izan den errealitateari buruz berba egitea da. Egitatea berben, soinuen eta irudien bidez kontatzea da informatzea; kontakizuna da informazioa, inola ere ez egitatea. Berrito diogu: egitatea munduarena da; informazioa gizakiarena. Alabaina, munduko egitate guztiak ez dira informazio.

Norberarena den errealitate horretan, eraikia den errealitate horretan, osagai objektibo eta subjektiboak aurkitzen ditugu.

Errealitate objektiboa gauzen ezaugarri fisiko konprobagarrietz berba egitean aurkitzen dugu, gauzen azterketa esperimentalen eta egiaztagarrien bidez froga daitezkeen ezaugarri fisikoez berba egiten dugunean.

Lege subjektiboek eta arbitrarioek, hots, gauzez eraikitzen diren interpretazio indibidualak, osatzen dute errealitatea.

Hartara, gauzen egitasuna sinismenen arabera izan ohi da.

## **E2: komunikatuak diren errealitateen espazioa**

Beraz, espazio bat da, egitateena. Gure testuinguruan ez da espazio bakarra, ordea.

Hedabideek publiko egiten duten diskurtsoa, egitatez osatutakoa barik, errealitatez osatutakoa da; esan gura da, profesionariek komunikatzen dutena beren errealitate objektiboan eta subjektiboan oinarritutako eta eraikitako mezuak direla. Profesionariak errealitateak kontatzen ditu, informatzen duenean bere irudikapenak kontatzen ditu.

⇒ Beraldi komunikatuak ez dira egitateak, egitateen irudikapenak baino.

Profesionariek errealitate batzuk komunikatzen dituzte; beste batzuk, tintontzian gordetzen dituzte; inoiz gezurrak komunikatzen dituzte.

Hedabideek berek ere pertsonak legez funtzionatzen dute: sinismenen arabera; beraz, hedabideek, sinismenen arabera, beren errealitateen berri ematen dute. Errealitatea diogu, ez egitatea.

Hartzaileak, albiste-kontsumitzaileak E1 (alegia, lehen espazioko egitatea) hartu barik, E2 (hots, bigarren espazioko elementua, errealitatea) hartzen du. Albiste-kontsumitzailea bigarren eskuko errealitateaz elikatzen da, iragazkitik eta galbahetik igarotako *errealitateaz* elikatzen da.

Ogi zuriagaz eta osoagaz gertatzen dena gertatzen da albisteekaz: zuria *gozoagoa* omen da, iragazkitik eta galbahetik igarota; beltza *osoagoa* da, iragazkian eta galbahean berea den ezer utzi ez duelako.

Gure eskuetara heldu diren informazioak zenbatgarren eskukoak diren galdetu beharko genioke gure buruari, ezer sinestu aurretik. Informazioak berezkoa duen galbahean zer ahaztu duen jakin beharko genuke ezer baino lehen.


albistearen komunikazio-prozesua eskeman:

Ikus dezagun modu grafikoan arestian esandakoa:

E1 = egitateak gertatzen diren espazioa

E2 = komunikatuak diren errealitateen espazioa

En = albiste-kontsumitzailearen interpretazioen espazioa



#### 1.4. Hedabideak gizartearen eratzaille

Mitologiaren eta errituaren sortzaile dira, gaur egun, hedabideak; albisteak hedatzeaz gain, eta masa-komunikazioan diharduten bideek mundua ulertzen laguntzeaz gain, mundua bera eratzen ere laguntzen dute.

##### 1.4.1. Albisteen errituala

Gure gaur egungo *mundu zibilizatuan*, pertsonaren erritoetariko bat albisteen kontsumoa dugu. Goizean egunkaria zabaltzea, autoan bidaiatzean irratia entzutea, edota iluntzean etxeratzean telebistako albistegia ikustea, errito horren pasarte jakinak dira.

Erlijioetan gertatzen denaren antzera –demagun kristau-ohituran domekero mezatarra joatea eta ondoren sermoia komentatzea–, hedabideen mezua aldi oro entzuten da eta entzundako horrek ematen du lagunartean berba egiteko giltza edo bidea. Sermoian esandakoa komentatzen den moduan komentatzen dira, lanera heldu bezain laster, lankideen artean, autobusean entzundako partearen albisteak.

Egunaren jarduna markatzen digute gaur egun hedabideek. Hedabideek markatzen dituzte egunaren atal nagusiak. Jende-mota batek albistegiaren arabera banatzen du eguna, beste batek magazinatan, inork filme eta nobeletan; kontua honako hau da: hedabideen jardunak erloju sozialaren zeregina betetzen duela, hedabideek errutinak sortzen dituztela, hedabideek berbetarako ereduak ezartzen dituztela.

Kanpoko munduaz dakigun apurra, hedabideek esana dakigu. Munduaz dakigunaren iturri nagusia, hedabideak dira: zer gertatzen den, non gertatzen den, noiz gertatu den eta zergatik gertatzen den, hedabideek jakinerazten dute eta haiek jakineraziaz kanpo ezer gutxi gehiago jakin dezakegu. Munduaren abiadaren berri hedabideei esker, hedabideen bidez dugu.

Hedabideek mundua eratzen eta konformatzen laguntzen dute, gure elkarrizketetarako erreferente bilakatzen dira. Hedabideek albisteak kontatzeaz gain, –egitate eta gertakizun guztien artean zeintzuk diren albiste erabakitzen dutenez– munduan zer den garrantzitsua eta zer ez den esaten dute. Errepikapenaren ondorioz jendeak ikasi egiten du zer den handia eta zer txikia, eta, gero, horren arabera funtzionatzen du bere bizitza arruntan; hedabideek, beraz, informatzeaz gain gure buruak eratu eta konformatu egiten dituzte eta gure pentsatzeko erak eta moduak sortzen dituzte; hedabideek munduaz informatzeaz gain, mundua bera eratzen dute.

Erritoak, erritmoak eta errutinak sortzen dituzte hedabideek; testuinguru horretan, liturgia bera garrantzitsuagoa bilakatzen da, liturgia hori sortzeko erabilitako pentsamendu sakona baino.

##### 1.4.2. Hedabidea ez da ispilua

Jakina da, edo beharko luke izan: hedabideek ez dute modu neutralean igortzen informazioa, ezin dute-eta. Hedabideek, presio-taldeak eta komunikazio-

profesionariak medio, informazioa prestatu eta landu egiten dute.

Hartara, hedabidea ez da egitatearen ispilua. Ispiluak ez du erabakirik hartzen, hedabideek bai ostera. Erabaki horien oinarrietan, besteak beste, helburu politikoak, denbora mugatua, profesionarien eskua eta baliabideak daude. Ispiluak bere aurretik igarotzen den oro islatzen du; hedabideak ez, ezin du eta.

Hedabidea ez da leihoa. Leihotik begiratzean ikusten duguna, gertatzen ari dena da. Gertatzen ari den hori ez dugu guk erabaki. Baina hedabideek erabaki egiten dute, ez gertatzen dena (sarri askotan baita hori ere), gertatzen denaz esan beharrekoa baino, erakutsi beharrekoa.

Arestiko adibidera itzulita, erlijioagaz gertatzen zaigun berbera gertatzen zaigu informazioagaz. Erlijioak *errealitate* baten ikuspuntu bat erakusten du. Errealitate jainkotiar hori, erlijio desberdinek *desberdin* ikusten dute; errealitate jainkotiar hori fededun ez direnentzat egon ere ez dago, ez da existitzen. Hedabideek egitate eta gertaeren ikuspuntu bat ematen dute. Egitate edota gertaeren ukigarri eta begi-bistakoa den hori modu desberdinean *ikusten* dute hedabide desberdinek. *Errealitate hori horrelakoxea* da hedabide horren *fededuentzat*; fede hori miresten ez dutenentzat errealitate hori existitu ere ez da egiten.

Jar ditzagun adibide bi:

- ⇒ Maria, Kristoren ama. Kristoren ama izateaz gain, birjina ere badela sinesten dute kristau katolikoek. Europako ekialdeko eliza kristau batzuek ez dute birjintasun horretan sinesten, nahiz eta Maria Kristoren ama dela onartzen duten. Agnostikoentzat, ostera, arazo hori ez da existitzen; arazo horrek ez du lekurik agnostikoen bizitzan, ez du tokirik eskatzen beren arduren artean.
- ⇒ Torturak kartzeletan. *Egin* egunkariak tortura Estatuaren politika errepresiboaren ondorio dela uste du. *El Correo* egunkariak kartzela barruko kolpe eta jipoi horiek presoen probokazioen ondorio direla. *ABC* egunkariak ez du arazoa aipatu ere egingo.

Hedabideak, beraz, ez dihardu ispilu edota leihoaren antzera. Hedabideak bere modura eta erara ikusten eta kontatzen du bere begien aurrean gertatu denetik interesgarrien iruditu zaiona. Hedabideak bere antipar propioez ikusten du mundua.

#### 1.4.3. Zer gelditzen da albisteetatik?

Gogoetarako ordua ere badugu. Hedabideek zer kontatzen duten badakigu, jakin; eta, kontatutakoez, zer gordetzen dugun? Hedabideen jardunetik oraimen kolektiboan zer gelditzen den? Ikus ditzagun zenbait adibide:

- ◆ EEBB, 1977. urtea. Inkesta batek bezperako albisterik garrantzitsuena zein izan zen galdetu zuen telebista-ikusleen artean. Emaitzak ondoko hauek izan ziren:  
%26ren ustez, bezperako albisterik nagusiena, ondoen gogoratzen zutena, hilketa bat zen.

%13ren ustez, albisterik nagusiena bezperan erakutsitako hondamendia izan zen. %5en iritziz, Carter presidenteak Nazio Batuen aurrean irakurritako txostenean esandakoa.

%3ren arabera, Kanariar irletan gertatutako hegazkin-istripua zen bezperako albisterik nagusiena (istripua, egia esan, astebete lehenago gertatua zen; baina, bezperan gertatu izan bailitzan gogoratzen zuten).

%2k Gandhi anderea gogoratzen zuten bezperako albisteetatik.

%1ek Zaireko eraso tribalen bat zeukan gogoan.

- ◆ Espainia, 1987. urtea. Inkesta batek azaroko albisterik garrantzitsuenaz galdetu zuen. Hona hemen emaitzak:
  - %58,3ek Banesto-Bilbao bankuen fusioaz berba egin zuen.
  - %52,2ek Melodi Natachian abeslari famatuaren alabaren bahiketa eduki zuen gogoan.
 Hilabete horretan, besteak beste, ondoko hauek guztiak ere gertatu ziren:
  - Estatu Batuek eta Soviet Batasunak goi-bilera bat egin zuten, desarme nuklearraz eta gerra hotzaren amaieraz berba egiteko.
  - Haitin, hauteskundeen ostean, sarraski politiko izugarriak gertatu ziren.
  - Kamtxatkan, hegazkin korear zibil bat -747 bat- tirokatu eta bota egin zuten hegazkin militar soviatarrek.
  - Cristina Almeida abokatua detenitua izan zen Espainian.
- ◆ Finlandia, 1972. urtea. Inkesta batek, garai hartan, Ekialde Hurbilean, borrokan zihardutenak nortzuk ziren galdetu zuen, hamabost urtetik gorakoen artean. Inkestatuen arteko %90ek irratiz edo telebistaz egunean gutxienez albistegi oso bat entzun edo ikusten zuela adierazi zuen; hala ere, inkestatuen arteko %38k bakarrik jakin zuten Ekialde Hurbilean nortzuek ziharduten tiroka.
- ◆ Espainia, 1988. urtea. Telebista-ikusleen arteko %70ek albistegiak beharrezkoak zirela adierazi zuten. Inkestatu horien arteko %50ek, hala ere, ez zuten bezperako albisterik gogoratzen.

*- Zertaz informatzen da? Hedabideek ez al dakite informatzen? Emaitza horiek bilatzen al dira informazioa taxutzerakoan?*

\* Albisteen erritualak liturgiaren barne-zentzua ezkututzen du. Errutinak berbaldi informatiboaren balio berezkoa ezkutatu egiten du. Hedabideek entzulego izutua igurikatzen dute.

\* Hedabideek erakusten diguten mundu horretaz, oso irakurketa partikularra egiten du informazioaren kontsumitzaile arruntak.

\* Gure inguruko mundu txikitik aparteko beste mundu horri *sekulakotasuna* eskatzen diogu kasu egiteko, buruan gordetzeko, oroimenean lekutxo bat aitortzeko.

Zertan datza, bada, hedabideen garrantzia? Zer dela-eta dira hedabideok gure bizimoduan presente dauden erakundeak? Hedabideen benetako garrantziaz konturatzeko gogoan hartu beharreko puntuak ditugu hurrengoak:

- 1.- Masa-hedabideak gorantz doan industriaren partaide dira.
- 2.- Masa-hedabideak instituzio dira *per se*, beren lege eta araudiak sortzen dituztenak. Erakunde hauek gainerako erakundeekaz erlazionatzen dira beste bat gehiago bailiran. Hedabideek hitanoan dirautsee gainerako erakundeei.
- 3.- Masa-hedabideak kontrol sozialerako baliabide indartsuak dira. Gizartearen beraren konformazioan eta eraketan partehartze zuzena dute.
- 4.- Masa-hedabideak gizarte-egitateen irudikapen bateratzaile eskaintzen dio egitateak sortu dituen gizarteari berari.

### **1.5. Kultura, komunikazioaren jario etenbakoa**

*Kultura* era honetan defini daiteke: espazio geografiko jakin batean bizi den talde bateko partaideek konpartitzen duten ohitura-multzoa, aztura-piloa. Bestalde, egungo ohituretan, eragin zuzena dute hedabideek, harreman sozialek, pertsonalitate jakinen proiektioek, eta taldekideek beren buruez eta gainerakoez dituzten ideiek eta usteek.

Kultura, jendeak dituen sinismenen eta portaeren arabera garatzen da, eta sinismen eta portaera horiek, jakina, elkarri komunikatu beharrekoak dira. Etxearen diseinua, diruaren sistema, janarien ohiturak... pentsaezinak dira norberak zer pentsatzen duen eta zelan sentitzen duen azaltzeko beharrezkoa den truke komunikatibo barik.

◇ Kultura komunikazioa da. Komunikazioa kultura da.

Kultura aktiboa, edo bizia, taldekideekaz egunero garatzen den horixe da. Harremanezko garapen horren oinarrian, truke komunikatibo horren oinarrian, elkarrekintza edo interakzioa dugu. Interakzioak igorlearen eta hartzailearen beharra du. Kultura bizi hori abian jartzen duen organismo biren arteko trukea da elkarrekintza edo elkarreragina.

- Robinson Crusoe-k ez zuen kulturarik garatu Friday-gaz batu arte. Robinso- nek bere ohiturak garatu zituen, baina Friday-gaz trukatu arte, ez zuen kulturarik garatu.

Kultura *komunikazioa* baldin bada, elkarreraginean oinarritutako prozesua baldin bada, ekintza dinamikoen “continnum”a da. “Kontinnum” edo jarraitasun horretan, komunikazioak bermatzen du zeinu-sistemak ulergarri izatea.

#### **1.5.1. Komunikatzaileak kultura berriaren sortzaile**

Gaur egun, hedabideak dira komunikazioa, zentzurik zabalenean hartuta, dominatzen duten erakundeak. Komunikazioaz berba egitean, gaur egun, hedabideen komunikazioaz berba egiten dihardugula konturatzen gara. Eta, konturatu, konturatu egiten gara eta ikusi, ikusiegiten dugu ezen komunikazioan oinarritutako kultura osoa gero eta gehiago oinarritzen dela komunikazioa ulertzen hasita gauden eredu horietan, alegia, hedabideek zabaltzen dituzten horietan.

Horretara, komunikatzaileak, komunikazioaren profesionariak berak dira, gaur geroz, kulturaren nondik-norakoak ezartzen dituzten indibiduo espezializatuak.

Pentsamenduaren ugazaba modernoak dira orain masa-komunikazioan diharduten profesionariak. Masa-hedabideetako profesionariak baztertu egin dituzte intelektual klasikoak eta hauen lekua eskuratu dute ezagutzaren aldrean.

Intelektual klasikoek ez dute unibertsitate-espezialitateetan sakabanaturik dauden zientzia espezialduen ezagutza jakin bakoitza eskuratzetik; eta, unibertsitate-zientzia espezializatu bakoitzean hezitako teknikari berriek ez dute ezagutza orokorraren osotasuna eskuratzetik. Esan gura baita, alegia, ezagutza orokorraren jabe beharko lirakeen intelektualak kanporatuak izan direla zientzia tekniko berrietatik eta, kontrara, ezagutza zientifikoetan eta berrietan trebatutako teknikariak ez direla heltzen humanismoa bere osotasunean ulertzera, edota testuinguru oro-hartzailearen ikuspegitik atzematera, konprenitzera. Apartekoak diren mundu bi horien arteko zubi-lana masa-komunikatzaileak egiten du gaur, fortuna gutxigaz egin ere.

Gizartea gero eta teknokratagoa bilakatzen ari da zientzia eta teknologia berriak direla-eta; elite intelektual berria sortzen ikusten ari gara teknokrazia horien baitan. Masa-komunikazioaren barruan, zubigintzan beraz, elite berria sortu da. Elite berriak bere lekua aurkitu du medioei esker eta elite kulturalak edo intelektualak baino indartsuago ari da bilakatzen gure begien aurrean, bere dohain bakarra profesionalen kontrola izanik.

Masa-hedabideetako kazetariak gero eta indar gehiago, gero eta zilegitasun handiagoa du ekoizpen kulturalak baloratzeko, gaitzesteko edota gorengo mailakotzat hartzeko. Masa-hedabideetako kazetariak berak ezartzen du, egun, moda kulturala, aztura politikoa, ohitura soziala edota irizpide ekonomikoa.

Masa-komunikazioa da gaur egun kultur-jario publikoaren oinarri. Komunikazio publikoak, masiboak, mediatikoak, ordezkatu egin du transmisio kultural klasikoa, eremu txikikoa, hurbilekoa, lokala, aurrez aurrekoa; eta, horren ordeztan, kanpokoa, zabala, arrotza, masiboa, globala ezarri du zenbait lekutan. Masa zabaletan, egun, kultur igorpen familiarrik ia ez dago. Kultur igorpen masiboak ilundu egin du transmisio klasikoa, belaunaldien artekoa. Lokalismoa desagertzean dago, baldin eta hedabide masiboek arretarik jartzen ez badute beren lanean. Lokalismoak ez du berme kulturalik izango, baldin eta hedabide masiboek aintzakotzat hartzen ez badute. Lokalismoak ez du aurrera egingo, baldin eta masek beren inguruko kultura *txikia* hedabideen ispiluan islatzen ikusten ez badute.

Egun, kultura hedabideen isla da. Gaur, amankomunean jartzen den kultura mediatikoa da. Zer da, gaur, *kultura* argitalpenetatik aparte, telebistatik urrun, irratitik at edota diskoetatik landa?

Hori horrela, hedabideetan diharduten profesionariak erantzukizun sozial aparta dute. Nahita, edo konturatzeke, joera kulturalak ezartzen dituztelarik, eredu berriak sortzen dihardute pulpitu publikoetatik, zenbait kasutan gainera, mediokritatean murgildurik, komunikatzaile profesional modernoek.

### 1.5.2. *Nora doa komunikazio mundializatua?*

Atal hau amaitzeko, azken berba batzuk komunikazioaren bihar-etziko jardunari buruz. Nora doa komunikazioaren industria mendearen bukaerako urteotan? Galderak ausartegia dirudi, ausartegia da, baina komunikazioaren munduak ausart izatea eskatzen digu. Komunikazio-munduaren zain dagoena berba apur-apurretan laburbildu beharko bagenu, hurrengo puntu hauek argi ederra emango ligukete:

- 1.- Informazio eta Komunikazio-Teknologien arloari dagokionez, merkatu horretan aditu direnek aurreratutako datuen arabera, hurrengo bost urteotan, alegia, 2000. urtera bitartean, mundu-mailako merkatua hamar aldiz biderkatuko da.
- 2.- Komunikazio eta Informazio-Teknologia berriek (faxes, bideoa, telefonia mugikorra, edota satelite bidezko telebista) ezinezko bilakatuko dute, bai Europan baita Asian ere, kultur protekzionismoa.
- 3.- Teknologia berrietan izugarritzko eragina edukiko dute, gaur artekoa gaindituta, Estatu Batuetako eta Japoniako enpresen ekoizpen erraldoiek.
- 4.- Informazio eta Komunikazioaren industria internazionalizatorantz, pribatizatorantz, komertzializatorantz eta kontzentratoreantz abiatzen ari da; joera horrek informaziorako hurbilketa justuagoak eta demokratikoagoak oztokatzen ditu.
- 5.- Gauzak horrela, hedabideen demokratizazioa beharrezkoa den zerbait da, eta edozein profesionarik erreibindikatu beharko luke demokratizazio hori, bere lana zerbitzu publiko moduan ulertzen badu.

Telekomunikazioa ari da bereganatzen datorren etorkizunaren lekuko izatearen bandera. Europako telekomunikazioa hurrengo hiru ezaugarri orokor hauek karakterizatuko dute laurogeita hamarreko urteotan:

- a) Europako Batasunak goi-definizioko telebistaren estandar europarraren ikerketa baztertu egingo du eta, dirudienez, bere egingo ditu eredu estatubatuarren telebista digitalerako.
- b) Multimedia-enpresetako kontzentrazioa gero eta nabarmenagoa izango da.
- c) Era guztietako hedabideen pribatizatorako urratsak gero eta bizkorragoak izango dira.

Kulturen arteko mugak ezabatuz doaz. Hedabideetan, produktu estatubatuarrek gero eta sarrera handiagoa dute<sup>8</sup>, telekomunikazioan katea pribatuek gero eta garrantzi handiagoa dute, publizitateak gero eta presentzia handiagoa du, eta kapital internazionalak gero eta esku indartsuagoa erakusten du. Europako Batasunerako ikusi ditugun joera nagusi hauek Asian eta Ekialdeko Europan ere aplikatu daitezkeela uste izatekoa da, jakina.

---

8. Estatu Batuek gero eta produktu gehiago esportatzen dute Europara: 1984. urtean 350 milioi dolar estatubatuar, 1989. urtean 3000 milioi.



Zer kultur-eredu datorkigu komunikazioaren mundializaziotik? Bada, kultura masifikatua, lokalismo bakoa, komertziala, internazionala, monetarista eta zuzendua.

### **erregu alternatiboa**

Arriskutsu dirudien panorama honi aurre egiteko, ezinbestekotzat jotzen du autore batek baino gehiagok bihar-etziko komunikazioan joera zuzentzaile hauek ezartzen ahalegintzea, hauek guztiok barik gaitza izango baita profesioan sinestu ahal izatea:

⇒ 1.- Beharrezkoa da Informazio eta Komunikazioaren esparruan erabakiak gero eta jende gehiagoren artean hartzea, kontzentrazioarako joerak ekiditeko eta hedabideak demokratizatzeko.

⇒ 2.- Bizitza pribatuaren babes bultzatu behar da, hedabideen erasoetatik aske eta libre.

⇒ 3.- Ipar-Hego edota Mendebalde-Ekialde desberditasunak areagotu ez daitezten, beharrezkoa da Estatu eta Nazio indargeei Informazio eta Komunikazio-Teknologia berrietarako sarrera erraztea.

### **1.6. Irakurgaiak**

Azkargorta, A. eta Xamardo, N. (1990). "Egia eta egiantzekotasuna: prentsa Euskadin" in *Uztaro*, 0. UEU, Bilbo.

Bateson et al. (1994). *La nueva comunicación*. Kairos, Bartzelona.

Iturriotz, A. (1991). "Komunikabideen eraginari buruzko ikerketa: ikuspegi historiko bat" in *Uztaro*, 3. UEU, Bilbo.

Mamou, Y. (1991). *Essai sur la fabrication de l'information*. Paris, Payot.

Swerdlow, J. L. (1996). "Informazioaren iraultza" in *Uztaro*, 17. UEU, Bilbao.

# **Bigarren atala:**

## **Giza komunikazioa, hastapenak**

### **2.1.- Seinaleen bidezko giza komunikazioa**

- 2.1.1. Ahoskatze-organorik eza
- 2.1.2. Komunikazio primitiboaren bereizgarriak
- 2.1.3. Pentsatzeko gaitasunaz

### **2.2.- Lengoia, giza komunikaziorako baliabide aurreratua**

- 2.2.1. Lengoaiaren funtzioaz
- 2.2.2. Lengoia eta gizartea
- 2.2.3. Lengoia eta pentsamendua

### **2.3.- Idazkera, informazioa finkatzeko tresna**

- 2.3.1. Piktograma idazkeraren oinarrian
- 2.3.2. Hieroglifikoa
- 2.3.3. Idazkera-sistema zaharrak
  - 2.3.2.1. Ameriketako sistemak
  - 2.3.2.2. Ekialde hurbileko sistemak
- 2.3.4. Idazkera logografikoa
  - 2.3.4.1. Mesopotamia
  - 2.3.4.2. Egipto
  - 2.3.4.3. Indus ibarra
  - 2.3.4.4. Kreta
  - 2.3.4.5. Anatolia
  - 2.3.4.6. Txina
- 2.3.5. Idazkera fonetikoa

### **2.4.- Irakurgaiak**

*“... ikerketa zientifiko bati ekiteko dokumentu idatziak eduki beharra kontutan harturik ere, aitortu beharko da idazketa aspalditik datorrela eta serie nahiko luzez hornitzen duela analisi matematikoa bideratu ahal izateko. Linguistika indo-europarrean, semitikoan eta txinatar-tibetarrean erabilgarri diren serieak, duela lau edo bost mila urte ingurukoak dira. Eta dimentsio historikoa falta denean –primitiboak deritzen hizkuntzetan– sarritan hori gaur egungo askotariko formen konparazioaren bidez erremedia daiteke, zeren eta horiei esker dimentsio espazialak, nolabait esateko, baliagarritasunez ordezkatzeko baitu falta den bestea.*

*Mintzaira, beraz, fenomeno sozial bat da, behatzailearengandik objektu independente bat gauzatzen duena, eta fenomeno horretaz serie estatistiko luzeak dauzkagu.”*

Levi-Strauss, C. (1996). *Antropologia estrukturala*. Klasikoak, SA, Bilbo.

## 2.- Giza komunikazioa, hastapenak

Zer komunikatzeko bide eta modu izan zituen gizakiak bere lehen urrats mundutarretan elkarri informazioa emateko? Itunari erantzuna ematen saiatzea da atal honen helburu nagusia. Zelan komunikatu ziren gure aurrekoak zer zein-motaren bidez esan zioten esan beharrekoa elkarri?

Gaur egun, erabat familiarra eta arrunta iruditzen zaigu informazioa gune batetik beste batera igortzea. Igorpen hori berehalako batean egitea ere beste munduko meriturik ez duen egintza dela juzgatzen dugu. Informazioa sortzea, igortzea, deskodetzea eta ulertzea, zerbait egunerokoa da egun, gizarte *aurreratuetan*.

Familiarra, arrunta eta ohikoa iruditzen zaigun horrek, hala ere, historia luzea dauka bere lepo gainean; informazioaren igorpenak eta komunikazioaren munduak historia luzea korritu dute gaur egunera arte. Garapenaren abiada ez da eten.

### **Paleoantropologia komunikazioaren hastapenetan.**

Paleoantropologoek aurkitutako aztarnen arabera, badirudi gaur egungo gizateriaren hastapenak 70 milioi urte lehenagoko aroan aurki daitezkeela. Diotenez, arratoiaren moduko animalia da gure aurre-aurreko ugaztuna.

Orduz gero, euria goian-behean, ezta?

Jauzi ikaragarri handia eginda, duela 5,5 milioi urte, egun Afrika deritzogun kontinente horretan, *australopithecus* espezieko animalia ibili zen. Afrikako hegoaldean agertu zen animalia hori, gaur egungo tximinoaren itxurakoa eta bipedoa ei zen, alegia, hanka biren gainean ibiltzeko gai zen tximinoa.

Hurrengo jauzi historiko batek gu baino 2 milioi urte lehenagora eraman gaitzake: *homo habilis* deitutakoaren garaietara, hain zuzen ere. Animalia horrek, aurrepertsone horrek, bere bizitzarako beharrezkoak iruditu zitzaizkion lehen tresnak egiten asmatu zuen.

*Gazteagoa* dugu *homo erectus* deritzona. Landutako sukarriz egindako tresnak garatu zituen, zutik ibiltzeko gauza zen gizaki horrek. Aurkitutako aztarnen arabera, zutik ibiltzen asmatu zuen *homo* horrek, guk baino 1,6 milioi urte lehenago ikusi zuen argia.

Ari gara, bada, hurbiltzen geure helburuetara.

*Homo-sapiens* gizaki adimentsuak, *neanderthalensis* deituak, Europako, Ertasiako eta Afrikako belardiak eta lurrak zapaldu zituen 125-130 mila urte direla.

*Homo sapiens-sapiens* benetan azkarra, *cro-magnon* deitua, atzo goizekoa da: 40-90 mila urte direla egin baitzuen jauzi mundura. Cro-magnonekoa gaurko gizakiaren antzekoa omen zen, itxura fisikoa eta burmuinaren betedura kontutan hartuz gero. Cro-magnoneko gizakia 70 milioi urteko garapenaren ondorio da.

*Eta, nola komunikatu da aurregizakia eta gizakia bera bilioika urte horietan?*

### **Garapenaren teoria komunikazioan.**

Informazioa sortzeko, igortzeko eta gordetzeko ahaleginak eragin zuzena eduki du gizateriaren garapenean. Argi guztien arabera, modu konplexuz eta zehatzez komunikatzeko, gizakiaren ahalmena eta nahia garatu egin dira denborak aurrera egin ahala.

Behin-behineko informazio puntualetik, gizakia komunikazio konplexuetara igaro da milioika urteko bidean aurrera eta aurrera eginda. Mitoak, kondairak, logika, ohiturak, portaerak... mendeetan eta mendeetan garatutako ibilbide komunikatiboaren ondorio dira.

Behin hasita, etenik ezagutu ez duen garapen horretan, seiren bat urrats eredugarri nagusitan bil dezakegu historiaurretik datorren olatu luzea:

#### 1.- Seinaleen bidezko komunikazioa.

⇒ Gizakiaren aurrekoek, pre-hominidoek, 5,5 milioi urte direla, garatutako eredu komunikatiboa dugu seinaleen aroa.

- Aurrehominidoek gainerako ugaztunak komunikatzen ziren moduan komunikatu ei ziren. Oihuek, garrasiek, orroek eta gorputz-atalen higidurek oso informazio primitiboa igortzeko balioa izan zuten.
- Gaur egungo ugaztunen portaerak zeintzuk diren ikusita, komunikazio primitibo horretan, elikagaiei buruzko, ehizazko edota ugalketaren gaineko informazio-zantzuak aurki zitezkeela uste da. Aztarnak eta zantzuak, era guztietako indizioak daude giza komunikazioaren lehen urratsetan. Zehaztasun gutxiko komunikazioa da hori, interpretazio anitzera bideak zabal zitzaizkion.

#### 2.- Lengoaiak, zehaztasunaren mesedetan.

⇒ Arestian aipatutako komunikazioa baino garatuagoaren aurrean gaude.

- Lengoaiak mintzatuak komunikazio-prozesu garatuagoak ahalbidetu zituen. Lengoaiak mezu konplexuagoak sortzea, igortzea eta deskodetzea ekarri zuen.
- Lengoaiak dela medio, gizakiak animalia izateari utzi ziola esan genezake. Antza denez, lengoaiak eta hizketa *cro-magnon* garaiko gizakiak garatu zituen.
- Lengoaiak, *cro-magnoneko sapiens*en artean, gauza arrunta izan ei zen duela 35 mila urte. Lengoaiak zehaztasuna ekarri zion giza komunikazioari. Komunikazioaren esparruan, lengoaiari esker, interpretazio irekien eta anitzen arriskuak ekidin zituen gizakiak azkenean.

### 3.- Idazkera, informazio finkatua.

⇒ Komunikazioaren garapen honetan, urrats garrantzitsua dugu idazkeraren asmaketa. Gizakiak duela 5 mila urte ikasi ei zuen *idazten*.

- Idazkera homo sapiensaren asmakizuna da.
- Txinatarrak, egiptoarrak eta ameriketako maiarrak izan ziren lengoaiari gorputz grafikoa eman zioten lehenak, mundu honetan.

### 4.- Inprentaren aurkikuntza.

⇒ Berria dugu tipografia gure artean, ia gaur goizekoa.

- XV. mendeko asmakizuna dugu inprenta modernoa, *tipografikoa* deitua.
- Kolon Ameriketara joan baino urte batzuk lehenagokoa da komunikazioaren munduan iraultzaile izan den hedabide horren agerkundea. Kopiak bizkorrago egitea eta kopietako errakuntzak ekiditea ekarri zuen tipografia mugikorrek.

### 5.- Lehen masa-hedabideak.

⇒ XIX. mendekoak dira telegrafoa, telefonoa eta egunkariak.

- Masa-komunikazioa sortu eta garatu duten hedabide horiek, ehunen bat urte baino ez daramate gure artean eta, jada, mundua konkistatu dutela esan genezake.

### 6.- Hedabideen eztanda.

⇒ Aurretik pentsaezina zen mailara eraman du komunikazioaren garapena mende honek. Komunikazioa, egun, gizakiaren garapena kontrolatzen duen tresna da, gizakiaren garapenerako tresna barik.

- XX. mendeak prentsaren, irriaren, telebistaren eta zinemaren garapen industrial modernoa ekarri du.
- Gaur egun, XXI. mendearen atarian, iraultza berria ari gara ezagutzen komunikazioen munduan: informazioa, komunikazioa eta hedabideak zibernetikaren bidean sartu dira.
- Ordenagailua jabetu da giza komunikazioaz, informazio publikoaz eta masa-hedabideez.

## **2.1. Seinaleen bidezko giza komunikazioa**

Dirudienez, hasierako hominidoak, aurregizakiak, zaraten bitartez, hots eginez eta gorputz-atalen mugimenduen keinuen bidez komunikatzen ziren.

Antropologoek aurkitu dituzten aztarnen arabera, hasierako gizaki haiek *orrocka* eta *jauzika* adierazi zioten elkarri *esan* beharreko gutzia.

Aurregizaki haien arteko harreman komunikatiboan erabilitako mezuak, gutxi eta oso konkrituak izan zirela uste da. Orrore eta jauzien bidez komunika daitekeena, unean uneko zerbait baino ez da.

Baina, zergatik ez zuten berba egiten aurregizaki haiek? Soinuen bidez, mugimenduen bidez komunikatzeko gaitasuna baldin bazuten, zergatik berba egin ez?

### 2.1.1. *Ahoskatze-organorik eza*

Arrazoia fonazio-organoetan aurkitu behar dugu. Aurregizakion mihia, laringea eta ahoa eta gaur egungo tximinoenak antzekoak ziren eta tximinoek ez dute ahoa gizakiena bezain garaturik. Gure aurreko haiek ez zuten berba egiterik izan! Gure aurreko haiek ez zuten berba egin, ezin izan zutelako, berba egiteko organorik garatu ez zutelako.

Gaur egun, tximinoek ez dute berba egiten, ezin izan zaie berba egiten irakatsi; beraien egitura anatomikoak eta neurologikoak ez dute horretarako biderik ematen. Horrek, jakina, ez du esan gura, gure aurreko gizakiek komunikatzeko gaitasunik ez zutenik. Arestiko horrek esan gura duen bakarra hauxe da: berba bidezko lengoaiagaz komunikatzeko gaitasunik ez zutela, zeren, komunikatu, komunikatu egiten baitzituzten espezieari zegozkion jakingarritasunak oro, beste bide batzuen bidez, jakina.

### 2.1.2. *Komunikazio primitiboaren bereizgarriak*

Zeinu, seinale eta keinuen bidezko komunikazioa posible izan arren eta komunikazio berezi horrek elkarri ulertzea ahalbidetzen zuen arren, garapenik eza dela medio, oso komunikazio primitiboa izan zen, alegia:

- a) mezuak oso konkretuak izan ziren,
- b) mezuak akzioagaz zeuden lotuta, ulergarriak izateko, eta
- c) mezuak ulertzea, deskodetzea, prozesu luzea eta konplexua izan zen.

Baldintza horietan, narrazioak pentsaezinak dira; txostenak egitea, inoren buruan sartzen ez dena; historia luzeak adieraztea, beharrian sortu gabea... Ildo horretan, berba-lengoaia bako herriek oztopo handiak izan zituzten adierazi-katea luzeak *esateko*. Era berean, horrelako baldintzetan kultura konplexurik sortzea ezinezkoa izan zela pentsatu behar dugu. Garai haietako aurregizakiak *mezu erraztuak* komunikatu zituen, *astiro* komunikatu ere.

Ariketa moduan, ahalegindu zaitez berba bako komunikazioa ezartzen zure ondoko bategaz. Antzerki mutua eginez, zelan *esango* zenioke lagun bati *gose naiz, ehiza dezagun?*

Ariketa-ildo beretik, bigarren ariketa hau burutu: adierazi egiozu zeure hurbilekoren bati *atzo, erreka-ondo batean, ehiztari gazte bat ikusi nuen; eskuan ezpata zeukan eta oreina ehizatu gura zuen*. Ez dirudi lan erraza.

### 2.1.3. *Pentsatzeko gaitasunaz*

Arazo horiek, bestalde, pentsatzeko gaitasunik eza zekarten lotuta. Izan ere, pentsamendua lengoaiaren arauen arabera eratzen baita gure buruan. Berbarik ez bada, ez dakigu abstrakziorik egiten eta, pentsatzen badugu, ez dugu adierazten, esaten asmatzen.

Garai haietako gizakiaren aktibitate intelektuala kontzeptualizazio mugatueta heldu zen soilik. Barne-pentsamenduak, abstrakzioa, sailkapenak egitea, sintesia, indukzioa, ondorioztatzea... aurregizakiengandik urrun zeuden.

Hala eta guztiz ere, hasierako hominido horiek abantaila nabarmenak zeuzkaten gainerako animaliekaz alderatuta:

a) Gizakien burmuina handiagoa zen gainerako ugaztunena baino,

b) Burmuin handiago horrek ikaste-prozesuak ahalbidetzen zituen.

⇒ Ariketa hau egin dezakezu pentsatzearen eta pentsatua adieraztearen lan erraldoiaz konturatzeko. Gogoan al duzu Joseba Sarrionaindiak idatzi eta Mikel Laboak famatu egin duen *lili bat* abestia?

*lili bat*

*hartu*

*eta hostoz hosto erantzi*

*eta harek zu ere amets,*

*eta harek zu ere erantzi*

*eta hostoz hosto*

*hartu*

*lili bat*

\* Adierazi egiozu hurkoren bati. Adierazi egiozu, ondoren, batere ezagutzen ez duzunen bati.

Laburbilduta:

Gizakiaren aurrekoek, pre-hominidoek, 5,5 milioi urte direla, garatutako eredu-komunikatiboa dugu seinale hauena.

- ◆ Aurre-hominidoek gainerako ugaztunak komunikatzen ziren moduan komunikatu ei ziren, garai haietan.
- ◆ Oihuek, garrasiek, orroek eta gorputz-atalen higidurek oso informazio primitiboa igortzeko balio izan zuten.
- ◆ Gaur egungo ugaztunen portaerak zeintzuk diren ikusita, komunikazio primitibo hartan elikagaiei buruz, ehizaz eta ugalketaren gaineko informazioaren zantzuak aurkitu zitezkeela uste da.
- ◆ Kultura sortzea eta adierazi-katea luzeak ekoiztea pentsaezina da baldintza haietan.
- ◆ Elkarrizketak berak –itaun-erantzunen prozesu ertain-luze moduan uler bedi elkarrizketa terminoa– lekuri ote duen panorama horretan, gaitz da asmatzen.

## 2.2. Lengoaia, giza komunikaziorako baliabide aurreratua

Cro-magnon garaietara egin behar dugu jauzi. Gizakiak sukarriz egiten ditu bere ehiza-tresnak. Kobazuloetako marrazkien garaia da; kontutan hartu, marrazkiok izan daitezkeela informazioa gordetzeko lehen ahaleginak, idazkeraren aitzindari izan daitezkeela.



Cro-magnonaren buru-hezurak, mihia eta laringea gureen modukoak izan zirela gauza jakina da aspalditik. Eta gauza jakina da, egun, cro-magnon garaiko gizakiak berba egiteko gaitasuna bazuela. Cro-magnon gizakia duela 35 mila urte hasi ei zen berba egiten.

Lengoiari esker, cro-magnonak pentsatzen eta pentsatua adierazten ikasi zuten. Neanderthal gizakiak, ostera, berbetarako eta pentsatzeko gaitasunik ez zuela uste da. Neanderthal gizakia berba egin barik eta pentsatu barik hil ei zen.

Hizkuntzalari modernoek Kristo baino 5 edo 7 mila urte lehenagoko berbak aurkitu dituzte iturri protoindoeuoparretan. Euskaldunon *aitzurra* eta *aizkora* berbak, diotenez, atzo goizekoak barik, tresnok harrizkoak ziren garaikoak dira.

Hitzek, zenbakiak eta gainerako berba-zeinuek lengoiaren eta logikaren erregelak sortzea ahalbidetu zuten. Komunikaziorako zeinu berri haiek abstrakzio ahalmena ekarri zuten, baita analizatu ahal izatea eta amestea ere...

Zeinu berriei esker, cro-magnonak mezu luzeagoak eta konplexuagoak igortzeko eta deskodetzeko ahalmena eskuratu zuten.

### 2.2.1. Lengoiaren funtzioaz

Lengoiak funtzio desberdinak dauzka. Batetik, lengoiak informazioa elaboratzeko, igortzeko eta gordetzeko balio duela esan ohi da. Bestetik, lengoiak funtzio afektibo eta emozional garrantzitsua du.

Gizakiak gainerako pertsonakaz harremanetan jartzeko duen beharrean du bere oinarri nagusia lengoiak. Eta, egia esan, zeinek esan dezake, oinarri horietan mundu afektiboak garrantzi txikiagoa duela informatiboak baino?

Lengoaia, jakina, gizarte-antolakuntza berri eta berezi batek ekarri zuen. Gizakia elkarregaz bizitzean, elkarren arteko komunikazio-beharra handiagotu zen; komunikazio konplexuaren beharrak markatu zuen lengoiaren jaiotza.

Zehaztasunerako zeukan ahalmena medio, testuinguru komunikatzaile horretan, lengoiak gainerako komunikazio-mota guztiak gainditu zituen.

### 2.2.2. Lengoaia eta gizartea

Lengoaia, gizakiak komunikatzeko duen gaitasun moduan ulertuta, zeinu-sistema legez onartuta, gizarteak bere buruaz berba egiteko, bere arauak ezartzeko eta bere jarraipena segurtatzeko behar-beharrezko duen tresna da.

Lengoaia izan da, eta egun ere halaxe da, klase agintariak beren boterea finkatzeko sistema-komunikatiboa. Talde eragileek lengoiaren beharra dute boterera heltzeko; horra hor, esate baterako, Grezia eta Erroma klasikoan eztabaida politikoa, inor goi-agintaritzara heltzeko tresna erabakigarria izan zena. Klase agintaria, indar militarraz gain, lengoiaz ere profitatu da bere botereari eusteko. Klase agintariak lengoaia dela medio agintzen dute, klase agintariak lengoaia dela medio ezartzen dituzte modak gizartean, baita ontasun eta txarkeriaren arteko mugak ere.

Lan intelektualaren eta esku-lanaren arteko muga bera ere lengoaiak ahalbidetu du: *nirea duk hitzegitekoa, aginduak ematekoa; hirea, ostera, men egin eta nik agindutakoa betetzea*, behin baino gehiagotan entzun den leloa da.

Lengoaiak, beraz, gizartea existitzea ahalbidetzen du. Lengoaiak komunikazio zehatza, pentsatua eta arina sortzeko bideak zabaltzen ditu. Lengoaiak, jakina, gizartearen arautegiak sortu ahal izatea dakar, giza harremanetan beharrezkoa den informazioaren trukaketa garatuta. Lengoaiak, komunikatu ahal izatea bermatzen duen heinean, boterea nori dagokion eta botereaz nor profita daitekeen jakinarazten du lau haizetara.

Lengoia gizarteren dohaina da, gizakiaren esku dagoena.

### 2.2.3. *Lengoia eta pentsamendua*

Eztabaidagarria da eskuartean hartu dugun gai hau: lengoia beharrezkoa al da pentsatzeko? Zer pentsatua eman dezakeen itauna da hori.

Gai interesgarri bezain korapilotsu horri buruz, soviatar biren lanak dira, beste askoren eta askoren gainetik aipagarriak. Vygotskyk eta Luriak egindako ikerketen emaitzek markatu dute mende honetako ikerketa-arlo eztabaidatsua. Zein da autore horien ikerketa-lerroa?

Lev Vygotskyk eta Luriak, 1930-1932 bitartean, Uzbekistan soviatarrean egindako ikerketen ostean, lengoaiak pentsamendua sortzen eta garatzen laguntzen duela esan zuten. Ildo horretatik, abstrakzio- eta orokortze-prozesuak garapen ekonomiko eta kulturalen menpe daudelarik, lengoaiak berebiziko rola du pentsamenduaren garapenean.

Berbak kontzeptuak dira, lengoia bera pentsamendua da. Abstrakziorako ahalmenaren jabe izatea baieztatzen du hitz egin ahal izateak. Pentsamendua berbetan oinarritzen da, pentsatzen dugunean hitzen bidez pentsatzen dugu, arrazonamenduaren oinarrian berbak daude eta ez berbek ordezkatzeko dituzten objektuak.

Idea eta kontzeptuen garapena da gaur egungo gizarte-harremanen ispilua. Komunikagarria den oro berba bidez komunikatzen dugu, lengoia burmuinaren ispilu da.

Hizkuntzak ez digu soilik gizakien beharrei buruz informatzen; horrez gain, hizkuntzak, erabilia den gizartean, hiztunen –giza kolektibitate moduan ulertuta– zelakotasunei buruz ere egiten digu berba. Hizkuntza guztiek ez dute berdin *ikusten* mundua; gizakiek berek ere desberdin ikusten dute mundu hori.

*Adibide moduan*, pentsa dezagun hurrengo honetaz: zelan adierazten du familiatasuna euskarak? Familiatasunaren izendapen euskaldunean, ba al dago zerbait euskaldunen kontzeptzioa eta pertzeptzioa gainerako gizakienetatik bereizten dituen? Euskarak seme-alabak izendatzeko orduan, esate baterako, *arriba-ahizpa* eta *neba-anaia* berba-bikoteak dauzka. Izendapen bakoitzak bere esangura du, konkretu eta zehatza dena, izendapen bakoitzak argiro markatzen ditu seme-alaben kolektiboa osatzen duten pertsonen arteko diferentziak.

Desberdintasun horiek beharrezkotzat dauzkate euskarak eta euskal hiztunek; bestela zertarako sortu terminoak? Inguruko hizkuntzetan, ez dugu, ostera, horrelakorik aurkitzen, inguruko hizkuntzek ez dituzte beharrezkotzat jo desberdintasun horiek, eta ez dute horrelako kategorizaziorik egin behar izan; hiztunek berek ere ez diote horrelakorik eskatu kode komunari, hizkuntzari. Esana genuen gorago: hizkuntza guztiek ez dute *berdin* ikusten mundua.

Konpara ditzagun orain arte ikusitako komunikazio-eredu biak: seinaleena eta lengoaiarena.

	<b>keinuak eta seinaleak</b>	<b>lengoaia</b>
zelan	oihuak garrasiak keinuak	berbak aditzak esaldiak
zertaz	elikagaiak ehiza ugalketa	abstrakzioa analisi ametsa
zelakoa	mezu gutxi mezu konkretuak	mezu luzeak mezu burutsuak
ezaugarriak	mezua = ekintza ulertzea, konplexua adierazi luzerik ez kultura sortzerik ez	mezua = informazioa mezua = afektibotasuna lengoaia: gizarte-antolamendua lengoaia: pentsamendu garatua lengoaia: kultura

### **Laburbilduta:**

Keinu eta seinaleen komunikazioa baino garatuagoaren aurrean gaude, lengoaiak ahalbidetzen duen komunikazioaz berba egiterakoan.

- ◆ Hizketak eta lengoaiak komunikazio-prozesu garatuagoa ahalbidetu zuten. Adierazi-katea luzeek, antza, lengoaiari esker ikusi ei zuten argia.
- ◆ Lengoaiak, hartara, mezu konplexuagoak sortzea, igortzea eta deskodetzea ekarri zuen. Komunikazioaren esparruak mundu konplexura egin ahal izan zuen jauzi erreminta berriari esker, berba-lengoaiari esker.
- ◆ Lengoaia dela medio, gizakiak animalia huts izateari utzi ziola esan genezake; lengoaia dela medio, gizakiak ugaztun arrunta izateari utzi ziola esan da maiz.
- ◆ Lengoaia eta hizketak, cro-magnon gizakiek garatu zituzten. Komunikazioaren garapen horretan, cro-magnon gizakiak aurrea hartu zien inguruko gainerakoei.

### 2.3. *Idazkera, informazioa finkatzeko tresna*

Hominidoak milioika urte behar izan ditu berba egiten ikasteko, milioika urte igaro ditu orroka eta keinuka gainerako ugaztunen komunikazio primitiboaren eredu *atzeratuan* murgilduta. Cro-magnon gizakiaren urteetara arte, ez du ikasi gizakiak berba egiten. Behin hitz egiten ikasita, idazten asmatu eta trebatzeko, ostera, mende apur batzuk nahiko izan ditu.

Idazkeraren historiaren hastapenak, ideia konplexuak adierazteko lehen saioak, errepresentazio-piktografikoetan aurkitu dira. Kobazuloetako marrazkiak izan daitezke *idatzitako* lehen *ideiak*.

Idazkera, bere garapena finkatzeko, erronka ugari nagusitu behar izan zaie. Idazkerak zehaztasunerako eta erabilteraztasunerako urrats berriak egin ditu behin eta berriro, urteak joan eta urteak etorri. Eten bako aurrerabide horretan, zehaztasun eta erabilteraztasunaren bilaketa horretan, idazkerak zeinu ikonikoen bidez ikusi zuen argia; geroago etorri dira zeinu abstraktuagoak.

Idaztearen lehen ahaleginak helburu mnemoteknikokoak izan ziren, esan gura baita, informazioa gogoratzeko helburu hutsezkoak. Informazio oso mugatuak gorde eta igor zitezkeen ahalegin primitibo horietan; saiakeran erabilitako lehen erremintak hauexek izan ziren: harriak, marapiloak eta markak.

Hurrengo urrats batean, marrazkia izan zen informazioa gordetzeko zeinua. Fase horri piktografikoa deitzen zaio; informazioa gordetzeko ahaleginak ez zuten, oraindino, berba-hizkuntzagazko loturarik edota menpekotasunik erakusten.

Gordetze ideografikoa izan zen garapenaren hurrengo maila. Marrazkia eskematikoagoa egin eta gorde gura den informazioak bazuen bere ordezkia berba-hizkuntzan.

Eperik edo faserik aurreratua, informazioaren gordetze horretan, fonetikoak izan da: zeinu grafikoek berba-jarioari segitzen diote hurbil-hurbiletik.

#### 2.3.1. *Piktograma idazkeraren oinarrian*

Forma linguistikoa erabili barik mezua transmititzen duen marrazki figuratibo edo sinbolikoa dugu piktograma, herri zenbaiten idazkera-modu primitiboa izan dena. Informazioa gordetzeko lehen ahaleginak, ehiza-eskenak erreproduzitzen dituzten zeinu ikonikoak dira. Marrazki horietan oinarritutako informazio-gordetze horri, *idazkera piktografikoa* deitu ohi zaio.

Adierazien lehen estandarizazio piktorikoa kobazuloetako marrazkiekazi hasi bazen ere, gizarte nekazariak lurralde jakinetan bizitzen hasteak bideratutako sedentarizazioak bermatu zuen. Nekazaritzak trukea ekarri zuen hasieran; gero, komertzioa. Jendearen arteko harremanak hazi eta korapilotu egin ziren heinean, informazioa gorde zezaketen *dokumentuen* beharra agerikoagoa bilakatu zen; eta dokumentuek, jakina, idatziak behar dute izan.

Erreken gorabeherak (Nilo ibaiaren kasua oso izan da aztertua), ortziko astroen gorabeherak (urtaroak adierazten baitzituzten)... nahiko arrazoi ziren ideiak finkaturik uzteko, gogoratzeko moduan *idazteko*. Aurkitu diren lehen mezu idatziek lau bat mila urte dauzkate eta Mesopotamian eta Egipton agertu dira.

Piktogramen bidezko idazkera primitibo horrek *idaztarauak* sortu zituen, lehen-lehenak. Adieraziak finkatzeko, legeak edo *idaztarauak* beharrezkoak ziren; arauak soilik berma baitzezaketen informazioa materia galgaitz izatea.



euria da  
Boskimanoen marrazkia, paleolitos garaia



borrokaldia  
Saharako marrazkia, neolitos garaia



animali abstrakzioaren garapena  
Andaluzia, Kristo baino pare bat mende lehenagoko marrazkiak

Piktogramen garaiko idazkeraren arazoa honako hau zen, alegia, espezialisten zeregina zela; ideia eta kontzeptu bakoitzarentzat marrazki bat ikasi beharrak, prozesu osoa zailtzen zuen. Herriak, herri xeheak, beraz, ez zeukan idazkera bere esku; dirudenez, informazioa gordetzea eta transmititzea jende espezialduaren zeregina izan da hasieratik bertatik.

Garaiotako informazio-zeinuak *indizeak* dira, esan gura baita, zeinuak berak –kasu horretan marrazkiak– esangurara hurbiltzen gaituela, errepresentatzen duen objektuaren bereizgarritasunen bat agirian duelako. Tankera horretako idazkeraren lehen helburua, nagusia, mnemoteknikoa edo gogorazlea da.



espedizioaren kontaketa

Kanadako Goiko Lakuan aurkitutako *izkribua* dugu goiko hori. Idazkera piktorikoak Natura eta gizakiaren tresneria kopiatzen du, erabiltzen dituen zeinuak ikonikoak baitira. Kasu horretan istorio bat kontatzen da: Behin batean espedizio bat egin ei zen eta gizonak bost txalupatan abiatu ziren. Lehen txalupak hamasei bidaiari eraman zituen, eta bertan zihoan Kishemunasse, totema –martin arrantza-lea– ikusten baita. Espedizioa hiru egunekoa izan zen, hiru eguzkikoa. Zaldiz, erreka bazterretik, belagilea joan zen. Dordoka agertzea espedizioa ondo atera zen seinale da.

Helburu mnemoteknikoko marriazki horiek

- ohiturez, instrukzioaz,
- magiaz eta erlijioaz

berba egiten digute.

### 2.3.2. Hieroglifikoa

Hurrengo jauzi batek idazkera-hieroglifikora garamatza. Idazkera-eredu berri hau aurrekoa baino konplexuagoa da, bertan irudiak eta karaktere fonikoak agertzen baitzaizkigu batera.

Idazkera hieroglifikoaren aztarna asko eta asko aurkitu dira Egipton, nahiz eta beste herri batzuetan ere ezaguna izan den idazteko modu hori. Egiptoko lehenek lauzpabost mila urte dauzkate, berrienak, ostera, hamasei bat mende.



hildakoen liburua

Hiru mila urte baino gehiago dituen goiko eskuizkribu horretan –hildakoen liburua izena duena– hildakoari ahoa zelan zabaltzen zaion erakusten da marrazkien eta zeinu fonikoen bidez.

Hieroglifiko horietan mila eta zazpiehun karaktere aurkitu eta deskribatu dira. Idazkera-modua zutabe bertikal eta lerro horizontaletakoa da.

Hieroglifikoetan hiru motako informazioa gorde ohi da, batez ere:

- a) munduaren objektu errealak burura ekartzen dituzten marrazki informatiboak;
- b) kontsonante soinuak;
- c) kontzeptu homorfoak, hots, eragiketa algebrakoak.

Diogunez, hieroglifikorik famatuenak Egiptokoak izan arren, Mexikon eta Asia Txikian ere aurkitu dira horrelakoak.

### 2.3.3. Idazkera-sistema zaharrak

Zenbait sistema zahar ikusiko ditugu ondoren. Den-denak dira desberdinak, baina badute zerbait komunean: lekuan lekuko kolektibitateak transkripzio fonetikoak erabiltzen hasi aurreko sistemak direla.

#### 2.3.3.1. Ameriketako sistemak

Elementu piktoriko ugariko idazkera-sistema oso garaturik zuen Maien Inperioak Ertamerikan (Yukatán, Guatemala). Idazkera horren oinarrian, eredu piktografikoa aurkitzen dugu. Idazkera maiar horrek sendo garatu zituen arlo matematikoa, astrologikoa, egutegiak (365 eguneko egutegia zerabilten, urteak hamazortzi hilabete zeuzkan)... Maien Inperioko idazkerak enfasia eta indar intelektuala kalkuluan ezarri zuen, gaitasun linguistikoan baino gehiago.

Mexiko aldeko Tolteka eta Azteka taldeetako jendeek XV. mendera artean gorde zuten beren idazkera-eredua. Komunitate horiek elementu fonetiko solteak garatu zituztela ikusi den arren, ez dirudi sistema foniko osoa garatu zutenik. Idazkera-mota hori genealogiak gogoratzeko erabili zen zenbait kasutan, baina, batez ere, kalkulu matematikorako eta astrologiarako erabili zen.

Dakota herriak, Ipar Amerikan, neguak zenbatzeko sistema propioa garatu zuen; herri horrek XIX. mendean erabiltzen zuen egutegi berezi baten erreprodukzioa da ondoko irudia:

	1800-01	1801-02	1802-03	1815-16	1816-17	1817-18	1866-67	1867-68	1868-69	1869-70
i										
ii										
iii										

Dakota herriaren egutegia

Neguen kontaketa dugu goiko hori. *Testu* beraren hiru bertsio desberdin ematen dira erreprodukzio horretan. Zer diote, baina, marrazkiek?

- \* 1800-1801: 30 lerro paralelo, 30 dakota herritar hil zituzten “bela indiarrek”.
- \* 1801-1802: Baztangak jo zuen herria.
- \* 1802-1803: Taldeak aurkitu zueneko negua.



- \* 1815-1816: Zakartegi handia eraiki zenekoa.
- \* 1816-1817: Bufalo-larrua, horiek ugari izan ziren urtea.
- \* 1817-1818: Egurrezko eraikinean merkatu-biltegia zabaldu zenekoa.
- \* 1866-1867: *Zisne* talde-burua hil zen negua.
- \* 1867-1868: Bakea hitzartu zen negua.
- \* 1868-1869: Gobernuaren okela heldu zen urtea.

### 2.3.3.2. Ekialde hurbileko sistema zaharrak

Kristo baino 6-9 mila urte lehenagoko “fitxa idatziak” aurkitu dira Ekialde Hurbilean. Fitxa horiek 15 tankera desberdinetakoak dira, eta 200 neurri desberdinetakoak aurkitu dituzte. Jabego, erregistro eta trukerako txanpon-sistemak direla uste da.

Lau bat mila urte dituzte, bestalde, Kretan aurkitutako zenbait zeinu grafiko zaharrek. Merkantziak adierazteko erabili ei ziren, baita kontaketa laguntzeko ere. Diogun hori, ikur-sistema osoa zen, Erdi Aroko erlijio-sinbologia kristauaren antzeko zerbait, elementu piktorikoak eta koloreak uztartu zituen sistema. Ez dira erabat deszifratu Kretako sistema horiek.

### 2.3.4. Idazkera logografikoa

Idazkeraren historian, urrats berri baten bila goaz orain, idazkeraren garapenak utzitako ondarean aurrera eginez.

Idazkera logografikoaren oinarrian objektuak barik, arrazoia dago. Lehen idazkera-sistemetan objektuak eta ekintzak izan dira erreferente; idazkera logografikoan, ostera, berba, soinua, da erreferentea.

Zazpi sistema logografiko zahar ezagutzen dira gaur egun, baina denak ez dira deszifratu ahal izan:

- ◆ Akadia-sumertarra, Mesopotamian erabili zena (K. a. 3100 eta K. o. 75 urte bitartean indarrean egon ei zena).
- ◆ Proto-Elamitarra, Mesopotamian erabilia ((K. a. 3000, (K. a. 2200).
- ◆ Egiptoarra ((K. a. 300, (K. o. 200).
- ◆ Proto-Indiarra, Indiako azpi-kontinentekoa ((K. a. 2200, (K. a. 1000).
- ◆ Hitita, Anatoliakoa ((K. a. 1500, (K. a. 700).
- ◆ Txinatarra, gaur egun indarrean dagoenaren lehen urrats ezagunek 3500 urte ei dauzkate.
- ◆ Kretarra ((K. a. 2000, (K. a. 1100).

#### 2.3.4.1. Mesopotamia

Nekazaritza garatzen hasi ziren lehen zibilizazioek Eufrate eta Tigris ibaien ertzetan ezarri zituzten beren urbeak, herriak. Mesopotamiak ez zuen izan Egiptok garatutako batasun politikoa eta zatiketa politikoak kultura desberdinen agerpena ahalbidetu zuen, eta kulturen aniztasun horrek hizkuntza desberdinak garatu ahal izatea ekarri zuen.


Lau bat mila urte Kristo aurretik ezarri ei ziren lehen kolektibitateak ibai horien arteko lurretan. Garatu zuten idazkeraren oinarrian, triangeluaren itxurako zeinuak aurkitzen ditugu. Buztin bustian idazten zen; buztina lehortuta, gorde egiten ziren *testuok* eta eskatu zituenari bidaltzen zitzaizkion.

Karaktere horiek ez ziren jada ikonikoak, ez ziren piktogramak, erabat abstraktuak baino. Adierazleak eta adieraziak zuten lotura erabat hautazkoa zen. Adierazlearen eta adieraziaren arteko lotura *naturala* atzean geratu zen zeinu berri haiei esker. Zertaz idatzi zen?

- Helburu ekonomikoko informazioak,
- objektuen zerrendak,
- erregistro-mezuak, jabego partikularrak eta tenpluen ondasunak.

Gehienak testu administratiboak dira, ez erlijioso edo historikoak. Testu berriagoetan nekazaritzari buruzko oharrak aurkitu dira.

Mesopotamiako idazkera kuneiformea bost hizkuntzatan erabili zen, hauetan hain zuzen: sumertarra, akadiarra, semita mendebalekoa, kanaar zaharra eta elamitarra.



triangelu itxurako zeinuak, sumertarrak

a: *Hilabete* esan gura du. Laukia eguzkia da eta lerro bakoitzak hamar esan gura du, beraz, hogeita hamar egun.

b: *Zutik egon* esan gura du.

c: *Erdibitua* dio.

d: *Patua* ideia *txoria* piktogramatik dator.

### 2.3.4.2. Egipto

Nilo ibaiaren gora-beherak kalkulatzeko beharrezkoa zen egutegiak sortu ei zuen idazkera Afrikako iparraldean. Uztak antolatu beharrak eta nekazaritzari buruzko ezagutzak belaunaldi berriei helarazteko nahiak bultzatu zuten idazkeraren sorrera Egiptoko inperioan. Idazkeraren teknika bertako apaizen esku egon zen. Apaiz haiek trebatu zituzten idazkariak, *eskriba* ezagunak.

Lehen dinastiaren aroan (K. a. 3000 urte), oso garaturik agertzen da idazkera. Berbaren soinuak zelakoa izan behar zuen adierazteko eta berba horren kategoriaz zein zen argitzeko, egiptoarrek fonogramak erantsi zizkioten zeinu piktorikoei.

### 2.3.4.3. Indus ibarra

Idazkera logografikoaren lehen aztarnak azpikontinente indiarrean aurkitu dituzte, eta bi edo hiru mila urte Kristo aurrekoak dira.

Inskripzio laburrak dira. Trantsakzio komertzialak dira gehienbat. Aurkitutako zigiluetan merkantziaren ugazabaren izena agertzen dela uste da.

### 2.3.4.4. Kreta

Kretako sistema modernoagoetan hieroglifiko eta piktograma egiptoarren eragin handiko zeinuak aurkitu dira. Duela bi mila eta bostehun urteko izkribuetan, kontabilitateko testuak eta ohar militarrek aurkitu dira. Kretako idazkera honetan 89 karaktere lokalizatu dira eta grezieraren aldaerak direla dirudi.

### 2.3.4.5. Anatolia

Gaur egungo Turkian garatu zen idazkera hitita, mila bat urte Kristo aurretik. Mesopotamiako idazkera kuneiformean idatzita agertu dira testuak.

### 2.3.4.6. Txina

Sistema logografiko eta logosilabikorik *berriena* da. Idazkera horretan oinarritutako testurik zaharrenek bi mila eta bostehun bat urte dituzte.

Gaur egungo txinerak zortzi bat mila karaktere dauzka, nahiz eta herriak mila bat *baino* ez dituen erabiltzen. Idazkera oso konplexua da. Mende honetara arte, kultura idatzi txinatarra *mandarinen altxor gordea* izan da.

口	其	用	不	田	令	吉	惟
口	用	獻	顯	人	尹	庚	十
口	朝	子	魯	克	氏	寅	又
口	夕	師	休	拜	友	王	八
降	享	尹	揚	稽	史	才	年
克	子	朋	用	首	趨	周	十
多	皇	友	作	取	典	康	又
福	且	昏	旅	對	善	穆	二
眉	皇	遘	須	天	夫	宮	月
壽	且	克	惟	子	克	王	初
永	考						
令	其						

txinera modernoa

### 2.3.5. Idazkera fonetikoa

Idazkera fonetikoaren bidean aurkitzen dira lehen silabario zaharrak: zeinu bakoitzak silaba bat ordezkatzen du. Ideiak, logikak eta matematikak hizkuntzari uzten diote lekua silabarioetan. Silabarioetako erreferentea hizkuntza da, hizketaren soinuak. Silabarioek idazkeraren zeinuteriak erraztu zituzten, eta ikasi beharreko karaktereen kopuruak asko murriztu ziren.

Hona hemen, txekokee herriak erabilitako silabarioaren erreproduzioa (originala XIX. mendekoa da):

D	a	R	e	T	i	o	o	u	
f	ga	h	ge	y	gi	A	go	J	gu
ot	ha	p	he	A	hi	t	ho	T	hu
w	ia	s	le	P	li	G	lo	M	lu
z	ma	o	me	H	mi	z	mo	v	mu
θ	na	l	ne	h	ni	Z	no	q	nu
I	gwa	w	gwe	γ	gwi	z	gwo	w	gwu
u	sa	4	se	b	si	φ	so	z	su
l	da	f	de	l	di	Λ	do	S	du
l	dla	L	dle	G	dli	φ	dlo	γ	dlu
G	dza	v	dze	h	dzi	K	dzo	z	dzu
G	wa	w	we	θ	wi	e	wo	g	wu
w	ya	φ	ye	s	yi	h	yo	G	yu
i	ö	E	gö	l	hö	q	lö	o	nö
g	gwö	R	sö	o	dö	P	dlö	z	dzö
g	wö	B	yö	o	ka	t	hna	G	nah
w	s	w	ta	z	te	z	ti	L	tla

silabario txerokeea


Txineraren idazkera logografikoak baino zeinu gutxiago dauzka, baina, hala ere, gaur egungo alfabetoek baino gehiago. Kultur igorpen idatziak etorkizunik baldin bazuen, hori idazkera erraztetik zetorren.

Hieroglifiko bidezko idazkera espezializatuari aurre eginez eta hura garatuz, sumeriarrek, 1700 urte inguru Kristo aurretik, berba-hizkuntzaren soinu bakoitzari sinbolo bat, ikur bat ematea asmatu zuten. Abantaila itzela izan zen: milaka ikurren orde, hamarka batzuk besterik ez zen ikasi behar.

500 bat urte Kristo aurretik, greziarrek garatu zuten sumeriarren idatz-joera berria eta geroago erromatarrek ere.

Grezieraren alfabetoa da Europako idazkera ia guztien oinarri; gero idazkera-eredu hau mundu ia osora hedatu da. Erromatarrek Greziako alfabetoa inportatu eta garatu egin zuten.

Ikus ditzagun alfabeto-silabario zahar bi: fenizioa eta etruskoa



zeinu feniziarak, silabario batekoak ei dira, XIV. mende Kristo aurrekoak



alfabeto etruskoa indarrean egon zen erromatarrek lurraldea inbaditu arte

Alfabeto fonetikoaren hotsen gauzatze fonetiko irudikatzen duen zeinu grafiko konbentzionalen multzoa da: zeinu bakoitzari hots bat dagokio eta alderantziz.

### 2.3.6. Euskarri eramangarriak

Idazkeraren garapenak, bestalde, beste erronka bati egin behar izan zion aurre: bitarte eta euskarrien arazoari. Hasierako hieroglifikoek, piktogramak eta silabarioek arazo handia zuten: ideiak idatz zitezkeen, baina idatzitako ideiak ezin ziren garraiatu, harrietan edota hormetan idatzita baitzeuden gehienetan.

Papiroak, gaur egungo paperaren aurrekoak, hogeita bost mende baino ez ditu. Papiroak eta gerora paperak ideia idatziak eramangarriak izatea ahalbidetu zuten. Euskarri eramangarriak, kultura idatziaren bidez, idazketa eta irakurketa hedatu zituen. Idazten eta irakurtzen jakiteak prestigioa ekarri zion ezagutza horien jabeari.

### 2.3.7. *Laburbilduta:*

- ⇒ Idazkerak kulturaren zeharkako transmisioa ahalbidetu zuen.
- \* Igorpena *zuzenean* bakarrik barik, *zeharkako* moduan ere egin zitekeen, solaskideak aurrez aurre egon barik. Mitoa historia egin zen; mitoa logika eta arrazoi bilakatu zen.
  
- ⇒ Idazkera gizarte urbanoetan garatu zen eta giza asentamenduetako beharrezko erantzuteko sortua da.
- \* Merkaturako produktuen identifikazioa, jabegoen erregistroa, legeak gordetzea eta kalkulu administratibo eta ekonomikoa ahalbidetu zituen idazkerak.
  
- ⇒ Hasieran silabarioen eskutik eta alfabetoenetik gero, idazkeraren zeinu-kopurua murriztuz joan da mendeek aurrera egin ahala.
- \* Zeinu-murrizketa horrek erraztasuna erantsi dio idazkerari. Idazkera bera erraztu den heinean, idatzitakoak abstrakzioa irabazi du: pentsamendua, legea, erlijioa...

### 2.4. *Irakurgaiak*

Amezaga, J. (1996). “*H. Habermas: komunikazioaren aldeko proposamena*” in Uztaro, 16. UEU, Bilbo.

Borderia et al. (1996), *Historia de la comunicación social*. Síntesis, Madril.

Peignot, J. (1967). *De l'écriture à la typographie*. Gallimard, Paris.

Vygotsky, Lev S. (1962). *Thought and language*. Cambridge, Massachussets.



## **Hirugarren atala: Giza komunikazioaren oinarrizko egitura linguistikoa**

### **3.1.- F. de Saussure, berba-komunikazioa eta zeinua**

- 3.1.1. Zeinua, komunikazio-trukearen oinarria
- 3.1.2. Komunikazio linguistikoaren faseak
- 3.1.3. Zeinu linguistikoa
- 3.1.4. Saussure, teoria eta hedabideak
  - 3.1.4.1. Linealtasuna hedabideetan
  - 3.1.4.2. Hautazkotasuna hedabideetan

### **3.2.- R. Barthes, berba-sistema lotuak**

- 3.2.1. Denotazioa eta konnotazioa

### **3.3.- R. Jakobson, berba-komunikazioaren prozesua**

- 3.3.1. Hizkuntzaren funtzioak

### **3.4.- Irakurgaiak**



*“...idazkuntza modernoa benetako organismo independentea, beregaina, da; literatur egintza-  
ren jiran hazten da, bere intentzioari arrotz  
zaion balio batez apaintzen du egintza hori,  
existentzia-modu bikoitz batera etengabe behar-  
tzen du, eta beren baitan lehenaz gainerako  
historia bat, konprometate bat edo berrerospen  
bat daramaten zeinu opako batzuk gainezartzen  
dizkio hitzen edukiari, halako moldez non  
pentsamenduaren egoerari formaren patu gehi-  
garri –sarritan dibergente eta beti gogaikarri-  
bat nahasten zaion”*

Barthes, R. (1996). *Idazkuntzaren zero  
gradua*. Klasikoak SA, Bilbo.

### 3.- Giza komunikazioaren oinarriko egitura linguistikoa

Gizakiak eta gizarteak lengoia aurkitu artean burutu behar izan duten ibilbide komunikatibo luzea ikusi dugu aurreko atalean, *Giza komunikazioaren hastapenak* deitutakoan. Pertsonak bide luzea korritu du mezu zehatzak igorri ahal izan arte, komunikazio-lasterketa horretan, jakina, aparteko urratsak izan dira hizkuntzaren eta idaztearen aurkikuntzak.

Keinu eta seinaleen garaiak atzean utzi zituen gizateriak cro-magnon gizakiak lurrak eta belardiak zapaldu zituenean, duela 35.000 bat urte. Keinu eta seinaleen ordeztu, komunikazio-prozesuetarako erreminta berria jarri zuen orduan martxan gizakiak: berba.

Berba-komunikazio horri esker, lengoaiaren bidezko igorpen informatiboari esker, gizakiak animalia izateari utzi eta pertsona izateari ekin ziola esan ohi da.

Giza komunikazioan, berbak, besteak beste,

- mezu zehatzak igorri ahal izatea,
- adierazi-katea luzeak ekoiztea,
- komunikazio-egintzen gai-esparrua zabaltzea,
- bizkortasuna eta zehaztasuna komunikazioan,
- pentsamenduaren, arrazamenduaren eta ametsen mundua zabaltzea eta komunikagarri moduan lantzea eta
- kulturak sortzea

ahalbidetu zituen.

Hori guztia, jada, ikusia dugu. Gure itauna, orain, honako hau da:

⇒ *Berba-komunikazioaren prozesua, zelan garatzen da? Zeintzuk dira beraren ezaugarriak?*

Itaun garrantzitsu horri erantzuteko, hiru autoreren lanak dakartzagu gure orrialde hauetara; autore horiek Saussure, Barthes eta Jakobson dira, hirurak europarrak. Saussureren eskutik, berba-komunikazioaren oinarriko funtzionamendua ikusiko dugu, eta baita funtzionamendu horren ezaugarriek egungo hedabideen jarduna zelan baldintzatzen duten ere. Barthesek berben *bigarren zentzua* ulertzen lagunduko digu; berba-sistema lotuen jokoak denotazioaren eta konnotazioaren mundura hurbilduko gaitu. Jakobson dugu hirugarren autore; hizkuntzak, berba-komunikazioak, zer funtzio dituen ikusiko dugu beraren eskutik, alegia, hizkuntza

*zelakoa* den barik, hizkuntza *zertarako* den; hizkuntzarenak diren funtzio horiek presente daude, jakina, egungo hedabideen jardunean.

### **3.1. F. de Saussure, berba-komunikazioa eta zeinua**

Komunikazioa ez da ezagutza, ez da gogorapena, ez da epaia, ez da nahikaria edota sentipena; komunikazioa horien ordezeko informazioa helaraztea da. Komunikazioak objektuen ordezkari direla hauek materialak edo ezmaterialak-zeinuak igortzen ditu eta zeinu horien bidez ulertzen dugu komunikatu gura zaiguna.

Komunikazioan, beraz, egitateak eta gertaerak berak igorri beharrean, horien ordezeko zerbait igortzen da: indizeak, seinaleak eta mezua.

#### Zer dugu indizea?

Berez disimulaturik dagoen zerbait argitara ekartzen duen zantzuren bat. Poliziak, esate baterako, norbaiten hiltzailea aurkitu gura duenean, ezezagunaren nortasuna argi dezaketen arrastoak bilatzen ditu; arrasto horiek ditugu indizeak. Eta komunikazioan, zer dugu indizea? Berez ezkutaturik gorde gura zen zerbait agirian uzten duena; esate baterako: igorleak ezkutuan gorde gura zuen egoera psikologikoren bat azaleratzen duena. Indizeak komunikazio-prozesuaren ulermen osoan lagun dezake, zeren igorlearen intentzioa edo komunikatuaren edukari buruzko ezagutzaren konprentsioa erraz baitezake. Indizeak, beraz, azalatu egiten du komunikazio-prozesu batean ezkutuan gorde gura zen zantzuren bat.

#### Eta zer dugu seinalea?

Informazioa daraman marka oro dugu seinale, baldin eta informazio moduan ulertua izan dadin sortua bada. Borondatez sortua izan den indizea dugu seinalea. Seinale barik ez dago komunikaziorik. Berbak seinaleak dira, berbak informazioa daramaten seinaleak dira, berbak apropos sortu dira informazioa garraiatzeko; komunikatzeko helburu zuzena duten seinaleak dira berbak. Orokorrean, seinaleek forma desberdina dute: berbek azal fonikoa hartzen dute ahozko komunikazioan, berbek azal tipografikoa har dezakete hedabide idatzien komunikazioan. Berba bidezko komunikaziotik at ere baditugu seinaleak: errepidean gabiltzanean, burdinazko panel batzuek ematen digute oinarritzko informazioa; panel horiek kolore argiak dituzte abiadura handian errekonozituak izan daitezen: panel horiek seinaleak ditugu.

#### Mezuaren bidez komunikatzen dela esan ohi da.

Mezua seinale bat edo seinale-multzo bat da, komunikazio-egintza batean igorria izan dena. Mezua esakune bat izan daiteke, alegia, ahozko komunikazioan erabilia izan den mezu linguistiko bat; edota, mezua testu bat izan daiteke, esakuneak tankera idatzia hartzen duenean. Mezua eraginkorra

da bera osatzen duten seinaleei zentzuren bat elkartu baldin bazaie eta zentzu hori igorle eta hartzailearentzat modu berean ulergarri bada.

Zeinua unitate konplexua da, entitate bik osatua dena; entitate horiek seinalea eta zentzua dira. *Seinalearen* ordeztan, inoiz, *adierazle* berba erabili da eta zentzuaren ordeztan *adierazia*. *Seinalearen* ordeztan, inoiz, *adierazpena* erabili da eta adieraziaren ordeztan *edukia*.

Zeinuak nahierara hautatuak dira, hautazkoak dira; esan gura da, ez dagoela arrazoirik adierazle batek adierazi bat edukitzeko, seinale batek zentzu bat adierazteko, adierazpen batek bere edukia edukitzeko. Zergatik deitzen diote frantsesek **zaldiari** *cheval*, ingelesek *horse*, errusiarrek *конь* eta gaztelaniera-hiztunek *caballo*?

Semaforo baten aurrean gaudenean, zergatik geratzen gara gorri ikusten dugunean eta ez berde dagoenean? Semaforoa gorri dagoenean, zergatik ez dugu aurrera egiten? Berez, kolore batek ez du esangurarik, guk eman gura diogunaz aparte.

Zeinu horiek esangura bat eta oso zehatza dute, gizarteak halaxe erabakita. Zeinuak, hartara, hautatuak dira, modu arbitrarioan sortu dira.

Arbitrariotasun horretan, hala ere, sarritan aurki dezakegu motibazio-izpiren bat edo beste; kasu honetan zeinu eratorriez egin dezakegu berba. Onomatopeien kasuan, esate baterako, zeinu eratorrien munduan gaude; gogoratu, onomatopeiak hots naturalen bat imitatu gura duten sekuentzia fonikoak direla –oilarraren kantua *kukurruku*, edo txakurraren zaunka *hau-*.

Arbitrariotasun horregaz segituta eta berba-komunikazioa gaindituta, trafiko-seinaleetan, batzuetan behintzat, motibotasun-izpiren bat edo beste aurki dezakegu, esate baterako: birak adierazteko kurba bat marrazten denean, antzekotasuna nabaria da gure begietarako. Marrazki hori biraren antzekotasunagatik hautatu da, horixe da beraren izatearen arrazoia, motiboa. Irudiak antzekotasunez funtzionatzen du, errazago komunikatzen du; hala ere, abstrakziorako arazo nabarmenak dauzka.

Berbak –zeinuak– esaldiak eratzeko –makrozeinuak eratzeko– erabiltzen ditugu. Makrozeinua zeinuz osatutako goragoko egitura komunikatzailea dugu. Berba-lengoaian komunikazio-unitatea esaldia da, esakunea edo testua.

Berba-lengoaian argi dirudien hori, berba bako lengoaietan ez da horren argi azaltzen; makrozeinuen funtzionamendua berba-lengoietatik at gaitzago zaigun zerbait dugu eta, horretarako, besteak beste, semiotika deitutako zientziaren beharra dugu.

Berba bako komunikazioaren kasuan, besteen artean, badugu ikurra dei genezakeen zeinu-mota bat. Seinale enblematikoak adierazteko erabili izan da ikurra: nazioaren bandera, kristauen gurutzea, sozialisten larrosa edo komunisten igitai eta mailua ikurrak ditugu.

Seinale enblematikoak talde sozial bereziekaz, doktrinekaz edo ideiekaz identifikatzen ditugu. Sinbolizazio-prozesuaren bitartez ematen diogu berba, objektu edo marrazki bati balore partikularra eta berezia.

Zeinuaren esangura primitiboa galdu egiten da sinbolizazioaren bitartez: zeinua birsemantizatu egiten da, izaera berria egotzen zaio. Har dezagun kristauen gurutzea. Gurutzearen hasierako erabilpena zigorra edo tortura izan zen: gurutzean iltzatzen ziren heriotza-zigorrera kondenatutakoak. Gaur egun, ostera, sinbolizazioaren prozesua dela-eta, birsemantizazioa dela-eta, gurutzeak, kristauen eskuetan, salbazioa irudikatzen du, heriotzaren osteko salbazioa. Antzera gertatzen zaigu berba sinbolikoekaz: askatasuna, demokrazia, iraultza, erradikala, abertzalea...

Termino horiek behin eta berriro ikusten ditugu birdefinitzen, birsemantizatzen. Testuinguruaren arabera, terminook behin eta berriro aldatzen dute beren esanahia, komunikatu gura dutena, zentzua.

### 3.1.1. Zeinua, komunikazio-trukearen oinarria

Itzul gaitezen komunikazioaren esparru zabalera. Mezu orok seinaleak daramatza eta seinale oro zentzu bati lotuta dagoenez, mezu batek zentzu bat baino gehiago –zentzu bakunak edo anitzak– komunika ditzake. Ez dira gauzak nahastu behar: mezu bat igortzen dugunean, edukia eta edukitzailea, alegia, seinalea eta zentzua –biak batera– igortzen direla pentsa dezakegu, baina ez da horrela.

Izan ere, seinaleak dira igor daitezkeen bakarrak eta, izatez, seinaleak baino ez dira igortzen komunikazio-egintzetan. Zentzua ezin da materialki igorri; zentzua igorri ahal balitz, ez genukeen gaizki-ulerturik, baina txarto-ulertuak, ulertezintasun-uneak, ulertze-arazoak komunikazio-prozesu orotan daude.

Komunikazio-egintzetan igorleak zentzu bat komunikatu gura du eta horretarako seinaleak igortzen dizkio hartzaileari. Hartzaileak seinaleak hartzen ditu –eta ez zentzuak–. Hartzaileak seinaleen bidez, seinale horiek direla bide, ulertu beharko du igorleak helarazi gura dion zentzua. Baina seinaleen aurrean ez dugu guztiok berdin funtzionatzen, seinaleak seinale direlako eta ez zentzu. Mezuak ez du zentzurik berez; igorleak zentzu bat aitortzen dio –bera– eta hartzaileak bere zentzua –agian berbera, agian antzekoa, agian desberdina– eransten dio heldutako seinaleari.

Komunikazioa, bada, paradoxikoa da, ordezkapenen bitartez funtzionatzen du. Igorpenean, komunikazio-prozesuan, seinaleak dabilta batetik bestera; baina, komunikazioa komunikatzaileek –biek– igorritako eta hartutako seinaleei aitortutako esangura berberen arabera gauzatuko da. Egia esan, mezu beraren aurrean zentzu desberdinak susma ditzakete entzuleek, hartzaileek; eta, halaxe gertatzen da (liburu bera irakurrita, ez dute irakurle *guztiek gauza bera* ulertzen).

Seinaleei esangura bat aitortzea, signifikazioen bitartez mezua eraikitzea, kodifikazio-egintzagaz dago elkartuta. Komunikazio-egintza bidezkoa izan dadin, kode komun baten arabera aitortu eta erakarri behar zaio esangura seinale bati.

Kodifikazio linguistikoaz berba egiten dugu, soinuei –berbei– esangurak aitortzen dizkiegunean, edota soinuetatik –berbetatik– esangurak ulertzen ditugunean.

Kodea sistema da. Kode linguistikoa zeinu linguistikoaren sistema da, zirkulazio-kodea zirkulaziorako seinale eta arauen sistema da. Kodea beraz, osotasun bat da, zeinaren barruan dena bat datorren.

Berbaz edo idazkeraz baliatuta, gizaki guztiek komunikatzeko duten ahalmen komuna da lengoaia. Gizakia da animalia guztien artean lengoaiaren jabe den bakarra; tximinoak, gizakiaren ondo-ondoko ugaztunak, gizakiarengandik genetikoki oso hurbilekoak direnak, ez dira lengoaiaren jabe, ez dute berba egiten, nahiz eta, beste animalia asko legez, komunikatzeko era eta modu desberdinen jabe izan daitezkeen, eta badiren.

Gura baldin bada, gizakia animalia hitzun bakar legez defini daiteke. Lengoaia, beraz, gizaki guztiek duten komunikazio-ahalmen komun legez definitzen dugu.

Egia esan, gizateria bat da, batasun bat da, lengoaiari dagokionez. Hizkuntzen arteko desberdintasunak, printzipioz, gizakien arteko desberdintasun genetikoei barik, gizarte-desberdintasunei dagozkie.

Esan gura baita, bizi den gizartearen arabera ikasten duela gizakiak hizkuntza bat edo bestea, edo batzuk; baina lengoaia-ahalmena garapen genetikoari esker lortu du gizakiak eta hori komunean dauka bere espezieko gainerako kideekaz.

Ahalmen komunari esker, beraz, gizakia hizkuntza desberdinen jabe da.

Komunikazio linguistikoaren ardatza, lengoaiaren bidezko komunikazio hitzunaren ardatza hitza da, berba, elea.

Saussureren teorian, hizkuntza naturalaren bidez burutzen den komunikazioaren ardatza da berba (*parole*). Berba horrek bere baitan hartzen ditu berba esana eta berba idatzia.

Hizkuntza komunikazio-sistema bat da. Hizkuntza zeinu-sistema bat da. Sistema horretako osagaiek, berbek, era bitako harremanak eratzen dituzte beren artean: sintagmatikoak eta paradigmaticoak. Harreman sintagmatikoak konbinazio-eta selekzio-harremanak dira, harreman sintagmatikoek zeinu-konbinazioak sortzen dituzte. Harreman paradigmaticoak, ostera, asoziatiboak dira.

- ◆ Gizakiak beharrezkoa du lengoaia bere pentsamendua arautzeko, antolatzeko eta komunikatzeko.
- ◆ Hizkuntzaren funtziorik nabarmenena komunikatzearena da.

- ◆ Hizkuntza ikasteak pentsamenduaren estrukturazioa dakar.
- ◆ Hizkuntzak pentsamenduan du bere eragina, baina hau norainokoa den ez dago argi gaur egun.

### 3.1.2. *Komunikazio linguistikoaren faseak*

Komunikazio linguistikoa ziklikoa da eta zikloak elkarren atzetik errepikatzen dira gizakien komunikazioa ahalbidetuz. Hona hemen hiru fase klasikoak:

- 1.- Urrats fisiologikoa: Fonazio-prozesuari dagokiona da. Organo fonatzaileek soinuak ekoizten dituzte, hotsak produzitzen dituzte.
- 2.- Urrats fisikoa: Igorle eta hartzaileen arteko transmisioa da. Soinu-uhinek betetzen dute fase hau. Akustika eta fisikaren aztergai da fase hau.
- 3.- Urrats psikikoa: Irudi akustikoa eta kontzeptu zehatza igorle eta hartzailearen burmuinetan bildu eta deskodetzen da fase honetan. Kontzeptu bakoitzak bere soinu propioa du hartzaile eta igorlearentzat.

ZEINUA, zeinu linguistikoa, epe psikiko honetan agertzen da. Zeinu horrek kontzeptuak adierazi eta ulertzeko balio digu.

### 3.1.3. *Zeinu linguistikoa*

Zeinu linguistikoa *kontzeptu* eta *irudi akustikoaren* elkartea da. Saussureren ustez, termino horiek zalantzagarriak izan daitezke eta, orduan, kontzeptuari “adierazi” deitzen dio eta irudi akustikoari “adierazle”. Zeinu linguistikoa, beraz, kontzeptua eta beronen irudi akustikoa biltzen dituen elementu konplexua da. Irudi akustikoa ez da hots material hutsa, hotsaren urrats psikikoa baino.

⇒ **adierazlea**

Zeinu linguistikoaren alderdi materiala da. Adierazlea kontzeptuak azaltzeko bidea da, komunikazio linguistikoan euskarri-rola betetzen duena. Adierazlerik gabe ez legoke kontzeptuak azaltzerik komunikazio linguistikoan.

⇒ **adierazia**

Ez da gauza edo objektu erreala, gauza edo objektu erreal horren errepresentazio psikikoa baino. “BEHI” esaten edo entzuten dugunean, buruan daukaguna ez da behia, behi guztien errepresentazio psikikoa baino. Adierazlerik gabeko adierazia komunikaezina da.

Zeinu linguistikoa komunitateari dagokio, askotan komunitate linguistiko bakar bati; eta zeinu linguistiko hori gizatalde horretatik kanpo ez da ezer. Zeinu linguistikoaz diogun hau, gainerako zeinu-motei ere badagokie.

Zeinu linguistiko eta gainerako zeinuei dagokien izaera komunitario espezifiko honek anekdotario luzea sortu du gizakien harreman komunikatiboetan.

## ZEINU LINGUISTIKOA HAUTAZKOA ETA LINEALA DA

Adierazlea eta adierazia lotzen dituen erlazioa oso da arbitrarioa, hautazkoa. Hizkuntza bakoitzak berea dauka eta hiztun-talde bakoitzak bere zeinuak kodetu edo deskodetu ditzake. Beraz, adierazlea eta adierazia lotzen dituen harremana ez da naturala, ez du zerikusi naturalik errepresentatzen duen erreferenteagaz, errepresentatzen duen objektuaren edo ideia-erreferentiaz.

Errealitatean aurki daitezkeen objektu bati zeinu bat ezartzea, horixe ezartzea eta ez beste bat, zerbait arbitrarioa, hautazkoa da. Hautazkotasun horren barruan, hala eta guztiz ere, arbitrariedade maila desberdinetakoa izan daiteke, eta bada.

Saussureren ustez, zeinua lineala da; hots, bere entzumenezko izaeragatik, zeinuak denboran hartzen du bere bereizgarria, bere dimentsioa. Zeinu linguistikoa deskodetzeko, ulertzeko, denbora behar da. Denboran neur daitezkeen deskodetze-prozesu hori zentzu bakarrekoa da, lineala da, entzumenak markatzen digun lerro berekoa. Elementu informatzaile bi aldi berean ahoskatzea ezinezkoa da. Izatez akustikoak ez diren zeinuak, keinuak, ikonikoak, hau da, adierazle bisualak (adibidez, itsas seinaleak) ez dira arau horien menpeko, Saussureren berbetan *dimentsio desberdinetan gertatzen diren aldi bereko korapiloak* direlako. Baina, lehenago esan dugun legez, adierazle akustikoen, denboraren lerroa baino ez dute. Elementuek, bata bestearen atzean aurkeztuta, katea osatzen dute. Adierazle akustikoen *denbora-katea* osatzen dute beraz. Adierazle idatziek, ostera, *espazio-katea* osatzen dute.

### 3.1.4. Saussure, teoria eta hedabideak

Zeinu periodistikoak, besteak beste, zeinu linguistikoa darama bere baitan; eta, zeinu periodistikoak, besteak beste, zeinu linguistikoa berak dauzkan ezaugarriak dauzka bere barruan eta noranahi daramatza.

#### 3.1.4.1. Linealtasuna hedabideetan

Gogoratuko denez, Saussureren iritziz zeinua lineala da bere entzunezko izaeragatik, eta izaera horrek ahalbideetzen du zeinuak denboran hartzea bere bereizgarria, bere dimentsio lineala, alegia.

Kazeta-diskurtsoa katea idatzia da, irakurketa-prozesua eskatzen duena eta prozesu hori denboran neur daiteke. Kazetaren irakurketak jarraikortasun berezia eskatzen digu, linealtasun berezia. Irakurleak orri bat edo beste hautatzen du irakurtzen hasteko.

Kazetaren kasuan, irakurleak hautatzen du zein notizia zein unetan irakurri; eta ez hori bakarrik, kazetaren kasuan, irakurleak berak erabaki dezake notizia hori zelan irakurri, goitik behera edo atzekoz aurrera; berak gura baldin badu, amaiera aurrera dezake, parrafo batzuk irakurtzeke utzita.

Baina, kasu horretan, albistearen adibidean, sarrera edo *leeda* irakurtzeke utziko balu, edo elkarriketarenean itauna irakurriko ez balu, zelan ulertuko luke



edukia? Linealtasunari, norabideari, igoerak hautatutako zentzuari segitzea beharrezko baldintza da, zeinu periodistikoa sortua izan den legetxe ulertu gura baldin bada.

Telebista eta Irratiaren kasua, ostera, pixkat bestelakoa da. Ikusleak, entzuleak, diskurtsoaren erritmoari segitu behar dio, albisteak ulertuko badu; ezin du jauzirik egin (bideoa edo grabagailuaren laguntzarik ez baldin badu, behintzat) eta amaiera aurreratzea ezinezkoa da hemen, ez soilik zeinu periodistikoaren logikak halaxe eskatzen duelako, horrez gain teknologiak linealtasun hori goitik behera ezarri eta inposatu egiten duelako baizik.

#### 3.1.4.2. Hautazkotasuna hedabideetan

Zeinu linguistikoa arbitrarioa da eta zeinu berori, hautazkoa den hori da, hain zuzen ere, eskuartean dugun komunikazio-hizkuntzaren ardatz. Hitzak, berbak, dira kazeta, irradi eta telebistako diskurtsoen ardatz. Ez bakarria, egia esan, baina bai garrantzitsuenetarikoa. Horra hor lehen hautazkotasuna, komunikazioan ekidiezina dena.

Baina, hedabideen kasuan beste arbitrariedade batez egiten dugu topo. Kazetari kontalariak berak hautatu egiten du zeinu linguistiko bat edo beste, bere diskurtso periodistikoa egiterakoan.

Hedabideen kasuan profesionariaren arbitrariedadeaz egiten dugu topo.

Gertaeren aurrean ez dute kazetari guztiek gauza bera kontatzen, hots, kazetariak diskurtso periodistikoa ez dute zeinu berberak erabilita azaltzen. Kasu bakoitzean, zeinu bat edo bestea erabiltzen da, nahiz eta kasu askotan erabiltzen diren zeinuen esangura, adierazia, hurbilekoa izan, zeiniek izan dezaketen polisemia dela-eta.

### 3.2. R. Barthes, *berba-sistema lotuak*

Roland Barthes autore frantsesaren semiologian, pisu haundiko kontzeptuak dira ondoko hauek: denotazioa eta konnotazioa. Termino horiek duten osagai komuna ondokoa da, alegia **lengoaia lotuak** izatea.

*Denotazio* hitzaz, zeinuak duen berezko esanahi propioa ulertzen dugu. Kontzeptu hau konnotazio kontzeptuaren osagarria da; zeren, *konnotazio* esatean, berbak bere testuinguruan har dezakeen esanahia ulertzen baitugu.

Har dezagun ‘berde’ berba. Beraren eduki denotatiiboak, argi-izpiak deskonposatzean ezagun dugun kolore-aukera jakina dakarkigu gogora, heldu bako fruituarena, esate baterako. Horrez gain, aurreko irudi hori ukatu barik, ‘berde’ berbak beste esanahi batzuk ere ekar ditzake gogora, berezkoak ez direnak, Naturatik eratorriak ez direnak, baina ‘berde’ kolorearen erabilpenaren poderioz edo erabilpenaren testuinguruak markatuta ezagun egin direnak, esate baterako: ekologia, itxaropena, arriskurik eza... Bigarren esangura horiek konnotazioaren mundukoak direla diogu.

### 3.2.1. Denotazioa eta konnotazioa

Zeinu-sisteman, hiru plano bereiz daitezke:

- 1.- adierazpena, esamoldea, espresioa
- 2.- edukia, kontenidoa
- 3.- esanahia, signifkazioa, aurreko bi elementuen arteko harremana.

Beraz, zeinua, laburbilduz, AEE (adierazpena, edukia, esanahia) sisteman oinarritzen dela esan genezake. Pentsa dezagun AEE sistema hori beste AEE sistema oso baten parte bilakatzen dela, bigarrenaren osagai bihurtzen dela. Kasu horretan, lengoia-sistema lotu edo kateatuak edukiko genituzke begien aurrean, lehen sistema beste baten partaide bilakatzen delako hain zuzen ere, sistema bat beste bategaz kateatzen delako. Konnotazioa kateamentu-posibilitate horretan bertan sortzen da.

Demagun AEE sistema bat bigarren AEE sistema baten *adierazle* bilakatzen dela. Lehen AEE sistema beste AEE sistema bategaz elkartu, kateatu, lotu egingo litzateke, ezta? Lehen sistemak bigarren sistemaren adierazpena, esamoldea, espresioa ordezkatzeko luke, beraren formula ondoko hauxe litzatekeelarik: (AEE)EE, non lehen planoak, (AEE) sistemak, mundu denotatiboa eramango bailuke bere baitan, eta bigarren planoak, EE sistemak, mundu konnotatiboa sortuko bailuke gure baitan. Adibidez:

‘ARGIA’

Zeinu linguistikoko horren esanahia, berezkoa, “objektuak ikusgai egiten dituen goritasuna” da; baina zeinu horrek, testuinguruaren arabera, esanahi denotatibo hori gaindituz, beste esanahi batzuk ere ekar ditzake gogora, konnotatuak. Ikus ondoko perpausetan:

*Argi bako gizona.* Ez da goritasunik ezean objektuak ikusten ez dituen pertsona, ulermen eskasekoa baino, leloa, alegia.

*Betor argia!* Ez dugu goritasuna erreibindikatzeko. Testuinguruaren arabera, ikerketak has daitezkeen eska genezake-eta.

Kasuotan, argiaren sistema denotatuak, (AEE) deituak, bere atzetik darama beste sistema oso bat, EE deitua, zeinak lehena (AEE alegia) beste modu batera (EE moduan) ulertzera derrigortzen baikaitu. Konnotazioa da Barthesentzat gure gizarteak sortu dituen portaera-pauten nondik norakoak aztertzeko giltza. Portaera hauen azpian ideologia bat dago beti.

Gaindi dezagun berba bidezko komunikazioaren esparrua. Pertsonak zentzua ematen die bai berbei, baita gauzei ere. Zer da *objektua*? Zer bat, pertsona eta akzioaren arteko gailua, egintzak bideratzen laguntzen duena. Objektuak zerbait egiteko balio du, baita zerbait komunikatzeko ere; horra hor objektuaren balio semiologikoa. Adibidez:

## TELEFONOA

Izatez, berba egiteko aparatua da / erabilpena = denotazioa

Baina, telefonoa zelakoa den ikusita, “epokakoa” balitz –demagun zuria eta urrezko apaingarriekaz– luxua konnota dezake agian.

## ESTILOGRAFIKOA

Izatez idazteko tresna da / erabilpena = denotazioa.

Gaur egungo gizarte honetan, dotorezia konnota dezake.

Gure gizartean, asko eta asko dira funtzio arrunta betetzeaz gain harago joan eta beste zerbait gehiago adierazi gura edo adierazten duten objektuak. Esan-gura semantikoa bereganatzen duen kasuetan, objektua, *zeinu semiologikoa* da.

Aurreko kasu konnotatuetan, objektuen adierazle-sistemak maila bi dauzka:

### 1.- Estadio sinboliko-hutsa

objektu batek, adierazle batek, adierazi bakarrera garamatzanean:

<i>zertarako</i>	<i>objektua</i>	<i>adierazia</i>
jendea hiltzeko:	<b>gurutzea</b>	<i>kristautasuna</i>
gaueko argia:	<b>ilargia</b>	<i>arabiar kultura</i>
jatekoa:	<b>laranja</b>	<i>freskagarritasuna</i>

### 2.- Estadio korapilotsua

objektu batzuek, adierazle batzuek adierazi bakarrera garamatzatenean:

*egoera lasaia adierazteko:*

etxean, lanpara ondoan, larruzko besaulkian eserita, egunkaria eskuan, txakurra sutondoan...

*britainiartasuna adierazteko:*

mantsio koloniala, jantzi zuri freskoak, bibotedun gizona, saloian itsasontzien erreprodukzioak, zaldien koadroak, te-kikara...

Objektuaren esanahi semantikoa, goiko kasuetan, hartzaileak berak interpretatzen du bere erara, bere ezagupen historiko eta kulturalen arabera. Beraz, objektu batek irakurketa desberdinak izan ditzake pertsona desberdinen kasuan, baita pertsona bakar batengan ere testuinguru desberdinetan.


### 3.3. Jakobson, berba-komunikazioaren prozesua

Giza komunikazioaren funtzionamenduaren azalpen honetan, hirugarren urratsa dator orain.

Jakobsonen teoriaren arabera, zeinu baten funtzio nagusia MEZUEN bidez IDEIAK komunikatzea da eta komunikazio-prozesu batean sei elementuk hartzen

ohi dute parte: **igorlea**, **hartailea**, **kodea**, **testuingurua**, **mezua** eta **bidea** deitutakoek.

Hona hemen, komunikazioaren teorian klasiko bilakatu den eskema, gure ikasturte honetan behin baino gehiagotan aipatu duguna:



Gogora ditzagun oinarriko osagaien definizioak:

- **IGORLEA:** mezua komunikatu, hedatu, zabaldu gura duena; informazioaren bidaltzailea.
- **HARTZAILEA:** igorleak abian jarritako mezua, informazioa hartzen duena;
- **BIDEA:** *medium*-a, uharka, igorlearen mezua hartzaileari hurbiltzen diona;
- **TESTUINGURUA:** zertaz berba egiten den, erreferentea;
- **KODEA:** komunikazioa zeinu bidez egiten da eta, beraz, elkar ulertzeko kodeketa-deskodeketa legeria bera erabili behar dute komunikazioaren prozesuan parte hartzen duten lagun guztiek.

### 3.3.1. Hizkuntzaren funtzioak

Komunikazioaren faktore batean edo bestean enfasi handiago edo txikiago jartzeak funtzio komunikatibo bereziak sortzen ditu prozesuan, harreman komunikatiboan. Roman Jakobsonek sei funtzio bereizi zituen, horietariko bakoitza eredu komunikatiboaren elementu bati dagokiolarik.

#### **funtzio aipatzailea**

Funtzio erreferentziala da, komunikazioaren oinarria. *Mezuaren* eta *Objektuaren* arteko harremanak ahalik eta erarik objektiboenean bermatzean datza. Hizkuntzak erreferentean, zertaz berba egiten den horretan jarri du arreta eta bere helburua horixe, eta *horixe bakarrik* hedatzea, transmititzea, da. Horretara, komunikazioaren helburua ideiak egiazko moduan eta modu egiazgarrian azaltzea

da.

### **funtzio hunkitzailea**

Funtzio hau, emotiboa, subjektiboa da; lehena –aipatzailea– objektibotzat hartzen dugu. Komunikazioaren helburua, kasu honetan, *Igorleak Objektuaz* duen jarrera erakustea da. Funtzio hunkitzailea funtzio aipatzailearen kontrakotzat jo ohi da, objektibotasuna eta subjektibotasuna aurkakoak diren hein berean.

### **agindu-funtzioa**

Funtzio konminatiboa edo konatiboa deitu ohi da. *Mezua* eta *Hartzailearen* arteko harremanean datza. Komunikazioak hartzailearen aldetiko erantzuna eragin gura luke. Agindu-funtzioan oinarrituta daude, besteak beste, trafiko-seinaleak edota publizitatearen mundua.

### **funtzio euslea**

Funtzio faktikoa da. Funtzio honen helburua komunikazioari eustea edota komunikazioa, prozesu moduan, haustea da. Funtzio eusle hau garrantzi handikoa da ekitaldi politikoetan, erlijiosoetan..., batez ere, bertan bildurik dagoen jendetzaren arreta gal ez dadin. *Igorlearen* eta *Hartzailearen* arteko harremanean sortutako funtzioa da.

### **funtzio metalinguistikoa**

Hartzaileak uler ez ditzakeen zeinuen zentzua definitzea du helburu funtzio metalinguistikoa. Azalpen-testu batean “kakotx” artean jarriko genukeen berbaren eginkizuna betetzen du funtzio honek. *Mezua* eta *Kodea* uztartzen ditu.

### **funtzio poetikoa**

*Mezuak berak* bere *buruarekiko* harremanean sortzen duen funtzioa da hau. Estetikaren disziplinetan aurkitu ohi dugun funtzioa da. Komunikazio poetikoan, esate baterako, esan ohi denez, garrantzitsuena ez da mezua bera, mezuaren edertasuna baino. Literatura, pintura, eskultura... dira lengoiaia poetikoak.

## ***3.4. Irakurgaiak***

Jakobson, R. (1975). *Ensayos de lingüística general*. Seix Barral, Bartzelona.

Saussure, F. (1960). *Cours de linguistique générale*. Payot, Paris.

Barthes, R. (1996). *Idazkuntzaren zero gradua*. Klasikoak, Bilbo.

Mingolarra, J. A. (1982). “Komunikazioa prozesu gisa” in *Jakin*, 22. Arantzazu.

## **Laugarren atala: Informazioaren eta komunikazioaren garapena**

### **4.1.- Hedabide idatziak, agerkundea eta garapena**

- 4.1.1.- Inprenta tipografikoa
  - 4.1.1.1. Zeinu idatziaren kopiaketa zaharra
  - 4.1.1.2. Idazkeraren berrikasketa mendebaldeko Europan
  - 4.1.1.3. Tipografiaren jaiotza
  - 4.1.1.4. Inprenta Euskal Herrian
  - 4.1.1.5. Tipografiaren ondorioak
- 4.1.2.- Hedabide idatzien aroa
  - 4.1.2.1. Masa-egunkarien sorkuntza
  - 4.1.2.2. Prentsa-mundua XXI. mendeari begira

### **4.2.- Zinema, teknologia eta masak**

- 4.2.1.- Teknologiaren garapena
  - 4.2.1.1. Proiekzioa eta kamara iluna
  - 4.2.1.2. Irudi jarraituaren ilusioa
  - 4.2.1.3. Irudia eta kamara iluna
  - 4.2.1.4. Zinemak ehun urte
  - 4.2.1.5. Zinema, propaganda eta informazioa
- 4.2.2.- Zinema eta masak
  - 4.2.2.1. Hasierako edukiak eta ikusleria
  - 4.2.2.2. Nickelodeon
  - 4.2.2.3. Zinema heldua
  - 4.2.2.4. Zinemaren garapen arina
  - 4.2.2.5. Hasierako zinema eta legeria
  - 4.2.2.6. Zinema Sovieten Herrian

### **4.3.- Telekomunikazioak hedabideen garapenean**

- 4.3.1.- Telegrafo elektrikoa
  - 4.3.1.1. Kable bidezko telegrafoa
  - 4.3.1.2. Telegrafoa eta komunikazioa
  - 4.3.1.3. Kable gabeko telegrafoa
- 4.3.2.- Irratia
  - 4.3.2.1. Marconi-ren aparatua
  - 4.3.2.2. Telegrafotik irrati-telefonora
  - 4.3.2.3. Irratia etxera doa

4.3.2.4. Gatazka airean

4.3.2.5. Irratia, ideologia eta gizartea

4.3.3.- Telebista

4.3.3.1. Telebista, hedabide masiboa

4.3.3.2. Telebistan digitalizazioa

#### **4.4.- Irakurgaiak**

## 4.- Informazioaren eta komunikazioaren garapena

Aurreko gai batean, *komunikazioaren hastapenak* deiturikoan, giza komunikazioak, historiaurretik gure arora artean egindako bide luzearen nondik norakoak ikusteko aukera izan dugu.

Aurregizakiak, hominidoak, garaiko gainerako ugaztunen antzera, oihuka eta keinuka komunikatzen zirela ikusi dugu, baita horrela komunikatzeak zekarren zehaztasunik ezaren arazoa ere. Milioika urteko aurrerapauso erraldoian, gizakiak lengoaiaz baliatzen ikasi zuela ikusi dugu, eta baita berba bidezko lengoaiak, gainerako komunikazio-erekez alderatuta, zekartzan zehaztasunerako ahalmena eta joera ere.

Bere ingurukoekiko komunikazio-beharrak bultzatuta, informazioa gordetzen ikasi zuen gizakiak. Gordetze-prozesu luze eta korapilotsu horretan, hasiera batean, ideiak marrazkien bidez gorde zituen (lehenak ikonikoak, gero abstraktuagoak). Gordetze-prozesu horretan, silabak eta soinuak errepresentatzen ikasi zuen gizakiak geroago.

Azkenik, gizakiak informazio errepresentatua, *idatzia*, garraiatzen ikasi zuen, testuak hormetatik eta harrietatik askatu eta euskarri eramangarrietan itsatsita eraman zituen; papiroak eta paperak ahalbidetu zuten kultura idatzia belaunaldiz belaunaldi igarotzea, solaskideek zertan elkar ezagutu beharra eduki barik; eta bai kultura idatzia lurralde apartatuetara eramatea ere.

Aurrerapen eta aldakuntzen ildo horretan, testuinguru eraberritzaile horretan, giza komunikazioaren erreferenteetan gertatutako aldaketak hartu behar dira kontutan. Hasierako komunikazioan, aurrehistoriako hartan, aurrehominidoen komunikazio primitibo hartan, objektuak eta berehalako ekintzak ziren erreferente nagusia. Gero etorri dira, logikaren laguntzaz, pentsamenduak ahoz eta idatziz adierazteko moduak eta ereduak.

Orain, antzinako urte haiek atzean utzita, geure arora egingo dugu jauzi. Gizakiaren komunikatze-beharrak bultzatuta, aurrerapenak etengabe etorri dira giza harremanen mundura. Komunikazioaren garapenaz berba egitean, azpimarkatu beharreko ideiak ditugu hurrengoak:

1.- Giza komunikazioaren garapenak erreferente primitiboen eraberritzea ahalbidetu zuen. Logika, pentsamendua eta lengoia lotuta daude.

2.- Komunikazio idatziak aurrez aurreko komunikazioaren denboramugak eta espaziokoak gaintitzea ekarri zuen.



3.- Teknologia sozialen eta teknologia komunikatiboen garapenak giza espeziearen eboluzioaren loratzak dira. Tipografia, masa-egunkaria, telegrafia, irratia, zinema, telebista, multimedia sareak, satelite digitalak... Horiek guztiak gizakiaren etengabeko eboluzioan, azken milurtekoan, teknologia komunikatiboek ahalbidetu dituzten erreminta aipagarriak dira.

#### ***4.1. Hedabide idatziak, agerkundea eta garapena***

Informazioa finkatzeko eta garraiatzeko, gizakiak abian jarri dituen aurrerapenen artean tipo higikorren inprenta izan da aipagarriena, hots, hedabide idatziaren geroragoko aurrerapen guztiak baldintzatu dituen inprenta modernoa.

Tipografiaz berba egiteko mende batzuk egin behar ditugu atzera.

##### *4.1.1. Inprenta tipografikoa*

Ezaguna da testuak behin eta berriro egiteko edo erreproduzitzeko joera ekialde urrunean agertu zela; historiak gogoratzen digunaren arabera, Txinan egin zen lehen kopiaketa-saio serioa.

Kronika zaharrek diotenez, Tsai Lun enperadorearen menpeko batek asmatu zuen papera Kristo osteko lehen urteetan, 105ean, hain zuzen ere.

Txinan, Konfuzioren testuak modu anizkunean kaleratzeko erabili ziren lehen aurkikuntzak VII. mendean egin ziren. Erreprodukzioa alde aurretik landutako zurezko oholtzoek lagunduta bideratu zen Txinan.

Papera bera eta zurezko oholen bidezko erreprodukzioa ekialdean asmatu baziren ere, ez ziren han asko garatu. Garatu, mendebalde dinamikoagoan garatu ziren txinatarren aurkikuntza tekniko haiek. Eta Txinako aurrerapen tekniko haiei esker, mendebaldeko dinamikotasunak iraultza ekarri zuen komunikazio idatziaren mundura.

##### *4.1.1.1. Zeinu idatziaren kopiaketa zaharra*

Europar, XV. mendera artean, eskuz kopiaturik gordetzen zen informazioa, alegia, eskuz kopiatzen ziren testuak eta liburuak. Kopia asko eta asko ederrak ziren, baina testuen errakuntzek sarritan desitxuratu egiten zuten artisauen lan ederra. Irakurria edo, beharbada, ikusia izango duzue Ecoren *Arrosaren izena* eleberria; hortxe duzue *amanuense* deitutako kopiatzaileen lanaren deskribapen polita, orduko garaietara hurbil gaitzakeena.

Kontuak kontu, eskuz kopiatzeak, lanak edertzea bazekarkeen ere, kopia-eredu hau astiro ziharduen sistema zen batetik; eta, bestetik, erreprodukzioak astunak ziren, erabilitako paperak eta tintak medio; ezin ahaztu, gainera, eskuz kopiatzeak, izkribu-kopiatzailearen borondate txarrez, edota beronen arretarik ezagagatik, testuetan aldakuntzak ezartzeko arriskua zekarrela.


VI. mendean azaldu ei ziren Europar, Txinatik ekarrita, zurezko plantzekaz egindako lehen eredu inprimatuak, baina sistema horrek ez zuen, orduan behintzat, ezelako arrakastarik lortu europarren artean. Europarrek liburuak modu anizkunez inprimatu behar zirela erabaki arte, urte asko joan ziren.

Ekialde urrunean baino beranduago, Europako kultur ereduak aldatzen hasitakoan, bertako gizartearen birdinamizazioak paper idatzia eskatu zuenean, europarrak ere liburuak modu anizkunez erreproduzitzen hasi ziren. Liburuak modu anizkun desberdinen bitartez erreproduzitu ahal izateak, benetako iraultza ekarri zuen zeinu idatziaren hedapenera, eta teknologia eta tekniken garapenera.

Txinako inprenta zaharrek –gerora Europara ekarri zen lehen teknologia inprimatzaile hura– 800. urtean emana zuten argitara lehen *liburu inprimatua*. Ekialdeko sistemetan oinarriturik, zigilu bidezko inpresioa ezaguna zen Europan XV. mendea baino lehenago. Plantxa oso baten bidezko inpresioa ezaguna zen Europan, jada, XV. mendearen aurretik.



XV. mendeko grabatu erlijioso, Alemaniako



tipo higikorren aurreko lana, inprimatu ostean eskuz edertua

Goiko adibideotan, tipo higikorren aurreko inpresioaren ereduak ikus ditzakegu. Ohol batean grabatzen ziren irudiak eta testuak oso-osoan. Eskuzko grabaketa-lan horien ostean, oholak ez zuen aldaketarik onartzen: behin oholean grabaturik, testuak eta irudiak betiko gelditzen ziren beren hartan.

Ezkerreko adibidean, liburu erlijioso bateko orrialdea ikusten da: Kristoren irudia testuz inguratuta. Alemaniako eredu horrek koadro baten antzera funtzionatzen zuen: letra eta irudia, dena zen bat; trintxa eskuan, inprimatu gura zenaren *negatiboa* tailatzen zen egur zati batean.

Eskuineko adibidean ere, tipo higikorren aurreko lana ikus dezakegu. Eredu horretan ondokoa dago ikusgai: lehenik testua bere aldetik inprimatzen zen zurezko plantxa erabilita, eta ondoren, artisauek, orrialdea dotoretzen zuten,

eskuz, askotan koloreak ere erabiliz. Inpresio-sistema horrek eredu anizkuna eta eredu artistikoa uztartzen zituen: testuak modu *ia mekanikoz* argitaratzen ziren eta irudiak eskuz eginak ziren.

Tipo higikorren aurreko inpresio-eredu desberdinetako adibide berria da hurrengoa. XV. mendekoa da hori ere, xilografia-lana, grabatua. San Kristobal ikusten da bidaiariaren laguntzaile. Testua eta irudia orrialde berean ageri dira, biak testuinguru berean integraturik.



San Kristobal, bidaiariaren lagun

Xilografia-lana da hurrengoa, tipo higikorren aurreko inpresio-lana hau ere. Italiako ekoizpena dugu eta gerra baten garaipena gogoratzen zaigu. Irudietan kalejira ikus daiteke, garaileen kalejira; testuan garaipenaz egiten da berba.

#### PRIMVS



EL SEQVENTE miù pho nò meno mirae glioso di primo. Impo che egli hauea le qtro uolubile rote tune, & gli radii, & il mediatullo defu fco achate, di còdide uéule uagamète uaricato. Ne tale certamte gesto re Pyrho cù le noue Mufe & Apolline i medio pulfate dalla natura ipfso.

Laxide & la forma del difco qje el primo, ma le tabelle cráo di cyanco Saphyro orientale, atomato de fcinu il lule doro, alla mágica gratiffimo, & longo accepniffimo a cupidine nella finiftra mano.

Nella tabella dextra mirai exscalpto una infigne Matróa che dui oui hauea parturito, in uno cubile regio colloca ta di uno mirabile pallacio, Cum obftricta ftu pefacte, & multe altre matrone & affante Nymphc Degli quali ufcina de uno una flammula, & dela, tro ouo due fpectatiffi me ftelle.

\* \*  
\*

garaileen kalejira, xilografia

Bestelakoa da, oso, inprenta modernoa, tipografia. Gaur egungo inprenta modernoaren aitzindariak XV. mendean ikusi zuen argia. Alemaniako Mainz-en herriko artisau batek asmatu zuen inprenta modernoa, hots, orrialdearen konposaketarako tipo higikorrez lan egiten zuen inprenta modernoa. Kronikek diotenez, L. Coster nederlandarrak jarri ei zuen abian gerora J. Gutenberg alemaniarrek garatu zuen sistema aurrerakoa.

Inprenta modernoaren garapenean, aurkikuntzarik handiena, urratsik garrantzitsuena, karaktere higikorreko konposizioa asmatzea izan zen. Karaktere higikorrek esaldiak letraz letra konposatzea ahalbidetu zuten, bai eta orrialde bat konposatzeko erabilitako tipoak, hurrengoren batean ere, berriro erabili ahal izatea, orrialdea inprimatu ondoren plantxa osoa desmunta baitzitekeen.

Asmakuntza biribila izan zen; hala ere, asmatzailea bera eta bere gizartea ez ziren horretaz jabetu. J. Gutenberg maintarrak hogeitertan garatu zuen inprenta modernoaren funtzionamendu berrirako teknika; pobrezian hil zen, bere asmakizuna abian jartzeko eskatu zituen diru-maileguez itota. Hil zenean, bere ondare guztia honako hau izan zen: karaktere higikorren bitartez Biblia Santuari egindako berrehun kopiako bildumatxoa.

#### 4.1.1.2. Idazkeraren berrikasketa mendebaldeko Europan

Egin dezagun, pixka batean, historian atzera berriro. V. mendean Europak jasan zituen inbasio *barbaroak* zirela-eta, bertoko herrien arteko harremanak eta komertzioa erabat gelditu ziren. Kultur eredu berriak ezarri ziren eta Europa ahoko kulturara itzuli zen, erromatarren kultura idatziaren zaletasuna baztertuta.

Kultura idatziaren birpizkundea milurteko berriagaz etorri zen: X-XI. mendeetan. Birpizkunde horren oinarrian ondoko bost arrazoi hauek aurki daitezke:

- ⇒ a) Inbasio barbaroen lurrikararen ostean, herrien arteko komertzioa garatzen hasi zen berriro ere Europan, eta jabegoen trukaketek paper idatzia eskatu zuten hasiera-hasieratik;
- ⇒ b) Hiriak handitzen hasi ziren, jendearen arteko harremanak eta komunikazioak berreraikita; eta barne-antolamendurako legeria paper idatzian ezarri zuten hiriek;
- ⇒ c) Hiri eta lurraldeen arteko migrazioak hasi ziren peregrinazioek bultzatuta, eta erromesek liburuak eta hiztegiak garraiatu zituzten bidelagun;
- ⇒ d) Islameko herrien aurkako gurutzadek kronika, kantore eta istorio idatziaren zaletasuna piztu zuten;
- ⇒ e) Europan urrea agertu zen berriro; trukaketa komertzialek dirua ekarri zuten, hondoa jota zegoen kontinentera.

XI.-XIII. mendeetan idazkuntzaren beharrak eta zaletasunak gora egin zuten notaria-sistemak abian jarri, kontratuak idazten hasi eta trukerako letrak hedatzen hasi zirelako. XIV.-XV. mendeetan lege zibilak idatzi ziren, bai eta erlijio-testuak ere.

Ikusten denez, arrazoi diferenteak zirela-eta, testu idatzien eskaria gora etorri zen. Testu-ekoizleek beren enpresak hobetzeko beharra ikusita, teknologia berrien asmakizunak heltzeko ateak zabalik ziren.

#### 4.1.1.3. Tipografiaren jaiotza

Errenazimentuari aurrea hartu zioten mugimendu intelektualen, literarioen, ekonomikoen, teknologikoen eta politikoen bultzadan aurkitu behar da inprenta modernoaren jaiotza mendebaldeko Europan.

Kultura europar klasikoaren birpizkundea bultzatu zuen mugimendu intelektuala batu zen *Errenazimentua* deitutakoan. Espainian, oraindino, arabiarrek zeuden Granadan, Kolon bere bidaiaria historikoa ari zen antolatzen eta Nafarroa, laster, Gaztelaren menpe geratuko zen 1512. eta 1515. urteetako inbasio eta gerrak zirela medio.


Inprenta modernoaren prolegomenoetan, Europak XII. mendean ezagutu zuen papera egiteko sistema. Arabiarren opari izan zen papera fabrikatzekoa, Europa Espainia eta Italian zehar hedatu zena.

XIV. mendean, zurezko oholak erabilia, lehen estanpatuak eginak ziren; estanpatuetako gaiak, gehienetan, erlijiosoak.

Karaktere higikorren inprenta, kronistariak gehienek diotenez, XV. mendeko asmakizuna da, J. Gutenberg mainztarrak gure artean abian jarri zuena. Johan Gänusefleisch –Gutenberg–.

1399an jaio zen Mainz-en. Beraren aita artzapezpikuaren orfebrea, urregin-zilargina, izan zen moneta-etxean. Gutenberg Strasburg-era abiatu zen eta bederatzi urte (1435-1444) eman zituen han ofizioa ikasten eta hobetzen. 1448. urtean Mainzen agertu zen berriro ere. Bere lanik ezagunenak: *Mainzko Salterioa*, 1457koa eta 42 lerroko *Biblia Santua*, 1455ekoa.

Lehenago aurreratu dugunez, Gutenberg inpresoreak arazo ekonomiko larriak eduki zituen bere bankariagaz eta, beraren inpresio-sistema berria Europan zehar hedatzen hasi arren, bera lurjota hil zen bere asmakizunaren garrantzia eta headadura ezagutu barik.



Maguntziako Salterioa, 1457

Teknika berriak bere emaitzak eman zituen: 1500. urterako estilo berriko berrehun inprenta zeuden Europan.

- ◆ 1458an Strasburgen zabaldu zen, karaktere higikorrak lantzen zituen inprenta berri bat,
- ◆ 1470ean Parisen ezagutu zen inprenta modernoa,
- ◆ 1473an Lionen,
- ◆ 1474an Liejan,
- ◆ 1474an Krakovian...

Preclarū hoc opus p̄nme seculi de sancti tho-  
me de aquino. Alma in urbe mogunana. in:  
choc natioms germanice. quā tri de inena  
tam alti ingenij lumine. sono q̄ gratia. cre-  
nis terrarū natiōib; p̄ferre illustrare q̄ digna:  
ta ē. Artificioſa quādā adinueniōe imp̄mē:  
di ſeu caeterijandi abſq; vlla culam exar-  
atione ſic effigiatū. a ad ruſebia tri indultre  
eſt conſummatū. p̄ petri ſcho oiffet de germ̄.  
ſtm. Anno dñi mil̄cimo quādringentiſimo  
ſep̄tuageſimo p̄mo. Octava die nouembriſ  
Sic laus dro.



Summa theologica, 1471



Alphabetum Græcum, 1543



Gutenbergen prentsak metal urtuzko tipoak erabiltzen zituen eta ordura arteko zurezko tipoak ez legez, hauek behin eta berriro erabil zitezkeen. Berrikuntza horiei esker, inprimatutako liburuek kalitate hobea zuten eta alde bietatik hasi ziren inprimatzen.

Sistema berrian, tipoak urtzeko makina asmatzeagaz batera, karaktereak lortzeko bidea erraztu zen eta horrek letra-tipo desberdinak agertzea ekarri zuen: gotikoa, erromatarra, etzana... Inprimategi modernoaren lehen ekoizpen horiei, 1500. urtera artekoei, *inkunable* deitzen zaie.

Paperean edo antzeko material batean izkribuak edo marrazki baten aldakiak modu anizkunean egin ahal izatea, XVI. mendeak bermatu zuen, Gutenbergek asmatutako tipo higikorren prentsaren bitartez. Hala ere, XIX. mendera artean, liburuen produkzioa artisau-lana izan zen: testu-antolatzaileak tipoak bana-banaka hautatu eta konposagailuan lerrokatuz eratzen zituen testuen *negatiboak*, eta gero inpresoreak tintaz bustitako tipoaren kontra papera eskuz estutuz inprimatzen zituen orriak.

XIX. mendean inprimategia mekanizatu egin zen gainerako industria eta tailerrak legez. Inprimategira, esate baterako, Köning makina zilindrikoa heldu zen 1810ean, Mergenthaler linotipia 1884an eta Lanston monotipia 1887an. Kalitatea hobetu egin zen, baita aldakien kopurua handitu ere: produkzioa industrializatzen hasi zen.

#### 4.1.1.4. Inprenta Euskal Herrian

Jakin badakizunez, Europak VI. mendean eduki zuen inprimategiaren lehen oihartzuna, Txinatik etorria. Hala eta guztiz ere, europarrek ez zuten tipo mugikorren inprimategia martxan abiarazi XV. mendera arte.

Mainz hirian ikusi zuen argia lehen inprimategi europarrak Gutenberg alemaniarraren eskutik. Ondoren Europa osora hedatu zen aurkikuntza eta hemendik mundu osora (Ameriketara lehen inprimategiak 1533. urtean zabaldu zituen ateak Mexikon; euskarazko lehen liburuak, Euskal Herritik aparte, argia ikusi baino hamabi urte lehenago). Noiz zabaldu ziren lehen tipografiak gure artean?

##### Iruñea aitzindari.

1492. urtean ezarri zen lehen inprimategia Euskal Herrian, Iruñean hain zuzen ere. Tipografia asmatu zenetik hogeita hamasei urtetara zabaldu zuen lehen moldiztegia Iruñean, Arnaldo Guillermo Brokarie izenekoak. Beronen jatorriaz gauza kontraesankorrek entzun dira: batzuen ustez alemaniarra zen, beste batzuen ustez, osterara, espainiarra. Beraren lanak ikusita argi dagoena, hauxe da, Alemanian ikasia zuela ofizioa. Euskal Herrian inprimatutako lehen liburua Joan Franzisko Tornamira tuterarrak medikuntzari buruz idatzitakoa da.

Agramontar eta beamontarren gerra zibila zela-eta, Brokariak Iruñea utzi zuen eta Logroñora abiatu zen moldiztegi eta guzti.



Brokariak alde egin ostean, 1546. urtean, haren laguntzaile, ikasle eta koinatua zenak zabaldu zuen bigarren moldiztegia Iruñean. Artisau hau Migel Egia izan zen, Lizarrakoa. Horrek argitara emandako lehen liburua: “*Vocabularium ecclesiasticum*”.

Adrian Anvers-ek ordezkatu zuen inprimategian Egiaren eskua. Maisu haren eskutik argitaratu ziren Nafarroako Gorteen bilkuren lehen liburuxkak.

Adrian Anversen moldiztegia Pedro Borgoña izeneko soldadu batek erosi zuen 1583. urtean.

#### Euskara moldiztegia.

Euskaraz inprimatutako lehen liburua “*Lingua vasconum primitiae*” izan zen, 1545ean; idazlea: Etxepare. Baina liburu horrek ez zuen argia Euskal Herrian ikusi, Bordeleko inprimategi batean baino. Joanes Lizarragaren Biblia bera ere Euskal Herritik kanpo argitaratu zen lehenengoz: Frantziako Rochelen. Moldiztegiako euskara inprimatuak atzerrian ikusi zuen lehen argia.

#### Inprimategien lehia Euskal Herrian

- \* Bizkaia: Iruñekoaren ostean, Bizkaian zabaldu zen lehen moldiztegia 1577. urtean. Maisu irekitzailea Matias Mares izan zen, Salamankan ikasitako portugaldarra. Bertan argitaratutako lehen liburua latinez moldatu zen: “*De Nobilitate*”, Jeronimo Osorio-rena.
- \* Gipuzkoa: 1585. urtekoa da Gipuzkoan argitaratutako lehen liburua. Debozionario bat izan zen, Pedro Borgoñarena, Nafarroan inprimatzeko baimenik lortu ez zuena.
- \* Iparraldea: Baionan zabaldu zen lehen inprimategia, 1642. urtean.
- \* Araba: Berau izan da lurralderik berantiarrena. 1722. urtean zabaldu zituen lehenak bere atek Gasteizen.

#### 4.1.1.5. Tipografiaren ondorioak

Inprenta modernoak abian jarri eta hiru bat mendetan, Europan, liburuak Gutenbergen tipografian ia aldaketarik eragin barik inprimatu ziren.

Hirurehun urtetan, liburugintzaren teknika bera ezer gutxi aldatu zen; tailer tipografikoetako harreman laboralak ere ez ziren ia-ia deus ere aldatu.

Tipografia modernoaren lehen mende horietan, hala ere, bada aldaketa ikusgarri bat, bere funtzionamendu finantzieroari dagokiona, hain zuzen ere: liburu-saltzaileak berak, ordura arte ez legez, tipografian bertan inbertitzen hasi ziren.

Tipografia modernoak ahalbidetuta, Europak aldaketa kultural eta sozial garrantzitsuak ezagutu zituen; aldaketa horien artean, aipagarriak iruditzen zaizkigu hurrengo hauek:

- Liburu-ekoizpenak oso gora egin zuen. Aurreko mendeekaz alderatuta, gero eta liburu gehiago kaleratu ziren, liburuen tiradak gero eta handiagoak egin ziren.
- Liburuaren ekoizpen kostuak, ostera, behera etorri ziren eta, liburuaren inguruan, lehen kapitalizazioak, lehen diru-akumulazioak ezagutu ziren.
- Liburuaren zabalkundeak eta hedadurak testuen estandarizazioa ekarri zuten. Bide batez, liburuak hizkuntza arrunten ugalketari egin zion aurre. Liburuak, bide horretan, Europako hizkuntza nagusien kodifikazioa ahalbidetu zuen.
- Tipografia modernoak, lan-espezializazioaren eskutik, jakina, ofizio berriak ekarri zituen liburugintzara.
- Tipografia modernoak inpresoreak, liburu-saltzaileak eta erosleak harreman zuzenean jarri zituen komertzio-sareak eraikita,
- Liburuak espektatiba berriak ekarri zituen komunikazioaren mundura.
- Liburuak, bestalde, ikaste-azturak aldatu zituen: informazio idatzi ugariak autoikasketa eta bakarkako ikasketa ekarri zuen.

#### 4.1.2. Hedabide idatzien aroa

Izkribu eta marrazkien aldakiak gero eta gehiago, gero eta ugariago izatearen beharrak bultzatuta agertu zen inprenta modernoa gure artean, irakurria duzunez.

Ezagutzaren zabalkundearen beharrak bultzatuta eta inprimategi tipografikoek euskarri teknikoek ahalbidetuta agertu ziren gure artean informazio inprimatu masiboaren bidea hartutako lehen ekoizpenak: liburuak, noizbehinkariak, aldizkariak eta, gero, egunkariak.

##### 4.1.2.1. Masa-egunkarien sorkuntza

Gaur egungo masa-egunkariaren sorkuntza ahalbidetu zuten oinarritzko kultur baldintzak, antzinako garaietan kokatzen dituzte ikerleek:

- ⇒ Erroma zaharrak, jada Kristo aurretik, leku publikoetan *Acta Diurna* deitutako oharrak erakusten zituen eguneko albisteez.
- ⇒ Venezian, XVI. mendean, bertako gobernuaren albisteen orria eros zitekeen *gazeta* baten prezioan; garai hartako baliorik txikieneko txanponak albiste-orrialdeari eman zion izena eta izen hori gaur egunera arte heldu da.
- ⇒ Alemanian, XVII. mendean, gaur egungo egunkarien sail nagusiak direnen aitzindariak hasi ziren sortzen argitalpen desberdinei esker: gaurko editorialak, kirol-artikuluak, zutabe politikoak... orduko asmakizunak dira.

⇒ Egunkarien aitzindariak bilatzeko orduan, ez lirateke ahaztu behar Ingalaterrako *korantoak*. Inprenta XV. mendean heldu zen Ingalaterrara eta teknologia horretaz profitaturik, mende eta erdi beranduago, 1621ean, hasi ziren kaleratzen aipatutako *korantoak*, alegia, atzerriko informazioa eskaintzen zuten aldizkariak.

Europako lehen noizbehinkariak


Gutenbergen tipografiak lagundurik, XV. mendetik aurrera, garaipen militarrek, erregeen tronuratzea edo jende haundiaren hiletak zirela-eta agertu ziren kaleetan lehen orrialde inprimatuak.

Urteak aurrera joan ahala, inprentek errege-dekretuak argitaratu zituzten, korteez halaxe eskatuta.


Baina, hasierako garai horietan Europak bizi zuen erlijio-eztabaidak, erlijio-borroka mugitu zituen paperik gehienak irakurleen artean. Kristautasunaren barruko erlijio-ikuspuntu desberdinen zaleen arteko eztabaidak bete zituen European tipografia-paperik gehienak.

XVII. mendean, lehen almanakak eta egutegiak agertu ziren modu periodikoan. Almanaka horien bereizgarriak ondokoak ziren:

- a) periodizitate jakineko argitalpen erregularrak izatea;
- b) almanaken helburua aniztuna izatea, alegia, argitaratzen zuten informazioa berdin zen ekonomikoa zein politikoa; almanake haietan, esamesek ere orrialde asko eta asko bete zituzten;
- c) almanakek izaera publikoa irabazi zuten;
- d) almanakak ez ziren zirkulu itxietan banatzen, kalean baino, herritarrei zuzen-zuzenean.



1609. urteko zeitung alemaniarra



Renaudot-en gazeta, 1630

**L E T T R E**  
**ESCRITE A UN PROVINCIAL**  
 PAR UN DE SES AMIS  
**LE SCIENT DES ÉGYPTES**  
 présentée de la Sorbonne

**M O N S I E U R,**  
 Nous étions bien avertis. La ne fait déroger que d'hier. Jusque-là j'ay pensé que le sujet des disputes de Sorbonne estoit bien important, &c. à une extrême conséquence pour le Religion. Tant d'assemblées d'une Compagnie aussi célèbre qu'est la Faculté de Paris, & où il s'est passé tant de choses si extraordinaires & si hors d'exemple, en font concevoir une si haute idée, qu'on ne peut croire qu'il n'y en ait un sujet bien extraordinaire. Cependant vous serez bien surpris quand vous apprendrez par ce récit, à quoy se termine un si grand félicé, & c'est ce que je vous diray en peu de mots après m'en être parfaitement instruit.

On examine deux questions, l'une de fait, l'autre de droit. Celle de fait consiste à sçavoir, si Monsieur Arnauld est tenu de se retirer, & pour auzie die dans la seconde Lettre, *qu'il a bien examiné les titres de Lanfranc, & qu'il n'y a point trouvé les Propositions condamnées par le s'c. l'apost. & condamné et. Propositiões en quelque lieu qu'elles se rencontrent, si les condamnés dans Lanfranc, si elles y sont.* La question est de sçavoir, si l'ap' sans temerité témoigner par là qu'il doute que ces Propositions soient de Lanfranc, après que Messieurs les Eueques ont déclaré qu'il n'y a point de doute.

On propose l'affaire en Sorbonne. Soixante & onze Docteurs entreprennent la défense, & soutiennent qu'il n'a pu répondre autre chose à ceux qui partent d'écrits lui demandiens s'il tenoit que ces Propositions fussent dans ce livre, sinon qu'il ne les y a pas vus, & que néanmoins il les y condanne, si elles y sont.

Quelques uns meisme passant plus avant, ont déclaré que quelque recherche qu'ils en ayent faite, ils ne les y ont jamais trou-

Provinciales astekaria, 1656

N U M É R O 87.

**JOURNAL DE PARIS.**

Vendredi 28 MARS 1777, de la Lune le 20.

Le Soleil se lève à 5 heures 45 minutes, & se couche à 4 heures 15 minutes.  
 Le Lunetier à 10 heures 45 min. du soir, & se couche à 7 heures 45 min. du matin.

*Rapport de Temps vrai au Temps moyen.*

Au midi du Soleil, la pendule doit marquer midi 5 minutes & demie.

*Hauteur de la Rivière. Remarques.*

Le 24 & 25 p. 15. R. M. 27 p. 15. p. Almanach à 4 h. 30 min. de nuit à 11 h. 30 min.

*Observations Méthéorologiques, à Paris.*

Depuis le jour,	7 Thermomètres,	Baromètre,	Vent,	État du Ciel.
A 9 h. de nuit,	10° au-dessus de 0	29° 1/2	N.	Clair.
A midi . . .	17 au-dessus de 0	28 1/2	S. S. O.	Clair.
A 7 h. du soir,	12 au-dessus de 0	28 1/2	S. S. O.	Clair.

**L I V R E S D I V E R S.**

**P**ARADIS des Dames, (jeu de) contenant le Théâtre des Femmes Françaises, Anglaises, Allemandes & Espagnoles, à voir en broché. Prix 12 liv. A Paris, chez BARD, Libraire, rue de la Harpe & les autres cités & de divers paroches indifféremment.

Nous avons annoncé un Ouvrage de M. Pajon de la Rochelle, en faisant mention de la maladie de cet estimable Escrivain. Cet Ouvrage, qu'on trouve dans les titres *Du Roy, le Diable & de la Nouvelle Médecine*, mais il a pour titre: *Essai de Journal de mes Voyages ou Histoire d'un jeune Homme, pour servir d'exemple aux autres, 3 vols. in-12, avec figures.* Il en est encore quelques exemplaires par. d'Hollande, dont le prix est de 12 liv. net. Spécimen choisis.

On trouve à Paris, chez Goyel, Libraire, Quai des Augustins, près le Pont St. Michel, & chez Jombert, Rue Jussieu, rue Dauphine, le Catalogue des Livres de la Bibliothèque de feu M. l'Abbé Boudet, Doyen des Concilières, Chancelier du Parlement de Paris, Chancelier de St. Honoré, etc. Prix 1 liv. 4 s. broché.

A R T S.

On travaille actuellement à peindre la pierre de la principale cour de l'École des Médecins. Cette pierre, dans un goût très-vulgaire & tout nouveau, sera à paraître même d'être cotée l'Article des Arts. Elle est de manière ornée de broches & entourée des bustes de M. Anquetin, Archevêque de ce bel édifice. Les panneaux sculptés sont remplis d'une multitude de figures, en mille de laquelle font plusieurs des médaillons de bronze, accompagnés de branches de laurier, & représentant les chaires de loi. Au-dessus de ces médaillons font des figures ornées chacune d'un musée de bon goût & d'un des arts.

Journal de Paris, 1777

Almanaka horien aitzindariak hauexek izan ziren:

- Samuel Dilbaum-ek Ausburg-en 1597. urteaz gero kaleratzen zuen orrialde informatibo hilabetekaria;
- 1605. urteaz gero argia ikusi zuen Anberesko hamabostekari komertziala;
- Londresko gazeta astekaria, 1620. urteaz gero kalean.

**Kontrol politikoa eta prentsa zaharra.**

Prentsaren garapen eta hazkunde arin eta arrakastatsuak arduraren argia piztu zuen agintarien artean; prentsaren garapenak iritzi politikoak lau haizeek jorratzen zituzten bazter guztietara hedatzea zekarren, disidentziak bere helburu propagandistikoetara laguntzeko arma politiko eta ideologiko berria bere esku izan zezakeen.

Prentsaren hazkunde eta pertsekuzioa batera garatu dira gure artean. Botereak ez du lan horretan etsi, lehen noizbehinkarietara kalea zapaldu dutenez gero. Botereak berezko zeregintzat hartu du beti prentsa bere menpeko bihurtzearen beharra.

Luis XVI.a Frantziako erregeak, esate baterako, absolutismoaren aurkako prentsa bere indar gutzietara pertsegitu zuen.

Ildo beretik, Britainia Handian, 1712. urtean, zerga berezi bat asmatu zuten aldizkari disidenteen prezioa garestitu eta zirkulazioa oztopatzeko. Kazetarietara eta inpresoreetara ezarritako zigoren historia orrialde asko bete dituen liburua da.

Egunkariaren kontrako lehen errepresioa bortxazkoa izan zen, gero legearen bidezkoa izan da, eta gaur egun bietakoa dugu. Egunkarietara eta aldizkarietara, beraz, hasiera-hasieratik ezagutu dute zigorraren mina; hala ere, oposizio politikoa

eratzeko balio izan dute beren hasieratik bertatik, botereari kontra irmo eginda.

Oztopoak oztopo, prentsak aurrera egin zuen. Britainia Handian, esate baterako, zergak zerga, 1780. urtean 9,5 milioi ale saldu ziren, 1811. urtean 24 milioi eta 1820. urtean 30 milioi.

Urrezko garai haietako aldizkaririk ezagunenak:

- Daily Courant, Londresko lehen egunkaria, 1702. urtean argia ikusi zuena.
- Sunday Monitor, historiako lehen igandekaria, 1779. urtekoa.
- The Times, 1785. urtean kalea lehenengoz zapaldu zuena.

### *Prentsa eta iraultza burgesa.*

Frantziako lehen egunkariak, Le Journal de Paris izenekoak, 1777an ikusi zuen argia.

Frantziako Iraultzak prentsa-askatasunaren aldeko apustua egin zuen bere hasiera-hasieratik. Hala ere, adierazpenak adierazpen, gobernu berriak eta garaiko iraultzaileek matxinatuen aldeko prentsa askatu zuten bakarrik.

Esanak esan, prentsa iraultza garatzeko arma bilakatu zen eta armak egoki funtzionatu behar zuen burgesia frantsesak aristokraziaren aurka burutu zuen matxinadan. *Gizakiaren Eskubideak* deitutako deklarazio sonatuan, testuaren XIX. atalean, hauxe irakur daiteke:

*“... iritzien eta pentsamenduen komunikazio askea da gizakiaren eskubideen arteko garrantzitsuenetarikoa. Hori dela eta, hiritar bakoitzak, legea kontra ez duen bitartean, gura duenaz berba egin, idatzi eta inprimi dezake.”*

Agiri horrek orrialde politikoaren ugalketa ekarri zuen, joera batekoena batez ere, jakina. Prentsa-paper iraultzaileek herriaren albiste-egarria asetzeari ekin zioten.

### *Prentsa eta iraultza industrialak.*

Manufakturen garapen industrialak aurrerapen teknologiko ikaragarriak ekarri zituen prentsaren mundura: papera ekoizteko makina, lurrun-prentsa eta testuak abiadura handiz idazteko linotipia.

#### Prentsa Europa zaharrean

XIX. mendearen erdialdean, Alemaniak papera modu industrialean ekoizteko teknologia garaturik zeukan. Paper-mota hori egurretik ateratzen zen: egur xehetutik egindako pasta kimikoa zen paperaren oinarria.

1814. urtean, Londresko The Times egunkariak Köning etxearen lurrun-prentsa erantsi zion bere inprentari. Hurrengo urtean zenbait moldaketa egin zizkion sistemari eta 1866. urtean The Times egunkariak 10.500 ale argitaratzen zituen orduko.

1880-1890 bitartean, linotipia izena hartu zuen testuak konposatzeko makina garatu zen. Linotipiak, testuak konposatzeko, tipoak lerroka funditzen ditu, lerro bakoitzagaz bloke oso bat eginez. Idazmakinarekin antzera funtzionatzen du: teklaturan idatzi eta letrak paperean idatzi barik letra-moldeak pilatu eta itsatsi egiten dira lerroan bata bestearen ondoan –letrak paperean lerrokatzen diren modu bereberean–; lerroa amaituta dagoenean metal urtua gaineratu eta inprimatzeko lingotea, blokea egiten da. Blokeak askatu eta moldeak berriro erabil daitezke.

Aurrerapen teknologikoen abiadura handiko prentsa bermatu zuten. Burgesiak bere nahikari politikoak argitaratu zituen. Langileek, langile-mugimenduek, ostera, ozta-ozta aurkitu zuten prentsaren babesa eztanda industrialaren urteetan.

XIX. mendeko egunkariak ezaugarri hauexek izan zituzten Europan:

- ⇒ a) Formala baino ez bazen ere, garaiko egunkariak Estatuarengandiko independentzia, burujabetasuna, igurikatzen zuten.
- ⇒ b) Egunkaria gizarte-egituretan txertatu zen eta erakunde formala bilakatu zen, gainerako instituzio politiko eta ekonomikoen maila eskuratu arte.
- ⇒ c) Prentsa etikarekiko ardura erakutsi zuen, beti modu etikoa jokatu ez bazuen ere.
- ⇒ d) Egunkariak lanbide berria, lanbide berria sortu zuten: kazetariena.
- ⇒ e) Europako masak egunkarietatik aparte bizi izan ziren mendearen azken urteetara arte. Masek, masa erraldoiek, lehen mundu-gerrako urteetan erosi zuten modu masiboan egunkaria lehen aldiz.

#### Prentsaren hastapenak kolonia ipar-amerikarretan

Klase ertaina garrantzitsuagoa egin ahala ezagutu zuen prentsa bere urrezko ordua kolonia ipar-amerikarretan. Klase ertaina publiko bilakatu ahala ezagutu da Ameriketako lurretan egunkariaren loratzea. Burua gorago eta albiste-egarri handiagoa zuten klase ertain ipar-amerikarrek. Klase ertainak informazio ekonomikoen gosea eduki zuen hasieran, gero gosea eta egarria gainerako albiste-motetara hedatu ziren, informazio politiko eta literarioen esparruetara, batez ere.

XVIII. mendearen lehen erdialdea egunkari txikien loraldiaren garaia izan zen. Argitalpen txiki horiek gutxitan heldu ziren mila aletatik gorako tiradetara. Estatu Batuen Independentzia-Aldarrikapenaren urtean, 1776an, 35 egunkari zeuden 13 koloniatan. Egunkariak harpidetza bidez saltzen ziren, publizitaterik ez zuten ia ezer ez, eta garesti kaleratu beharra zeukaten. Artikulugileen zerrendak arakatzuz gero, izen eta ospe handiko jende gutxi aurkitzen da prentsa kolonial horretan. Agian, garaiko kazeta-munduko pertsonaiarik ezagunena Benjamin Franklin filosofo, fisikari eta politikaria da (1706-1790). Franklinek egunkari liberal bat sortu zuen, orduko aristokraziaren aurkakoa.

Prentsa kolonialak Gutenbergen inprenta bera zerabilen, hiru mendetan ia berrikuntzarik sartzeko. Prentsaren garapen masiboa jaiotzeaz zegoen, baina, kolonietan hiri handirik ez egoteak, mundu hiritar garaturik ez egoteak, traba

eta oztopo handiak jartzen zizkien egunkarien merkatu-garapenari eta zabalkundeari.

### Egunkarien hedaketa Estatu Batuetan

Indenpendentzia-Aldarrikapenaren osteko Estatu Batuetako egunkarien eta, oro har, prentsaren hazkundera, hiru baldintza sozio-kultural eta ekonomiko-teknologikok bermatu zuten:

- ⇒ 1.- Klase ertainen hazkundera eta klase horien indar-hartze gero eta garrantzitsuagoak.
- ⇒ 2.- Teknologia industrialaren garapen geldiezinak.
- ⇒ 3.- Oinarrizko hezkuntza kolektibitate handietara zabaltzeak.

Prentsaren garapenaren eta hedaketaren oinarri horretan, garaiko editoreen erronka berriak aurkitzen ditugu: orduko argitaletxeek harpidetza bidezko egunkari klasista baztertu gura zuten, horren ordez egunkari merke eta deigarria kaleratu ahal izateko. Ildo horretatik, masak eduki behar zituen gogoan egunkari berriak, ez klase ertainak.

Bidean porrot ugari utzi zirelarik, *egunkari herritarra* deituaren garapena eskuratzen ahalegindu arren, garapena uste eta gura baino astiroago etorri zen XIX. mendean.

Eredu berriko egunkaria sortzeko lehen saiakera arrakastatsua Benjamin Day editorearena izan zen. 1833. urtean bere *New York Sun* argitaratu zuen, harpidetza bidez barik kaleetan saltzeko; eta, asmatu egin zuen:

- \* SUN egunkariak hiriko albisteak, gizarte-gaiak eta erreportaia sentsazionalistak argitaratu zituen bere lehen aletik bertatik.
- \* SUN egunkaria gazteek saltzen zuten kalerik kale.
- \* SUN egunkaria bi mila ale argitaratuta kaleratu zen lehen egunean, baina hilabetean egunkariaren tirada zortzi milara igo zen.
- \* SUN egunkariak lurrun-makineria erantsi zion hasiera-hasieratik bere prentsari.
- \* SUN egunkariak birdefinitu egin zuen *albistearen kontzeptua*:
  - *ordura arte* ALBISTEA gizarte-egintza, gertaeraren bat edota egintza politikoa izan zen;
  - *SUNentzat* ALBISTEA delituak, bekatuzko historiak, hondamendiak, istripu latzak, asmakuntza zientifiko faltsuak... izan ziren.
- \* SUN egunkariak, 1837. urtean, bere bizitzaren laugarrenean, hogeita hamar mila ale kaleratzen zituen.

Egunkari horren arrakasta *eredu* bilakatu zen besteentzat. Kompetentziarik handiena James Gordon Bennett editoreak egin zion *Herald* izeneko egunkariagaz. Herald horretan, *albisteak* prozesu kriminalak, bortxaketak, bekatua eta ustelkeria, politika, finantza eta pertsona famatuen erokeriak izan ziren.

Gizarte-kapitalistako herri-xehea argitalpenetako produktu-erosle bilakatzeak, ondorio desberdinak ekarri zituen komunikazio publikoaren mundura, hala nola:

- \* Herri xeheak akulturaziotik eta analfabetismotik askatzeko bidea aurkitu zuen argitalpen *herrikoien baitan*. Prentsa-enpresariak, bere jarduera ekonomikoaren garapenerako beharrezko ikusi zuenean, kultura merkearen ateak zabaldu zituzkien klase xeheei: argitalpenak etxe ondo-ondoraino eramanez zizkien.
- \* Klase agintariak, prentsa *herrikoien bitartez*, bere ohiturak ezarri zituzkien klase xeheei. *Moral onean eta ohitura egokietan* hezi zuen klase agintariak herri xehea eta, lan horretan, komunikazio publikoa izan zuen kolaboratzaile sutsu.
- \* Egunkari *herrikoien* agerikundeak, bestalde, iritzi publikoari buruzko debata birpiztu zuen gizarte industrializatuko sektore diferentean artean.

#### Egunkariak eta gizarte-ereduak

XIX. mendearen azken erdialdea *konbultsiboa* izan zen Estatu Batuetan: Gerra Zibilaren ondorioak nabarmenak ziren, europarrak emigrazio-uholdeetan heldu ziren, nekazaritza-lurraldeetatik hirietarako barne-emigrazio garrantzitsuak hasi ziren eta gizartea industrializazioarentz abiatu zegoen itsu-itsuan.

Migrazioek jende-masa handiak mugitu zituzten batetik bestera. Masek beren jatorrizko kulturak ahaztu eta hirietako auzo pobreetan aurkitu zuten berria.

Deserriratzeak, kultura desberdinen arteko gatazkek eta gizarte-matxinadek kazetaritza horiaren garapena bultzatu zuten. Kazetaritza hori horrek ase egin zuen auzo pobreetako jende emigrantearen kultur egarria.

1880. urtean, egunkariak ia etxe guztietara heltzen ziren. Editoreek argitalpen handiak eta etekin ekonomiko handiagoak zituzten esku artean. Jakina, diruaren goseak konpetentzia ekarri zuen egunkarien mundura. 1890. urtean prentsa merkaturaren magnate biren arteko liskarren lekukoa zen: Pulitzer eta Hearst. Egunkari-editore hauen arteko borroka gorengo mailara heldu zen. Borroka horretan arma ikaragarri boteretsua bilakatu zen kazetaritza sentsazionalista.

#### *1890ko kazetariak*

- \* tiraden gorakada bermatzeko, etika eta erantzukizuna ahaztu zituzten editoreak urte hauetan;
- \* egitate eta gertaeretan oinarritutako albisteek argitalpena erabat oztopena zuen *horizaletasun* ikaragarriak; ildo horretatik, informatzaileak barik, egunkariak, deigarriak izan ziren;
- \* bizitza melodrama negargarri bilakatu zen orduko kazetarien eskutik.

Testuinguru horretan, gizarte-arduradunek protestara jo zuten. Legegileek, hezkuntza-profesionarioek eta erlijio-gidariak ozen ekin zituzten salaketari. Intelligentsiak prentsa arautuko zuen legeria exijitu zuen. Erantzukizuna eskatu zitzaion prentsari une batez.



### *Pulitzer vs. Hearst*

1861-1865 bitarteko gerra zibilaren ostean, Estatu Batuek muga guztiak hausten zituen hazkundera ikusi zuen: kapitalismo industrial-amerikarraren jaiotzaren lekuko izan ziren urte haiek. Kapitalismo industrialaren bultzada prentsara ere heldu zen. Bizitza periodistikoaren transformazioa fronte bitan burutu zen: nola koantitatiboan (ordura arte inoiz ezagutu ez ziren tirada erraldoiak ekoiztu zituzten enpresek), hala koalitatiboan (albiste sentsazionalistak orrialde inprimatuaren jabe egin ziren). Garapen koalitatibo eta koantitatibo horretan, izen bi agertzen dira beste guztien gainetik: Pulitzer eta Hearst.

Pulitzerrek ezarri zituen, gerora eredu sentsazionalista moduan ezaguna egin den kazetaritzaren oinarriak: albiste deigarriak, hedabidearen beraren autopromozio iraunkorra eta behin-berriroko interpelazioa irakurleari. Pulitzerrek egunkari merke-merkea, zentabo biko, kaleratu zuen; edukiak hirietako inmigranteek ulertzeko moduko hizkuntza argian azaldu zituen; egunkariaren lehen orriak iragarki publizitarioa zirudien; eta, gainera, umorezko tira bat erantsi zion: *The Yellow Kid*, gaur egungo komikiaren aitzindaria. Hilketak eta drama pertsonalak izan zituen gustuko Pulitzerren prentsak.

Hearstek azken muturreraino eraman zituen aurrekoaren irizpide periodistikoak. Hearstek lehen-lehen mailako kolaboratzaileak, kasuren batzuetan Pulitzerregaz beragaz ikasitakoak eta hasitakoak, kontratatu zituen. Hearstek kompetentzia latza egin zion Pulitzerri.

Hearstek albistea sortzeari, probokatzeari ekin zion eta, zenbait kasutan, horietaz gain, asmatu ere egin zituen albisteak. Bide horretatik, irakurlearenganako errespetua tintontzian ito zuen. Irakurlea, Hearstentzat, albiste ikaragarrien jalea, kontsumidorea baino ez zen. Hearstek, bestalde, sekulako difamazio-kanpainak antolatu zituen bere arerio eta aurkari politikoen, komertzialen eta periodistikoaren aurka.

#### 4.1.2.2. Prentsa-mundua XXI. mendeari begira

Harrez gero, mende osoa igaro da. Fortuna gehiagogaz edo gutxiagogaz, prentsak bere bideak egin ditu. Esan egin da, sarritan gainera, historia-soka luzearen jabe izan arren, prentsa galbidean dagoen hedabidea dela. Teknologia berriek mundua beren menpe hartu duten honetan, sarritan konparatu da prentsa dinosaurioekaz. Paperak, tintak eta errotatibek zahar itxura eman diote prentsari.

Ez da mendearen amaiera hau prentsaren desagerpenaz, bere amatatzeaz berba egin den lehen aldia, ez. Mende hasieran, irratiak bere burua gogor eta indartsu erakutsi zuenean, batek baino gehiagok iragarri zuen prentsaren amaiera, hondamendia. Telebista ate-joka hasi zenean, batek baino gehiagok iragarri zuen muntstroaren amaiera, desagerpena. Baina hala edo hola, prentsak bere bidea aurkitu ohi du.

Egia da egunkariaren salmenta behera etorri dela. Publizitateak alde egin du orrialde inprimatuetatik beste hedabide batzuetara, langaiak garestitu egin dira eta produkzio-kosteak ez dira merkeak. Prentsak min handia hartu du.

Egia da, hala eta guztiz ere, hiri handi guztietan, oraindik orain, badagoela egunkariren bat edo beste; eta, ez ahaztu, herri-prentsa ere hortxe dago, gero eta ale gehiago kaleratuz. Egia da konpetentzia handia dagoela, baina egia da prentsa bizirik dagoela. Bizirik egongo al da mende berrian?

Ez da hilko, ez; itxuraldatuko bai, ostera. Hurrengo hamarkadan prentsak aurrera egingo du, egin dezake behintzat, baina aldatu egin beharko du. Presioak handiak dira eta aldatu beharra aspalditik dator, aldaketaren kontua ez da atzo goizekoa. Prentsak ez dio alde egiten utziko, teknologia berriek dakartenari. Prentsa digitala ate-joka dago.

Ez da erraza etorkizunaz berba egitea. Ez dagoena zelakoa izango den esatea ez da erraza. Horixe gertatzen zaigu prentsagaz, zelakoa izango da hurrengo mendeko prentsa? Zerk karakterizatuko du etortzear dagoen prentsa? Zurrumbilo interaktiboak ez al du irentsiko egunkaria?

Polita litzateke erantzuna edukitzea, baina ez daukagu.

Itxuraldaketa hitz egin dugu arestian. Transformazio hori bikoitza izango dela pentsatu behar dugu:

- Batetik, teknologia berriek prentsa diferentea ekoizten lagunduko dute, egunkari-eredu berriak sortuko direla pentsatzekoa da, egunkariak zabal-kunde-eredu berriak aurkituko dituzte... Seguru asko, hedabide berrien industriak bere baitan hartuko ditu eredu desberdinak: prentsak, ikusentzunekeo medioak, telekomunikazioak, industria elektronikoa, jokoa, aisia, informatika... Multimedia-sareak ugaritzen ari dira eta iparra berek markatzen ei dute gaur egun.
- Baina, bestetik, teknikak ez digu garapenaren zentzu osoa komunikatzen. Komunikazio-teknika berriek komunikadore berriak eskatzen dituzte. Komunikadore berriek, sortzen ari den kultura berriko gizakiari erantzun beharko diote, erreminta berriak eskuan hartuta.

Lanbideak ezin du aurrerapen teknikoei begira gelditu. Lanbideak bere egin behar ditu aurrerapen teknologikoak; ez hori bakarrik, lanbideak gidatu egin behar ditu aldaketa teknologikoak, horien menpe geratu gura ez baldin badu.

⇒ Teknologia berriek, informaziorako sarbide pertsonalizatuak, telebista interaktiboak edota komunikazio-eredu berriek, kazetari profesionalak idatzitako eta ekoiztutako egunkaria desagertaraziko dutela pentsatzea, medio bakoitzak duen eta edukiko duen rol apartekoa, berezia, ez ikustea baino ez da.

⇒ Prentsa-eredu digital berriek, hitz idatzia, irudia eta soinua ezkontzeko gaitasuna dutenek, paperean idatzitako egunkariak eraberrituko dituzte.

⇒ Lanbide periodistikoa teknologia berriak erabiltzen jakingo duen kazetariaren esku geratuko dira. Lengoaia-informatibo berriek lanbidearen jardura itxuraldatuko dute, uste duguna baino arinago. Lan-sistema berriak etxeko atarian daude. Horretarako ez prestatzea, begiak zarratzea da.

## 4.2. Zinema, teknologia eta masak

Zinemaren oinarri modernoak XIX. mendeko azken urteetan aurkitzen ditugu baina, beraren erroak lehenagotik datozen aurkikuntza optikoetan kokatu behar dira. XVII. mendeko linterna magikoa edota XVII. eta XVIII. mendeetako optikari buruzko ikerketa eta esperimenduek zabaldu zizkieten zinemari ateak.

Gaur egun ezagutzen dugun zinemaren aurkikuntza modernoak, diogun legez, XIX. mendeko azken urteetakoak dira. Zinema-eredu bat baino gehiago ezagutu zen urte haietan eta asmatzaileen arteko lehia izugarria izan zen:

- \* Fitton-ek eta Paris-ek, 1825. urtean, *taumatropoa* erakutsi zuten;
- \* Faraday-k, 1830. urtean, bere *gurpila* jarri zuen ikusgai;
- \* Plateau-k *fenakistikopia* ekarri zuen, 1832an;
- \* Hornar-ek, 1834an, *zootropoa* landu zuen;
- \* Uchatuis-ek, 1853an, *marrazki bizidunak* egin zituen;
- \* Muybridge-k, 1872. urtean, *mugimendua deskonposatu* eta argazki independentetan erakutsi zuen;
- \* Reynsud-ek, 1888an, *teatro optikoa* jarri zuen abian;

Masak, herriak, hasieran ez hainbeste baina, azkenean, interesa jarri zuen aurkikuntza teknologikoetan. Herriak teknologia eta garapen industrialaren isla ikusi zuen hasierako zineman, eta ez zuen inondik inora asmatu eta pentsatu komunikaziorako eta astialdirako bide berri baten jaiotzaren lekukoa zenik.

Interesez eta mesfidantzaz hurbildu zen jendea, komunikazioaren munduan iraultzaile izatera deitua zen fenomeno zinematografikora. Hala ere, jendeak berehala baztertu zituen oinarri sendo bako aurreiritziak.

### 4.2.1. Teknologiaren garapena

Gizateriak zinema asmatu eta, gerora garatuz, filmeak ekoiztu ahal izateko hiru erronka teknologikori egin behar izan zion aurre. Aurrerapen teknologiko horien garapena bost mendetako epean burutu zen. Hala ere, zinemak, irudi higikorren proiektzio modernoak, ehunen bat urte baino ez dauzka.

#### 4.2.1.1. Proiektzioa eta kamara iluna

Lehen arazoa: irudiak argidun proiektore baten bitartez erakutsi ahal izatea, irudia gela ilun batean erakustea.

Kamara ilunaren asmakizuna XV. mendekoa da. Leonardo da Vinci (1452an jaioa) artistak gela txiki eta ilun batean egin zuen lan luzaro, gela horretara argi-izpi txiki bat sartzen zen horman egindako zulo bati esker (lapitzaren diametroa zeukan zuloak). Zulotik sartzen zen argi-izpiak aurreko horman marrazten zuen kanpoaldeko irudia.

Da Vinciren lanleku hori dugu kamara ilunaren oinarria. Kamara iluna hauxe da: kutxa txiki bat, lapitza sartzeko besteko zuloa eta horma zuria, kanpoaldeko irudi edo paisaiaren bat bertara proiektatzeko.

Asmakizun horri lente bat erantsi zitzaion enfokatu ahal izateko, eta ispilua irudia iraultzeko; teknika hori oso izan zen egokia marrazkilarientzat, perspektiba-arazoei aurre egin ahal izateko eta koloreen tratamenduan aurreratzeko.

Hasierako kamara ilunak irudia berregin zezakeen, eguzki-argiak objektuetatik islatuta. Gerora, argi natural horrek argi artifizialari utzi zion lekua.

Gaur egun ezagutzen dugun diapositiba-proiektorearen aitzindaria, 1601. urtean jaiotako Athanasius Kircher-ek prestatu zuen, kamara ilunaren sistema garatuta. Eskuz pintatutako transparentziak erabilita, proiektore horrek irudiak berregin zitzakeen horma batean.

Kircher jesuita izan zen eta bere ikerkuntza matematiko eta zientifikoetarako Urbano VIII. aita santuaren laguntza eduki zuen. Hala eta guztiz ere, beraren proiektorea hain izan zen berezia, ezen kritika eta hitz gaiztoen mina jasan behar izan zuen, bere eskuetan zerbait diabolikoa ote zuelakoan. *Linterna magikoaren asmakuntza* abian zegoen: 1645. urtean gaude.

#### 4.2.1.2. Irudi jarraituaren ilusioa

Aurre egin beharreko bigarren arazoak, gizakiaren ikusmenaren ezaugarriak zehaztea zekarren bere baitan. Itan nagusia honako hau zen: zelan ikusten du gizakiak? Zelan hautematen du mugimendua gizakiak?

XIX. mendearen hasieran, lehen proiektoreak mundua ikusi eta mende batzuetara, Londresko eta Parisko ume hiritarrek *taumatropo* deitutako jostailuaz ematen zituzten orduak. Aparatua disko txiki bat zen, katilu arruntaren diametrokoa eta ardatz bat zeukan biratzeko. Disko horrek irudi bi zeuzkan, eta biratuz gero, ilusio optiko desberdinak lor zitezkeen. Jostailuaren aita, antza denez, John Paris izan zen, 1785. urtean jaioa.

Denborapasako horrek ez zuen aparteko garrantzirik izango, baldin eta David Brewster-en eskuetara jausi izan ez balitz. Brewster jauna argiaren polarizazioa ikertzen ari zen eta kaleidoskopioaren asmatzailea zen. Brewster-ek, diskoaren mugimentuan irudi irmoen mugimenduaren ilusioa sortzen zela ikusi eta aldarrikatu zuen.

Zenbait urte geroago, belgiar batek, Joseph Plateauk, 1801. urtean jaioa, bere doktorego tesia aurkeztu zuen Lieja-ko unibertsitatean. Plateauk frogatu zuenez, gizakiaren begiak ez du modu instantaneoan ikusten. Begiak denbora pixka bat behar du ikusitakoaren jabe egiteko. Eta horrez gain, behin ikustekoa ikusita, inpresio hori ez da berehala ezabatzen, inpresioa une batez iraunkorra baita begi barruan. Haizagailu bati begiratzen diogunean, martxan baldin badago, ez ditugu helizearen besoak banan-banan ikusten, beren higidura jarraitua baino.

Plateau irakasleak bere ikerketekaz segitu zuen. Aparatu konplexu bat eraiki zuen, soka eta txirriten bitartez, eta zenbait diskori esker, irudi irmoak biraka jarrita, mugimenduaren ilusioa sortzen zuen. Aparatuaren izena: fantaskopioa.

Plateauk aurrera segitu zuen ikerketan, ikusmenaren funtzionamendua ulertzeko. Itsu geratu zen eguzkiari luzaroan begira egotearen kausaz.

Zinemaren oinarriak ezarri zituen zientifiko itsuaren ironiak, Beethoven musikariarena dakarkigu gogora (bere sinfonia handi batzuk erabat gor geratu ostean idatzi zituena), edo Edison asmatzailearena (fonografoa asmatu ostean, gor gelditu zena).

#### 4.2.1.3. Irudia eta kamara iluna

Kamara iluna, proiektorea eta ikusmenaren funtzionamendua zertan oinarritzen den ikustea, aurrerapen handiak izan dira gizarteriaren garapen komunikatiboan; gorpila, hala ere, ez da horretan geratu. Zinemaren asmakuntza gauzatzeko, hirugarren erronka bati egin behar izan zitzaion aurre. Zelan erregistratu irudi natural bat, erreproduzigarri izan zitekeen oinarri artifizial batean? Hori bai itauna!

Argazkiaren asmakuntzak ekarri zuen erantzuna. Hirugarren erronka kimikaren bilakaerari zegoen lotuta, argiak zenbait produktu kimikotan eragiten dituen aldaketan ikerketari, hain zuzen ere. Hirugarren arazoa ez zegoen kamarari berari, pelikulari, oinarriari, filmeari baizik.

Joseph Niépce frantziarrak egin zuen 1826. urtean, lehen argazkiaren aitzindaria izan daitekeena, asfalto fotosentikorra argiaren esposizioan ordu betez eduki ostean. Urte batzuk beranduago, argia eta kimikaren ikerkuntzan ziharduen Louis Dagùerre frantziarrak kobrezko plaka batean erregistratu ahal izan zituen irudi naturalak. Plaka hori aurretik zilarrez igurtzia izan zuen eta ondoren iodoa gaineratu zion; *daguèrrotipe* deitu zitzaion asmakizunari. Arazo bakarra zeukan sistemak: kopiarik ezin zela egin. William Talbot britainiarrak, 1835. urtean, zilar-kloruroa sentsibilizatzeko metodoa asmatu zuen. John Herschel britainiarrak sodio-kloruroa erabili zuen irudia finkatzeko, gero sodio-tiosulfatoa, astronomo batek halaxe iradokita. Kontuak kontu, britainiarrak papera igurtzi zuen, argiaz eraso eta aldatzen zituen zenbait produktu kimikoz. Argiak produktuok deskonposatzen zituen eta errealtasunaren isla eragiten zuen paperean, gaur egun *negatibo* moduan ezagutzen dena sortuz; irudi horietatik kopiak atera zitezkeen, *positibatuz* gero.

Frantsesen eta britainiarren asmakizun horiek 1839. urtean ikusi zuten argia, urtarrila eta martxoa bitartean.

Europako asmakizun horiek itsasoa gainditu eta Estatu Batuetara egin zuten jauzi berehala. Argazkilaritzak itsasoaz bestaldean aurkitutako zaleen artean F.B. Morse zegoen, historiara telegrafoari buruzko ikerketak zirela-eta pasatu zena. Morse erretratista izan zen Estatu Batuetan, Dagùerre-k asmatutako argazki-makinaz baliatuta. Argazkilari izateak emandako diruek ahalbidetu zioten Morse jaunari, telegrafoari buruzko ikerketak ordaindu ahal izatea; bitxia da asmakuntzen bidea.

#### 4.2.1.4. Zinemak ehun urte

Edison-en laborategitik atera ziren zinema-kamara eta zinema-proiektorea, XIX. mendearen azken hamarkadan. Edisonek ez zuen sinetsi filmeen proiektzio publikoaren errentabilitate ekonomikoan. Filmearen inguruko mundua, masek berehala ahaztuko zuten beste berrikuntza bat zela uste izan zuen Edisonek.

Edisonek *kinetoskopia* komertzializatu zuen filme-ikustaldi pertsonalizatuarako. Aparatuak zenbait irudi eskaintzen zizkion ikusleari, txanpon baten truke. Ikustaldia pribatua zen: pertsona bakar batek ikus zezakeen mugimenduaren ilusioa txanda bakoitzean. Kinetoskopia 1891. urtean zegoen garaturik; urte bi beranduago, 1893. urtean, aurkeztu zen berrikuntza moduan Chicagoko Nazioarteko Azokan eta, 1894. urtean, komertzializatu egin zen.

1891. urteaz gero, Edisonek bazuen beharrezkoa zen teknologia, filmeak pantailan proiektatzeko, baina ikustaldi publikorik ez zuen gura, ez baitzien errentagarritasun ekonomikorik ikusten. Ikustaldi publikoen ordez, Edisonek, diogun legez, pribatuak bultzatu zituen.

Zinemaren jaiotzaren ingurumari horietan, bestalde, beste bi pertsonaia aurkeztu behar dira: Louis eta Auguste Lumière. Lumière-tarrek filme-proiektzio kolektiboa ekarri zuten. Edisonen asmakizunak, kinetoskopia, ikusle bakarrari erakusten zion filmea; Lumière-tarren proiektzioa pantaila bertikal handi batean egiten zen, ikustaldia sozializaturik. Eredu horretako lehen proiektzio publikoa Parisen egin zuten 1895. urteko abenduaren 28an, duela mende bat pasatxo. Data hori hartzen da zinemaren jaiotza ofizialtzat.

Lumière-tarren lehen genero zinematografikoak *asmatu* zituzten:

- \* 1895. urteko martxoan, langileekaz egindako lehen **filmea** aurkeztu zuten (*Fabrikatik irteera*);
- \* 1895. urteko ekainean, lehen **albistegia** (*Kongresukideen helduera*) eta lehen **elkarrizketa** (*Neuvilleko alkateagaz*);
- \* 1896. urtean, Lumière-tarrek **dokumental** paisajistikoa (*Itsasoa*), dokumental turistikoa (*Tullerietako urmaela*) eta dokumental urbanoa (kale-filmazioak) erakutsi zituzten genero berriei ateak zabalduta;
- \* **Erreportaien** generoa *Nikolas II.aren koroatzea* filmeagaz abiatu zen;
- \* Lehen **fikzioa**: *Ureztatzaile ureztatua* filmea.

#### 4.2.1.5. Zinema, propaganda eta informazioa

Gerra hispano-amerikarra da, seguru asko, historiako lehen borroka mass-mediatikoa. 1897. urtean, kubatarrek beren independentziaren alde borrokatzen zutenean egin zen irla hartan lehen proiektzio filmikoa, Lumière-tarren ordezkari baten eskutik. Espainiako gobernuak eskari berezia egin zion proiektatzaileari: zeramatzan filmeez gain, beste bi eranstea. Lumière-tarren langileak *Trenaren helera*, *Ureztatzaile ureztatua* eta *Karta-jokoa* zeramatzan; Espainiako gobernuak

*Espainiar artilleria borrokan* eta *Infanteria espainiarra itsasoan* filmeak erakustea eskatu zion.

Gerra horretan agertu ziren, bestalde, lehen dokumental moldatuak, iruzurrez beteak. Operazio militarrek hasi bezain pronto, gerraren ustezko irudiak eskaintzen zituzten dokumentalak ugaritu ziren. Urmaeletan grabaturiko barku borrokaldiak, benetakoak bailiran erakutsi ziren han eta hemen. Zinema, lehen urte haietan, gaur legetxe, *ametsa* eta *dokumentua* izan zen.

#### 4.2.2. Zinema eta masak

Badakizu: 1895. urtean *Cinematographe* izeneko establezimendu bat zabaldu zen Parisen. Libera baten truke, ikusleak iraupen txikiko filme batzuk ikus zitzakeen. Cinematographe berehala heldu zen New Yorkera. Espektakuluak komunikazioaren mundura egin zuen jauzi.

##### 4.2.2.1. Hasierako edukiak eta ikusleria

Hasiera hartan zinematik maila intelektual eskaseko gaiak izan zituen gogoko. Edisonek erakutsitako lehen filmeen artean, esate baterako, *Fatima eta zilbor-dantzaren* modukoak zeuden. Ume-komediak eta bufoi-lanak izan ziren ikusienak lehen urte haietan. Lehen filme haien artean erraz aurki zitezkeen boxeo-borrokak, komedia merkeak eta dantzari probokagarriak.

Gutenberg-en inprentak filosofia, matematika, zientzia, artea, erlijioa eta politika argitaratu zituen; hasierako zinematik, ostera, bestelako zabor intelektualak.

##### 4.2.2.2. Nickelodeon

1900. urterako, hirietako dantzaleku-jabeak, zirko-enpresariak, feria-berriketariak, kirolari ohiak eta abar, zinemaren mundura hurbilduak ziren. Dantzalekuak zinemaleku bilakatu ziren, dantza-pistaren ordeztuak ugaritu ziren han eta hemen. Prezioa bost txakur txikikoa zen: *nickel* bat.

Urte batzuk geroago zinematik beste publiko-mota bat igurikatu zuen. Hasierako publiko kultura bakoak ez zuen zinema ahaztu, baina *beste* mailetakoez zinema deskubritu zutelarik, zinematik perspektiba berri batzuei zabaldu zizkien begiak. Nickelodeon-ek itxura aldatu zuten, dotoretu egin ziren eta klase guztietako publikoa bereganatu zuten. Masak konkistatu zituen zinematik. Zinema-filmeen edukia aldatuz joan zen, pelikulak luzeago egin ziren eta teknikoki sofistikatutago.

Dena den, gizarte-klaserik zinemazaleena auzo urbanoetako inmigrante txiroena izan zen urteetan eta urteetan. Zinema indartsuago eta ikusleria paria zaletuago.

Mende hasierako auzo urbanoetan, proletariatu inmigrantea eta nekazari-lurraldeetako etorkina bildu ziren. Askok ez zuten hizkuntza menperatzen, beste askok ezta jakin ere, atzerritarrak zirelako; mende hasierako zinematik mutua dibertimendu ezin hobea izan zitzaizen, duda barik.

#### 4.2.2.3. Zinema heldua

Denborak aurrera egin ahala, auzo txiroetatik hiriguneetara hurbildu zen zinema: zinema denbora-pasa familiarra bilakatu zen.

Ikusleria zorrotzagoa egin zen: irudi higikorra ez zen jada nahikoa; mementuko lilurak ez zuen asetzen ikusleria, eta filmeari argumentua eskatu zitzaion. Ikusleek eredu berriak eskatuta, zinemak literatura klasikoa *deskubritu* zuen.

1920. urtean zinema-lekuek dotorezia irabazi zuten, zinemako *izarrek* ez zuten gutxiago merezi-eta. Zine-izarrek denda-saltzaile, siderurgia-langile, herri-polizia eta etxeoandreen loa galerazi zuten.

Lehen Mundu-Gerrak moteldu egin zuen Europako zinemagintza; Estatu Batuetakoa izugarri indartu zen, ostera. Hollywood-ek aurrea hartu zion Europari; behin hartu eta berriro itzuli ez. Gerrak zinema barru-barrutik eragin eta aldatu zuen. Denborapasarako izan zen zinema ordura arte, baina gerra lehertu izanak, helburu berria ezarri zion masa-hedabide horri; zinemak propagandaren atzaparkada pairatu zuen. Gerra hasi bezain laster, zinemak pertsuasio politikoari ekin zion, herriaren moralara indartzeari.

#### 4.2.2.4. Zinemaren garapen arina

1921. urtean, Arthur Weigall kazetari britainiarrak zinema amerikarra munduarentzako arrisku bizi bilakatua zela argitaratu zuen. *Zinema amerikarra munduaren bazter guztietara sartzan da, moda amerikarra leku guztietara hedatuz; fotonarrazioak mundua amerikartu du* zioen Arthur Weigallek, beldurrak jota.

Andrè Maurois-ek antzerako zerbait argitaratu zuen: *Une honetan, jada, kultura unibertsala da. Munduko jendea berdin janzten ari da eta denak berdin ibiltzearen ideia hartu dute filmeetatik*. Munduak ez zuen lehenago inoiz horrelako hedabide herrikoi eta eraginkorrik ezagutu.

Zinema modernoak 1940-1947 bitartean jo zuen bere goia, Bigarren Mundu-Gerraren urteetan. Telebista heldu arte, masa-hedabiderik herrikoiena izan zen zinema. Beraren krisirik larriena 1960ko urteetan ezagutu zuen: telebistak ikusgarritasun lekukoa hartu zuenean.

#### 4.2.2.5. Hasierako zinema eta legeria

Zinemaren indar erabakiorraz jabetuta, mundu zibilizatuko gobernuek hurbil-hurbiletik kontrolatu gura izan zuten masa-hedabide herrikoi berria.

1915. urtean, Estatu Batuetako Epaitegi Gorenak gizarte estatubatuarraren arreta eskatu eta zinemak gizarte-moralara azpikoz gora jar zezakeela aldarrikatu zuen.

1916. urtean, Britainia Handiko Moral Publikoaren Batzorde Nazionalak zinemak gazteengan izugarrizko eragina zuela adierazi zuen. Eragin hori, Batzordearen ustez, buru barruan gordetzen zen konturatzeke.



Nazioen Liga bera ere arduratu zen zinemasarriritan, zenbait ikerketa egin eta txostenak prestatu zituelarik.

Zinemaren hedakuntza kontrolaezin bilakatzen ari zelarik, Ingalaterra, Frantzia eta Alemaniako gobernuek zigor ekonomikoak ezarri zizkioten industria *arriskutsu* horri.

Kulturaren hedatzaile gisa zinemaren garrantzia hain izan zen handia, ezen ordurarteko ezein hedabidek pairatu ez zuen lege-kontrola ezarri zitzaion zinema *kaltegarriari*. Guraso eta hezitzaileek beren ardura plazaratu zuten, hedabide horrek gazteengan zeukan eragin *kontrolaezinenaren* aurrean.

#### 4.2.2.6. Zinema Sovieten Herrian

Lumière anaien zinematografoa berehala heldu zen Errusia Inperialera. 1896. urtean ikusgaiak izan ziren Sankt Peterburg-en frantsesen lan zinematografikoak. Errusian bertan egindako lehen grabaketak 1896koak dira, Lumière etxeko langileek eginak. Lehen filme errusiarrak laburrak dira: 8-16 minutu. Iraultza sovietairenen aurreko filme asko eta asko literatura errusiar klasikoaren lan antzeztuak dira. Iraultza bitarteko zinematografia inperialak 25 filme egin zituen Puxkin idazlearen lanetan oinarrituta, 20 Tolstoirenak gogoan hartuta eta 15 Lermontov, Gogol eta Turgeniev idazleenak gogoratuta.

#### **zinema berriaren helburuak**

1917. urteko Urriko Iraultzak zinema errusiarraren mundua aldatu zuen, goitik behera eraberritu zuen; eta zinema sovietairena eredu berri bilakatu zen munduko zinematografiarentzat.

Estatu sovietaire berriak *sortzaileen* esku utzi zuen zinema, eta masak *hezteko* ardura eman zion. Zinema sovietairenak kontzeptzio berria erakutsi zuen, kontzeptzio sozialista. Mundu berria eraikitzen ziharduen estatuak zinema berria behar zuen.

Zinematografia *zaharra* ezabatu egin zen, autore anti-iraultzaileek atzerrirako bidea hartu zuten eta zinema iraultzailea gazteen esku geratu zen.

Honaino helduta, pertsonaia bat, erakunde bat eta data bat aipatu behar dira:

Anatoli Vasilievitx Lunatxarskii, Narkompros eta 1919. urtea.

Anatoli V. Lunatxarskii *Narkompros* izeneko Hezkuntza eta Instrukzioarako Herri Komisarigoko arduraduna zen 1919an, ministerio moduko erakunde sovietaire horrek zinema errusiara nazionalizatzeko agindua eman zuenean. Nazionalizazioagaz batera, Narkomprosek ondoko helburu hauek ezarri zizkion zinemagintza iraultzaileari:

- ⇒ 1.- Zinemagintza sovietairenen lehen helburua informazioa ematea zen.
- ⇒ 2.- Zinema sovietairenak aurrerapen zientifiko eta teknikoaren lekukoa behar zuen izan.

⇒ 3.- Zinema sovietaarrak propaganda politikoa helarazi behar zion herriari, masari.

⇒ 4.- Zinema sovietaarrak artista sovietaarren lanak eta arte-kontzeptzioak aireratu behar zituen.

Agintari sovietaarren eskuetan, zinema *hedabide*, *arte* eta *propaganda-aparatu* bihurtu zen.

### **filmografia iraultzailea**

Modu arinean baino ez bada ere, hona hemen hiru izen, iraultzagaz konprometitutako jendearenak, zinematografia sovietaarren oinarriak ezartzen sekulako lana egin eta zinemagintza mundialaren eraberritze-ahaleginetan buru-belarri aritutakoenak:

**Dziga Vertov** (1896-1954). Beraren ekarpenik sonatuena *journal filmée* deitutako generoaren sortzailea izatea da. Beraren lehen lanak iraultza eta gerra zibil errusiarreko materialez egindako muntaiak dira. Genero informatiboaren eta dokumentalaren oinarriak ezarri zituen. Beraren muntaien artean, aipagarria da *Zinema Begia* izeneko muntaia-sorta, bere teoria zinematografikoen ariketa dena; genero dokumental bitxia da berau, kontraesanak lantzen dituenak: zaharra/berria, kooperatiba/kapitalismoa, nekazaritza/fabrikak, eta abar. 1926. urtean argia ikusi zuen *Aurrera Soviet!* filmeak. Bertan Mosku sozialistaren ikuspegi idealizatua eskaini zuen Vertovek. *Gizona kamaragaz* filmean (1929) gizon batek tximinia batetik ikusten du mundua.

**Lev Kulexov** (1899-1970). Muntaiaren garapenean esperimentatu zuen autorea da Kulexov. Aktoreen hezkuntza bultzatu eta zinemaren pedagogia landu zuen. *Mister West-en abentura* ikaragarriak sovieta herrian izeneko filmean da sonatuen artean sonatuena.

**Sergei Eisenstein** (1898-1948). Gerra-frontean aritutako teatro-langilea eta propagandista konprometitu izan zen Eisenstein, *Proletkult* taldeetan aritutako agitatzailea. Bere filmeetan dokumentalismoak aparteko garrantzia du; muntaia modu erritmikoan landu zuen eta beraren filmeetan sinbolismoak berebiziko lekua betetzen du. Zinemaren historian, sortzailerik garrantzitsuenetarikotzat jo izan da, zinema teorikorik laudatuenetakoa. *Greba* filmean (1924), esate baterako, fabrika bateko langileek beren duintasunaren alde burututako matxinada kontatu zuen, baita beren aurka armada inperialak ezarritako errepresio bortitza; filme horren muntaiaren, errepresio militarra harategi bateko animali-zatiketagaz parekatzen da. *Potiomkin akorazatua* filmean (1925), bestalde, 1905. urtean armada inperialeko gerra-untzi bateko marinelen matxinada eta Odessako herriak marinelen matxinatuen alde hartutako konpromezua goraiatu zituen, baita Odessako herriaren aurka infanteria eta zalditeria inperialak burututako sarraski latza gogor salatu ere. Eisensteinen filmeetan, dokumentalismoak eta agitazio politikoak bat egiten dute uneoro: dokumentalismoa eta propaganda txanpon beraren aurpegi biak dira. *Urria* filmean (1927), Eisensteinek 1917. urtean Errusiako tsarismoaren amaiera ekarri zuten matxinadak eta erreboltak kontatu

zituen militante sutsuaren ikuspuntutik, eta lan magistrala burutu zuen, ezelako duda barik.

### **4.3. Telekomunikazioak hedabideen garapenean**

Inprenta asmatu eta garatzen hasi eta bost menderen ondoren, zerbait berezi gertatu zen komunikazioaren munduan. Teknologia berri batek ahotsa distantzia luzeetara hedatzea ahalbidetu zuen. Inpresioagaz egin zitekeen bera: informazioa bildu, berau gorde, kopiak eginda errepikatu eta distantzia handira igorri egin zitekeen orain, testu idatziagaz barik, ahotsagaz beragaz.

Ahotsean oinarritutako telekomunikazioen lehen agerpen hori hurrengo hiru baldintza nagusiek ekarri zuten:

- 1.- Ozeanoak eta kontinenteak gainditzeko eta zeharkatzeko beharra sortu zuten faktore sozialek, politikoek eta ekonomikoek,
- 2.- XIX. mendeko asmakuntza teknologikoen garapenak edo iraultzak, eta
- 3.- Kable gabeko telegrafiaren garapenak, baita geroagoko irratigintza eta telebistaren agerkundeak ere.

Defini dezagun bada *telekomunikazioa*. Telekomunikazioa honako hau da: distantziara egiten den komunikazioa, eremu edo inguru hurbila gainditzeko jaioa dena.

Gizarte-erakunde konplexuak sortu ahala sortu zen telekomunikazioaren beharra gizartean, mundu aurreratuan. Erakunde militarrek, komertzialak eta gubernamentalak daude telekomunikazioaren sorkuntzaren oinarrietan. Erakundeok beharrezko zeukaten distantzia handien arteko komunikazioa, erakundearen adarren arteko koordinazioa, telekoordinazioa, alegia.

Telekomunikazio modernoaren oinarrietan, beraz, interes ekonomikoak, teknologia industrialaren garapenak, kasta militarren beharrian estrategikoak eta koordinazio politiko-estatalak zein interes transnazionalak aurki daitezke. Jantz ditzagun geure buruak historia pixka bat eginez.

### **Telekomunikazioa kultura klasikoaren garaian.**

*Telegrafo* berba Kristo aurreko hirugarren mendekoa da; greziar kulturak sortu zuen.

Greziarrek hasieran eta gerora erromatarrek eta pertsiarrek antolakuntza militar konplexua garatu zuten, norik bere urrezko urteetan. Armaden ekintzak koordinatzeko arazoak sortu zirenean, gorriak eta beltzak ikusi zituzten jeneralek tropak kontrolatzeko eta gidatzeko. Koordinaziorik ezagatik, armadek gerrak galdu zituzten, itsasuntziak hondoratu egin ziren... fortunak galdu ziren.

### **Soluzioen bila.**

Antzinateko herriek enborrak barrutik erre, zuloa abere-larruz estali eta danborrak egiten ikasi zuten. Tresna horren soinuak distantzia handiak zeharka zitzakeen. Telekomunikazioa abian zegoen.

Antzinateko adibideen zerrendan, ke bidezko seinaleak ditugu, ispilu bidezko komunikazioa, itsas faroen argiak, usoak... Distantzia eta denbora gainditzeko saiakerak ez dira atzo goizekoak, beraz.

*Napoleon*-en aginte-garaian, esate baterako, 1.000 miliatako distantzia estaltzen zuen semaforo-sistema garatu zen, albiste-garraiorako. Frantziak, urte horietan, 224 semaforo-egoitza eraiki zituen telekomunikazio militarreko. Sistema berezi horrek bere fruituak eman zituen informazioa batetik bestera pasatu eta garraiatzean.

Telekomunikazio militarreko sistema zela-eta, mendi tontorretan dorreak eraiki ziren, eta dorreetan beso luze moduko tramankuluei eragiten zitzaizkien; besoen mugimenduak aldeztu aurretik adostuak ziren eta seinaleak dorre batetik bestera berregiten ziren.

Sistema frantses hori garestia eta neketsua zen arren, Europako zenbait herritan erabili zen, besterik ezean.

Gaur egun, zenbait itsasuntzitan antzerako sistema erabiltzen da, irratiek mutu egon behar dutenean. Kasu horietan, seinaleak banderen bidez egin ohi dira unti batetik bestera, edota lehorretik untzira zein horretatik hara.

Telegrafo elektrikoak baina, sistema zahar guztiak ordezkatu zituen.

#### *4.3.1. Telegrafo elektrikoa*

Elektrizitatearen ulermena, XIX. mendean garatu zen, beste aurrerakuntza fisiko eta zientifiko askogaz batera, edo haiek bultzatuta, gura baldin bada.

Ildo horretatik, irratia bera energia elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikerketetan egindako aurkikuntzen ondorio da. Irratia egitatea izan zedin, hiru iker-barruti arakatu behar izan zituen kolektibitate zientifikoak XIX. mendean:

- 1.- elektrizitatearen oinarritzko teoria,
- 2.- korrante elektrikoak neurtzeko eta garraiatzeko teknologia, eta
- 3.- eremu elektromagnetikoen teoriaren alorra.

##### *4.3.1.1. Kable bidezko telegrafoa*

Telegrafoaren garapena ahalbidetu zuen aurkikuntza zientifikorik nabarmenena elektroimanarena da.

Antza denez, asmatzaile batzuk izan ziren, urte-inguru berean, telegrafo elektrikoa abian jarriko zuen aurkikuntza egin zutenak. Historiara, erretratista eta pintore batek egindako patentea pasatu da: F. B. Morse jaunarena.

Morsek 15 kilometroko kable-mataza zeukan bere unibertsitate-bulegoan (New York); bera marrazki- eta literatura-irakaslea zen. Sarritan ahalegindu zen argi-indarra kablean zehar igaro-arazteaz gain, inpulso elektriko haiek kontrolatzen; eta, azkenean, bidea aurkitu arren, bere garaiko zientzialari unibertsitarioek arreta

oso txikia jarri zuten esperimentu arrakastatsu haietan, oso eszeptikoak izan baitziren aurkikuntza haien aurrean.

Urte bertsuetan, Cooke eta Wheatsthone, Ingalaterran, antzeko ikerketetan arituak ziren. Gauzak nola diren, 1839an Cookek eta Wheatsthonek 30 kilometro luze zen kable telegrafikoa hedatu zuten Londres eta Wets Drayton bitartean; historiak, hala ere, bigarren maila batera baztertu ditu ikertzaile europarrak estatubatuarren mesedetan.

Aurrerapenak aurrerapen eta eszeptizismoak eszeptizimo, 1844. urteko maiatzaren 24ean, argia ikusi zuen Washington eta Martimore bitarteko kable bidezko lerro telegrafikoak Morseren eskutik; kableak 40 milia zituen. Inpultsu elektrikoei esker, albisteak igorri zitezkeen distantziara, gertatutako unean bertan.

Kable bidezko komunikazio-aukera honi berehala aurkitu zioten etekina, nola talde komertzialek hala militarrek. Hiriek fisonomia berria hartu zuten, hiriko eraikuntzarik nabarmenenak lotzen zituzten kableak zirela-eta.

Kable bidezko lehen telegrafo hau *lurtarra* izan zen; *itsastarra* gerora heldu zen. Cyrus W. Fiel-ek Atlantikoa zeharkatzen zuen lehen kablea bota zuen Europa eta Amerika artean. Lehen albisteak 1866. urtean zeharkatu zuen itsasoa. 1876. urtean Alexander Grahan Bell-ek, inpultsu elektrikoak ez eze, giza-ahotsa garraiatu ahal izan zuen itsas azpiko klabeari esker.

Telegrafoak sekulako hedadura hartu zuen urte apur batzuen buruan. 1886an, Europan, 8.010 telegrafo-bulegok ziharduten lanean eta telegrafo lerroek 150.000 kilometro zeharkatzen zituzten. Frantziak berak 1.550 bulego zeuzkan bere lurraldeetan zehar, Espainiak 215.

#### 4.3.1.2. Telegrafoa eta komunikazioa

Telegrafo-bideen albisteen garraio bizkorrari esker, komunikazioaren munduak sekulako iraultza ezagutu zuen bere baitan.

Telegrafoak albisteen garraioa erraztu zuen, bere baliabide tekniko berriztatzaileak zirela-eta. Telegrafoak *albisteen* kontsumoa bultzatu zuen; prentsak iritzi-artikuluak alde batera erabat utzi barik, baztertu egin zituen, notizia heldu berri-berrien mesedetan.

Telegrafoaren mugez gaineko ezaugarriak zirela-eta, albistek muga geopolitiko guztiak gainditu eta mundu-mailako merkatura egin zuten jauzi. Telegrafoak albiste-agentzien agerkundea ahalbidetu zuen eta, agentzien eskutik, albistek bizitza-eredu eta kultura-eredu oso zehatzak, mundu kapitalistarenak, munduaren lau bazterretara aireratu zituzten.

Lehen albiste-agentziak:

- *Havas*, 1832. urtea, Paris; beraren hedadura: Mediterranea eta Hego Amerika.
- *Reuter*, 1849-1851, Paris-Londres; beraren estaldura: britainiar inperioa eta ekialde urruna.

- *Wolf*, 1849, Berlin; Austria, Errusia eta Eskandinavia.
- *Associated Press*, 1848, New York; Estatu Batuak eta beren interes kolonialak.

Kable bidezko telefono eta telegrafoak garatuta, irratiantzako atak irekitzeaz zeuden.

#### 4.3.1.3. Kable gabeko telegrafoa

Ipar Ameriketako gerra zibilaren bitartean, James Maxwell-ek, Eskozian ziharduela lanean, garatu zuen matematika-teoria liluragarri bat, zeinaren arabera teorikoki frogatzen baitzuen, uhin elektromagnetikoen argiaren abiaduraz bidaiatzen zutela.

1888. urtean, Alemaniako gazte batek, Heinrich Hertz-ek, uhin horien existentzia frogatu eta aparatu bat egin zuen, uhin elektromagnetikoak detektatu eta neurtzeko.

#### 4.3.2. Irratia

##### 4.3.2.1. Marconi-ren aparatua

1890ko hamarkadaren hasieran, Guglielmo Marconi hogeituro urteko italiarrak uhin hertziarrak eta beroriek detektatu eta neurtzeko aparatua aztertu zituen. Ez zen zientifiko iaioa baina, bai teknikari prestua. Laborategian erabiltzen zuen aparatua eraberritu zuen goitik behera: potentzia handitu zion eta mezua bidali zuen kilometro eta erdira ezelako kablerik erabili barik.

Berea izan zen kable gabeko lehen telegrafoa. Kable gabeko telegrafoa merkatari, militar eta talde gubernamentalen komunikazioetarako hasi zen erabiltzen. itsasuntziak ere gogoz hartu zuten albistea.

Publikoak, masak, egunkarietatik jakin zuen asmakuntzaren berri, baina asmakuntzak bere bizimodua alda zezakeenik ez zitzaion herriari burutik pasatu.

Marconi-k 1901. urtean egin zuen bere esperimendu handia: Gales-tik Ternua-rainoko uhinen bidezko lotura telegrafikoa ezartzea.

##### 4.3.2.2. Telegrafotik irratitelefona

Irratiak berehala konkistatu zuen gizarte mendebaldarra. Nola itsasuntzi-konpainiek hala potentzia handiek berehala eskatu zuten kable gabeko telegrafoaz jabetzea. Lehen Mundu-Gerraren bezperatan telegrafoa teknika hedatua eta komertzialki garatua zen.

1906. urtean heldu zen ahotsa kable gabeko telekomunikaziora, Reginald A. Fessenden-ek asmatutako aparatu bati esker; ordura arteko igorpenak inpultsu elektrikoak izan ziren, *puntuak* eta *marrak*. Lehen irradi-emankizunean berbaldi bat, olerki bat eta biolin pieza bat entzun ziren.

#### 4.3.2.3. Irratia etxera doa

1916. urtean, American Marconi Company etxeko ingeniaria zen David Sarnoff-ek –1912. urtean Titanic zoritxarreko itsasontzia urperatzen ari zela bertatiko azken albisteak hartu zituen telegrafista ezagunak– irratia *etxeko elektragailu* bihurtu beharko zela jakinarazi zion konpaniako zuzendaritzari.

American Marconi Company-k ez zion berehala kasu handiegirik egin, baina, hamar urteren buruan, Sarnoff-en ideia egitate bilakatu zen: irratia etxeetan zegoen.

Lehen irrati emisora iraunkorra Pittsburgh-eko KDKA izenekoa izan zen, Westinghouse elektragailu-etxeak abian jarri zuena (etxe horrek irrati-hargailuak ekoiztu eta saltzen zituen).

*Irrati domestikoak* 1920. urteko presidente estatubatuarren hauteskunde-emaitzak erretransmititu zituen azaroaren 11n. Mila bat pertsonak entzun zuen hauteskunde-mahaien emaitza: Warren G. Harding zen presidente berria, 16 milioi boto eskuratuta.

1921. urtean irrati-emanaldiak New York-en eta Newark-en ezagutu ziren eta handik estatuaren lau bazterretara hedatu ziren.

1921. urtean 32 irrati-emisora irekitzeko baimenak eman ziren; 1922an 254.

#### 4.3.2.4. Gatazka airean

Irrati-emisoreen kopurua berehala etorri zen gora Estatu Batuetan; ondorioz, *zarata* berehala heldu zen uhinetara: interferentziak jaio ziren. Irrati-emisoreak oso frekuentzia hurbiletan igortzen zituzten beren programak eta uhinetan topo egiten zuten. Emisora batzuek hitzarmenak izenpetu zituzten emisio-orduak banatzeko, baina, lege-kontrolik ez zela-eta, borroka latza izan zen.

Britainia Handian BBC-k 1922. urtean zabaldu zituen bere airezko atea; 1923an Parisko Eiffel dorretik irrati-emisora bik ziharduten. 1923. urtean Estatu Batuetako hiri guztietan bazen emisoraren bat edo beste.

Baina, ordutik aurrera, irratia garapen bizkor hura ahulduz joan zen: irrati-emankizunak, hasieran, irratigailu-ekoizleek berek ordaindu zituzten, baina, emisoreen kopuruak gora egin ahala, irratigailu-ekoizleek emisioen monopolioa galdu zuten eta, ustekabean, irrati-emisoreak babesle barik aurkitu ziren; malda-behera berehala hasi zen.

EEBBetan, 1923. urteko martxo eta apirila bitartean, 42 emisorak itzuli zituzten lizentziak, ekainean 50ek, uztailan 25ek. Urte horretan bertan ehundik gora emisorak zarratu zituzten atea. Irratiak aurrera egin gura baldin bazuen, finantza-iturri berriak bilatu behar zituen.

#### 4.3.2.5. Irratia, ideologia eta gizartea

Mende honen hasierako irratigintzan hiru filosofia nagusitu ziren. Irratia ulertzeko hiru moduek leku desberdinetan ikusi zuten argia:

- *Irrati komertzialak* Estatu Batuetan.
- *Irrati klasistak* Britainia Handian.
- *Irrati propagandistikoak* Alemanian eta Soviet Batasunean.

#### **irradi komertziala**

1920. urtean, irratia bere lehen urratsak ematen ziharduenean, inork gutxi pentsa zezakeen emanaldiak publizitateari esker airera zitezkeenik.

Hasiera batean, irradi-ekoizleek ordaindu zituzten irradi-emanaldiak, balizko entzulegoari amu interesgarria aho-aurrean jartzearren.

Hasierako konpainia irradi-ekoizle nagusiak Radio Corporation of America (RCA), Westinghouse eta American Telephone and Telegraph Company (ATT) izan ziren. RCA-k NBC filiala sortu zuen irradi-emankizunak garatu eta bermatzeko. ATT-k WEAf filiala sortu zuen helburu beragaz. Baina, lehenago esan dugun legez, irratigailu-ekoizleek, ekonomi-arrazoiak argudiatuz, berehala egin zuten atzera emisoretatik eta irratiek finantzabide berriak aurkitu behar izan zituzten.

1922. urtean etxegile batek ordaindu zuen gogoratzen den lehen irradi-emisio publizitarioa. Etxegileak egin berriak zeuzkan apartamentuak saldu gura zituen eta elkarrizketa bat egin zioten mikrofonoaren aurrean bere baldintzak azal zituzten; elkarrizketaren truke bere dirua utzi zuen alde egin baino lehen.

Publizitate-agentziak berehala hasi ziren abestitxoak sortzen, melodia ikasterrazak egiten eta letra itsaskorrek asmatzen beren produktuak irratiz aireratzeko.

Entzulegoak ez zuten protestatu; ordea, interesgarri iritzi zioten irradi-publizitateari. Irrati-iragarkiak *praktikoak* zirela zioten. Irrati-emisorek eta publizitate-etxeek pagotxa aurkitu zuten.

Irrati-publizitatearen emaitzak segurtatzeko, audientzia-ikerketak jaio ziren. Publizitate-etxeek berehala ikasi zuten programa batzuek beste batzuek baino harrera hobea zutela, ordu batzuetan jende gehiagok entzuten zuela beste batzuetan baino; eta, horren arabera, iragarkiek prezio desberdinak eduki beharko zituztela deliberatu zuten.

Komertzializazioari esker, irradi estatubatuarra berehala bilakatu zen, indar ekonomiko ezagunaz gain, indar politiko-faktiko. 1932. urterako iritzi publikoa eratzeko arma bilakatu zen. Franklin Roosevelt izan zen irratia indar politikoaren tamaina ulertu zuen lehenetariko bat. Irrati-hitzaldi politikoaren generoa inauguratu zuen. Bere berbaldi politikoak ez ziren *mitin zaratatsuak*, *familia-elkarrizketak* baino.



## irradi klasista

1922. urtean, Posta Arduradun Nagusiak (Britainia Handian irradi-emanaldien kontrola, mende hasieraz gero, posta eta telekomunikazio-zerbitzu estatalaren menpe zegoen) agindu zehatza eman zuen: irratia ekoizten zituzten eta irratiz emititu gura zuten konpainia guztiek bat egin behar zuten irradi-erakunde bateratua sortzeko.

Horrela sortu zen British Broadcasting Company –BBC– 1922an bertan. Konpainia hau, sortzez, komertziala izan zen, jabeago pribatua.

Bost urte geroago, 1927. urtean, BBC korporazio publiko eta burujabe bilakatu zen. Gobernuak, zenbait ikerketa egin ondoren, ondokoa deliberatu zuen: irratia indar garrantzitsuegia zela esku pribatuetan egoteko; britainiar legegileek *irritzi publikoan eta nazioaren bizimoduan horren eragin zuzena eduki zezakeen indarraren kontrola Estatuari berari zegokiola* erabaki zuten.

BBC publikoaren hasierako programazioa unibertsitarien esku egon zen. 20ko urteetan irradi-edasle edo esataria izatea zen edozein intelektualek irrikiz bilatzen zuen lana. Munduko ezein emisorak ez zeukan BBCk eskain zezakeen obra dramatiko, musika on edo berbaldi interesgarrien parekorik.

Gezurra badirudi ere, BBCren arlorik ahulena albistegiena izan zen. Horrek ere bere arrazoia zeukan. 20ko urteetan egunkariak ez zuten irratia konpetentziarik gura eta irratia arratsaldeko zazpiak arte inolako boletinek edo parterik ez irakurtzea ezarri zioten. Egoera hori 1938. urtera arte luzatu zen.

## propaganda-irratia

*Propaganda nazian*, leku garrantzitsua eduki zuen irratia, 1939-1940 urte bitartean batez ere. Alemaniako irradi-eskuliburuak esaten zuenez, *irratia, benetako irratia, propagandistiko da*.

Naziek nazio-borondate bateratua eraiki zuten irratia esker. Irratia lider karismatikoarekiko harreman zuzena ahalbidetzen zuen. Jendeak *fürer*-aren ahotsa entzun zezakeen, egunkarietako transkripzio hotza irakurri barik. Nazio-liderraren eta herritar arruntaren arteko harremana ahalbidetzen zuen irratia.

Propaganda naziaren teorian, lider karismatikoaren ahots zuzenak egunkariak argitara zitzaketen izkribu politiko eta propagandistiko hotzek baino indar handiagoa zeukala aitortzen zen.

*Errusia Sovietarrak*, bere aldetik, garrantzi iraultzailea aitortu zion irratigintzari. Alderdi boltxevikeak 1918. urtean eraiki zuen lehen irradi-laborategia. Lenin-ek *paper gabeko egunkari* izenaz bataiatu zuen irratia.

1922. urtean, emanaldiak erregulartasunez hasi ziren aireatzen Soviet Batasunean.

20ko urteetan, iraultza eta gerra zibilaren ostean, Soviet Batasunak gorriak eta beltzak zeuzkan begien aurrean. Egoera ekonomiko tamalgarria pairatzen zuen. Sovieten herria pobrea zen.

Hori dela eta, soviatarrek irrati-emanaldiak modu kolektiboan entzuteko aukerak ahalbidetu zituzten. Irrati-hargailuak garestiak ziren, ez ostera bozgorailuak. Irratiak klubetan jarri ziren, eta aparatu bakarrari bozgorailuak jartzen zitzaizkion, kolektiboki entzun ahal izateko.

Lantegietan ere antzerako zerbait egin zen: irrati-emanaldia airez zetorren zentrotik, eta gero, lekuan-lekuan, kable bidez hedatzen zen informazioa bozgorailuetaraino.

Lehenago BBCri gertatutakoaren antzekoa gertatu zitzaion irrati soviatarri albistegiekaz: irrati ez zen ezelango albisterik irakurtzen, harik eta *Pravda* egunkari ofizialak albistea argitaratu arte. Albistek, inoiz, 36 orduko *atzerapenaz* irakurtzen ziren.

### **irradiaren eragina gizartean**

Irratiaren eraginari buruzko lehen ikerketa zientifikoak 30eko urteetan hasi ziren egiten.

Irratiak musika klasikoaren zaletasuna bultzatu omen zuen, baina, hasiera hartan, batez ere orduko musika *berriena*, alegia, jazza, crooninga edo rokarena.

Urte haietan, egunkari-saltzaileek ikerketa bat baino gehiago agindu zuten, irratiak egunkari-salmenta erre zezakeelako beldurrez. 1940. urtean Columbiako Unibertsitateko irakasle zen Paul Lazarsfeld-ek egindako ikerketa batek lasaitu zituen, azkenean, egunkari-editoreak. Ikerketaren arabera, irratiak, egunkari-saltzaileek uste zutenaren kontra, ez zeukan ia eraginik egunkarien erosketan.

Ikerketa horrek argitu zuenez, jendeak bere maila kulturalaren arabera erosten zuen egunkaria eta entzuten zuen irratiak, hots: irratiak egunkarietik jarraera ona zutenen irrikia pizten zuen eta horiek egunkaria erosten zuten; besteengan ez zuen eraginik irratiak. Irratia ez zen, beraz, egunkari-saltzaileak beldur zitzakeen ezjakinentzako eskola. Irrati-albistegiekaz konformatzen ziren haiek ziren egunkaririk ez erosteko joera zeukatenak. Albisteez arduratuta zeudenek, ostera, irratiak entzun eta gero egunkaria erosten zuten, albisteei jarraipena egiteko. Beraz, irakurtzeko zaletasuna zutenek, irratiak entzun arren, irakurtzen segitzen zuten; irakurtzeko zaletasunik ez zutenei, irratiak ez zien gutxiago irakurtarazten.

Hala ere, ikerketak argitu zuenez, irratiak izan zuen eragin garrantzitsurik gizartean. Irratiaren eragin aipagarrienen artean, kontutan hartzekoa da bere indar politikoari zor zaiona, hauteskunde-kanpaina pertsonalizuagoak egitea ahalbidetu baitzuen. Bestalde, irratiak dialektoen desagerketa ekarri zuen eta hizkuntzen estandarizazioa areagotu zuen.

#### *4.3.3. Telebista*

##### *4.3.3.1. Telebista, hedabide masiboa*

Telebista agertu arteko ezein hedabidek ez du ezagutu horrenbesteko arrakastarik. Jendeak luze itxaron zuen, irudiak etxera eramanez zitzakeen

telekomunikabidearen agerkundea eta, gaur ere, halaxe itxaroten du kontsumoa deskubritzen ari diren gizarteetan.

Zein dugu, baina, ilusio-saltzailerik arrakastatsuen den asmakizun horren joan-etorri historikoa? Ehunen bat urte egin behar dugu, berriro ere, atzera.

1862. urtean eginiko ikerketa batzuen arabera, argi ikusi zen kable bidez irudiak igor zitezkeela. 1875. urtean, George Drey-k, Bostonekoa berau, irudi batzuk igorri zituen kable bidez, selenio-bateria batek sortutako elektrizitate-bulkadei esker.

1888. urtean, Alemaniako Paul Nipkow-ek telebista-sistema oso bat patentatu zuen. Elektronikaren garai aurreko lehen telebista-sistema osoa izan zen Nipkowek patentatutako hori, 1920. urteetara arte indarrean egon zen bakarra. Nipkowek zabalduetako bideari jarraituta, ia urtero-urtero patentatu ziren asmakuntza berriak telebistaren inguruan.

1923. urtean jauzi handia egin zen telebista sortzeko ahaleginetan. Vladimir Zworikin-ek *ikonoskopia* (telebista-igorgailua) eta *kineskopia* (telebista-hargailua) deitutako makina elektronikoen hobekuntzak ekarri zituzten asmakuntzak patentatu zituen. Zworikin errusiarra zen, Estatu Batuetara emigratu zuena eta lanean RCA irradi-konpainian ziharduena. Zworikinen asmakuntzek telebista elektronikoen oinarriak ezarri zituen.

1931. urtean, Electric and Musical Industries (EMI) etxeak telebista-ikerkuntzarako lantegi berezia eraiki zuen Britainia Handian. Lantegi horretan egindako ikerkuntzei esker, EMI etxeak *Emitron* telebista-sistema patentatu zuen. Sistema horrek, irudiak erakusteko, 405 lerro zerabiltzan pantailan eta 50 aldiz *garbitzen* zuen hura segundoko.

Harrezkero, telebista-sistema nagusi bik hartu dute mundua beren baitan: 525 lerroko sistema amerikarrak, NTSC deituak, eta europarren 625 lerrokoak (PAL edo SECAM). Gaur, oster, sistema analogiko horiek gaudituko dituen sistema digitalak zabaldu berri ditu bere begiak.

Telebista-emanaldi erregularrak 1935. urtekoak dira, baina benetako garaipena Bigarren Mundu-Gerratearen ostean hasi zen. Gaur egun, europarren %90ek ikusten du egunero telebista, %50ek entzuten du egunero irrateria, eta %35ek irakurtzen du egunero egunkaria. Datu horiek telebistaren garrantzia ilustratzen digute, jakina.

Telebista, gaur egun, munduko irudi-saltzailerik haundiena da. Gizateriaren historian kultura homogenizatzeko ezagutu den tresnarik emankorrena da telebista.

Hedakuntza masibo horrek zenbait beldur piztu ditu: ez al da zabaltzen ari zapalkuntza kultural homogenizatzaile izugarria telebista dela medio? Izan ere, informazioaren jario multinazionalak zenbait herriren autonomia kulturala kolokan jarri du.

Herrialde industrializatuetan telebista da aisiarako kontsumogairik hedatuena. Batez beste, hiru bat ordutan egoten da familia telebista-aparatuaren aurrean. Telebista, gaur egun, familiako partaidea da.

#### 4.3.3.2. Telebistan digitalizazioa

Telebistaren garapenean, kable bidez edo digitalizazioaren bidez izan, programen eskaintza handitzea da erronka nagusia. Telebista-enpresek digitalizazioan ikusten dute kable-sistemaren hedadurak eskatzen duen inbertsio erraldoien zama gainditzeko aukera. Irudi eta soinuen igorpenean digitalizazioak dakarren kalitateak eta jario etenezinak, atzean utzi dituzte aurreko hamarkadan egindako definizio handiko telebista gauzatzeko ikerketa guztiak.

Digitalizazioak konpresioa dakar. Gaur egunera bitartean arrunta izan den telebista analogikoak kate baten programazioa erakusteko behar zuen banda zabaleroan, digitalizazioari eta konpresioarari esker, lau edo bost kateren produktuak garraiatzeko aukera dago.

Bestalde, digitalizazioak bestelako produktuak eskaini ahal izatea dakar, hala nola aldizkari elektronikoak, ordenagailu-programak edota joko interaktiboak. Telebista digitalak abiadura handiko sare telematikoekaz lotzeko aukera domestikoa zabaltzen du.

Telebista digitalak sarbide diferenteak darabiltza etxera heltzeko: lurgaineko errepikagailuak, satelitea eta kablea, lekuan-lekuan garatutako azpiegituraren arabera. Etxe barrura telebista digitalak aparatu berriak ekarriko ditu. Kaptazioak, gaur-gaurkoz, arazoak dakartza, zeren Europan telebista digitala bultzatzen ari diren enpresek ez baitute ahalegin komun seriorik egin, eta horrek aparatu diferenteen patente-lasterketa bultzatuko baitu.

Telebista, amaraun digitalari lotuta, zerbitzu ugariaren eskaintzaile aparta izango da:

- \* Pelikulak kartan.
- \* Kanal tematikoetarako sarbidea.
- \* Tele-erosketa, tele-lana, tele-osasuna, bideo-jolasak.
- \* Interaktibotasuna.
- \* Egunkari tele-digitalak.
- \* Turismo birtuala.

Etorkizun hiper-teknologikoak koloretako biharamun komunikatiboa eskaintzen du; argi ez dagoena, ostera, hauxe da: hiper-argitasun horrek gizartean eta gizakiengan sortuko dituen gerizpeak, itzalak eta gune ilunak zelakoak eta zenbatetarainokoak izango diren.

#### 4.4. Irakurgaiak

- Arana Martija, J.A. (1994). "Euskal Herriko inprentaren historia" in *Uztaro*, 12. UEU, Bilbo.
- Armentia, J. I. (1994). "Euskal Herriko egunkarien irudi berria" in *Uztaro*, 11. UEU Bilbo.
- Díaz Noci, J. (1996). "Kazetaritzaren sorrera Euskal Herrian" in *Zer*, 1. EHU, Leioa.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1995). "Komunikazioaren norabide berriak diktaduraren ostean (1975-1995)" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Zalakain, J. (1993). *Euskal prentsa herri proiektua da, Joxemiren uzta*. Txalaparta, Tafalla.
- Aristarco, G. (1968). *Historia de las teorías cinematográficas*. Lumen, Bartzelona.
- Aumont, J. et al. (1988). *L'analyse des films*. Fernad Nathan, Paris.
- Lopez García, E. (1990). "Fikzio poliziakoaren logika, gaur egungo irudian" in *Uztaro*, 0. UEU, Bilbo.
- Mariniello, S. (1990). *Lev Kuleshov*. La nova italia, Florentzia.
- Arana, E. (1996). "Lurraldetasunaren mugarriak telebista albistegietan" in *Inguruak*, 16. EHU, Leioa.
- Basterretxea, J. I. (1997). "Telebistak 25 urte Hego Euskal Herrian" in *Jakin*, 98. Jakinkizunak, Donostia.
- Faus Belau, A. (1995). *La era audiovisual*. Ed. Internacionales Universitarias. Bartzelona.
- Fernandez, L. (1997). "Telebista digitalaren bataila" in *Euskaldunon Egunkaria*, 1997/02/02
- Idoiaga eta Garitaonandia. (1985). "Telebista Europako erregio, nazionalitate eta nazioetan" in *Jakin*, 36. Anaidia, Arantzazu.
- Jauregi, M. (1997). "Harpidedunentzako telebista" in *Argia*, 1612. Donostia.
- Zallo, R. (1993). "ETB: txosten bati buruzko txostena" in *Jakin*, 75. Jakinkizunak, Donostia.
- Gutierrez, A. (1996). "Tokiko irriak, herri partaidetasunaren guneak" in *Uztaro*, 19. UEU, Bilbo.
- Otermin, J. M. (1982). "Irratigintza egun Euskal Herrian" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Peñafiel, C. (1995). "Irratiaren historiarako 20 urte Euskal Herrian" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Zabaleta, I. (1995). "Hurbiltasun koizientea irradi-telebistako kazetaritzan" in *Uztaro*, 14. UEU, Bilbo.

## **Bosgarren atala: Sareartea eta informazioaren gizartea**

### **5.1.- Sareartea Ezagutzaren Autobideak**

- 5.1.1. Zer dira infobideak?
- 5.1.2. Teknologia berriak gure inguruan
  - 5.1.2.1. Aisiarako sistemak
  - 5.1.2.2. Informaziorako eta kalkulurako sistemak
  - 5.1.2.3. Mezu-igorpenerako sistemak
  - 5.1.2.4. Komunikazio interpertsonalerako sistemak
- 5.1.3. Informaziorako Azpiegitura Nazionalak
  - 5.1.3.1. Sare-ereduak
  - 5.1.3.2. Erabilerak

### **5.2.- Informazioaren Gizartea**

- 5.2.1. Egitura ekonomikoa
  - 5.2.1.1. Teknologia berriak eta lan-harremanak
- 5.2.2. Informazioaren kontsumoa
- 5.2.3. Egitura teknologikoa
- 5.2.4. Ikuspuntu kritikoa
- 5.2.5. Ikuspuntu multidimentsionala
- 5.2.6. Autobideak gizartearen oinarri
  - 5.2.6.1. *Gore* plana
  - 5.2.6.2. *Delors* plana
  - 5.2.6.3. *Bangemann* txostena
  - 5.2.6.4. Europar Komunitatearen plangintza

### **5.3.- Irakurgaiak**

*“... inizatiba pribatuak eraiki eta zuzendu duen informazio-autobide bat errentagarritasunaren menpekoa izango da beti. Onura ekonomik handienak bilatzen dituen merkatuaren logikari segituta, informazio-autobideak gizarteko sektore ondo kokatuen beharrei, interesei eta aukerei erantzun gura izango die batez ere”*

Schiller, H. I. (1996). *Aviso para navegantes*. Icaria, Bartzelona.

## 5.- Sareartea eta informazioaren gizartea

Hurrengo mendea, etxeko atarian dugun horixe, komunikazio-aztura berrien ondorio izango dela nongura irakurriko zenuen, honezkero, behin baino gehiagotan.

Mende berriko komunikazio-aztura berriak oro komunikabide eta hedabide elektronikoei lotuko zaizkiola inork ez du dudatan jartzen gaur, mendebalde kapitalistan.

Liburuak, aldizkariak, egunkariak, zinema, bideoa, telebista, musika konpaktoak... inpulstu elektromagnetikoei eta laser-irakurleei esker ekoizten dira, eta bai sare diferenteetan zehar munduaren lau bazterretara eraman ere. Komunikazioak, bere eredu guztietan, argi-indarraren abiadura bereganatu du.

Abiadura eta ugalketa dira XXI. mendeko komunikazioari begira jartzen garenean, edozein testutan aurki daitezkeen giltz berbak. XXI. mendeak komunikazio-kultura berrietan hartuko du bere zutoina, oinarria, bizipoza. Atomoa, elektrizitatea bera bilakatu zaigu kulturaren oinarri.

Larrosa kolorez jantzi gura den panorama horren aurrean, hala ere, zenbait itaun egin beharko genizkioke geure buruari. Beste askoren artean, agian, lehen-lehena hurrengo hau:

*- Komunikaziorako teknologia berriek zer eragin edukiko dute, ez bakarrik kultura unibertsalizatueta, baizik eta baita txikietan ere; nora doaz gurearen moduko kultura gutxiengotuak amaraun zibernetikoaren bitartez?*

*Informazioaren Gizartea* deitzen hasita gauden fenomenoan, telekomunikazioak dira informazio-trukerako euskarri nagusi eta horien bizkarraren gainean dago informazioaren eta komunikazioaren garapenaren muina une honetan. Informazioaren Gizartea egitatea izango da halako abagunean non gizarte hori osatzen duten kideen gehiengo garrantzitsu batek edozein formatotan igorria den edozein informazio-mota eskuratzeko modua izango duen edozein unetan eta edozein lekutan.

Zein da *Ezagutzaren Autobideen* benetako garrantzia ekonomiaren, kulturaren, gizartearen eta gizabanakoaren ikuspuntutik begiratuta? Ezagutzaren Autobideak agertu izanak, jakina, garrantzi *koalititaboa* dauka gaur egungo komunikazioaren munduan, baina koalitatibotasun hori galdu barik garrantzi *koantitatiborako* bideak ere urratzen hasita dago, Informazioaren Gizartea bere baitan hartzen ari baita jario komunikatiboaren gero eta zati handiagoa.



### 5.1. Ezagutzaren Autobideak

Komunikazio-sistema berriak informazioa igortzeko sistema eta informazio hori gordetzeko sistema berrien arteko nahasketa dira. Alor nagusi biotan egindako aurrerakuntza teknologikoez erabat baldintzatzen dituzte bihar-etziko komunikazioaren euskarriak eta komunikazioa bera.

Clinton eta Gore estatubatuarrak hasiera-hasieran, Delors eta Bangemann europarrak beranduxeago, eta gainerako estatu eta erakundeetako arduradunak orain, bihar-etziko informazio-sareen oinarri diren *informaziorako azpiegitura nazionalak* eraikitzen hasita daude.

Azpiegiturak eraikitzeko proiektuak beti izan dira hazkunde ekonomikoko zikloen aitzindari; gogoratu, esate baterako, trenbideen garapenak ekarritako hazkunde industrialak. Gaur egun, informaziorako autobideen eraikuntzak mundu garatua lortu duen kontsentsu erabatekoak, hazkunde ekonomiko berri baten atarian gaudela esan gura al du?

#### 5.1.1. Zer dira infobideak?

Izendapen desberdinak ezagutu ditu *idea* berri horrek han eta hemen. Gure inguruko hizkuntzetan *infopista*, *infovia*, *inforoute*, *highway of information* hitzak erabiltzen dira sarritan. Guk ondoko hau proposatzen dugu ezagutzaren autobidea izan daitekeen hori euskaraz izendatzeko: INFOBIDEA. Baina, zer da infobidea? Zer ulertzen dugu infobidea esanda?

Terminoak Clinton-en agintaldian egin da famatu; Estatu Batuetan jendearen ezagutza kolektibora heltzen dena berehala hedatzen da mundu guztira, eta gure artera ere egin du jauzi denboralditxo bat badela. Terminoak, komunikazioaren munduan, gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen: hor eta han sarritan antolatu izan dira gai horri buruzko mintzaldiak, mintegiak, ikastarotxoak; eta artikuluak barra-barra agertu dira aldizkari espezialduetan eta jeneralistetan. Infobide deitu izan diegun horiei, bihar-etziko komunikazioaren euskarri nagusia izatearen ardura leporatu zaie. Infobide deitu izan diegun horietan zehar soinuak, irudiak, testuak eta datuak garraia daitezke.

Infobide aurreratuak sare digitaletan daude oinarrituta eta, informazioa garraiatzeko, abiadura ikaragarria dute. Komunikazio-azpiegitura horri esker, sare hertsiki lotuetan uzta daitezke gizarteko zerbitzu guztien informazio-iturriak: administrazioa, eskolak, unibertsitatea, kontsumo-zerbitzuak, aisiako erakundeak, ospitaleak, bibliotekak, enpresak, etxe partikularrak... Infobideen eraikuntza, gaur egun, alor publiko zein pribatuko enpresen eskuetan dago.

Infobideak, ikuspuntu ekonomikotik begiratuta, ekonomiaren zabalkundea ekar dezakeen abagune moduan ikusten dira, inbertsio-ziklo berriak abian jar ditzaketan gune eragile moduan, ekoizpena eralda dezakeen aparteko aukera moduan. Ikusi beharko da, era berean, zer eragin duten infobideek gizartean bertan eta erabiltzaileengan; horretaz gutxixeago berba egin dela iruditzen zaigu.

Urte batzuk barru, pronostikoak betetzen baldin badira behintzat, sare horietatik garraiatuko den informazioaren %90ek, antza denez, helburu edo iturburu ekonomikoa edukiko du.

Infobideek, ikuspuntu politiko-kritikotik begiratuta, ezarritako botereari egingo diote mesede beste inori baino gehiago. Bizitza politikoaren zutabeetariko bat, besteak beste, informazioaren sorrera, garraioa eta manipulazioa izan dira orain arte. Aro zibernetikoaren garai honetan, informazioaren kontrola izango da boterearen zereginetariko bat. Era berean, aukera-aniztasunak dibertsifikazioa ekarriko duela pentsatzea ere zilegi da eta, agian, dibertsifikazio horrek lagun dezakeela zenbait bide alternatibo jorratzen.

Infobideak, ikuspuntu kulturaletik begiratuta, hiritarren komunikazio-ohiturak eta aztura kulturalak oro eraberritu eta alda ditzakeen iraultza moduan ikusten hasiak dira. Uste denez, gaur-gaurkoz, *kultura* aro nagusi bitan banatuko da: era zibernetikoaren aurrekoa eta horren ostekoa. Sare horietara hel ez dadin kultura, kulturatzat hartuko ez dela pentsa daiteke.

Infobideak, teknologiaren ikuspuntutik ikusita, zerbitzu-sareen bilakaera eraberrituko duen gune-eragile moduan ikusten dira.

Infobideek, ikuspuntu sozialetik begiratuta, gizartearen antolakuntza, hirien kontzeptzioa, lana ulertzeko erak eta gizababanakoaren gizarte-ereduak markatu ez eze, aldatu ere egingo dituztela uste da.

Ehun urteko historia laburrean, telekomunikazio-zerbitzuek berrikuntza ikaragarriak ekarri dituzte gure artera eta arrakasta sozial handia lortu dute. Baina, egun, telekomunikazio-bide horiek gaintitzen ari garen susmoa hedaturik dago gure artean.

Etorkizuna etxe atarian dugu eta, logikaren eta teknikaren eskutik, zerbitzu interaktiboak jarri dira abian, multimedia-zerbitzuak ere hor dira eta etxe guztietara egin gura dute jauzi. Telebista digitala, telebista laua, hiru dimentsio-tako telebista, errealtasun birtualeko telebista, telehizketaldiak, teleerosketa, teleegunkaria, telelana, publizitate interaktibo eta pertsonalizatua... gure buruetara behin eta berriro hurbiltzen diren izendapenak dira.

Infobideek etxeetara, erakundeetara eta enpresa-mundura sartu gura dute. Etxea bereganatzeko, mundu berri horrek teknologia merketu behar du, prezioak egokitu behar ditu, bere burua garatu behar du; baina, hori egindakoan, merkatu itzela zabalduko zaio begien aurrean: telelana, telehezkuntza, telemedikuntza, telebankua, telejolasak... hortxe daude, zain.

Teknologia berri horiek telebistagaz, ordenadoreekaz eta telefonoagaz bateratuko dituen etxerako aparatu helburu-aniztun berria etxe-atarian dago.

Dagoeneko, enpresak multimedia-zerbitzua eta abiadura handiko sareak erabiltzen hasita daude beren bezeroekiko harremanak bizkortzeko, lan berriak sortzeko eta eskaintzeko; enpresa-munduak inbertsioak eta inbertsioak bideratu ditu mundu berri horretarantz errentagarritasunaren bila, konpetentziari aurre

egiteko eta gero eta hedatuago den fenomeno horrek eskain ditzakeen abantailez profitzatzeko aukerarik ez galtzeko.

Erakundeek beren eraginkortasuna aurkitu gura dute sare berrietan; sare berriek boterearengandiko kontrolaz gain, administrazioaren jarduna hurbildu beharko liokete herritarrari.

Abiadura handiko informazioaren trenan, beraz, etxe-aurreko geltokian dugu.

### 5.1.2. *Teknologia berriak gure inguruan*

Informazioaren Gizartea gugana hurbiltzen diharduten masa-komunikazioarako euskarri berri nagusiak, lau atal nagusitan bereiz daitezke: aisiarako sistemak, informazio eta kalkulu-sistemak, mezu-igorpenerako sistemak, eta komunikazio interpersoneko sistemak.

#### 5.1.2.1. Aisiarako sistemak

Gaur egungo telebistan oinarritutako sistema berriak aztertzen ari dira. Zenbait areto publiko eta pribatutan metro karratu bateko edo bost metro karratuko pantaila esperimentalak ikus daitezke, telebista zinema-formatora hurbiltzeko ahaleginetan. Sistema horrek lekua aurkitu du zenbait tabernatan eta pubetan.

Egun, laser-teknologia ezarri gura zaio telebistari berari, eta badirudi ez dagoela oso urrun hiru dimentsioko telebistaren aurkikuntza (antipar berezirik eskatuko ez duen telebista tridimentsionala). Telebista interaktiboa etxe-atarian da, ikusleak bere gustuko filmea eskatu eta etxetik bertatik ordaindu ahal izango du zerbitzua, inora joan barik.

Aisiarako sistema horien artean, leku berezia irabazi dute jokoek; bideo-jokoek, esate baterako, esparru handia irabazi dute etxeetako gazteen artean; joko horiek, bihar, interaktiboak izango dira, eta umeek, kalean barik, *eterean* olgatuko dute.

Telekomunikazio-enpresa multinazionalak baliabide ugari jarri dituzte aisiarako sistemak garatzeko jardunean, bihar-etziko merkatu domestiko-zibernetikorako sarrera horixe dela ulertu baitute. Informazioaren Gizartea zerbait izango da, izan izango da, baldin eta jendeak zibernetikaren bidean sartu eta produktu tele-komunikazionalak erosten baditu, baldin eta telekomunikazio-sistemei etxeetan lekua egiten bazaie, lehenago telefonoari, ikuzgailuari edota bideoragabagailuari egin zitzaizkien moduan.

*Telekomunikazioak* erraz asko ulertu du, etxeetarako sarrera komertziala aisiaren bideetatik datorrela. Etxeetan milioitako eta milioitako erosle dauzka merkatu zibernetiko berriak.

Etxeetako lan-funtzioak (garbitze-sistemak –ikuzgailua, aspiragailua...–, sukalde-tresneria...) mekanizaturik daude gaur egun mundu garatuan. Ereku horretan, garapenak gailur egiturala jo du dagoeneko. Enpresek eremu berriak

aurkitu behar dituzte; eta, ildo horretan, etxeei funtzio berria eman gura zaie orain: aisiarako leku aproposa izatea. Funtzio berri hori bereganatzean, telekomunikazioek beren lekua irabaziko dute; irabazten ari dira jadanik, eta irabazten segituko dutela dirudi. Etxeetan aisia zerbait izango da, gaurko usteak usteltzen ez badira behintzat, baldin eta telekomunikazioak etxeetara ate handitik sartzen badira.

#### 5.1.2.2. Informaziorako eta kalkulurako sistemak

Esparru profesionalagoan higitzen gara arlo honetan. Hasieran, sistema horiek errazago hurbiltzen dira enpresetara etxeetara baino; baina, egia esan, banaketa hori gero eta muga txikiagokoa izango dela dirudi: lana eta etxea gero eta *hurbilago* baitaude egun.

Informaziorako eta kalkulurako sistemen artean, baliabide eta teknologia berrien zerrendak egunez egun handitzen diren arren, ezagunen artekoak dira, besteak beste, hurrengo hauek:

- teletestua.

Ingalaterran hasi zen zerbitzu hau 1974. urtean, handik berehala zabaldu zen Frantzia eta Alemaniara. Gaur egungo telebista-aparatu berriek, ia denek dakarte testua etxean hartzeko lotura. Teletestuak eguraldiaz, azken albisteez, burtsaren kotizazioaz... informatzen du. Telebista bidezko azken orduko egunkaria bailitzan dihardu.

- bideotestua.

Aurrekoaren aldaera edo bariantea da. Telefono-lerroaren bidez igortzen da informazioa. Igorleak ordenagailu bidez eraiki ditzake bere testuak eta gero behar den lekura igorri, ia bat-batean. Gaur egun, data-baltzu handiak egiten ari dira sistema horri esker.

Testuak eta irudiak erakusteko gai den sistema elektronik-interaktiboa da bideotestua, zeinak erabiltzaileei datuak hartzea eta igortzea ahalbidetzen baitie.

Informazio-zerbitzu horrek albistek, kirol-emaitzak, burtsa-kotizazioak, eguraldia, aisiarako proposamenak... eskaintzen ditu.

Badirudi teletestu eta bideotestuaren bidea hasi besterik ez dela egin. Sistema bi hauek duten arazorik nabarmenena euskarrian datza, gaur egungo kableek ez baitute ahalmenik informazio-jario guztiei bidea emateko; dena den, arazoak bere amaiera ezagutuko luke, baldin eta zuntz optikoz egindako sareak hedatuago baleude.

- testu elektronikoa.

Liburu elektronikoen kontzeptua gero eta hedatuagoa da. Liburu elektronikoa, gaur egun, multimedia-inguru bat da, zeinean soinua, irudiak eta testuak biltzen baitira.

Formatorik erabiliena CD-ROM da, disko konpaktoaren bidezko memoria handiko formatoa; baina, garapenaren gurpil bizkorak laster utziko du hau ere atzean.

Laser-disko moduan ere komertzializatu da testu elektronikoa eta argitale-txe handiek merkatuan jarri berri dituzte entziklopedia osoak eta liburu tematikoen zerrenda ikaragarri deigarriak.

Beste batzuen artean, informazioa gordetzeko abiadura eta erantzun-ahalmen handia duen sistema dugu aipatutako hori.

### 5.1.2.3. Mezu-igorpenerako sistemak

Aldaketa izugarriak ikusten ari gara egunez egun. Sistema zaharrak atzean geratu eta berriak etengabe ari dira sortzen.

Mezuak igortzeko fax-sistema, esate baterako, berria izanik, zaharra ere bada izan. Mezuak igortzeko sistemak goitik behera eraberritzen ari dira eten barik, Informazioaren Gizartea deitu diogunaren azpiegiturak garatzen ari diren heinean eta infobideen mundura hurbiltzen garen heinean.

RDSI-BA programak, esate baterako, teknologiaren garapena ikertzen dihardu, eta gainerako sistemen estandarizazioa bilatzen ari da, bateragarritasuna hedatzeko ahaleginetan. Programa horrek 1988. urtean ikusi du argia eta Europako Komunitateak jarri du abian.

MTA sare europarra abian da eta 1994. urteaz gero negozio-munduaren barneko kide da. Horregaz batera, aurre-komertzialak diren MMI programek dihardute lanean.

Sare horiek bat egingo ei dute hirugarren milurtekoan, banda zabal eta multimediatiko sistema integratuetan. Zer ekarriko duten, ikuskizun da, jakina; dakartenak mundu berria irekiko duena, segurua da, hala ere.

Informazio-igorpen globalerako ateak aspaldian arakatu dira eta azpiegitura nazionalak uztartuko dituen azpiegitura mundiala gero eta hurbilago dago.

*Informazioaren hedabideak* era guztietako mezuak igortzeko martxan dauden eta laster asko martxan egongo diren bitarte fisiko guztiak biltzen dituen kontzeptua da. Informazioaren hedabideak, beraz, informazio-azpiegitura nazionalak eusten dituzten bitarte fisikoak dira, baita informazio-azpiegitura mundiala ahalbidetuko duten bitarte fisikoen multzoa ere.

Informazio-egitura horiek abiadura oso handiko sare digitalak dira, mezu-igorpenerako sistemak oro eraberritzen dihardutenak. Sare digital horiek administrazioak, eskolak, unibertsitateak, ospitaleak, bibliotekak, enpresak, etxeak eta pertsonak uztartzen ari dira. Sare digitaletako mezuak, informazioak eta edukiak era guztietakoak dira. Azpiegitura hauen eraiketa-lana administrazioek eta enpresa pribatuek batera hasi duten jarduera da, eta, izatez, erantzukizun komuna bilatzen duen jarduera da.

### 5.1.2.4. Komunikazio interpertsonalerako sistemak

- bideotelefonoa.

Washington eta New York artean erabili zen lehenengoz 1927. urtean. 1971. urtean zenbait aurrerakuntza teknologiko lagun, sistemari etorkizun

izugarria iragarri zitzaion. Ez dirudi, ostera, hori horrela izango denik, eta ez dirudi 2000. urteko telefonoa bidetelefonoa izango denik. Irudiak eskain ditzakeen telefonoak, beraz, atzera egin du oraingoz, agindutakoari muzin eginda; telefono-irudiak telefono-ahotsaren konplizitatea hauts dezakeela uste al du gizarteak, bizkarra erakusteko?

- uhin hiritarra.

Estatu Batuetan modan jarri den komunikazio-sistema da hori. Hiritarrek erabil ditzaketen zenbait irrati-kanaletara edozein sar daiteke bere etxetik edo bere autotik, aparatu ez oso garesti baten bidez. Elkarrizketak askoren artean osa daitezke. Irratizale-paperaren egokipen bat da uhin hiritarra.

Printzipioz, hirian bertan bizi direnen arteko komunikaziorako erabil daitezkeen teknologia da. Inoiz bizitzak salbatu ahal izan dira *uhin hiritarra* deitutako horri esker, salbamendu-zerbitzuek informazio interesgarria lortu baitute irratizaleengandik.

- ordenagailuak

Lehen ordenagailu elektronikoak 1946. urtean ikusi zuen argia Estatu Batuetan. Teknologia aurreratua erabiltzen zuen arren, 1971. urtera arte ez zuen aurrerakuntza zorabiarriaren oinarria zekarren *mikrotxipa* bere sistemetara egokitu. Horren ostean, lau urteren buruan, 1975. urtean, ordenagailuen salmenta masibo bihurtu zen EEBBetan.

Hasiera batean, enpresek erosi zituzten aparatu horiek, enpresek eta erakunde publikoek eta pribatuek. Baina, berehala merkaturatu ziren ordenagailu pertsonalak. Ordenagailuen osagaiak merketzen hasi eta segidan, salmentek gora egin zuten. 80ko urteetan, EEBBetako etxeen %15ek bere ordenagailua zeukan.

Salmenten gorakadak ekarri zuen ordenagailua komunikazio-prozesuetan ezinbesteko gailu bilakatzea, eta bihar-etziko komunikazio-sistemen oinarrietariko bat.

XIX. mendeko gizakiak egunkariaren presentziara egokitu zuen bere bizitza, XXI. mendekoak ordenagailuenera egokitu beharko du berea. XIX. mendeko egunkariak ekarri zuen alfabetakuntzaren moduko bat dagokio orain XXI. mendeko gizakiari: ordenagailu-alfabetatze, alfabetatze informatikoa.

Ordenagailua, modema eta zuntz optikoa dira bihar-etziko komunikazio-zerbitzuaren zutabeak: hedabideak, espektakuluak, industria, gobernu-erakundeak, komertzioak, heziketa-zentroak... lotuta daude ordenagailu-bidezko sareei esker. Aldaketa guztion buruan *abiadura*, *zehaztasuna* eta *merketzea* daude.

Sareok eragin zuzena edukiko dute bihar-etzi enpleguan: *langabezi egiturala* entzuten ari den terminoa dugu eta teknologia berriok ez dira *kanpotar* prozesu horretan.

- sistema interaktiboak

Komunikazio interaktiboan, igorleak eta hartzaileak eginkizunak konpartitzen dituzte; alegia, une batean igorlea dena hurrengo unean hartzailea

izango da, baita kontrara ere. Alderdi horretatik begiratuta, komunikazio interaktiboak giza komunikazioaren antza du.

Gaur egun, hedatuen dagoen masa-komunikazioa ez da interaktiboa, jakina. Komunikazioaren jarioa beti da alde bakarrekoa –*igorlea* erakundea da eta *hartzailea* masa–, eta paperak ez dira trukutzen masa-komunikazio *tradizionalean*. Komunikazio-mota horrek ez du ahalbidetzen “*hartzailea*” “*igorle*” bihurtzea.

Interaktibitateak komunikazioaren edukiaren alde biko kontrola berma dezake, igorle/hartzaile binomioa higikorra den heinean. Ikusteke, hala ere.

### 5.1.3. Informaziorako Azpiegitura Nazionalak

Informaziorako Azpiegitura Nazionalak (IAN) abiadura handiko sare edo amaraun digitalak dira. IAN amaraunak abian jartzeko, informazio-seinaleen digitalizazioa eta konpresioa beharrezkoak dira.

Digitalizazioaren eta konpresioaren bitartez, azpiegitura bakar batek lengoia-komunikatibo guztiak elkar ulertzeko modukoak bihurtzen ditu (telefonía atzo goizera arte analogikoa zen eta informatika digitala; gaur muga horiek ezabatu egin dira, telefonía eta informatika lengoia berean mintzo dira).

Abiadura digital desberdineko elementuak garraiatu beharko dituzenez, IANak oztoporik ezarriko ez duen nahikoa zabalerrako amaraunaren jabe izan beharko du.

#### 5.1.3.1. Sare-ereduak

IAN eratzeko, gaur gaurkoz, hiru eredu desberdinez egiten da berba: *RDSI-BA* helburuzko amarauna, *multimedia-amaraua* deitutakoaren bidezko urratsa eta *komunikazio higikorra* den konponbide osagarria.

#### RDSI-BA, helburuzko amarauna.

Konponbide ideala da. RDSI-BA sare-mota horrek hiru mota desberdin hauetako informazioak bilduko lituzke bere baitan:

- a) Bideokomunikazio-zerbitzuak;
- b) Abiadura handiko datuen igorpen-zerbitzua;
- c) Telebista interaktiborako zerbitzuak.

RDSI-BA sare-mota horrek banda-zabalero handia behar luke izan eta mutur guztietan abiadura handiko konmutagailuak eduki behar lituzke indarrean. Abiadura handiko konmutagailu horiek seinale-eredu guztiak irenstea ahalbidetuko liokete amaraunari.

RDSI-BA deitutako banda-zabalero handiko azpiegitura horrek aldi bereko 9.000 lotura telefoniko ahalbidera ditzake. RDSI-BA horrek ahotsa, datuak, testuak eta irudiak garraia ditzake. Amaraunak, besteak beste, hiru teknologiararen beharra du:

- aa) Etxeetarainoko zuntz optikoa;
- bb) Abiadura handiko igorpena;
- cc) Abiadura handiko konmutazio malgua.

#### *zuntz optikoa*

Zuntz optikoa, gaur egun, enpresetaraino eta administrazio-zentruetaraino heldu da; hala ere, ez da etxeetaraino heldu eta horixe da bihar-etziko merkatu naturala. Zuntz optikoaren garapenerako urrats hori –etxeetarainokoa– da, duda barik, gaitzena, inbertsio handiak eta obra ugari eskatzen dituelako. Gaur egun, zuntz optikoak planteatzen duen arazorik larriena prezioarena da: oso garestia da kontsumitzaile bakarrarentzat; kontsumo komunitarioa bultzatzean egon daiteke irteera.

#### *abiadura handiko igorpena*

Abiadura handiko seinale-igorpen malgua ahalbidera dezakeen sistema estandarren beharra dauka helburuzko amaraun berriak, lotura internazionalak ahalbidetu beharko bailituzke sistemak.

#### *abiadura handiko konmutazio malgua*

Abiadura desberdineko seinaleak garraiatzeko eta erabiltzaile bakoitzak izan ditzakeen eskari zehatzetara egokitzeko, sistema digitalak sarea osatzen duten etxe bakoitzagaz negoziatu beharko du unean uneko zerbitzu-eskaintza konkretua.

#### Multimedia-sarearen bidezko urratsa.

Multimedia-sareak inbertsio txikiagoak eskatzen ditu eta helburuzko konponbidera hurbil gaitzake. Epe labur batean eraiki daitekeen amarauna da eta, gaur egun, erantzuna eman liezaieke merkatuaren eskabideei. Informazioaren eta ezagutzaren autobideak eraiki daitezten, beharrezko azpiegiturak berma ditzakeen sarea da multimedia deitutakoa.

Multimedia-arkitektura horrek, gaur gaurkoz, filmeak, bideoak, argazkiak eta musika garraiatzea ahalbidetzen du. Multimedia-sare horrek dimentsio internazionala eduki lezake, estatu bakoitzean zerbitzugune berezia eraikita. Erdi-bideko urrats horrek ere bere beharrizan teknologiko propioak dauzka:

#### *multimedia-egokitzaille interaktiboa*

Erabiltzaile bakoitzak bere telebista ondoan edukiko lukeen aparatua da, zeinaren bidez amaraunera lotuko bailituzateke. Sare digitalek eskaintzen duten informazio kodetua irakurri ahal izateko, etxeetako telebista-aparatu arruntak behar duen deskodetzailea da multimedia-egokitzaille interaktibo deitzen dioguna. Egokitzaille horrek, deskodetze-zerbitzuaz gain, grafikoetarako eta testuetarako adaptadorea eskainiko du, baita sare publikoagaz era interaktiboan funtzionatzeko modua ere.

#### *sarbiderako sistemak*

Zuntz optikoaren amarauna eraikitzeak gaur egun eskatzen duen inbertsio handia leuntzeko, kable koaxialaren bidezko loturak entsaiatzen ari dira. Delako



kable koaxial horrek norabide biko bideo- eta soinu-seinaleak onartzen ditu; horrez gain, kable koaxialak agindu-kanalak ere onar ditzake bere baitan.

Irrati bidezko sarbide-sistemek, egun, problema bat planteatzen dute: banda-zabalero txikikoak izatea. Zabalero txikiak egun konpatibilitate-arazoak sortzen ditu bide eta zerbitzu anitzeko sareetan.


Multimedia-sareetarako eta RDSI-BArako eraikitzen ari diren teknologiak eta arkitekturak bat egin behar dute, Informaziorako Azpiegitura Nazionala deitutako zerbitzua modu arrakastatsuan abian jarri ahal izateko.

#### Komunikazio higikorra, konponbide osagarria.

Gaur egungo komunikazio higikorrek banda estuaren esparruan mugitzen dira. Bidean etorri datorren sistemak, UMTS-Universal Mobile Telecommunications System izenekoak, telefonia mugikorreko terminal eramangarriei multimedia-zerbitzuak erantsiko dizkie.

Ildo horretatik, sateliteak alternatiba berriak eskaintzen ari dira multimedia-mundu berria eraikitzeko ahalegin erraldoi horretan. Komunikazio telefoniko higikorra bideak irekitzen ari zaizkio Informaziorako Azpiegitura Nazionalari berari.

#### **teknologia laguntzaileak:**



#### 5.1.3.2. Erabilerak

Ahotsa, testua, grafikoa, argazkia eta bideoa batera igortzeko multimedia-amarauak erabilera pertsonalizatuak (pertsonek arteko komunikaziorako, etxetarako bideotefonia, bideokonferentzia edota bideomezuak), erabilera administratiboak (zerbitzuetarako sarbide erraztua) eta erabilera industrialak (datu-igortzen eta trukaketa arinak) ezagutuko ditu.

### administrazioetarako erabilerak

Administrazio desberdinak elkarri lotuta egongo dira bihar-etzi. Lotura berriak era guztietako espedienteen igorpena eta helera, datu-trukaketa, informazio astuneko fitxategien trukea, komunikazio bideotelefonikoa eta bideokonferentzia ahalbidetuko dituzte.

Erabilpen horiek zerbitzuen hobekuntza ekarriko dutela uste da; era berean kostuak jaitea eta eraginkortasunean aurrera egin ahal izatea espero da.

Tele-lanaren garaiak ate-joka dauzkagu: teknologiak distantziarako lan autonomoa eta denboraldi partzialekoa ahalbidetuko ditu.

Osasungintzan, datu-baseak, analisisien eta erradiografien datuak, berehalako batean igortzen hasita daude zenbait mediku-erakunde.

Hezkuntzan distantziarako irakaskuntza ere badago.

Museoen eta biblioteken ikuste birtuala abian da.

### enpresetarako erabilerak

Enpresak izan dira lehenak teknologia berriak abian jartzen. Datu-baseen abiadura handiko igorpena zuntz optikoaren bitartez, norberaren beharretara egokitutako multimedia-zerbitzuak, bideokonferentzia edota bideotelefonía gaur egungo gizateria industrialaren egitateak dira.

### etxeetarako erabilerak

Hauxe da erronkarik handiena. Teknologia berriak etxeetako merkatua bereganatu bezain laster, sare telematikoak presente egongo dira gizakiaren eguneroko zereginetan.

Gaur egun, interakzioari esker, posiblea da norberaren gustuko filmea aukeratzea, posiblea da beste lekuren batean dagoen lagunen bategaz jolasen bat konpartitzea, egunkaria telebista bidez etxean irakurtzea, etxetik bertatik erosketak egitea, lana bilatzea, hezkuntzarako ateak irekita edukitzea edota bankarekiko harremanak izatea... Telebista interaktiboak publizitate pertsonalizatua ekarriko du.

## **5.2. Informazioaren Gizartea**

Informazioaren Gizartearen aldeko apostua egin duten adituek behin baino gehiagotan esandakoaren arabera, autobideek:

- ⇒ 1.- batetik, ekonomiari bultzada baikorra emango diote, merkatu berriak irekiz eta produktu berriak ekoiztuz;
- ⇒ 2.- bestetik, kultura, ezagutza eta aisiarako bide berriak zabalduko dituzte;
- ⇒ 3.- ezin ahaztu, bestalde, gizakien arteko harreman pertsonaletarako jario komunikatibo berriak azaleraetako dituztela;
- ⇒ 4.- hala ere, inkomunikazio pertsonalaren problema areagotu egin dezakete

ezagutzaren autobideek; batetik, komunikazio ez-fisikoa, gorputz bakoa, ez delako, inondik-inora ere, giza komunikazio edo giza harremanaren ordezkia; eta, bestetik, errentagarritasun-arrazoiak eta analfabetismo telematikoa direla-eta, autobide erraldoi horiek bide bazterrean utz ditzaketelako populazio, sektore, lurralde eta herri-masa handiak.

Edozein modutan ere, ezagutzaren autobideak dira Informazioaren Gizartearen oinarria. Informazioaren Gizartea ez da gai teknologiko hutsa; horrez gain, erronka kulturala, soziala eta estrategikoa ere bada.

### 5.2.1. Egitura ekonomikoa

Gaur egunera arte planteatu denaren arabera, Informazioaren Gizartearen ezaugarri nagusia ekonomikoa dela uste dute autore batzuek. Gizarte aurreratuetan, industria tradizionalaren gainbeheraren aurrean, zerbitzu-arloko enpresen bultzada aurkeztu da ekonomi-egiturak eraberritu ditzakeen salbatzaile moduan.

Ezagutzaren industriak (hezkuntza-sistema, hedabideak, ikerketa...) gero eta presentzia handiagoa hartu du herri aurreratuetakoa barne-produktu gordinean.

#### 5.2.1.1. Teknologia berriak eta lan-harremanak

Teknologia berriek askotariko eragina dute lan-harremanetan. Teknologia berriek lana egiteko giroan eragin zuzena dute, langileen gaineko kontrola areagotu egin dezakete, industriaren beraren antolakuntzan ezartzen dute beren erabakigarritasuna eta industria horren ekoizpenetan teknologia berrien marka erraz ikus daiteke.

- Teknologia industrialak lan-indarraren ordezkapena ekarri zuen: langileen eskuen ordezkariak hasi ziren lanean, indartsuago hasi ere.
- Teknologia berriek ez dute bakarrik langilearen indarra ordezkatu: teknologia berriek langilearen eskuak ordezkatzeko gain, burua bera ere ordezkari dezakete.

Teknologia Berriek ekoizpenaren zentralizazioa dakarte eta Estatuaren interbentzionismoa ahalbidetzen dute ekoizpen-prozesuetan, zeren teknologia berrietarako komunikazio-sare nagusien diseinua Estatuaren beraren eskubide baita.

Horrek guztiak berehala jaioko diren lan-harreman berri batzuen aurrean aurkitzen gaitela iragartzen digu. Enpleguak, lanbide tradizionalak, ofizio industrialek zer etorkizun daukate? Badirudi kontratazio-formulak aldatzear daudela eta langileari lan-espezializazioan malgutasun handiagoa eskatuko zaiola.

#### teknologia berriak eta enplegua.

*Garapen teknikoak enplegua deuseztatzen du, ala enplegu berriak sortzen ditu?*

Hipotesi baikorrak hauxe dio, alegia, teknologia berriek ekoizpenaren hazkundera ekar dezaketela.

Baina horren baikor egon behar al dugu?

Mikroelektronika oinarritzat duten zenbait ekoizpen-sistematako makineriak bultzatuta, badirudi zenbait industria-arlotan gero eta esku-lan gutxiago behar dela, gizakiaren zenbait funtzio ordezkari ditzaketen makinak gero eta aurreratua goak izanik gero eta ekoizpen handiagoak berma daitezkeelako.

Teknologia berriek, bestalde, esku-lanaren higikortasuna bultzatu dute sektore tradizionaletatik zerbitzu-sektoreetara.

Teknologia berriek, bestalde, badirudi espezializazio gutxiko jendearengan edukiko dutela batez ere eragin ezkorrik handiena: langabezia.

*Langabezia teknologikoa* gure begien aurrean zabalitzen ari den egitatea da. teknologia berriak eta lan-enplegu berriak.

Telematikak ahalbidetzen duen lan-deszentralizazioa dela-eta, enplegu-malgutasun eta antolaketa berriak ezagutzen ari gara.

*Teletana*, alegia, lana etxera eramateko ahalbidea, gaur egun jada egon badagoen aukera bat da. Langileak etxetik lan egin dezake infobideak direla medio: langileak etxean eraiki dezake bere lanpostua eta kable-bidez garatu bere harreman industrialak zentru erabakior bategaz. Langileen eta lan-agintarien arteko zubi elektronikoa jaita da jada. Lan egiteko modu horrek *balizko enpresa* edo enpresa birtuala ekarri du bere atzetik. Langileak ez du bere zuzendaririk ezagutzen, ezta bere lankiderik ere. Harremanen mundua ordenagailuaren pantailara mugatzen diren harremanak dira, eta harreman pertsonalak gero eta urrunago gelditzen dira. Baldintza horietan oso da zaila lan-erreibindikazioak plazaratzea, baita enpresaren erabakietan parte hartzeko aukerak izatea ere. Lan-harremanak zailtzen ari dira teknologia berriok.

hazkunde ekonomikoa eta enplegua.

Gaur egun, agertzen ari diren datuen joera baieztatzen baldin bada, badirudi hazkunde ekonomikoa ez duela ekartzen *per se* edo berez enplegua sendotzerik.

1950. urtean baino zazpi aldiz gehiago fabrikatzen da munduan 90eko urteotan; aldiz, langabezia laukoiztu egin da urte hartatik hona; OCDE barruan 35 milioi langabe ofizial daude.

2000. urteari begira, OCDE barruko estatuen hazkunde ekonomikoa barne-produktu gordinaren %3ren inguruan aurreikusten da; enpleguaren bilakaeraz, ordea, ez da ezelako datu ofizial baikorrik aurreratu.

### 5.2.2. Informazioaren kontsumoa

Informazioaren Gizartean, informazioaren kontsumoa eta informazio-zerbitzuen eskaintza handia dira ekonomiaren garapena segurta dezaketen lerro nagusiak; horrelaxe diote, behintzat.

Azpiegituren eta produktu-ekoizpenen prezioak direla eta, Informazioaren Gizartea gizarte aurreratuetan soilik da posible. Japonian 1970. urtean ezagutzera emandako datuen arabera, lau mila dolarretik gorako *renta per capitaren* jabe behar du izan gizarte batek, Informazioaren Gizartea modu arrakastatsuz eraikitzen hasteko. Horrez gain, zerbitzu-arloko langileek indar laboralaren erdia bete behar dute, ikasle unibertsitarioen kopuruak adin horretan unibertsitate-ikasketak egin ditzaketenen erdia bete behar du eta barne-ekoizpen gordinaren heren bat informazio-alorreko enpresen esku behar du izan.

Informazioaren kontsumo berri horrek eredu berriak dakartza: telebizitza eta gizaki berri zibernetikoa.

#### telebizitza

Benetako gizarte birtualaren aurrean aurkitzen gara. Dena izango da berehalakoa eta globala gizarte berrietan. Etxean egonik, mundu birtual osoa bilakatuko da erosgai eta gozagai. Gizabanakoaren, enpresen eta erakundeen arteko harremanak urrutirakoak izango dira, eta bizitza bera ere urrutirakoa izango da: telebizitza.

Etxea mundu elektronikoa bilakatzen ari da: elektragailuen, berogailuen eta hozkailuen programazioa modu automatikoan erregula daiteke gaur egun. Etxea merkatu telematikoa bilakatu da: teledenda moduko zerbitzuak direla-eta, inora joan barik erosketak egitea egitate ezaguna da egun. Banketxeek etxeetaraino luzatu dituzte harreman-sareak: bankuko eragiketak etxetik bertatik egin daitezke. Telemedikuntza eta telehezkuntza entzuten ari diren berbak dira. Aisia eta turismo mediatikoak garatzen ari dira; *Internet* sarean, esate baterako, erraz da aurkitzen turismo telematikorako sarbidea.

#### gizaki zibernetikoa

Ezagutzaren autobideak milioika pertsona ari dira konektatzen, harreman horretan geografia-mugek eta denborazkoek ez dute lekurik. Eskaintza mediatikoa hain izango da zabala ezen norberak bere mundu propioa eraikitzeko moduak nongura aurkituko dituen.

Zinema, erosketa, egunkaria, teleadituaren aholkua, iragarkiak, etxeko dekorazioa, lan berria, hezkuntza, osasungintza, jolasak, turismoa... etxeetaraino heldu direla-eta, noiz aterako da *babesetik* gizabanakoa?

#### 5.2.3. Egitura teknologikoa

Informazioaren Gizarteak bere egitura teknologiko propioak garatu ditu:

- 1.- Azpiegitura teknologiko berria enpresa handi eta konpainia eraberri-tzaileen esku dago.
- 2.- Enpresa-jardueraren arlo guztietara hedatzen ari da azpiegitura teknologiko berria.
- 3.- Informazioaren erabilpena eta kontsumoa, gizartearen arlo eta maila guztietara zabaltzen ari da.

Egitura teknologiko horiek eragin estrukturala dute gure gizartean; esan gura baita, alegia, etorkizunean eta etorkizuna bera baldintzatzen duten garapenaren urrats guztietan dutela beren eragin zuzena, horietan guztietan uzten dutela beren marka.

Egitura teknologiko eta informatibo hori ez da, honezkero, teknologia *berri* bat, *beste* teknologia bat, teknologiak baldintzatzen dituen *Teknologia* bat baizik, letra larriz idaztea bilatzen ari dena.

#### 5.2.4. *Ikuspuntu kritikoa*

Informazioaren Gizartean, askatasuna eta demokrazia zein puntutaraino gorde eta bermatuko diren ikuskizun da. Begi-bistakoa da, informazioaren teknologia berriek boterean dihardutenen alde egingo dutela lan. Informazioaren teknologia aurreratuak, gaur egun, korporazio transnazionalen esku daude. Aberatsak gero eta aberatsago eta pobreak gero eta pobreago izango direla pentsatzen hasita dago bat baino gehiago.

##### teknologia berriak eta kontrola.

Orain arte ezagutu diren lan-harremanetan, langileak arduradun bat zeukan normalean bere lana ikuskatzen, zaintzen. Arduradunak ekoizpena ugaltzera bultzatzen zituen langileak, bakoitzaren errendimendua hurbiletik ikuskatuta.

Gaur egungo kontrol-sistema elektronikoen arduradunaren figura desagertaraz badezakete ere, ez dute kontrola gutxituko, zeren softwareak berak egingo baitu kontrol-lan hori, operario bakoitzaren identifikazio pertsonalerako gakoari esker; operario bakoitzak, langile bakoitzak, bere *goardako aingerutxo* edukiko du bere lanpostuan.

Fabrika-barruko kontrolak kalerako bidea hartu du. Gizakiaren eta gizartearen mugimenduak oro kontrolatzeko polizi bide telematikoek ere argia ikusi dute: urruti-kontrolako telebista-kamarak autobideetan eta kale-bazterretan, zenbait erakunderen esku dauden herritarra identifikatzeko urrutirako detektore magnetikoak, estatu-mugetako polizi zerbitzuek diru-billete multzo handiak urrutira atzemateko dituzten ikusgailuak...

##### teknologia berriak eta osasuna.

*Zer eragin edukiko dute teknologia berriek langileen osasunean?*

Orain arte aurrikusitakoaren arabera, teleteknologiek herritarra bere espezie-kideengandik urrundu dute, bizitza-isolamendua areagotuz, eta herritarraren independentzia kaltetu dute, lana etxeraino eramanez diotelarik; ez da kontraesana: lan-denboraren eta aisia-denboraren arteko mugak ezabatu egin dituzte teleteknologiek, egitatea eta fikzioa nahastu egin dituzte teleteknologiek.

Teleteknologiaren bitartez, lan egiten dutenen artean stressa areagotzen ari da urrats arinez. *Stress iraunkor* moduan bataiatu den fenomeno jaioa da dagoeneko gure artean.

### 5.2.5. *Ikuspuntu multidimentsionala*

Azkenik, ezin ahaztu gaur egungo mundua horrantz abiatzen ari dela. Eta, agian, atzeraezinezko dirudien garapen horrek eskain ditzakeen abantailez profitatu beharko lirateke gizartea eta gizateria bera ere.

Osasungintza, hezkuntza eta zerbitzu sozialetan berehalako ezarpena ezagutu dute teknologia berriek eta Informazioaren Gizarteak berak ere. Gizarte-eredu horretan hezkuntza eta formazioa dira oinarri.

Gizarte postindustrialean, ezagutza eta informazioa dira gizartean aldaketak sor ditzaketen elementu eragileak. Bihar-etziko gizartean ezagutzak eta informazioak beteko dute, gizarte industrialean lanak eta kapitalak bete zuten lekua.

Informazioaren Gizartea gizarte aurreratuenen garapen-estadio berria da. Automatizazioak eta globalizazioak markatzen dute garapen-estadio berri hori. Automatizazioak lanaren eta lan-harremanen izaera bera ere aldatzen du. Globalizazioak mundua merkatu bakar bilakatzen du: batetik, kontsumogaiak mundu osoan ekoizten diren guztiak direlako; eta, bestetik, erosleak mundu osoan barreiaturik dauden guztiak direlako. *Aberrri* elektronikoak Estatu mugak hautsi ditu.

Globalizaziotik at geratzen dena ez da izango, ez du inon lekurik edukiko. Boterea, gaur ere, informazioa da.

### 5.2.6. *Autobideak Gizartearen oinarri*

Informazioaren autobideak aitzakiatzat hartuta, erakundeek eta gobernuek berba luze-luzeak egin dituzte azken hamarkadetan.

Telekomunikazioen industriek, 90eko urteetan, 285.000 milioi *ecu* mugitzen dituzte munduan, Europako Batasunean 84.000 milioi. Milurteko berrira bitartean, Telekomunikazioan, %8ko hazkundea espero da zerbitzu-arloko merkatuan eta %4koa ekipoen merkatuan.

Telekomunikazioen arloak ekonomia garatuen sektorerik dinamikoena izateko bidea hartu du. Esate baterako, Estatu Batuetako Kalifornian, mende berrira bitarteko urteetan sortuko diren lanpostu berrien hiru laurdenak multimedia-enpresen eskuetatik etorriko direla aurrirakusten da. Espainian, esate baterako, hurrengo urteetan erakiko diren amaraun telematikoen bi bilioi pezeta inbertituko direla uste da.

Telematikaren eta telekomunikazioen sektorearen hazkunde ikaragarria ez da ezeretik sortu. Hazkundea teledirijitua izan da, prestatua eta taxutua. Gobernuak eta Nazioarteko Erakundeak buru-belarri aritu dira sektorea bultzatzen:

#### 5.2.6.1. Gore plana

Clinton Estatu Batuetako presidentek eta Albert Gore presidente-ordeak 1993. urtean jakinarazi zuten, Etxe Zuritik bertatik, administrazio estatubatuarrek

hurrengo urteetan abian jarri behar zituen plan estrategikoen artean informazioaren autobideena zela garrantzitsuenetariko bat. Mundu berri horren izendapena hantxe jaio zen: ezagutza edota informazioaren autobidea.

Adierazpen horietan, hauxe irakur daiteke: *teknologia berriak hazkunde ekonomikoaren bizgarri garrantzitsu dira eta lanpostu koalifikatuak sortzeko ahaleginean sekulako laguntza ekar dezakete.*

Goreren plangintzan, modu zehatzagoan, ondoko helburu hauek markatzen zaizkio informazio-autobideen garapenari:

- a) Gobernuaren ekintzak eraginkorrako eta artatsuago izaten laguntzea;
- b) Matematika eta ingeniariaren diren oinarriko zientzietan, estatubatuarren nagusigoari eusten laguntzea;
- c) Estatu Batuen indar ekonomikoa bermatzen laguntzea.

Helburu horietara heltzeko, gobernuaren eta industriaren arteko lokarriak estutzea proposatzen da plangintza horretan eta, halaber, diru-iturri ofizialak eskaintzen dira garapena bermatzeko. Proposamen horren azken jomuga honako hau da: inbertsioak berrikuntza teknologikoen alde egin dezaten inguru aproposa eta baikorra sortzea.

Administrazio estatubatuarrek ondokoak lortu gura ditu inbertsio teknologikoak bultzatuta:

- \* Lanpostu koalifikatuagoak eta hobeto ordainduak;
- \* Ingurune garbiagoa;
- \* Sektore pribatu lehiakorragoa;
- \* Ikerketa zientifiko eta teknologiko eraginkorragoa.

#### 5.2.6.2. Delors plana

Europar Batzordeak, Ministroen Kontseiluak eskatuta, Ameriketako eta Pazifiko aldeko aurkariei aurre egin ahal izateko eta Europaren lehiakortasuna bermatzeko plangintza estrategikoa aurkeztu du 1994. urtean.

Plangintza horretan adierazten denaren arabera, hil edo bizikoa da Europarentzat telematikaren eta telekomunikazioen munduan aurrera egitea. Baldin eta bere ezaugarri ekonomikoari, sozialari eta kulturalari eutsi gura badie, Europak sektore telematiko berri horiek kontrolatu behar ditu.

Programa europarrak amaraun telematikoa enpresetara, ikerlekuetara, era guztietako erakundeetara eta etxe partikularretara hedatu gura du.

Plangintza hori aurrera eramateko, lehentasun bi aurrikusten ditu Europar Batasunak:

- a) Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lokarriak estutzea eta indartzea;
- b) Sareen eraikuntza bultzatzea eta informazioaren autobideentzako zerbitzuak eta erabilpenak sortzea.



Garapen hori bermatzeko eta goian aipatutako helburu estrategikoei ekin ahal izateko, Delors planak ekintza hauek bideratu gura ditu:

- \* Azpiegiturak eratzeko amaraun europarrak;
- \* Ikerketa eta elkarlana ondoko eremuetan: informazioaren teknologia berrietan, bioteknologian eta ekoteknologietan;
- \* Lan-indarraren hezketa eta formazioa;
- \* Lan-merkatuen malgutasuna.

Plangintza aurrera eramateko, Europar Batasunak zailtasun garrantzitsu biri egin behar die aurre:

aa) Europako merkatuak oso zatikatuak dira, ez dute lotura handirik eta elkarlana oztopatuta dago.

bb) Zerbitzu-eskaintza eskasa eta garestia da.

#### 5.2.6.3. Bangemann txostena

Delorsen plangintza orokorraren argibideak entzun ostean, Batzorde Europarrak txosten espezializatua eskatu zion aditu-talde bati; adituen buru Martin Bangemannek egin zuen.

Aditu europarrek gaiaren larritasuna azpimarratu zuten beren txostenean eta eskari operatiboak ontzat hartzea aholkatu zieten agintari europarrei.

Eskari operatiboen artean, adituek lege-ingurune baikorra sortzea eta erabilpen telematiko berrien promozio publikoa egitea azpimarratu zuten.

#### 5.2.6.4. Europar Komunitatearen plangintza

1994ko uztailen, Batzorde Europarrak dokumentua idatzi eta publiko egin zuen. Plangintza zehatza eskaintzen da dokumentu horretan.

Batzordearen proposamenak ondoko lau alorrak jorratu ditu:

- ⇒ Arautegia eta legeria-markoa;
- ⇒ Sareak, oinarrizko zerbitzuak, erabilpenak eta edukiak.
- ⇒ Kultura eta Gizarte-gaiak;
- ⇒ Informazioaren Gizartearen promozioa.

Txosten horrek lehentasunezko erabilpen hau proposatu ditu:

- \* Telelana,
- \* Telehezkuntza,
- \* Ikerketa-zentruen eta unibertsitateen arteko sareak eraikitzea,
- \* Enpresa txikietarako zerbitzu telematikoak bultzatzea,
- \* Bide-garraioaren kudeaketa konponbide telematikoaren bidez egitea,

- \* Hegazkin-trafikoa bide elektronikoen bidez kontrolatzea,
- \* Osasun-laguntzarako sareak sortzea,
- \* Administrazio Publiko Europarren arteko amaraun transnazionala sortzea, eta
- \* Informaziorako hiri-autobideak sortzea.

### **5.3. Irakurgaiak**

Schiller, H.I. (1996). *Aviso para navegantes*. Icaria, Bartzelona.

Aranbarri, L.A. (1996). “Biharko euskal komunikabideak” in *Euskaldunon Egunkaria*, 1996/07/04, Andoain.

Gonzalez Abascal. (1996). “Internet, beste ikuspuntua” in *Elhuyar 112*. 1996ko urria, Donostia.

Landa, J. (1996). “Komunikabide mota berri baten atarian” in *Jakin, 96*. Jakinkizunak, Donostia.

Vedel, T. (1996). “Les politiques des autoroutes de l’information dans les pays industrialisés” in *Reseaux, 78*. CNET, Paris.



## Seigarren atala: Desinformazioaren mundua

### 6.1.- Albiste bera propaganda denean

- 6.1.1. Iragazkia albisteetan, propagandaren oinarria
- 6.1.2. Biktima duinak eta ezduinak albisteetan
- 6.1.3. Informazioaren *globaltasuna*, desinformazioaren bideratzaile

### 6.2.- Pertsuasioa eta propaganda

- 6.2.1. Estrategia psikodinamikoa
- 6.2.2. Estrategia soziokulturala
- 6.2.3. Adierazpenaren ekoizpena
- 6.2.4. Isiltasunaren estrategia
  - 6.2.4.1. Iritzi publikoa
  - 6.2.4.2. Isolamenduari beldurra
  - 6.2.4.3. Iritzi publikoa eta isolamendua
  - 6.2.4.4. Isolamendua eta isiltasuna
  - 6.2.4.5. Isiltasunaren espirala

### 6.3.- Diskurtsoaren manipulazioa

- 6.3.1. Gezurra komunikazioaren paradigman
- 6.3.2. Gezuraren prozedurak
  - 6.3.2.1. Ezabaketa
  - 6.3.2.2. Iratxetura
  - 6.3.2.3. Desitxuraketa propaganda eta publizitatea

### 6.4.- Prentsa presiopean

- 6.4.1. Informazioa: ondare soziala
- 6.4.2. Boterearen bideak prentsaren kontrolean
  - 6.4.2.1. Lege- eta administrazio-neurriak
  - 6.4.2.2. Kontrol publikoaren estrategiak

### 6.5.- Irakurgaiak

Informazioaren mundua propagandaren atzaparren menpe bizi da. Prentsa, hedabideak orokorrean, botere-egituren menpeko dira; prentsa, hedabideak orokorrean, kapital handiaren morroi dira eta horren kontsignak, leloak, irizpideak mozarrotu eta zabaltzen dituzte mundu osora, lau haizetara, herritarren irizpideak kapital handiaren beharretara, nahikarietara eta borondateetara, makurtze-lanetan kolaboratuz.

*“... EEBBetako Kapital Handiaren prentsak zintzotasunez aholkatzen die “mainaz jositako mendebaldeko langileei” utz ditzatela beren “luxuzko bizi-modua” eta “merkatuaren egitura irmoak”, horien artean hitzarmenak, pentsioak, osasuna, lan-segurtasuna eta beste zenbait lelokeria zaharkitu, lanaren kontzeptua bera bezala”*

Chomsky, N. (1996). *Cómo se reparte la tarta*. Icaria, Bartzelona.

## 6.- Desinformazioaren mundua

Gaur egungo masa-hedabideen jarduera globalizatzaileen aurkari eta areriorik nagusienek diotenez, informazioaren abiadurak jendea jakinmin iraunkorrean edukitzeko baino ez du balio; jendea urduritu egiten du informazioaren jabe izan-behar iraunkor horrek eta artegatasun horrek ezinegona baino ez dute ekartzen, ez baitute ahalbidetzen, gehienetan, informazio egokiagoaren jabe izatearik. Informazio-hurbiltasun hori dela medio, informazio-masa erraldoiagaz batera bizitzean, tamalez, jendeak gertakarietan parte har dezakeela uste du. Gaur egungo hedabideetan, ustezko gertaera hain hurbiletik ikusten denez, gertatzen ari ei den horretan eragin dezakeela uste du jendeak. Kontrakoa iruditu beharko zukeen arren, masak egiazko mundutik gero eta aparteago bizi dira; horretan, jakina, bere erantzukizuna onartu beharko luke komunikazio profesionalduak. Informazioaren abiadura kontrolatuak eta zuzenduak desinformazioa areagotu egin dute, masak gero eta desinformatuago daude.

Desinformazioa modu honetan defini daiteke: iritzi publikoa nahaspilatze-ko, bideratzeko, manipulatzeko eta kontrolatzeko albisteak hedatzea prentsez, irratiz, telebistaz eta abarrez. Desinformazioak egiazkotzat aurkezten du berez egiazkoa edota gezurrezkoa den albistea; iritzi publikoa errakuntzara bideratzeko helburu argia du desinformazioak. Desinformazioa estrategia bat da. Estrategia horren helburua arerioari, menpekoari, neutralari eta aldekoari ziria sartzea da; estrategia horrek estrategaren burua besteen gaintetik ezartzea bilatzen du.

### **Informazioa boterea da.**

Has gaitezen hasieratik, zelan definitzen dugu informazioa, zer da informazioa?

Lehenago ere berba egin dugu horretaz ikastaldi honetan; *informazioa* ematea jakintzen eta ezagupenen ordeko seinaleak beste norbaiti edo zerbaiti helaraztea da. Baina, helaraztea eta konpartitzea gauza bera al dira?

Ogi bat konpartitzen denean, norbaitek ogi-zati bat galtzen du beste norbaiten mesedetan. Informazioa konpartitzean, informazioak berak ez du galera materialik, ez da *gastatzen*, ezta gutxitzen ere. Albistea kontatzean, oinarrian dagoen egitatea ez da hutsaltzen, ez du bere ezer galtzen. Informazioa, beraz, galararik gabe konparti daitekeen altxorra da. Ikuspuntu *kandidoa* da hori.

Arazoa beste puntu honetan planteatzen da, alegia, konpartitzen den informazioak erabilgarritasun praktikoa duenean. Estilo horretako informazioa konpartitzeak *aberastasuna* konpartitzea dakar eta aberastasunaren konpartitzeak galera materiala ekar dezake, horra hor gakoa.

- Venezia, XIII. mendea. Beira-putzegileek debekatuta zeukaten hiritik ateratzea, beira zelan egiten zen inori ez esateko. *Esatea* ez zen problema, *beiraz* edo *kristalaz esatea* baino.

Jakintzaren edota ezagutzaren bati praktikotasuna aurki dakiokenean, ezagutza horrek konpetentzia sortzen du. Dakitenek dakitena gorde gura dute; ez dakitenek jakin gura dute.

- Gogora dezagun filme bat: hominido batzuek sua egiten eta gordetzen asmatu dute, hotzari eta janari gordinari aurre egiten ikasi dute; inguruko hominidoek gogor egin diete eraso, asmakizuna beren etxeetara eramateko... informazioa gordetzeak, jakintza eta ezagutzak gordetzeak, sarritan, onura ekar dezake: materiala, politikoa, soziala...

**Informazioa**, beraz, ez da *beste barik* konpartitzen. Informazioak indarra dakar eta indarrak noberarentzat gordetzen dira. Informazioa boterea da, ahalmena.

### Zer da gezurra?

Gezurra hiru elementutan oinarritzen den jarduera komunikatiboa da; gezurra *egitatean*, *ezagutzan* eta *diskurtsoan* oinarritzen da.

⇒ *Egitatea*.

Egitate eta gertaerak, gertaerak berak, dira norberaren errealitatearen oinarri. Egitatea da diskurtsoaren erreferentea; zertaz berba egiten den, horixe dugu egitatea edo gertaera. Egitatea munduari dagokio.

⇒ *Ezagutza*.

Objektuetatik, erreferenteetatik, egitateetatik eta gertaeretatik norberak egiten duen errepresentazioa da ezagutza. Egitateetatik egindako irudikapena besterik ez da ezagutza, beraz. Ezagutza pertsonari dagokio.

Irudikapen hori egitate/gertaeretara hurbiltzen denean, horiekaz konforme denean, bat denean, ezagutza hori *egia* da. Ostera, irudikapen horrek egitate eta gertaeren funtsik ez duenean, beren errepresentazio okerra dugunean, *errakuntza* deitzen diogunaren aurrean gaude.

⇒ *Diskurtsoa*.

Berbaera edo diskurtsoa hartzaileari esaten zaion horixe da, egitate eta gertaerez komunikatzen den horixe da diskurtsoa. Informazioaren igorpenerako erabiltzen duguna da diskurtsoa.

Diskurtso hori norberak duen errealitateaz bat datorrenean, bere irudikapenekaz bat datorrenean *egiazkoa* da, *egiatasunezkoa*.

Diskurtsoa errealitatetik irudikapenarekin bat ez datorrenean *gezurrezkoa* da.

**Gezurra**, beraz, **ezagutza** eta **diskurtsoaren** arteko urruntzea, desadostasuna da; eta, ez egitate/gertaeren eta diskurtsoaren artekoa.

⇒ Egitate bati buruz kontatzen dena, baldin eta kontatzen den modu be-  
rean ulertzen baldin bada, diskurtsoan **errakuntza** transmititzen da eta ez **gezurra**.

“*Veritas est conformitas rei et intellectus*”

alegia, egia bat dator objektuagaz eta ezagutzagaz.

### **Desinformazioa, ziria sartzeko borondatea.**

Pertsonen arteko gezurrak, sarri askotan, bat-batean sortzen dira, egoera konprometitu batetik ateratzeko edo. Gezur horiek ez dira desinformazio premedi-  
tatuaren eta arautuaren *corpus* berekoak.

Erakundeek, Erakunde espezialduak hedatzen eta aireratzen dituztenek desinformazioa izan dezakete helburu, ziria sartzea bilatzen badute; azkenok ez dira bat-batekoak, ondo-ondo pentsatuak baino.

### **Desinformazioaren aurpegi diferentek**

Nola arerioaren esparruan hala lagunaren artean, gezurrezko informazioak eta egia osoak ez direnak hedatzea da desinformazioaren taktika. Taktika horrek arerioak eta lagunak beren interesen aurkako erabakiak hartzera bultzatzea bilatzen du; taktika nagusia bide diferenteez baliatzen da:

#### Propaganda

Helburu eta jomuga dituen pertsona eta taldeengan *eragina* bilatzen du propagandak. *Eragin* horrek solaskidearen jokaera aldatu gura du, *iritziak tartean direlarik*. *Eragin* horren oinarrian *informazioa* dago.

Informazioa ez da propaganda, baina propaganda informazioaz baliatzen da sarritan. Informazioa, nolabaitekoa berau, da solaskidearen iritziak aldatzeko baliabideetariko bat propagandaren eskuetan. Propaganda eta informazioaren arteko harremana ez da identitatezkoa, menpekotasunezkoa baino; propaganda informazioaz baliatzen da, jendearengan *eragina* sortzeko.

Alderdi politikoek, sindikatuak, gobernuek, erakundeek... beldur diote propaganda berbari eta propaganda-ekintzak *informazio- eta komunikazio-kanpaina* deitutakoetan ezkututzen dituzte. Propaganda, definioz, ez da beti gezurra; baina propaganda-ekintzetan gezurrak leku handia hartzen du. Propagandaren iturriari erreparatzen diogularik, bestalde, hiru mota desberdinez berba egiten da:

*propaganda zuria*: informazioaren igorpenean, igorleak ez du bere identitatea ezkututzen ezta aldatzen ere; informazioaren iturria ezaguna da.

*propaganda beltza*: igorleak bere identitatea ezkutatu eta trukatu egiten du informazioa hedatzen duenean; informazioaren iturria ezezaguna da.

*propaganda urdina*: igorleak ez du bere identitateaz berba egiten.

#### Publizitatea

Propagandak eta publizitateak helburu bera dute: alegia, besteengan *eragina* edukitzea. Beren arteko desberdintasuna aplikazio-eremuetan aurkitu ohi



da: publizitateaz berba egiten da eremu komertzialaz berba egiten dugunean, eta propagandaz eremua politikoa edo ideologikoa denean.

### Intoxikazioa

Zerbitzu sekretuek antolatutako kanpainak izendatzeko erabili ohi den terminoa da intoxikazioarena. Intoxikazioa desinformazioaren adar bat besterik ez da eta beraren helburua gizartearen *osasun politikoa* pozoitzea da.

### Subertsioa

Ezarrita dagoen boterearenganako destaina, arbuioa, erdeinua, gutxiestea eta erorketa bilatzen duten tekniken multzoa da subertsioa. Subertsioa atzerritikoia edo etxe barrukoa izan daiteke.

*Kanpoko subertsioa*: indarrez eta armez hartu aurretik, botere atzerritar batek konkistatu gura dituen populazio eta lurretan hedatzen duen kanpaina, jendearen morala hausteko eta bere alde jartzeko.

*Barruko subertsioa*: talde batek bere herrian botere-aldaketa bultzatzen duenean, praktikan jartzen duen kanpaina.

### Gerra psikologikoa

Armen bidez baino, informazioen bidez praktikatzen den gerra-mota da. Gerra psikologikoak bere baitan hartzen ditu aurretik azaldutako taktikarik gehienak unean-unean, beharrianen arabera bata edo bestea erabiltzen duelarik. Nola gerra bortitzen garaian hala bake-urteetan praktikatzen da gerra psikologikoa. Gerra psikologikoak, batetik, arerioaren propaganda zentsuratzen du; eta, bestetik, desinformazioaz eta gezurraz baliatzen da arerioari ziria sartzeko. Gerra psikologikoa gerra armatuaren aurrekoa ere izan daiteke, gerra bortitza justifikatzeko eta populazioa gerra horren alde jartzeko, bereziki. Gerra psikologikoak ustekabean harrapatzen du populazioa. Ustekabe horretan, populazioak ez du autobabeserako mekanismorik sortzen, ez du bere burua babesten eta ez daki manipulatzeko ari direnik.

### **Gezurra hedabideetan**

Gezurra, tamalez, ez da arrotza komunikazioaren munduan. Gezurrak orrialde asko bete ditu argitalpenetan. Gezurrak irrati-uhinak kutsatu ditu sarritan. Gezurrak erreportaia asko protagonizatu ditu telebistan. Gezurra, manipulazioa, propaganda, intoxikazioa, desinformazioa... adibideak nonahi daude:

- *Egunkarietan*

Kazetagintzan sarritan imitatu dira arerioen egunkariak, informazio faltsuak hedatzeko. Itxuraz imitatzen den egunkariak, benetako mantxetaren jabeari dagokion informazioa hedatu beharrean, horren aurkariak hedatu gura duen informazioa zabaltzen du. 1965an, *Der Spiegel*-en ale faltsuak zabaltzen ziren mendebaldeko Alemanian, eta haien edukia propaganda komunista zen. 1984an, Afganistanen, soviatar militarren КРАЧАГ ЗВЕЗДА aldizkaria imitatu zuten; ale faltsuetan, soviatarrek Afganistan utzi beharko zuketela adierazten zen (gero horrela gertatu zen).

- *Publipropaganda.*

Egunkarietan ordainduak diren eremu propagandistikoak batzen dira izendapen horren azpian. Zenbait kasutan, erakunderen batek, alderdiren batek edo talderen batek bere egunkari propioa edukitzeko behar adina dirurik ez duenean, orrialdeak erosten ditu egunkari batean eta bertan argitaratzen ditu bere iritziak, egunkariarenak bailiran; horren trukean egunkariak dirua jasotzen du.

- *Gutun konfidentzialak.*

Ale eta orrialde kopuru txikiko aldizkari bereziak ditugu gutun konfidentzialak. Argitaratzaileek kontu handiz aukeratutako pertsoneri eskaintzen diete beste inori eskaintzen ez dieten *informazioa*. Gutun konfidentzialak maiz hartzen dira bankuetan, erakunde publikoetan eta pribatuetan zein alderdi politikoetan. Normalean ondo ordainduak diren boletin horiek ezkutuko eragin politiko eta ekonomikoa dute helburu; iritzi publikoa eratzen laguntzen duten boletinak dira horiek, hartzailak *persona* garrantzitsuak baitira.

- *Irratia.*

Idatzitakoa baino errazago imita daitekeen komunikazioa da ahozkoa. Hizkuntza jakitea nahikoa du iruzurgile politikoak irrati-emisore piratak sortzeko eta bere propaganda hedatzeko. Gerra-garaietan esperimatu den desinformazioa izan da irratiaren bidezkoa. Gerra bitartean, irrati-emisora piratak sarritan saiatu dira arerioa desmoralizatzen gezurrezko gerra-parteak aieratuta.

Polonian, 1983an, bertako gobernuak, *Solidarnosc* sindikatuari aurre egiteko, emisora *pirata* sortu zuen, sindikatuaren aurkako informazio-kanpaina bati hasiera emanda. Informazio kontrajarriek min handia eta deskontzertu ikaragarria zabaldu zuten sindikatuko kideen artean. Kasu horretan, gobernuak emisora pirata bat imitatu zuen, itxuraz pirata zen beste emisora bat sortuta.

- *Zurumurruek.*

Zenbat eta beharrezkoagoa izan benetako informazioa, orduan eta errazago hedatzen dira zurumurruek. Informazio itxiko gizarteetan (gizarte-kontrol handikoetan, diktaduretan, gerra- eta matxinada-prozesuetan...) zurumurrua da *informazioaren* zutabea, zutoina.

Adibidez: 1989. urtea, Timisoara, Errumania. Urte amaieran, Ceaucescu presidentea, degradatzen ari zen krisia bideratu gura izan zuen, eta bortizki erreprimitu zituen bere aurkako manifestazioak. Abenduaren 25ean, egoera erabat deskontrollean zegoela, Ceaucescu eta bere emaztea, hiriburutik alde egin gura zutela, harrapatu egin zituzten matxinatuek, juzgatu-edo eta tiroz hil zituzten. Gobernu berriak aieratutako datuen arabera, mundu guztiko hedabideek zabaldu zuten, Ceaucescuren errepresioak 78.000 hildako eragin zituela abendu beltz hartan. Gerora jakin ahal izan denez, benetako hildakoak 689 izan ziren. Kazetariak negar egin zuten *sarean* erori izanagatik. Gobernu berriak hedatutako zurumurruren arabera antolatu zituzten beren albisteak kazetariak, *notizien* egitasuna egiaztatzeke. Kazetariak, datuak egiaztatu beharrean, Ceaucescuren kritika latza eta moralizatzaileari ekin zioten. Kazetarien lehen lana *informazioa*

kontrastatzea da; alegia, egitateetara edo gertaeretara hurbiltzea, ez informazioetara bakarrik. Gutxiagian praktikatzen da hala ere; horrek intoxikazioa eta desinformazioa areagotzen du gure artean.

- *Iritzi-sondeoak.*

Lagin baten gainean egindako ikerketa baten datuen estrapolazio-teknika da iritzi-sondeo deitutakoa; datuak gizarte osoarenak bailiran aurkeztu ohi dira. Sondeoek, kalean dagoen iritziaren berri emateaz gain, kaleko iritzia, iritzi publikoa konformatzen laguntzen dute. Hauteskunde-prozesuetan jendeak bere botoa alda dezake sondeoen emaitzen arabera, beti baita errazago irabaziko dutenez bat egitea balizko galtzaileekaz baino. Sondeoek dirigismo publikoa haunditu egiten dute, datuak manipulatu egiten direnean.

### **6.1. Albiste bera propaganda denean**

Herriari, populazioari mezuak –makroseinaleak– igortzen dizkioten erakundeak –sare antolatutak– dira hedabideak.

Gaurko giro telekomunikatibo masiboan, hedabideen funtzioa atsegingarritasuna komunikatzea, informazioa hedatzea eta gizabanakoei gizarte txertatzeko baliagarriak izango zaizkion baloreak, sinesmenak eta konportamendu-ereduak eskaintzea da; horretaz maiz entzungo zenuen berba-jario luzea.

Gizabanakoaren gizarte-formakuntza horretan, gizabanakoaren gizarteratze horretan, hedabideek etengabe igortzen dute mezu hezitzailea, gizabanakoari bere burua definitzen *lagungarri* gertatzen zaion makroseinale hezitzailea. Eta, sarriegitan uste denaren kontra, sarriegitan ahazten dugun arren, propaganda ez dugu hauteskunde-kanpainetan bakarrik nozitzen, albiste arruntetan ere aurki baitaiteke propagandaren esku luzea.

Irrati eta telebista guztietako albistegiak propaganda sistematikoaren euskarri mediatikoak dira. Aldizkariak eta egunkariak sistematikoki papereraten dute propaganda eta propaganda horren azpian, oinarrietan, ez daude iragarki ordainduak bakarrik; horiekaz batera, albiste moduan eskaintzen diren berriak ere badaude.

Albisteak iragazki anitzetik igaro ondoren ematen dira kontsumo masiborako; iragazki horiek guztiek albiste desitxuratu, manipulatu eta propagandaren elementu-eragile bilakatzen dute.

Gaur egun, hedabideak eliteen eskuetan daude; disidentzia, gehienbat, hedabideetatik kanporatua izan da eta eliteek beren nahierara kontrolatzen dute hedabideen jarduna. Gauzak horrela, albiste bera da propagandaren oinarria; albiste, neutral moduan aurkezten dena, sarritan, helburu propagandistikokoa da.

#### *6.1.1. Iragazkia albistean, propagandaren oinarria*

Eliteek iragazki anitz darabiltzate disidentzia eta honen jarduera hedabideetatik kanporatzeko, informazioa kontrolatzeko, propaganda beren

nahierara hedatzeko.

Iragazki horiek era desberdinetakoak dira:

- Hedabideen jabetza, lehen iragazkia.

1986. urtean, Estatu Batuetan, esate baterako, 1.500 egunkari, 11.000 aldizkari, 9.000 irrati-emisora, 1.500 telebista-emisora, 2.400 argitaletxe, 7 zinema-konpainia... guztira, gutxi gora-behera, 25.000 hedabide desberdin zeuden.

Hedabide guztion arteko gehienak, hala ere, esku bertsuetan daude. Exajerazioetara jo barik, hedabide horiek guztiak hogeita hamarren bat erakunderen esku daude. Hogeita hamarren bat erakundeok kontrolatzen eta gidatzen dute 25.000ren bat hedabideek herriratzen duten *informazioa*.

Informazio-igorpen masiboaren kontrol ekonomiko estu horrek kontrol politiko-sozio-kulturala ekarri du, duda barik. Hedabideen jabetza zentralizatu iragazki garrantzitsua da, zeren jabetzaren eliteek ez baitute beren gustukoa ez den *informaziorik* eskainiko beren interes politikoen, ekonomikoen, erlijiosoen, kulturalen eta sozialen kontra baldin badoa.

Estatu Batuetan ikusten dugun kultur zentralizazio eta botere-konzentrazio hori, erraz aurki dezakegu munduko gainerako lurraldeetan ere: nazioarteko albisteen ehuneko laurogei *lau albiste-etxe* mendebaldarre eskaintzen dute. Lau horiek Associated Press, United Press International, Reuter eta France Presse dira. AP zenbait egunkariaren jabetza da, UPI bera ere pribatua da, Reuter hedabide britainiar batzuen kontrolpean dago, France Presse Frantziako gobernuak eusten du ekonomikoki. Lau enpresa horiek eskaintzen duten *informazioa* beren jabeen gustukoa baino ez da.

1989. urtean *Hachette* eta *Cité* taldeek Frantziako argitalpenen %50 kontrolatzen zuten. Horrez gain, prentsa frantsesak bere atea zabaltzen dizkio kapital internazionalari eta, esate baterako, *L'Express* aldizkaria *Alcatel* multinazionalaren menpekoa da gaur egun. Frantzian, hedabideen kontrola gero eta zentralizatuagoa da: 1914. urtean Frantzian 304 egunkari kaleratzen ziren; gaur egun 76 besterik ez, baina ale-kopurua ez da gutxitu.

Belgikan, 1946. urtean 30en bat egunkari frankofono zeuden; gaur egun ere prentsa frankofonoak Belgikan kopuru horri eusten dio, baina egunkari guztien jabetza esku gutxitan dago: ia egunkari guztiak hiru enpresen menpeko dira (*Hersant* da talderik indartsuena).

Italiako FIAT etxea da *La Stampa* Turingo egunkariaren jabe, hirurogeita hamar urte direla. 1985. urtean FIATek bere egin zuen Milango *Corriere della Sera*, eta egunkari horregaz batera FIATek beste 23 egunkari kontrolatzen ditu.

Argi ikus daitekeenez, beraz, kontrol-taldeek posizio berezia dute informazioaren munduan, beren kontrolpe zuzenean dauzkatelako hedabideak eta hedabideak elikatzen dituzten albiste-etxeak ere. Kontrol-taldeok *statu quo* bereziaren jabe dira komunikazioaren munduan, eta posizio horrek ematen dien abantailaz profitatzen dira hedabideetako arduradunak hautatzean eta egunkarieta-

ko orrialdeetako informazioak aukeratzean; alegia, munduari buruzko ikusmolde berezia ezartzean.

*Informazioaren lehen iragazkia, beraz, hedabideen kontrol ekonomikoa-rena da.*

- Publizitatearen agindua.

Produktu industrialik ez da saltzen bere ekoizpen-kostuan baino merkeago; kasu batean izan ezik: prentsa-komunikazioa. Egunkariaren salmenta-prezioak ez du, inondik inora, bere ekoizpen-kostua ordaintzen; ekoizpen-kostuaren zati garrantzitsua publizitateagaz ordaintzen da.

Horretara, badirudi egunkariaren benetako eroslea irakurlea barik iragarki-etxeak direla. Badirudi egunkariak informazioa saltzen dutela, baina, egia esan, egunkariak irakurleak saltzen dizkiete publizitate-etxeei.

Estatu Batuetako prentsak, esate baterako, orrialdeeen %60-70 iragarkietarako uzten dute. Estatu Batuetako TBek beren denboraren %22 uzten diote publizitateari.

Publizitatea da, gaur egun, hedabide gehienek eusle ekonomikorik garrantzitsuenetarikoa. Publizitateak bere interesen arabera (interes ekonomiko, politikoak...) hautatzen ditu subentzionatuko (interbenituko) dituen hedabideak. Publizitate-etxeek, *de facto*, autoritate ekonomiko garrantzitsua dute hedabideengan.

Beste berba batzuetan esanda, publizitateak hedabide bat boikoteatzen baldin badu, kasurik gehienetan, hedabide horrek hondoa joko du, diru-estutasunak direla-eta. Adibideak edonon aurki daitezke: herrietako aldizkari alternatiboak, egunkari zentsuratuak...

Publizitatearen agerpenaren aurretik, nork bere kontuei egin behar zien aurre salmenta hutsarekin. Hartara, egunkariaren prezioa eta ekoizpen-prezioa parekatuak zeuden.

Publizitatearen agerkundeagaz, egunkariak salmenta-prezioa gutxitu ahal izan zuten (ahal izan zutenek) publizitatearen *subentzioa* zeukatelako, publizitateak ekoizpen-kostuen hainbatekoa ordaintzen zitelako.

Beraz, publizitatearen laguntza duten hedabideek merkeago sal dezakete produktua, edota ekoizpena hobetzeko inbertsioak egin ditzakete, konpetentziari erosoago aurre egin ahal izateko.

Publizitatearen agerkundeak egunkari batzuk lagundu baldin baditu ere, beste batzuk, ostera, larrutu egin ditu, batez ere langile-klasearenak edota erradikalak.

Publizitatearen agindua ez da prentsara mugatzen. Telebista eta irratiaren, publizitate-etxeen boterea handia da programa osoak erosi eta babestu egiten dituztelako. Programa horiek barik telebistek eta irratiak ezin izango zuketean aurrera egin.

*Publizitatea, beraz, iragazki garrantzitsua da. Ez berak hautatzen dituelako albiste batzuk, beste batzuk tintontzian bizitzera kondenatuz; ez horregatik bakarrik behintzat. Horrez gain, publititateak hedabide batzuk aupatu egiten ditu eta beste batzuk hiltzera kondenatzen ditu.*

- Albiste iturriak.

Hedabideek, ekoizpena dedikatzen diren gainerako enpresa guztiek legez, lehengaiak behar izaten dituzte lanerako. Hedabideek albisteak behar dituzte beren orrialdeak eta minutaiak betetzeko. Lehengai horiek –albisteak– oso esku gutxitan daude.

Lehenago esan dugu: munduan zehar zirkulatzen ari diren albisteen *ehuneko laurogei* lau albiste-agentziaren esku daude eta lau erakunde horiek mendebaldeko mundukoak dira.

Baina horrez gain, badira beste erakunde batzuk, aurrekoak baino maila apalagokoak direnak, beren informazioa sortzen dutenak: instituzioak, publikoak zein pribatuak. Parlamentuak, diputazioak, gobernuak, udalak... albiste-iturri dira: albiste-iturri eta albisteen protagonista. Burokrazia horiek milioika albiste jartzen dituzte zirkulazioan egunero-egunero.

Egunkarietako eta albistegietako langileek, kazetariak, ontzat eta egiazkotzat hartzen dituzte erakunde horien guztien emari informatiboa, eta hedabideen bidez zabaltzen dute lau haizeetara *informazio instituzionala*.

Gaur egun, gero eta indar handiagoa hartzen ari dira erakunde burokratiakoen prentsa-bulegoak.

Erakunde burokratiko horiek, bestalde, adituak eskaintzen dituzte albisteak baloratzeko. (Estatu Batuetan, esate baterako, laurogeiko urteetan egindako ikerketa batek adierazi zuenez, hedabideek albisteak komentatzeko kontratatutako adituen %54 gobernu-funtzionario edo funtzionario ohi izan ziren).

*Iturriak uraren emaria kontrolatzen duen modu berean, albiste-iturriek beren nahietara makurtzen dute kazetariaren jarduna.*

### 6.1.2. *Biktima duinak eta ezduinak albisteetan*

Propaganda-sistema kontsekuentek era bitako pertsonak aurkezten ditu bere produktuen bidez: duina eta ezduina. **Duinak**, normalean, etxeakoak dira, alegia botereak gura duen moduan pentsatzera ohituta daudenak. **Ezduinak**, ostera, besteak dira, arerioak, boterearen kontra pentsatzera ohituta daudenak, edota kritikoak, beste barik.

Hedabideek dikotomia sistematikoa bizi dute *biktimei* gagozkielarik, modu antitetikoan funtzionatzen dute gainera: gureak, etxeakoak, *duinak* dira; arerioak, kanpokoak, besteak, *ezduinak*. Dikotomia sistematiko eta, sarri askotan, exageratu horrek informazioaren kalitateari egiten dio eraso zuzen-zuzen eta desinformazioa areagotzeko baino ez du balio. Ikus ditzagun adibide batzuk:

### hegazkin-afetak

1983. urteko irailean, tropa soviatarrek Boeing-747 motako hegazkin hegokorear bat bota omen zuten, beren aire-espazioan sartu eta espioitza lanetan ari zirela argudiatuta. Hegazkin zibil hori bota izanak, soviatarren aurkako komunikazio-kanpaina bortitza piztu zuen mendebaldean. Kanpaina horretan, bultzada izugarria hartu zuten Reagan presidente estatubatuarren berrarmaketa nuklearrerako planek; aitzakia: soviatarrek guda-ekintza burutu zutela hiritar zibilen aurka. (Ez da inoiz argi geratu, soviatarrek ala estatubatuarrek berek bota ote zuten hegazkina).

Hamar urte lehenago, 1973. urtean, israeldarrek hegazkin libiar bat bota zuten, zibila hura ere. Mendebaldeak ez zuen protesta gogorrik egin, ez zuen salaketa-kanpainarik piztu; estatubatuarrek ez zuten beren aberria arriskutan ikusi eta ez zioten berrarmaketa-kanpainari ekin.

### hilketa politikoak

Mendebaldeak oso tratamendu informatibo desberdina ematen die hilketa politikoei. Hilketen *koloreak* eta ez hilketak *berak* ematen die *garrantzi informatiboa* hilketa politikoei.

1984. urtean, Poloniako poliziak Jerzy Popieluszko abadea hil zuen. Abadea oposizio politikoaren buru ezaguna zen garai hartan. Estatu Batuetako hedabideek, 18 hilabetetan zehar, sarritan aipatu zuten hilketa Poloniako agintariak irainduz, bertako sistema politikoa kritikatu eta oposizioaren aldeko jarrera argia erakutsiz. New York Times egunkariak, esate baterako, 78 artikulua idatzi zituen hilketa politiko horretaz, haietako 10 lehen orrialdean, eta beste 3 editorialak izan ziren. TIME aldizkariak 16 artikulua argitaratu zituen. CBS NEWS telebistak 46 programa informatibotan berba egin zuen hilketa horretaz.

1980. urtean, Oscar Romero gotzaina hil zuten tiroz talde paramilitarrek El Salvadorren. Oscar Romero El Salvadorreko agintarien kritikaria eta indijena eta klase xehearen defendatzaile moduan bihurtu zen ezagun 70ko urteetan. Hilketa burutu eta hurrengo 18 hilabeteetan goian aipaturiko hedabideek tratamendu hau eman zioten hilketari: New York Times egunkariak 16 artikulua idatzi zituen, 4 lehen orrialdean, editorialik ez; TIME aldizkariak 3 artikulua argitaratu zituen; CBS NEWS telebistak 22 programa informatibotan aipatu zuen hilketa.

Baina, goazen harago. Hamabost urtetan, Ertamerikan, arrazoi politikoengatik, boterea kritikatzegatik, indijenen komunitateak antolatzeagatik eta herri-unibertsitateak sortzeagatik hildako 80 erlijiosoen gaiari buruz hedabide estatubatuarrek, hilketa burutu eta hurrengo 18 hilabeteetan zehar haxe argitaratu zuten: New York Times-ek 57 artikulua, 8 lehen orrialdean, editorialik ez; TIME-k 10 artikulua; CBS NEWS-k 37 programa informatibotan aipatu zen gaia. Zenbakiak gonbaratzeak emango digu esan gura dugunaren ideia.

### hauteskunde duinak eta ezduinak

1984. urtean, Ertamerikan, hauteskunde-prozesu garrantzitsu bi ezagutu ziren. Martxoaren 24an El Salvadorren, azaroaren 4an Nikaraguan. New York

Times-ek oso tratamendu desberdina eman zien prozesu biei. Jakina, El Salvadorreko sistema politikoa begi onez ikusten zuten agintari estatubatarrek, Nikaraguakoa, ostera, batere ez. Ikus dezagun hurrengo taula, gonbara zenbakiak:

<u>New York Times/artikuluetakoko gaiak</u>	<u>El Salvadorrez/N</u>	<u>Nikaraguaz/N</u>
itxaropen demokratikoaz	06	01
errebeldeen boikotaz	15	00
hautesle-kopuruaz	07	05
mekanika elektoralaz	09	00
armada, hauteskunderen babesle	05	00
EEBBen inbertsioa hauteskunderetan	02	00
Sandinisten inbertsioa hauteskunderetan	00	02
prentsa-askatasunaz	00	06
alderdi-askatasunaz	00	02

### 6.1.3. Informazioaren globaltasuna, desinformazioaren bideratzaile

Gaur egun, kontsumitzen den informazioaren zatirik handiena, hamarretik zortzi, berri-agentzia transnazionalak igortzen dute munduaren lau bazterretara. Abiadura handiko informazioaren garraioak informazioa modu globalean ulertzea derrigortzen gaitu. Mundua modu globalean ulertzen dugu, baina zein da jira-biraka dagoen munduaren ikuspegi globalizatua? Zertaz informatzen dute berri-agentziarik handienek, eta, eskusioz, zertaz ez dute ezer esaten? Zer nolako mundua marrazten da gure buruan, berri-agentzia transnazionalak igortzen diguten informazioaren arabera? Zer moduko mundua dakusagu? Ikusten ez duguna *bestea* da. Har dezagun izen handiko berri-agentzia baten kasua; zertaz informatu du, esate baterako REUTER etxeak 1993ko egun arrunten batean?

*herririk aipatuena bere txostenetan:*

EEBB 69 aldiz, Txina 52 alditan, Kuba 40, Pakistan 20, Bosnia 19, India 16, Indonesia 16, Austria 14, Israel 9, Egipto 9, Iran 6, Errusia 5, Palestina 5.

*pertsonaiarik aipatuena bere txostenetan:*

Jimmy Carter EEUUko presidente ohia 22 aldiz, Dalai Lama Tibeteko lider espirituala 18 alditan, Warren Christopher EEBBetako idazkaria 16, Bill Clinton EEBBetako presidentea 12, Timothy Wirth EEBBetako estatu-departamentuko kontseilaria 9, Alois Mock Austriako lehen ministroa 6, Yasir Arafat 1, Nelson Mandela 1

*Albisteak propagandarako bidea da. Albisteak propagandari eusten dio, albisteak propagandaren adierazlea da. Albisteak, makroseinale informatiboa, beste makroseinale komunikatibo baten adierazle da, beraren euskarri, bide eta aurpegia. Beste makroseinale hori, bigarrena, transnazionalen alderdi gordea da, propaganda hezurtzat duen gorputz telezuzendua, komunikazio teledirijituaren mezua.*



## 6.2. Pertsuasioa eta propaganda

Pertsuasioaren ideia oso da zaharra. Pertsuasioak historia zaharrean dauzka bere sustraiak erroturik. Masa-hedabideen garaia baino askoz lehenago, Grezia klasikoaren garaian, esate baterako, *erretorika* terminoa erabiltzen zen, jendearen konportamendua bideratu gura zuen lengoaiaren erabilpen zehatza izendatzeko. Urteetan eta urteetan, giza ahotsa izan da jendearen iritziak aldatzeko ezaguna izan den *hedabide* bakarra.

Gaur egun, pertsuasioaz berba egiten dugunean, hauxe dugu gogoan: publikoaren konportamendua aldarazteko egiten den hedabideen erabilpen partikularra; berbek legez, irudiak eta musikak ere badute beren lekua baliabide pertsuasiboen parnasoan.

Egia esan, oraindik orain, ez dakigu zehatz-mehatz zergatik ateratzen diren erabat arrakastatsu kanpaina pertsuasibo batzuk eta zergatik beste batzuek porrotik biribilena jasaten duten. Pertsuasio-kanpainen porrota edo garaipena aurreikustea edo iragartzea oso gaitza egiten zaigu gaur egun, arriskutsua oso.

Pertsuasioaren funtsa aurkitzea ikerle askoren zeregina izan da. Ikerketa horiek erantzun ugari ondorioztatu dute. Zelan funtzionatzen du masenganako pertsuasioak? Konplexua da erantzuna. Eskuliburu honen ataltxo bat, jakina, ez da nahikoa gaiari bere osotasunean erantzuteko. Baina, tira, hasteko agian...

### 6.2.1. Estrategia psikodinamikoa

1957an, Leon Festinger-ek ondokoa aurreratu zuen, alegia, inguru koherentea esperimintatzearen beharra dela, gizakiaren konportamendua baldintzatzen eta modelatzen duen faktore garrantzitsua.

Gure jarreran, sinesmenetan edo portaeran, inkoherentziaren bat susmatzen dugun bakoitzean, artegatasun psikologiko bat nabaritzen dugu: ezinegon horri *disonantzia kognitiboa* deritzo.

Egiten diharduguna aldatzera garamatza ezinegon kognitibo horrek; koherentzia bermatu ahal izateko, koherentzian jardun ahal izateko, larritasun hori gure artetik urruntzeko, ezinegonari aurre behar izaten zaio.

Demagun, azterketa egunean ikaskide batek, kopiatzen uztea eskatzen digula eta guk hori txarto dagoela uste dugula. Geure inguruan disonantzia kognitiboa susmatuko dugu, ezinegon hori deuseztatzeko *zerbait* egin beharra dago. Hiru aterabide proposa daitezke:

- A.-lagunari gu ahazteko eskatzea;
- B.-lagunari kopiatzea bidezkoa ez dela azaltzea;
- C.-kopiatzea txarto dagoela dioskun ikusmoldea aldatzea.

Hiru aukeretarik edozeinek hautsiko du disonantzia kognitiboa.

Disonantziak –gure barruko egoera psikiko desorekatuak– bizgarri legez, inpultsu legez funtzionatzen du, eta gure jarrera edo komentzimenduak aldatzera bultzatzen gaitu.


### Kognizioa eta portaeraren aldaketa

Aurrekoan oinarrituta, pertsuasioaren estrategia psikodinamikoaren funtsa honako hau da: gizakiaren funtzionamendu psikologikoa alda dezakeen mezu eraginkorra hedatu ahal izatea.

Hedabideak publikoaren jarrera alda dezakeen informazioa ematean datza pertsuasio eraginkorraren giltza. Pertsuaditzaileak eskaintako informazioaren arabera, publikoak, ezagutza berriak direla-eta, bere barne-egitura psikologikoa alda dezake –beharrizan berriak edo beldur berriak senti baititzake–.

- \* Beldurra sarritan erabili den faktorea izan da publizitatean eta gainerako ahalegin pertsuasiboetan.
- \* Askotan ikusi dugu, botikaren bat saldu gura denean egiten den iragarkia, non azaltzen baita, botika horren jabe ez izatea zein kaltegarri izan daitekeen osasunerako.
- \* Politikagintzan, adibideak hamarka aurki daitezke egunkarien lehen orrialdeetan.
- \* Beldurra eta izua –mehatxuaren bideak– dira politikagintzan aurrera egiteko lider batzuek gehien darabilten teknika pertsuasiboa.

Beraz, mezu eraginkorrak faktore kognitiboak biztu behar ditu gizakiaren jarrerak aldabidean jartzeko. Pertsuasioaren estrategia psikodinamikoaren nondik-norako nagusiak eskema honetan aurki daitezke:



### 6.2.2. Estrategia soziokulturala

Psikologiaren ikuspuntutik begiratuta, gizakiaren portaera gizakiaren barru-barrutik gidatzen da; horixe da estrategia psikodinamikoaren funtsean ikusteko aukera izan duguna.

Antropologiaren ikuspuntutik begiratuta, ostera, kulturaren eragina da, gizakiaren konportamendua gehien baldintzatzen duena.

Kulturak gizabanakoaren konportamendua bideratzeko, arautzeko eta, azken finean, kontrolatzeko duen ahalmen erraldoia, erraz froga daitekeen zerbait da, eta den-denek dugu horren kontzientzia, modu argiagoan edo ilunagoan.

Har ditzagun adibide batzuk, entzunak eta ezagunak direnak:

- \* Bigarren Mundu-Gerra. Japoniako militarren artean *Buxido* kodea praktikatzen zen. Piloto kamikazeek ekintza suizidak burutu zituzten, ezer uler ezin zezaketen soldadu aliatuen kontra. Pilotoak bonbaz kargatutako hegazkinek abiatzen ziren gerrauntzien aurka, urpekuntzi japoniarrek gizakiek gidatutako torpedoak botatzen zituzten... Japoniarrak ez zeuden burutik eginda; ez jokabide *arraro* horrengatik behintzat. Japoniarrek erabat *normal* jokatzeko zuten, beren kulturari zegokionez, *buxido* kodeari zegokionez.
- \* Indian, *arrunta* ei da hildakoaren emazte fidelari su-ematea bere gizonaren gorpua datzan lekuan bertan.
- \* Ameriketako indiarren artean, *normala* da errito inizatikoetan sekulako tortura fisikoak pairatzea.
- \* Inuiten artean, *arrunta* da gizabanako zaharrak, lan egiteko gaitasunik ez dutenean, herria uztea eta hotzez hiltzea, gazteen enbarazuan ez egotea.
- \* Gure artean, osasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeen zenbait *ohitura* ditugu: zapatetan takoi altuak, alkohola neurritz kanpo edatea, noizgura erretzea... *normala* zaigu. Eta, aizu, gonbidatu al duzu, inoiz, atzerritarren bat txipiroiak beren tinta beltzean jatera?

Kanpoko faktoreek gure kondukta, gure jokaerak moldeatzen dituzte. Gu bizi garen edozein taldek (familiak, eskolak, lankideak, klubak, txikiteo-koadrilak) izugarritzko eragina du gure konportamenduan.

Gizarteak gudan dauzkan espektatibek, edo gizartearen funtzionamendua kontutan edukita norberak dauzkan espektatiba pertsonalek, gure jokaera moldatzen dute.

Beraz, kanpoko faktore horiek guztiek gizabanako bakoitzaren jokaerak moldatzen baldin badituzte, faktore soziokultural dei diezaiekegun horiek aparteko oinarri dira pertsuasioarentzat, zeren faktoreak aldatuta portaerak alda baitaitezke, teoriarren behintzat.

#### Espektatiba eta portaeraren aldaketa


Baldin eta pertsuaditzaileak lortzen badu kulturaren definizio berriak hedatzea, lortuta dauka, bide batez, berez, kultura horren partaide diren guztien

portaera gidatzeko oinarriak finkatzea. Hori ez da hain erraza, dena den! Giltza, gakoa non dago?

Hedatu gura den mezuak kulturaren definizio berria bere baitan badarama, baldin eta kontsentsuaren isla beragaz batera badarama, baldin eta aurkezten den kulturaren berrirakurketa *kontsentsuatua* dela hedatu ahal baldin bada, bidearen erdia eginda dago.

Baldin eta sinestarazten bazaio taldekide bakoitzari bere taldeko kideak bat datozela birdefinizioagaz, birdefinizioa bere egiten ez duen kideak jokoz kanpo geratuko dela intuituko du, eta, hori horrela izan ez dadin, jarrera nagusia egingo du bere, taldean normaltasun osoz segitu ahal izateko. Birdefinizioa bere ez egiteak taldearen aurreko portaera-desbideraketa onartezina ekarriko luke. Horra hor gakoa.

Pertsuasioaren estrategia soziokulturalaren nondik-norako nagusiak eskema honetan aurki daitezke:



### 6.2.3. Adieraziaren ekoizpena

Adierazi berriak sortzeko aparteko bide eraginkorrak dira hedabideak. Hedabideek zentzu berriak sortzen dituzte, kontzeptuen esangurak aldatzen dituzte. Aldaketa guztien helburua, jakina, populazioaren pentsamendua arautzea da.


Platonek eta Aristotelek aspaldi aipatu zuten adierazi subjektibo eta portaeren arteko lokarria egon bazegoela, alegia adierazi subjektiboek giza portaera eratu eta gida zezaketela.

Hedabideek, gaur egungo hedabideek, beren gustuko errealitatearen irudiak marrazten dituzte gure buruetan. Hedabideek irudiak marrazteaz gain, eguneko gairik, ustez, garrantzitsuenak jartzen dituzte gure begien aurrean, eta gure interesak horretara makurtzen dituzte, hein handi batean.

Hedabideek adierazi zehatzak jartzen dituzte gure eskuetan, hedabideek gure eguneko gai-zerrenda jartzen digute mahai gainean, gidatu egiten dituzte gure interesak. Dударik ez da, esangurek edo adieraziek gure pentsamendua eratzen dutela, adierazi horiek gure portaerak baldintzatzen dituztela; zeren *zertaz pentsatu, begien aurrean dugunaz ez bada?* Gure ezagutza begien aurrean dugun horretan oinarritzen da; gure kasuan, hedabideek gure begien aurrean jartzen dituzten *albiste* horietan.

#### Adierazia eta portaeraren aldaketa

Baldin eta ezagutzak portaera eratzen eta gidatzen baldin badu, ezagutzaren edukiak aldatuta portaerak alda daitezkeela pentsa dezakegu.



Har dezagun adibide ezagun bat. Estatu Batuetan gaude, 20ko urteetan. Ford, Chrysler, Dodge... etxeek beren autoen publizitatea egitean, ekoizpenaren ontasunak gorapatzen dituzte: segurtasuna, indarra, ekonomia, iraunkortasuna...

Baina, 1923an, Motor Car Company-k, bere produktuak saltzeko arazoak dauzka, eta iragarki berri bat atera behar izan du. Iragarki horretan, autoaren publizitatea egiteko, autoari adierazi edo esanahi berri bat erantsi zaio: alegia, autoa garraiorako gailua izateaz gain, konpainia horrek autoa denborapasarako, atsegingarritasunerako, eta abenturarako gailua dela aldarrikatzen du. Beste berba batzuetan esateko, autoari beste esangura bat erantsi zaio; ordura arte lanerako, garraiorako, bidaiatzeko gailua zenari, plazerrerako ahalmena erantsi zaio (eta, egungo zenbait iragarki ikusita, badirudi ideia hori, *irudi* hori, gailendu egin dela beste guztien gainetik).

Kasu horretan, auto-egileek eta saltzaileek adierazi berri bat sortu zuten. Adierazi berriak erosle berriak hurbildu zituen Motor Car Companyren produktuetara.

Esangurek edo adieraziek gure pentsamendua eratzen dute. Adierazi horiek gure portaerak baldintzatzen dituzte.

#### 6.2.4. *Isiltasunaren espirala*

Pertsuasioaren funtzionamenduari buruzko ataltxo honetan, egin dezagun urrats berri bat. Hona hemen, pertsuasioaren funtsa azaltzeko laugarren eredu. Elisabeth Noelle-Neumann ikerle alemaniarrek 70-80 urteetan garatutako teoria dakargu orain gure orrialdeetara.

Gizabanakoak boterearen iritziak bere egiteko abian jartzen duen prozesuaz berba egiten du autore horrek, *isiltasunaren espirala* deitutako lanean. Iritzi publikoa zelan eratzen den azaltzen du autore horrek beste ezer baino gehiago eta bere teoriaren oinarrian hauxe dago: pertsonak boterearen iritziak bere egiteko duen gaitasun aparta.

Egoera gatazkatsuetan, gizabanakoak *bere* iritziak *besteen* iritziak alderatzen dituenean, sentipen zeharo diferenteak piztu daitezke bere baitan, sentipen zeharo diferenteak deskubri ditzake bere kontzientzian:

- 1.- Alde batetik, garaile den ikuspuntuagaz datorrela bat, berak pentsatzen duena –bere iritzia–, horrek bere buruarekiko autokonfiantza bermatzen du eta, bide batez, pentsatzen duena publikoan esatera bultzatzen du.
- 2.- Bestetik, kontrakoa, guztiz bestelakoa ere pentsa dezake, alegia, berak duen iritzia garrantzia galtzen ari dela gizartean; zenbat eta galtzaileago ikusi bere burua, orduan eta isilago egiten da gizabanakoa, beretzat gordetzen ditu bere iritziak, ez ditu modu ozenean gizartearen aurrean plazaratzen eta, agian, bere pentsamendua oker dagoela pentsatzen hasiko da.

Sentipen diferenteak eta egiteko diferenteak, beraz, iritzien aldaketaren ondorioz. Gauzak horretara, alegia, zenbat eta ozenago berba egin batzuek eta zenbat eta isilago jardun besteak, iritzi publikoa batzuen aldera makurtzen da erremedio barik.

Batzuen abarrotsak eta besteen isiltasunak prozesu espiral bat jartzen dute abian, zeinaren bitartez, hasieran benetan horrela izan edo ez, azkenean, iritzi bat nagusi legez kontsideratzen baita; eta, azkenean, jakina, horrelaxe da benetan, alegia, nagusia.

##### 6.2.4.1. Iritzi publikoa

*Iritzi publiko* kontzeptua, ideia, zaharra da. Zizeronek barkamena eskatu zion Atikori, jada, Kristo aurreko 50. urtean, bere ekintzak *iritzi publikoak* gidatuak izan zirelako, bere eginbeharrekoak publikoaren iritziak gidatu zituelako.

Zer da, baina, iritzi publikoa, gaur? Zer ulertzen dugu, egun, iritzi publikoaz berba egiten dugunean?

Iritzi publikoa definitzerakoan, kontzeptu desberdin bi hartu ohi dira kontutan, ideia bi eduki beharko genituzke buruan, beraz:

- a) Lehena: iritzi publikoa, demokrazian, erabakiak hartzen eta iritzia sortzeko prozesuan laguntzen duen *arrazionaltasuna* da; *iritzi publikoa* = *arrazionaltasun-publikoa*.

- b) Bigarrena: iritzi publikoa *kontrol soziala* da. Botereak, bere erabakiak gizarteari ezartzeko, gizartean kontsentsu-maila zabala lortzea du beharrezko. Iritzi publikoa deitzen diogun horrek errazten dio bidea botereari. Iritzi publikoak gizartearen barne-integrazioa ahalbidetzen duen fenomeno da; askotan, arrazionaltasunagaz zerikusirik ez badu ere. Beraz, *iritzi publikoa = boterearen iritzia*.

### **Iritzi publikoa: iritzi-eraketa demokrazian**

Lehenago esan dugunez, iritzi publikoa ulertzeko aipatu dugun lehen irizpidearen oinarrian *arrazionaltasuna* dugu. Arrazoimenari dagokiona, arrazoimenean oinarritutakoa, arrazoimenaren araberkoa da *arrazionala*. *Arrazionaltasuna*, horretara, hauxe da: arrazoimenaren bitartez, ezagutza handitzea eta ezagutza horiei esker modu logikoz erabakiak hartzea.

Ezagutza arrazionalaren oinarrian, jakina, logika eta kausaltasuna daude. Pentsamendu logikoaren emaitzak, beraz, konbentzigarriak, arrazoizkoak, zentzuzkoak eta ulergarriak dira.

Esan ohi denez, demokrazian erabakiak modu arrazionalan hartzen dira. Erabaki arrazional horien azpian iritzi publiko arrazionala omen dago, iritzi publiko zentzuzkoa, logikaren legeei eusten diena, alegia.

Ildo horretatik, beraz, iritzi publikoa *logika publikoa* da, *arrazoi soziala*. Teorian bai; praktikan, horrela gertatzen al da?

### **Iritzi publikoa: kontrol soziala**

Iritzi publikoa ulertzeko bigarren irizpidearen arabera, iritzi publikoa kontrol sozialerako tresna moduan ulertzen dugunean, iritzi publiko horren azpian dagoen argumentazioaren *kalitatea* ez dugu kontutan hartzen. Kasu horretan, faktore erabakiorra ondokoa da: zeinek duen indar handiagoa, balizko diskusio egoera batean bere iritzia ezartzeko. Iritzi publikoa kontrol sozial moduan ulertzen dugunean, berau ez dago arrazoi sozialean oinarriturik; iritzi publikoak, kasu honetan, ez du logika-publikoa bere egiten, hots, zentzu-publikoa urrun dago eta arrazoimenak indarra galdu du.

Iritzi publikoa kontrol sozialerako erreminta denean, balizko diskusioan nagusi aterako den iritziak, ez du zertan egokiena izan, hots ez du zertan justuena, onena izan. Kontrol sozialerako iritzi publikoak iritzia ezarri egiten du, ez du sortzen, inposatzen baino.

Iritzi publikoa kontrol soziala bilakatzen denean, iritziak gutxi batzuenak dira eta iritzi horien ondoko erabakiak gutxi batzuek hartzen dituzte; baina iritzi eta erabaki horiek gizarteko kide guztiengan dute eragina.

Gizarteko kide guztiek ez dute indar bera beren iritzia ezartzeko, gizartean hedatzen ari den iritzi publikoan eragina edukitzeko.

Iritzi publikoa ulertzeko lehen moduak –arrazionaltasunean oinarritutakoak– funtzio sozial-sortzaile argia eta demokratizatzaile-dinamikoa ditu; bigarrena –kontrol sozialarena– ezkutuan gordetzen den arma da, esaten ez dena.

#### 6.2.4.2. Isolamenduari beldurra

Bakarrik izatea eta isolaturik egotea ez dira gauza bera. Batzuetan, bakarrik paseatu gura da, lagunengandik aparte, buruari lasai eragiteko. Horrela dihardugunean, jakina denez, laguntasuna, behar izanez gero, hurbil dago. Isolaturik egotea hori baino bortitzagoa da, laguna, igurikatu arren, kasurik gehienetan, ez dator-eta.

Inork ez du isolaturik egon gura. Inork ez du gura halako isolamendua, zeinean auzokoek bestaldera begiratzen baitute kalean topo egitean, edota lankideek, jantokian, ondoan esertzea ekiditen baitute. Isolamendura kondentatzen ziren, garai batean, Europan, legenardunak; isolamendura kondentatzen dira gaur egun hiesdunak. Kontestu horretan, isolamendua zigorra da eta inork ez du zigorrik bilatzen, ezta zigorpeko isolamendurik ere.

Pertsonak isolamenduari dion beldurrean bertan jaiotzen da isiltasunaren espirala deitzen diogun fenomeno komunikazionala. Taldean egonda bizitza errazagoa da; txirindularitzan, tropelean joatea onuragarria da norberaren indar fisikoentzat. Isolaturik egoteak edota gelditzeak onura baino eragozpen gehiago ei dakar.

Isolaturik egotearen kontra borrokatu du pertsonak beti. Adibideak askotarikoak dira historian. Alexis de Tocqueville-k isolamendu sozialaren beldurrak luze berba egin zuen Frantziako Iraultzari buruzko bere izkribuetan. Tocquevillek honela azaldu zuen ateismoaren gorakada Frantziako prozesu iraultzaile hartan:

- Iraultzaren bezperara arte, Frantziako Elizak hizlari handiak eduki zituen bere alde, baina iraultzaileak kaleak hartu bezain pronto hizlari handi horiek mutu geratu ziren. Kaleetan, kristautasuna kritikatzeko zutenen ahotsak hasi ziren entzuten, boterearen oniritziak, jakina. Sinestunak isildu egin ziren. Sinestunek, beren isiltasuna zela medio, bakarrik eta isolaturik zeudela pentsatu zuten; ustezko isolamenduak izua hedatu zuen beren artean. Izu horrek ahalbidetu zuen sinestunek gizarte berriaren gutxiengoa osatzen zutelako pentsatzea, nahiz eta gehiengoa izan prozesu iraultzailearen hasieran. Sinestunak beren komentzimenduak aldatzen hasi ziren, sinestunek sinesgabe moduan agertu zuten beren burua, gizarte berriaren aurrean. Nazioaren zati baten iritzia zena –erlijioaren aurkakoa–, nazio osoaren iritzi moduan plazaratu zen. Sinestunen isiltasunak sinesgabeen burrunba areagotu zuen.

Egia esan, gai eztabaidagarrietan, jenderik gehiena prest dago bere iritzia publikoan adierazteko, baldin eta badaki publiko horren barruan bere iritzia ondo hartua izango dela edota gehiengoarena dela; hauteskundeetan jendeak arazo barik plazaratzen du bere boto-intentzioa, gehiengoaren intentzioagaz bat egiten duela jakin badakienean; erraza da mingaina askatzea, garaiko izpiritu nagusiagaz bat egiten denean.

Galde diezaiozun geure buruari: erraza al da publikoan esatea norberak uste duena, entzuten ari den publikoak bestela ulertzen duela dakigunean? Dirudienez, errazago isiltzen da ustez galtzaile dena, ustez garaile dena baino.



Gehiengoaren partaide direnek errazago aireratzen dituzte beren iritziak publikoaren aurrean, gutxiengoaren partaideek baino.

Har dezagun beste adibide bat. Balizko hauteskunde-prozesu batean, prest al geundeke gure iritziak jendearen aurrean esateko? Balizko hauteskunde-prozesu horretan, noraino geundeke prest konprometitzeko?

- Kanpainari buruzko pin edo pegatina bat eramango al genuke arropetan? Kotxean pegatinarik jarriko al genuke?
- Aterik ate joango al ginateke, geure alderdiaren programa ezezagunei azaltzeko?
- Etxeko balkoian jarriko al genuke gure alderdiaren plakat bat? Jarriko al genuke propaganda politikoa kaleetan?
- Kalean, balizko eztabaida politiko batean, parte hartuko al genuke geure alderdiaren alde?
- Alderdi horren mitinen batera joango al ginateke? Parte hartuko al genuke mitin horretan geure iritzia azaltzeko?
- Beste alderdietako mitinetara joango al ginateke geure iritziak defendatzeko?

*Jendeak beldur handiagoa dio bakarrik gelditzeari, isolatuta sentitzeari, errakuntzari berari baino.* Hori dela eta, imitazioaren joera nagusitu da pertsonengan. Imitazioa diogunean, honako hau diogu, alegia, pertsonak segulako ahaleginak egiten dituela, batzuetan jakinda eta beste batzuetan konturatu barik, bere inguruko antzera pentsatzeko, portatzeko, jantzeko eta bizitzeko. Imitazioaren joera zerbait naturala da pertsonarengan, besteek bat etortzea beharizan bat da pertsonarentzat. Besteen joerak imitatzeak esfortzu txikiago eskatzen dio pertsonari, isolaturik bizitzeak eskatzen diona baino.

#### 6.2.4.3. Iritzi publikoa eta isolamendua

Iritzi publikoaren definizio operatibotzat jo genezake hurrengoa: *gai eztabaidatsuetan norberak publikoan adieraz ditzakeen iritziak, besteengandiko bazterketa jaso barik.* Ohituran, moralean eta ezarritako eredu munduan, bazterturik geratu gura ez duen pertsonak, publikoaren aurrean derrigorrez erakutsi behar dituen joerek eta portaera-ereduek osatzen dute, era berean, iritzi publikoaren definizio operatibo hori. Esku artean duguna hau da: publikoki behagarri diren portaera eta iritzien onespén edo gaitzespena. Pertsonarentzat hautemangarri diren onspén eta gaitzespenak dira horiek. Onspén eta gaitzespenen indarrak eta garrantziak sarritan markatu dute historiaren joan-etorria.

#### *Maquiavelo*

Agintariek hedatu behar duten aldeko iritzi publikoaren beharraz egiten dugu topo Maquiaveloren *Printzea* liburuan.

Maquiavelok argi utzi zuen boterea bakar batzuen ahalmena dela, baina boterearen eragina guztiengana heltzen dela, guztiek ikusten dutela botereari nork eusten dion eta zer egiten duen.

*Itxurak gidatzen du herria* dio Maquiavelok. Printzeak ez du zertan dohai guztien jabe izan (Printzeak ez du zertan izan gupidatsua, zintzoa, bihozbera, egiazalea, erlijiozalea, etab.), baina dohai guztien jabe delako itxura eman behar du. Printzeak ihes egin behar dio arbuiagarri dirudikeen orori. Printzeak jendearen aldeotasuna bilatu behar du, botereari eutsi gura baldin badio.

### *John Locke*

Hiru lege-motaz berba egin zuen John Lockek bere izkribuetan: lege jainkotiarraz, gizalegeaz, eta bertutearen, iritziaren eta modaren legeaz.

Hirugarren lege horretan, bertute-iritzi-modarenean, aurkitzen dugu iritzi publikoa azaltzeko ahaleginaren oinarri historikoetariko bat.

John Lockek adierazi zuen legez, pertsonak gizartea sortzeko biltzen dira, elkarregaz bizitzeko. Elkarbizitza gidatzeko arauak sortzen dituzte. Lege batzuk idatziak dira, publikoak; beste batzuk, agian lege-kategoria eduki beharko ez luketenak, ostera, idatzi gabekoak dira, ez dira existitzen, ezkutuan gordetzen dira, baina hortxe daude eta jendeak ezagunak ditu.

Azken horiek dira iritzi publikoaren kontzeptura garamatzaketanak, azken lege horiek dira pertsonaren bertuteaz berba egiten dutenak, jendearen iritziez egiten dutenak berba, norbanakoaren jokaeraren modak ezartzen dituztenak.

### *David Hume*

*Iritzia behar-beharrezkoa da, funtsezkoa da estatu-aferetan* dio autore horrek bere lanetan. Humeren ustez, gobernuak iritzien arabera funtzionatzen du, hau edo bestea hautatu behar duenean jendearen iritzia hartzen du kontutan, hartu beharreko erabakiaren ontasuna edo desegokitasuna barik. Erreputazioa eta izen ona garrantzi handiko arrazoiak dira horrelako kasuetan.

Gobernuztat administratuen iritzia funtsezkoa baldin bada, pertsona arruntarentzat, hiritarrarentzat, oinarrizkoa bilakatzen da gobernuaren iritzia. Bere buztanari kosk egin gura dion txakurraren eromena da hau.

Humeren teoriaren arabera, gobernuak beharrezkoa du jendearen aldeotasuna ezertan hasi aurretik; jendearentzat *argia*, *iparra*, da gobernuaren iritzia honetaz edo besteaz. Noiz egingo dio kosk txakurrak buztanari?

Aldaketa-garaietan, matxinada- eta iraultza-garaietan, iritzi publikoen mundua oso aldakor bilakatzen da, aldakor eta ezegonkor. Aldaketa-garaietan, isolaturik geratu gura ez duen hiritarrak, arreta handia jarri behar du iritzien mugimenduak nondik nora doazen atzemateko, iritzi publikoaren aldaketak norantz doazen jakiteko.

Iraultza-garaietan, sentsazio berriak kaleratzen dira. Iritzi publikoak utzi egiten du gobernuaren pentsamenduaren ildo ofiziala eta horren kontra altxatzen da. Gobernuak behera datoz iraultzaileek bultzatuta, batetik; eta, bestetik, jendearen iritziak, iritzi publikoak, honengatik edo harengatik, gobernu abandonatzen duelako. Herritarrek ez diote beren konfiantza aitortzen gobernuari eta hau jausi egiten da. Gorantz datozen iritzien alde jotzen du orduan gizabanakoak.

Baina, hau matxinada-garaietan ezagutzen dugu, matxinada-garaiari berari dagokion zerbait da; esan gura baita, garai *baketsuetan* iritzi publikoa oso gutxi aldatzen da.

*Jean-Jacques Rousseau*

1744. urtean J. J. Rousseauk gutun bat bidali zion garai hartako kanpo-arazoetarako ministro frantsesari, barkamena eskatzeko. Gutunean zera ziotsan Rousseauk Amelot ministroari: gaizki egina zuela berak, Rousseauk, Veneziako konte bat austriarren aldekoa zela publikoki esanda, zeren, ezer frogatu ahal izan baino lehen, *iritzi publikoa* Ameloten kontra jarri baitzuen.

*Choderlos de Laclos*

*Les liaisons dangereuses* (Harreman arriskutsuak) izeneko nobelan, autore horrek iritzi publikoaren kontzeptua aipatzen du modu argian. Emakume eta andereño baten arteko harreman epistolar bat kontatzen du autore frantsesak. Emakumeak maitalea baztertzeko aholkatzen dio andereñoari, gizona oso izen txarrekoa baita.

Nobelan, besteen zeresanagatik eskatzen zaio makurtzea andereñoari; ospe txarreko gizonaren ondoan egoteak ekar diezazkiokeen kritiken burrunbagatik. Pasarte nobelatu horretan, besteen zeresanak, iritzi publikoak, justizia-epailearen lekua hartzen du. Iritzi publikoak pertsonaren portaera-ereduak ezartzen ditu. Iritzi publikoari diogun beldurragatik, portaerako eredu pertsonalak gizarteak onartzen dituenetara moldatzen ahalegintzen gara.

*Alexis de Tocqueville*

A. de Tocquevillek, bere lanetan, identifikatu egiten ditu iritzi publikoa eta gehiengoaren iritzia. Gauzak horretara, iritzi publikoa gutxiengoaren kontra diharduen iritzi-tirania besterik ez da, kontrol sozialerako baliagarria den iritzi-tirania.

#### 6.2.4.4. Isolamendua eta isiltasuna

Ilusio optikoa edo akustikoa da iritzi publikoagaz gertatzen zaiguna.

Iritzi publikoak, hedabideak azken finean, iritzi bat plazaratzen du beste guztien gainetik, iritzi publikoa talde baten iritziaren bozgorailua da; eta, bozgorailurik ez duen taldeak, bere zerbitzuan hedabiderik ez daukan taldeak, bere iritzia publikoaren aurrera eramaterik ez duen taldeak, *iritzirik ere ez du, eduki*.

Isolamenduak isiltasuna dakar.

Isiltasunaren espiralean ikusten duguna honako hau da: dena baino garrantzitsuagozat aurkezten dela iritzi bat; eta, kontrara, beste iritzia, dena baino ahulagozat aurkezten dela. Ondorio moduan ikusten duguna, aurkezten zaiguna hobeto esanda, gehiengoaren iritziari buruzko ilusio optiko edo akustiko bat da.

Hedabideak dira iritzi-giroa zein den ikusteko publikoak duen baliabiderik garrantzitsuena. Pertsonak ezin du jakin bere begien aurrean gertatzen denaz aparteko ezer, baldin eta kontatzen ez badiote. Kontalari-paper hori hedabideek


berenganatu dute; eta, hartara, lekukoa ez den testuingurutik aparteko errealitatearen berri hedabideen bitartez bereganatzen du gizakiak. Bereganatze horretan, informazioa bere egiteaz gain, iritzia ere bereganatzen du pertsonak. Edalontzi batean ardoa eta ura nahasten direnean, edaten duenak biak edaten ditu batera, ez du ahoan banatzerik bata eta bestea; informazioagaz eta iritzi publikoagaz gauza bera gertatzen zaigu.

Amaitzeko, laburbil ditzagun zazpi ideia:

1.-Modak iritzi publikoa dira, iritzi publikoa egituratzen dute; 2.-pikutaren beldurrak, desohorearen beldurrak, iritzi publikoa egituratzen du; 3.-legeari diogun beldurrak iritzi publikoa eratzen du; 4.-inkestek iritzi publikoa konformatzen dute; 6.-iritzi publikoak gizartearen integrazioa ahalbidetzen du; 7.-arrisku-garaietan, iritzi publikoak gogorrago ekiten du disidentziaren kontra; arrisku-garaietan, iritzi publikoak modu tiranikoan dihardu.

#### 6.2.4.5. Isiltasunaren espirala

Isiltasunaren espirala deitzen diogun teoriak, lau balizko oinarri-eredugarri aurkezten dizkigu:



### 6.3. Testuaren manipulazioa

Desinformazioaren, manipulazioaren eta pertsuasioaren munduan, aparteko lekua, berezkoa eta letra larriz idatzitakoa irabazi du, saiakeraren poderioz, gezurrak, *informazio-gezurrak*.

Testuaren manipulazioa ardaztat harturik, egia eta gezurraren arteko mugetan etengabe jauzi eginez, berez apartekoak izanik, darabiltzaten teknikengatik hurbilekoak diren mundu birako hurbilketa-jauzia egingo dugu atal honetan: publizitatea eta propaganda dauzkagu gogoan.

Propaganda eta publizitatea mundu apartatuak dira. Propaganda berba darabilgu mundu politiko edo interes orokorreko gaiez ari ganean; publizitate berba merkataritza-alorreko gaiez gabiltzanean. Baina bi-biek dute zerbait komun:

pertsuasioa erabiliz eta bortxa baztertuz, pertsonen jokaerak aldatzeko diseinatuak izatea.

Jakina da propaganda politikoa eta publizitate komertziala ez direla gezurraren gainean eraikitako prozedura eta teknika-multzoak, baina, noizean behin, egoerak halaxe eskatuta, gezurra dute erabilitako baliabideetarik bat, eta horixe aztertzen da atal honetan.


Gezurra arma bat da, indartsuenek eta ahulenek darabilketena; arerioa, kontrakoa, egoera ahulagoan jartzea bilatzen duena, hain zuzen ere.

### 6.3.1. Gezurra komunikazioaren paradigman

Komunikazio-prozesuan, igorleak egitatea ulertzen duen modu berberean komunikatzen duenean, **egiaz** berba egiten dugu; **gezurraz**, igorleak egitatea ulertzen duen modu berberean baino, beste batean komunikatzen duenean.


Ikus dezagun gezurraren paradigma, Jakobsonen eskematik abiatuta:

*Jakobsonen eskema giza komunikazioaz*



Egia eta gezurra kontzeptuak eskemako osagai bakar bati dagozkio: **mezuari** hain zuzen ere. Igorleak bidali eta hartzaileak jasotzen duen hori (mezua) egiazkoa edo gezurrezkoa izango da, igorleak bere errealitateaz komunikatzen duen ikustaldiaren arabera.

Gure portaera, gure jokaera eta bizikera faktore nagusi biren menpekoa da: alde batetik gure gurariena eta, bestetik, gurari horiek betetzeko gure esku diren informazioena:



Informazioak aldatzen diren heinean, gure jokaerak ere alda daitezke. Propagandak eta publizitateak informazioa eskaintzen dute eta informazio horiek gure jokaera molda dezakete (gu konturatuta edo konturatzeke).

Jokaera bat eragiteko informazio-sorta bat eskaini behar da, beste jokaera bat eragiteko, beste bat.

*Hartara, gezurrak dirigismoa bilatzen du:*

kodea				
	A' mezua	hartailearengan	C'	erabakia eragin
igorleak	A'' mezua	hartailearengan	C''	erabakia eragin
	A''' mezua	hartailearengan	C'''	erabakia eragin
A erreferentea				

Propagandak eta publizitateak duten helburu nagusia ez da informazioa ematea, gizartean eragina edukitzea baino eta, sarri askotan, helburu hori betetzeko gezurra darabilte hitzetik hortzera; propagandaren eta publizitatearen eskuetan, albisteak –benetakoa edo asmatutakoa– arma bat da.

Igorle batek egia dioenean, ez dakigu zergatik dagikeen, ez dakigu egia interesatuki dioskun ala ez, ez dakigu egia bere tesiekaz bat datorrelako dioskun ala ez. Alabaina, gezurra esaten duenean, argi dago dirigismoa egin gura duena, gizartean eragin zehatz bat eduki gura duena.

### **Gezuraren arrazoia**

Komunikazio-prozesuan, igorleak egia esan ordez gezurra esanda *eskuratu gura lukeen helburua* jotzen dugu gezuraren ziotzat. Mezua osatzen duten zeinuen manipulazioaren bitartez bideratzen du gezurra igorleak hartailearenganaino. Indarrak gordetzea ahalbidetzen dio igorleari gezurrak, helburua lortzeko ahaleginetan.

### **Gezuraren hartaileak**

Gezuraren hartailea, Jakobsonen giza komunikazioaren paradigmari segituta, entzule-eginkizuna betetzen duen horixe da, hots, mezua hartzen duena da hartailea, mezu pertsuasiboa jasotzen duena; gure kasuan, *gezurra entzuten, irakurtzen edota ikusten duena da hartailea*.

Igorle eta hartailearen arteko harremanean finkaturik, propaganda- eta publizitate-ekoizleek hartaile-sail desberdinak daukate begi aurrean.

Propagandaren kasuan, lau hartaile-ereduri zuzendu ohi zaio *albisteak*:

1. Kontrakoak.
2. Aldekoak.
3. Neutralak.
4. Menpekoak.

⇒ Gerra-kasu batean, lau kategoria horiek honetara birdefini genitzake:

1. kontrakoak = arerioak.
2. aldekoak = aliatu lagunak.
3. neutralak = gerran parte hartzen ez dutenak.
4. menpekoak = hiritarrak.

⇒ Barne-politika aztertuz eta gobernuaren ikuspuntutik begiratuta, lau kategoria horiek honetara birdefini ditzakegu:

1. kontrakoak = beste alderdietako kideak.
2. aldekoak = gobernuaren ekintzekaz bat datozenak.
3. neutralak = inkestetan, beren iritzia argi ez dutenak eta beti noraezean dabilzanak.
4. menpekoak = gobernuaren alderdikideak.

Publizitatearen kasuan, solaskide nagusiak bi dira: ekoizleen mundua bata eta erosleen mundua bestea. Publizitatearen kasuan, gezurra balizko kontsumitzaileei zuzentzen zaie, batez ere. Kontsumitzaileen artean, hala ere, maila desberdinak aurki daitezke: detailean saltzen dutenak, erosleak eta, kasuren batzuetan, kompetentziakoak.

### **Gezuraren objektuak**

Gezuraren objektua hauxe da: *gezurrez estaltzen den hori*, alegia, ezkutatu, asmatu edo desitxuratu gura den hori. Gezuraren objektuak hiru ataletan banatzen dira:

1. gezurrean parte hartzen duten jarduleen arlokoak (gezurra norberari buruzkoa, arerioari buruzkoa edo inguruari buruzkoa izan daiteke).
2. gezurra garatu den mailaren arlokoak (gezurra asmoei buruzkoa, egintza edo ekintzei buruzkoa izan daiteke).
3. gezurra kokatzen den denboraren arlokoak (gezurra iraganaz, orainaz edo geroaz izan daiteke).

### Gezuraren objektuak propagandan

#### *Norberari Buruzkoak*

##### *\*asmoak*

Asmoak, erasokorrak batez ere, normalean, arerioari ezkutatu egiten zaizkio, ustekabeen harrapatu ahal izateko. Asmo horiek, era berean, aliatuen begietatik babesten dira, lagunek norbera erasotzaile denik pentsa ez dezaten. Asmo erasokorrak ez dira neutralen aurrean adierazten, beren neutraltasuna ez mintzearren.

Asmoak, sarri askotan, menpekoei ere ezkututzen zaizkio, batez ere, politika zaharrean aldaketak egin behar direnean eta, politika zahar hori, aurretik odolez eta burdinaz defendatu denean. Gerra-kasuetan, esate baterako, asmo kontziliatzaileak ez dira agirian uzten gerra oso aurrera joan denean.

##### *\*ahuleziak*

Gehienbat arerioari ezkututzen zaio ahulezia, informazio horretaz baliatuta eraso ez diezagan, nonbait. Lagun eta neutralekaz joera kontradiktorioak daude, ez da oso ahul agertu behar besteen oniritzia ez galtzeko, baina, ahul izanik, ez da erabat ahulezia ezkutatu behar, baldin eta lagun eta neutralen laguntza lortu gura

baldin bada. Menpekoekaz antzeko zerbait gertatzen da: erabat ahul agertzen baldin bagara, beren meziprezua besterik ez dugu jasoko, erabat indartsu agertuz gero, ez da inoren laguntzarik beharko. Ezpata zorrotza da ahuleziarena.

*\*indarra*

Batzuetan erakutsi egiten da, batez ere arerioaren aurrean, berau beldurtzeko edo. Lagun eta neutralen kasuan dosifikazioaren beharra dago, ahuleziarekin gertatzen denaren antzera.

*\*errakuntzak*

Errakuntzak, aldiz, den-denei ezkututzen zaizkie: arerioei, lagunei, neutralei eta menpekoiei.

*Arerioari Buruzkoak*

*\*asmoak*

Arerioaren asmoak jakitea ez da erraza; hartara, haien ezkutatzea lekuz kanpokoa da. Bestelakoa da, izan, arerioari asmo beldurgarriak leporatzea.

*\*ahulezia*

Arerioarena ez da normalean ezkututzen. Hala ere, badira hiru arrazoi ezkutuan gordetzeko: 1.- aliatuen laguntza geldu ez dadin; 2.- garaipena erraz baino, neketsu legez aurkezteko; 3.- garaituei ohorea aitortzeko: “Galdu arren, ausartak izan zarete” esan ahal izateko.

*\* indarra*

Batzuetan ezkutatzea ona den arren, askotan bistan uztea ez da txarragoa izaten. Arerioaren indarra ezkutatu egiten da, norberaren menpekoak lasaitu behar direnean, edo arerioaren aurka bultzatu behar direnean. Ostera, agirian uzten da, arerioa basatitzat hartua izatea gura denean eta menpekoen mendekua bultzatu gura denean. Normalean, egiten dena ondokoa da: arerioa arriskutsua dela esan eta norberaren ahuleziak tintontzian gorde.

*\* errakuntzak*

Arerioarenak ez dira inoiz ahazten edo ezkututzen; ageri-agerian uzten dira.

*Denbora-osagaia gezurrean*

Iraganaren transformazioa errazagoa da orainarena baino. Denbora joan ahala, gauzak ahaztu egiten dira eta historia berridaztea errazago bilakatzen da. Lekukoak desagertzen diren heinean, errazago berridatz daiteke historia, berridatzitako historiaz ahotsik altxatuko ez delako. Iraganeko ekintzak eta asmoak erraz ezabatzen dira buruetatik. Etorkizunaz gezur esatea erraza da, gezurtiak badaki ziria sartzen ari dena, hartzaileak, ostera, zail du hori aurretik ikustea.



## Gezuraren zeinuak

Gezurra ez da komunikazioaren munduan bakarrik gertatzen; bizitza arruntean ere erraz aurki daitezke gezurrak nonahi. Gezur horien artean batzuk berez sortzen direnak dira, egoera konkretu batetik ateratzeko zurikeria handi barik asmatzen direnak; beste batzuk, ostera, ondo pentsatutakoak dira, banketxeetako iruzurrak esate baterako.

Komunikazioaren munduan eta, batez ere, propaganda eta publizitatearen kasuan, gezurra ez da berez sortzen den fenomeno, aldez aurretik pentsatu eta garatu egiten dena baino. Propagandan eta publizitatean, gezurrak helburu zehatza du eta, beraz, ezin ganoraz prestatu barik utzi.

*Solaskideari erakusten zaiona* hartzen dugu gezurraren zeinutzat, alegia, egiaren ordez begien aurrean jartzen zaion hori da gezurraren zeinua. Igorleak hartzailearen esku uzten duen informazio faltsu horixe da gezurraren zeinua.

Hartzaileak bere egiten duen mezu horrek, sinetsi duen edo sinetsi ez duen informazio faltsu eta gezurrezko horrek, gezur-zeinu horrek, forma desberdinak eduki ditzake: berbak –idatziak edo ahozkoak–, irudiak, pertsonaia faltsuak, objektu edo fenomeno faltsuak, ekintza faltsuak, dokumentu faltsuak.

### 6.3.2. Gezuraren prozedurak

Desinformazioaren gerra honetan, gezurraren egileak, asmatzaileak, gezurtiak azken finean, ideia bat du egitateaz, baina beste bat komunikatzen du, beste bat azaltzen edo erakusten dio hartzaileari. Hori egiteko zein teknikaz baliatzen da? Gezurra hedatzeko prozedurak, nagusiki, hiru dira:

- \* **ezabaketa**, hots, dagoen, den, existitzen den zerbait desagertaraztea, ezkutatzea, halako moldez non hartzaileak pentsatu behar baitu ezen ez dagoela, ez dela existitzen.
- \* **iratxetura**, hots, aurrekoaren kontrakoa, alegia, ez dagoen, ez den, existitzen ez den zerbait aurkeztea, halako moldez non hartzaileak pentsatu behar baitu ezen benetan badagoela egon, badela izan, edo existitzen dela. Iratxeturak asmakuntzak dira, egitatearen imintzioak.
- \* **desitxuraketa**, hots, dagoen, den, existitzen den zerbait modu gezurrezko batez aurkeztea.

#### 6.3.2.1. Ezabaketa

Ezabaketa zera da: egon dagoen, den, existitzen den zerbait desagertaraztea, ezkutatzea, halako moldez non hartzaileak pentsatu behar baitu ezen ez dagoela, ez dela existitzen. Kategoria honetan ahanztea (omisioa), ukapena (negazioa) eta ezabadura materiala aztertuko ditugu.

#### ahanztea

Hartzaileari informazio bat ezkutatzea da ahanztea edo omisioa. Gorde egiten den informazioa garrantzitsua da solaskidearentzat, igorleak gorde egiten du hartzaileak baino informazio gehiago edukitzeko eta haren gainetik izateko.

Hartzaileak bere aurrean duen igorleaz gain beste informazio-iturririk ez baldin badu, omisioa gezurraren parekoa da, zeren ondorio berbera eragiten baitu.

Ahantztea da gezurrak esateko modurik errazena; berba egiten ez baldin bada, ez dago kontraesanetan jausterik. Asmoak ezkutatzeko erabilitako teknika hedatua da ahantztea. Sarri askotan, ahantztea batere garrantzitsua ez den informazio ugariz estaltzen da.

### **ukapena**

Asmo eta ekintzei buruzkoa da, batez ere. Igorleak ukatu egiten du informazio bat, berak sortua edo berari egotzia. Hona hemen adibide bat:

Georges Pompidou 1974ko apirilaren 2an hil zen. Astebete lehenago, bere ministro-kontseiluagaz bildu zen eta ministroekaz bere gaixoaz berba egin zuen. Presidentearen gaixotasunaren aipamena jauregitik atera zen, nonbait. Gobernua-ren bozeramaleak haxe adierazi zuen telebistaz: "Presidente gaixo dagoela dioen zurrumurru hori, neurosi kolektiboa baino ez da". Sei egun beranduago, hil egin zen G. Pompidou.

### **ezabadura materiala**

Supresio materialaz ari gara. Objektuak edo dokumentuak ezkutetzea da ezabadura materiala. Objektu edo dokumentuak desagertarazteko, ezkutatu edo deuseztatu egin daitezke.

Objektuak ezkutetzea da, gerra-garaian erabilten den teknika. Esate baterako: arma-kokapenak desagertaraztea (armak eta soldaduak kamuflaiaren azpian gordetzen dira).

#### 6.3.2.2. Iratxetura

Zelanbait esatearren, iratxetura ezabaketaren kontrakoa da. Beraren helburua, egon, izan edo existitzen ez dena aurkeztea da. Ikuspuntu psikologikotik begiratuta, prozedura hau aurrekoa (ezabaketa) baino gaitzagoa da, zailagoa erabat. Zerbait asmatzeko imajinazioaren beharra dago. Norbaitek, iratxeturaren bitartez, zerbait ezkutatu gura duenean, mundu berri oso bat asmatu behar du eta asmakizunekaz hasita hamaika posibilitate dago; asmakizunen muga bakarra sinesgarritasuna da. Zerbait ukatu behar dugunean, aski dugu leporatzen zaiguna ukatuta; kontrara, ezer ukatu barik, zerbait berri plazaratu behar dugunean, mundu oso bat asmatu beharra dago eta lana, jakina, zailagoa da dudarik gabe.

#### Iratxetura-adibideak

##### *\*planen ordezkaketa*

Borroka politikoan, maiz galtzen dira plangintzak. Sarri askotan, galdutako planak benetakoak barik gezurrezkoak dira eta galtzearen arrazoa intoxikazioa baino ez da, alegia, arerioari, galdutako gezurrezko planak benetakoak izateaz gain garrantzitsuak ere badirela sinistaraztea.

Adibidez, 1941. urtean, Goebels-ek, naziek zituzten Soviet Batasuna inbaditzeko planak ezkutatzeko, Ingalaterra inbaditzeko plan faltsuak filtratu zituen.

\* *objektuak edertzea edota iluntzea*

Lagunen artean, propaganda-egileek asmakizunak plazaratzen dituzte, kritikak ekiditeko. Esate baterako: Goebels errena zen (osteomelitisa zela-eta); baina arazoa ezkutatzeko eta, bidenabar edertzeko, inork ezer galdetu aurretik, bere ezintasun hori Ruhr lurraldean frantsesekaz izandako borrokaldietan hartutako zaurien ordain zela hedatu zen; asmakuntza ederra.

Arerioen aurrean, asmakuntzak erabat ilun eta errukibakoak izan daitezke. Konkistatu gura zuten lurraldean gertatutako manifestaldiak eta protestaldiak iluntzen zituzten naziek, eta, horren aitzakiaz, inbaditu egiten zuten gero lurraldea (Txekoslovakia eta Polonia armaz hartzeko arrazoiak horrelakoxeak izan ziren, esate baterako).

\* *ekintzaren bat justifikatzea*

Norbaitek sarraski bat antolatu gura duenean erabiltzen den teknika da hau. Lurraldearen batean arazoak egonik, hango gobernuak laguntza eskatzen duela argudiatu, lurralde hartan muturra sartzea besterik ez da geratzen.

Austria bereganatzeko naziek erabilitako teknika izan zen hau, esate baterako. Estatu Batuek antzeko zerbait egin zuten Viet-Namen muturra sartzeko. Soviet Batasunak ere praktikatu izan du taktika hau 1939an Finlandian, Hungarianian 1956an, Txekoslovakian 1968an eta Afganistanen 1979an.

\* *objektuak asmatzea*

Ez dauden objektuak egon badaudela sinistaraztea da publizitatean iratxetura. Batez ere, inbiliariek eta ezkontza-agentziek darabilte gezur hau. Inbiliariairen batek bere esku ez dauden etxe dotore eta eskuragarriak iragar ditzake. Eroslea hurbiltzen denean, gura lukeen etxe hori salduta dagoela esan eta ordezkoren bat aurkezten diote. Ezkontza-agentzietan sarritan aurkezten dira berez existitzen ez diren pertsonaiak eta, etxeen kasuaren antzera, ordezkoekaz egin behar aurrera.

\* *nortasun faltsua*

Ekoizpenen bat saldu behar denean, sarritan aurkitzen zaizkio produktuari berez ez dauzkan atributuak, edo edukita ere, garrantzitsuak ez direnak.

\* *arrisku faltsua*

Bere produktua saltzeko, saltzaileak haxe adieraz dezake: bere produktua zenbait arriskuri aurre egiteko edota ekiditeko aukera ezin hobea dela. Arrisku hori ez da benetako arriskua hartzailearentzat, baina, hartzaileak, balizko arriskua bere eginik, dena delako produktuaren aldeko apustua egiten du.

\* *lekukotasun faltsuak*

Besterik ezean, ekoizleak bere produktua kaleratu behar duenean, sarritan aurkezten ditu inkestak edota bezeroen adierazpen trukatuak. Zerbait espontaneo gisa aurkezten dena, estudioan gertatutako ipuina izaten da. Era horretako sondeoak gezurrezkoak izateaz gain, lotsagarriak ere badira.



### 6.3.2.3. Desitxuraketa Propaganda eta Publizitatean

Ezabaketa eta iratxetura objektu (testu, dokumentu, asmo...) baten existentziari dagozkio: ezabaketaren kasuan existentzia hori ezkutatu gura da, iratxeturaren kasuan berez ez dagoena plazara ateratzen da, existentzia ematen zaio. Desitxuraketaren kasuan, ostera, objektua (bere zentzu zabalean hartuta) hortxe dago egon, baina propagandak eta publizitateak dagitena hauxe da: objektuaren izaera aldatu, desitxuratu, trukatu.

*Desitxuraketa koantitatiboaren kasuan*, ziri-sartzaileak zerbaiti buruz komunikatzen duenean, ez du neurriaren aurrean orekarik gordetzen eta exageraziora jotzen du; kasu batzuetan, egoera magnifikatu egin gura du haundikerietan jausiz; beste batzuetan, ostera, oreka galtzen duelarik, exagerazioa beste muturrera doa egoera huskerietara makurtuz.

*Desitxuraketa koalitatiboaren kasuan*, ziri-sartzaileak objektuaren nortasunak trukutzen ditu: bai bere jatorriari dagozkionak, baita bere nolakotasunei eta ezaugarriei dagozkienak ere.

#### gezurra desinformazioan



#### 6.4. *Prensa presiopean*

Hedabideek borondatez edo gogo txarrez har dezakete parte desinformazioan. Batzuetan, hedabideek berek jartzen dute abian desinformazioaren trenea beren interes ekonomikoak, politikoak edota kulturalak direla-eta. Ildo ho-rretatik, hedabideek pertsuasioa, gezurra, iragazki informatiboa eta komunikazioaren kontrola dauzkate beren esku, beren *errealitatea* ezartzeko. Beste batzuetan, ostera, hedabideek desinformazioaren zigorra eta mina pairatzen dute beren haragietan. Azken kasu horietan, hedabideak goragoko botere-egituren morroi dira. Ildo horretatik, hedabideak esku-ilunen erreminta baino ez dira.

Presiopean bizi da prentsa, horixe da gure tesia atal honetan. Profesio orotan legez, presioak, besteengandiko eraginak, batez ere boteretsuenen aldetikoak, presente daude gure jardueran. Prentsa, komunikazio profesionaldua, hedabideak –idatziak, ahozkoak, irudi bitartekoak, ikusentzuneakoak– presiopean bizi dira.

Presio horiek, uste daitekeenez, anitzak dira –hedabideetako akziodunena, botere politikoarena, elizarena, zaleena, iragarki-konpainiena, militarrena, gizartearena...– baina, eskuarteko atal honetan, balizko presio guztien arteko bat aztertzeari ekingo zaio: botere politikoarengandik datorrena, hain zuzen.

Botereak informazioaren munduan bere eskua sartzeko dauzkan ahalbideez berba egingo da hemen. Besteen informazioa interbenitzeko eta berea sortzeko ahalbide ugari dauzka botereak. Botereak, besteen komunikazioen zaintzaile izateaz gain, bere burua aurkeztu ohi du komunikatzaile gisa, beste guztien gaintik. Botereak badaki bere hedabideak sortzen eta saritzen; baita bere gustukoak ez direnak zigortzen ere.

Hedabidea demokraziaren berme izan daiteke, baita horren zapuzlerik grinatsuena ere. *Prensa askerik gabeko* demokraziarik ez da. *Demokraziarik gabeko prentsa askerik* izan ohi da, arazo ugariz baina; izan ohi da, pertsegitua baina, izan ohi da.

##### 6.4.1. *Informazioa: ondare soziala*

Botereak bestela uste badu ere, informazioa ez da bere jabegoa. Beste askok bestela uste badute ere, informazioa ez da enpresarien edota kazetarien jabego partikularra.

Informazioa gizartearena da. Informazioa herritarrena da. Informazioa ondare soziala da. Informazioa eskubidea da.

Hedabideek ondare sozial hori babestu behar dute boterearen atzarretatik, enpresarien errentagarritasunetik eta kazetarien nahikerietatik. Utopikoa baina, halaxe behar du gizarteak.

Prentsaren historiak bestelakorik adierazten digu: prentsa boterearen morroi izan da askotan eta askotan, gutxiagotan boterearen kritikari.

## **Prensa, sortzez menperatua.**

Prensa ez da *sortzez* askea, botere politikoaren beharretara *makurtua* baino. Erregeek eta jauntxoek kontrolatu dituzte historiaren joanetorrian hedabiderik gehienak. Gobernuek hurbiletik kontrolatu ohi dute hedabide guztien garapena.

Penintsula iberiarrean, 1477. urtean, Errege Katolikoek inprenta kontrolatzeko lehen ebazpena eman zuten Sevillan; Floridablanca kondeak 1791. urtean hiriburuko egunkari guztiak zarratzeko agindua eman zuen (bakar bat salbatu zen: *Diario de Madrid* izenekoa); Espainiako Bigarren Errepublikak zentsura informatiboa ezagutu zuen bere bizitzaren hiru laurdenetan; Franco diktadoreak burdinazko zentsura ezarri zion prentsari hamarkadatan... horiek ez dira Espainia Estatuko zenbait adibide baino.

Frantzian, iraultzaile burgesek beren aldeko prentsa utzi zuten bakarrik zigortzeke. Napoleonek sekulako ahaleginak burutu zituen bere agintaldietan prentsa kontrolpean edukitzeko.

Edozelan ere, prentsa askearen adibideak ugariak dira munduan, baina, ugaritasun horretan, gutxiengoa betetzen dute prentsa kontrolatuagaz alderatuta.

## **Kazetariaren burujabetasuna**

Utopikoa eta modaz joandako zerbait dirudien arren, kazetariaren burujabetasuna erreibindikatzeko Komunikazioa-Zientzien Fakultatearen zereginik garrantzitsuenetariko bat da.

Ustez, utopikoa eta, izatez, modaz harandikoa den kazetariaren burujabetasun horrek berma dezake, bakarrik, hedabideek gizarteagaz duten konpromezu etiko-informatiboa. Kazetariaren helburua presio-taldeak barik, gizartea bera denean, hiritarra bera denean, berma daiteke, bakarrik, informazioa zerbitzu-publiko izatea eta ez boterearen morroi mozorrotua.

Gizarteak burujabetasuna eskatzen dio kazetariari. Komunikatzaileak burujabetasun hori zor dio bere jarduerari. Burujabetasuna da presioari aurre egiteko modu bakarra.

### *6.4.2. Boterearen bideak prentsaren kontrolean*

Ondoren doana zerrenda bat da, botereak bere esku dauzkan kontrol-baliabide zenbaitzuren zerrenda, hain zuzen ere. Botereak hedabideak kontrolatzeko neurri administratiboak eta estrategia zigortzaileak erabili ditu historian zehar, informazioa eta komunikazio publikoa bere oinetara makurtzeko.

Atal honetan, kontrol-baliabideak zerrenda desberdin bitan emango ditugu: alde batetik, lege- eta administrazio-neurriak (esan gura baita: arategi legalak, denen bistan daudenak eta publikoki ezagunak direnak); eta, beste batetik, kontrolerako estrategia politikoak (alegia: inon idatzita ez daudenak, ezkutukoak direnak, botereak bere kasa abian jartzen dituenak, kazetarien kludikazio pertsonal eta kolektiboa bilatzen dutenak).

#### 6.4.2.1. Lege- eta administrazio-neurriak

Diogun legez, botereak bide legalez indarrean jartzen dituen kontrol-baliabideak dira orain aztergai dauzkagunak. Baliabide horiek araututa daude, publikoak ezagutu egiten ditu. Modu desberdinean bada ere, eragin zuzena daukate kazetariengan, hedabide-jabeengan eta arduradurengan.

##### \* ZENTSURA

Informazioa kontrolatzeko, modurik eraginkorrena da zentsura, informazioaren funtsa deuseztu egiten baitu. Informazioa kontrolatzeko baliabiderik zaharrena da zentsura.

Administrazioak ezar dezakeen alde zurretiko zentsuraren bitartez, egunkariak eta programak publikoaren eskuetara heldu aurretik zentsuratzeko ahalbidearen bitartez, hedabideak boterearen gustukoak diren albisteak baino ezin ditu plazaratu. Zentsuraren bitartez, hedabideak boterearen bozgorailu aparta dira; hedabideek boterearen interesekaz bat datozen informazioak baino ez dituzte kaleratzen.

Zentsura, berez eta izatez, hedabidera kanpotik heltzen den kontrolbide bat da; esan gura baita: administrazioak –botereak– zentsura dela medio hartzen dituela bere menpe hedabideetako agintariak, zentsura dela-eta hedabideek men egin behar diotela hedabideaz kanpoko eragin bati, botere politikoari.

##### \* BORONDATEZKO ITAUNKETA

Zentsura bigunago baten aurrean gaude. Botereak ez du informazioak alde zurretik ezagutzeko agindurik ematen. Hedabideek berek hartzen dute kontsultak egiteko deliberoa, eta beren kabuz erakusten dizkiete zenbait material agintari administratiboari, administrazioaren iritzia ezagutzeko.

Borondatezko itaunketaren bidez, hedabideetako arduradunek ezagutu egiten dute boterearen posizioa gai zehatz bati buruz, zigor administratiboak ekidin egin ditzakete, beraz. Botereak, bere aldetik, konpromezuzko informazioak, arriskutsuak izan daitezkeenak, argitaratuak izan aurretik ezagutzeko modua duenez, beharrezko izan daitezkeen neurri *zuzentzaileak* har ditzake.

##### \* GORDAILUA

Zenbait erregimenetan eta egoera konkretutan, argitara emango denaren kopia utzi behar izaten da agintarien eskuetan, berauek aldaketak ezar ditzaten argitalpenean, baldin eta horrela deliberatuko balute. Neurri horren bitartez, gobernuak eta administrazioak argitalpenen zabalkundea oztopatu dute behin baino gehiagotan. 66ko prentsa-lege espainiarrak, esate baterako, egunkari eta aldizkarien kopiak, Informazio-Ministerioan edota horren lurralde-ordezkaritzetan, publikoari zabaldu baino ordu erdi lehenago uzteko eskatzen zuen.

##### \* SEKRETUAK

Balitzko estatu-beharrizanak direla-eta, informazio-dukietan eragin zuzena duen neurri baten aurrean gaude; gobernuak zenbait informazio-gai sekretutzat jo ditzake eta, bide batez, komunikazioaren profesionarien lan-eremutik aparte

utzi. Kazetariak ezin lan ditzake gobernuaren ustez sekretu ofizialak direnak eta publikoak ez du jakiterik gobernuaren ibilbide ilunen berri. Adierazpen-askatasuna kolokan jartzen duen neurri administratiboa da sekretuena.

\* TARTE GORDEAK

Gobernuek eta administrazioek sarritan gordetzen eta erreserbatzen dituzte beren erabilpen zuzenerako zenbait argitalpen eta emanalditako espazio edo tarte bereziak hedabide publikoetan. Tarte horien bidez, gobernuak eta administrazioak beren komunikatuak argitara eta jakinaraz ditzakete, publikoagaz zuzen-zuzenean harremanetan jarrita.

\* DERRIGORREZKO ARGITALPENAK

Gobernuek eta administrazioek jabego pribatuko hedabideetara zabal dezakete beren komunikatuak argitaratzeko derrigortasuna.

\* BAIMENAK

Enpresa periodistikoen kontrola segurtatzeko, zenbait gobernuk baldintza bereziak jartzen dizkiete komunikaziogintzan jardun gura duten ekonomi-taldeei. Baldintza horiek presio-iturri bilakatzen dira maiz, hedabidea sortzeko unean bertan.

Enpresa sortzeko ez ezik, gobernu batzuek baimen bereziak eskatzen dituzte argitalpen zehatzak kaleratzeko edota emanaldiak aireratzeko.

\* ESTATU-SARBIDEAK ENPRESETAN

Estatuek, gobernuek, administrazioak presentzia ikaragarria segurtatzen dute sarritan hedabideetan, beren konfiantzazko pertsonak administrazio-kontseiluetan eserita. Presentzia horri esker, hedabideen jarduera ekonomikoaren berri zuzen eta zehatza edukitzeaz gain, administrazioek eragin politiko zuzena eduki dezakete *interbenituta* dauzkaten hedabideetan.

Frankismo garaiko Espainian, esate baterako, Informazio-Ministerioak kapitalaren laurdena bere eskuetan uztea eskatu zien hedabide espainiarrei.

\* BAHIKETA

Emanaldi edo argitalpenen bahiketa –esan gura baita, argitalpenaren aleak zirkulaziotik kentzea edota uhin elektromagnetikoen bitartezko emanaldiak ebakitzea– da administrazioek beren esku duten ahalmen zirgortzaileetariko bat.

Bahiketaren aukera, estatu demokratikoetan, epaileen esku egon beharko lukeela azpimarkatzen du autore batek baino gehiagok; estatu bertikaletan, bahiketa, normalean, administrazioaren esku egon ohi da.

\* SUSPENTSIOA

Administrazioek suspentsioak ezarri diezaizkiekete legeak eta gobernuen irizpideak bete ez dituzten hedabideei; suspentsioen bidez, hedabideak zarratuta egon daitezke aldi luze edo laburretan.



\* ITXIERAK

Suspentsioa bera baino gogorragoa da itxiera. Administrazioak hedabide bati bere atea zarratzeko agindua eman diezaioke. Demokrazia eta adierazpen-askatasunik ezaren adierazgarria izan ohi da neurri berezi hori.

\* PAPERAREN BANAKETA

Zenbait gobernuk argitalpenetarako papera beren esku eta kontrol zuzenean daukate. Papera modu desberdinean banatu ohi da hedabideen artean, batzuk saritu eta besteak zigortu gura direnean. Paperaren banaketa dela medio, administrazioak enpresa informatiboan gaineko kontrol ekonomiko zehatza ezartzen du.

\* ADMINISTRAZIOAREN ERRUTINAK

Prensa-bulego instituzionalek *ito* egiten dute sarritan kazetaria *informazioz*. Informazio horretan, baina, sarritan, garrantzirik ez duten datuak ematen dira eta publikoak interesez hartuko lituzkeenak tintontzian gordetzen dira. Prensa-bulego instituzionalek erakundeari berari dagokion informazioa eta erakundeak berak sortzen duena kontrolatzea eta administratzea dute helburu. Prensa-bulegoek, batzuetan, datuak ezkututzen dituzte; beste batzuetan, ostera, gurata filtratzen dituzte.

\* PROFESIONARIEN HEZIKETA

Administrazioek beren kazetari-eskola edo fakultateak sortu ohi dituzte etorkizuneko komunikazio-profesionalak fidelak izan daitezen. Espainian sortutako lehen kazetari-eskolan sartzeko, esate baterako, ikasleek FE de las JONS erakundeko militante-txartela eduki behar zuen bere esku. Soviet Batasunean, militantzia komunistaren agiria behar izan zuen ikaslegaiak kazetari-eskolan sartzeko.

\* PROFESIONARIEN KONTROLA

Zenbait kasutan, komunikazioaren profesionalek *kolegiaturik* egon behar dute, kazetariak Kazetari-Klubetako partaide izan behar dute beren jarduera profesionalean aritzeko. Klub horiek, zenbait kasutan, Estatuaren disziplinean daude eta beren kideen kontrol politikoari ekiten diote. Profesionalen kontrola bermatzeko, kasu askotan, administrazioak berak izendatzen ditu hedabideetako zuzendariak, bere gustuko profesionalen artean.

\* SEKRETU PROFESIONALA

Administrazioek ez dute onartzen beti kazetariaren sekretu profesionala, kazetariak, bere lana egin ahal izateko, bere informazio-iturriak gordetzeko duen beharrezana. Iturriak agirian uzteak ikerketa periodistikoak galeraz ditzake, baita arriskutan jarri ere iturrien integritatea estatu-aparatuen esku. Sekretu profesionala ez onartzea, edo modu ez-demokratikoz ulertzea, kazetari-ikerkuntza arriskutan jar dezakeen jarduera administratibo-zigortzaile garrantzitsua da. Estatu askotan praktikatzen da.

\* ZINEZKOTASUN-KLAUSULAREN UKAPENA

Zinezkotasun-klausulak profesionalaren burujabetasuna babestu gura du, diharduen enpresa eskuz aldatzen denean, enpresa horren lerro editorialean aldaketa nabarmenak egiten direnean, edota kazetariaren jarduera profesionalaren edukiak modu tendentziosoan bideratu gura direnean. Zinezkotasun-klausula profesioaren burujabetasunerako bermea da.

6.4.2.2. Kontrol politikoaren estrategiak

Botereak, orain arte aipatutako neurri administratibo eta arau-emaileez gain, badauzka beste baliabide batzuk prentsa eta hedabideen mundua bere kontrol zuzenean eduki eta mantentzeko. Botereak, legeetatik aparte, harreman bereziak eduki ditzake kazetariak, eta harreman horietarik jaiotzen dira kontrol politikorako estrategiak. Zenbat eta kazetaria burujabeago izan, hainbat eta arazo handiagoak ohi ditu gobernuak estrategia horietaz baliatzeko; kazetariak mende-koago, garaipena bermatuago.

\*IRADOKIZUNAK ETA MEHATXUAK: Boterea sarritan hurbiltzen da kazetariarengana, baina ez derrigorrez beti agintzeko; batzuetan *laguntzeko* hurbiltzen baita. Botereak sarritan *lagundu* egiten dio kazetariari gertakizunak interpretatzen, baloratzen, beren leku justuan kokatzen. Iradokizunen jokoa zabala da eta botereak dei egiten dio kazetariari albistea non dagoen jakinarazteko, edota albistean zer dagoen azpimarragarria ikustarazteko. Maniobra *lagungarriak* deskubritzea eta sare horietan ez jausteko bideak jartzea, derrigorrezkoa du kazetariak, bere jarduera independenteari eutsi gura baldin badio. Botereak, informazioaren kontrola bere esku duenean, hedabideek beti men egiten diotenean, ez du ezelako arazorik erredakzioetara deitu eta bere edukiak mehatxupean ezartzeko. Botere politikoa, kasu horietan, hedabideen gainetik dago.

\*PRESIOAK ETA TXANTAIA: Batzuetan, botere politikoak ez du ez iradokizunik ezta mehatxurik ere egiten, *mesedeak* egiten ditu. Mesede horien bitartez, morrontzak sortzen ditu kazetariengan: ondo informaturik egon gura duen profesionalak, botere politikoaren mesedeen beharra dauka. Informazioaren eta komunikazioaren mundua hurbiletik kontrolatzeko modua da hori. Aurreko kasuetan baino *azeri*ago agertzen da botere politikoa oraingoan. Botere politikoak klasifikatu egiten ditu kazetariak: batzuk onak eta besteak txarrak. Batzuei elkarrizketak eta dokumentazioa ematen dizkie, besteei deus ere ez; batzuei prentsaurrekoetara joateko gonbitea egiten die, besteei ez; batzuei albistea filtratzen dizkie, besteei ez. Egoera zaila da, gogorra eta krudela baina, kazetariak eusten jakin behar du.

\*KONTZESIOAK, EPAIKETAK ETA INFILTRAZIOA: Botere politikoak sekulako ahalmen kontrolatzailea du hedabide publikoetako zuzendariak izendatzeko ahalmena edukita, baita hedabide pribatuak sortzeko baimenak ematerakoan ere. Kontzesioak eta izendapenak modu ez-erregularrean egiten direnean, botereak sekulako ahalmen kontrolatzailea gordetzen du beretzat. Botereak *lagunak* gura ditu hedabideetan, ez *traba* egiten dioten profesionalak. Bestelako moduez botere

politikoak kazetaria edota hedabidea bere menpera eramaterik ez duenean, salaketa judizialen eta epaiketen mehatxua erabil dezake, gehiago profesionalak beldurtzeko, gizarteari mesede egiteko baino. Botere politikoak sarritan bilatzen ditu erredakzioetan bere agenteak, hedabidearen jardueraren berri puntuala eskainiko dioten elementuak. Inoiz, botereak bere agenteak infiltratzen ditu erredakzioetan.

\* PRESIO EKONOMIKOAK: Botere politikoa hedabideren bateko akziodun bilaka daiteke; botere politikoak hedabide batzuei mailegu malguagoak eskain diezaizkieke; botere politikoak gogortu egin dezake hedabide batzueganako ikuskaritza fiskala; botere politikoak bere nahierara bana ditzake laguntza ekonomikoak hedabideen artean; botere politikoak bere gogoaren arabera bana dezake publizitate instituzionala hedabideen artean.

### **6.5. Irakurgaiak**

Camino, J. M. (1995). "Irekitze eta ixteak" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.

Chomsky, N. (1996). *Cómo se reparte la tarta*. Icaria, Bartzelona.

Woodrow, A. (1996). *Les médias: quatrième pouvoir, cinquième colonne*. Félin, Paris.

## **Zazpigarren atala:**

# **Teoria arau-emaileak masa-komunikazioan**

### **7.1. Araubideen bila**

- 7.1.1. Teoria marxistaren abiapuntua
- 7.1.2. Funtzionalisten ikuspuntua
- 7.1.3. Eredu alternatiboak botere-harremanetan
- 7.1.4. Integrazioa marxistengan
- 7.1.5. Integrazioa eta funtzionalistak
- 7.1.6. Hedabideek gizarte-aldaketako bi eredurako bidea ematen dute

### **7.2.- Teoriak masa-komunikazioan**

- 7.2.1. Aginte-teoria
- 7.2.2. Prentsa-askatasunaren teoria
- 7.2.3. Gizarte-erantzukizunaren teoria
- 7.2.4. Teoria sovietarra hedabideetan
- 7.2.5. Teoria desarroilista
- 7.2.6. Teoria demokratiko-partehartzailea
- 7.2.7. Azken aburua

### **7.3.- Irakurgaiak**

Askotan entzuten da gure artean:  
*prentsa-askatasuna da gure gainerako  
askatasunen bermea.*

Berba politikak dira, ederrak, utopikoak.  
Gaur egun, botereak –era guztietakoak:  
publikoak, pribatuak, moralak, militarrek,  
erlijiosoak, ekonomikoak...– zurikeriatan ari  
dira masa-komunikazioaren balizko  
askatasunaz eta demokraziaz hitz egiten  
dutenean, baita demokraziari buruz  
hedabide erraldoien bitartez modu ozenean  
dihardutenean.

Demokrazia eta askatasuna itxurakeriak  
dira testuinguru horretan.

*“... gaur egun, mendebaldeko “demo-  
krazietan” eztabaida politikoetan parte  
hartzeko –eztabaidaren aukera suertatzen  
den apurretan, jakina– ez da nahikoa  
iritziren baten edo informazioren baten  
jabe izatea; bide teknikoak eta finantzie-  
roak edukitzea da beharrezkoa; beraz,  
praktikan, prentsa-askatasunaren ideia  
barregarria da, irrigarria”*

Taufic, C. (1976). *Periodismo y lucha  
de clases*. Akal-74, Madril.

## 7.- Teoria arau-emaileak masa-komunikazioan

Ikastaldi honetan, lengoaien eta hedabideen garapena, historikoa eta funtzionala, ikusi dugu. Lengoaiak, hasierako aurregizakietatik gaur egunera arte, aldatu egin dira; gizakiak zeinu konplexuagoak erabiltzen ikasi du eta, historiaren joanean, ideia konplexuagoak azaltzen asmatu du. Antzeko prozesua segitu du hedabideen historiak: gizakiak gero eta bitarteko konplexuagoak erabiltzen ikasi du, komunikaziorako bitartekoek gero eta informazio gehiago eta arinago igortzen dute.

Giza komunikazioa eta masa-komunikazioa izan ditugu hizpide gure orrialdeetan. Hedabideek gizarte konplexuagoak sortzen lagundu izan dutela eta gizarte gero eta konplexuagoek hedabide gero eta konplexuagoak eskatu dituztela ikusi dugu orriotan. Ikusi ere ikusi dugu, hedabideen jarduera ez dela neutroa, aseptikoa, objektiboa; ikusi ere ikusi dugu, hedabideek beren morrontzak dituztela eta asko direla horiek; ikusi ere ikusi dugu, botereek sekulako ahalegina egin eta egiten dutela hedabideak beren gogoetara, beharretara eta nahikarietara makurtzeko.

Honez gero, badakizu jakin, gizartearen garapena eta hedabideena eskutik etorri direla lotuta, elkarren eragina eduki dutela bi-biek. Teknologia izugarritzko indarra eduki du garapenean, aldaketetan. Teknologiaren aurrerakuntzak berak gizarte-aldaketak eragin ditu; halaber, teknologia bera, hedabideak berak eta masa-gizartearen aldaketa iraunkorrean ari dira.

Aldaketa horien ezaugarriak aurkitzeko, ikuspuntu eta disziplina diferenteen beharra kausitzen da. Masa-hedabideen teorian berba egiterakoan, teoria antropologikoak, soziologikoak, ekonomikoak, politikoak, legezkoak eta semiotikoak aurkitzen ditugu bidean.

Aztertu beharreko fenomenologia, irudituko zaizunez, oso zabala da. Ez dago kasuistika general hori deskribatzen duen teoria oso, global eta orokor bat. Teorian barik, egin dezagun berba, bada, teoriez. Norik bere erara ulertzen du mundua, ulerpidea ez da bakarria, ez luke izan behar.

Zer funtzio dute hedabideek gizartean? Ala, itaunak mugatu pluralaren beharra du, alegia: zer funtzio dute hedabideek gizarteetan, gizarte diferentietan? Lekuan-lekuan, desberdina aitortzen zaie; aitortutako batzuk elkarren etsai dira.

Kontrola, integrazioa, agintea, askatasuna, garapena, konpromezua eta erantzukizuna dira zazpigarren ikasgai honen giltz berbak.

## 7.1. Araubideen bila

NORK KONTROLATZEN DITU HEDABIDEAK ETA NOREN ARDURAPEKO DIRA HAUEK? NORK DU SARRERA HEDABIDEETARA ETA ZEIN BALDINTZETAN? ZEIN IKUSPUNTUTIKO ERREALitatea ISLADATZEN DUTE HEDABIDEEK? ZEIN EFEKTIBOTASUNEZ DIHARDUTE HEDABIDEEK BEREN IKUSPUNTUEN HEDAKETAN?

Masak antolatzeko, bide instituzional eta integratzaile apartak dira hedabideak. Hedabide nagusiak agintarien ahotsa dira, baita iritzi eta atsegingarritasun-sortzaileak ere. Hedabideen kontrola, gaur-gaurkoz, boterei dagokie, gehienbat. Hedabideek identitate kolektiboak sortzen eta hedatzen lagundu ohi dute. Hedabideek boterea laguntzen dute gizartearen antolamendua *goitik behera* egin dadin. Hedabideetarako sarrera, nagusia behintzat, klase agintarientzakoa da, gaur egun. Hartara, hedabideek, beste ezer baino, klase agintarien ikuspuntutiko errealitatea erakusten dute. Orokorrean esanda, hedabideak, gaur egun, ez dira askatzaileak, menderatzaileak baino.

### 7.1.1. Teoria marxistaren abiapuntua

Marxismo klasikoaren ikuspuntutik begiratuta, autore marxistarik gehienen iritziaren arabera, klase agintariaren instrumentu moduan ulertu beharko genituzke hedabideak. Marxisten arabera, produkzio intelektuala klase agintarien eskuetan dago, gaur gaurkoz. Marxisten arabera, kapitalismoak, gaur, ez du bortxa izugarriaren beharrik masengan bere kontrola hedatzeko, ideologia sozialak domestikaturik dauzka-eta. Marxisten arabera, kapitalismoak zirkoa eta ogia demaizkio herriari, herria bare egon dadin, herriak problema politiko eta sozialak ahaztu ditzan; *zirkoaren* emankizun horretan aurkitzen ditugu egun hedabideak.

- Marx-ek eta Engels-ek honi eusten diote:

*Ekoizpenaren bide materialak kontrolatzen dituen klaseak, produkzio mentalaren ekoizpena ere kontrolatzen du, eta, orokorrean esanda, baita produkzio mentalerako ekoizpen-biderik ez dutenen ideiak berak ere.*

Marxisten arabera, lotura zuzen eta estua dago jabego ekonomikoaren, gizartearen baloreen eta legezkoatasuna bermatzen duten mezuen artean.

Hedabideek kapitalismoaren goraipamena egin eta langile-klaseen subordinazioa bermatzen dutela esan ohi dute marxistek; kapitalismoaren dominazioa eta langileriaren menpekotasuna baino ez dute bilatzen hedabideek, beraz.

- Althusser-ek, berriz, hurrengo defendatzen du:

*Estatu kapitalistak ez du bortxa zuzenaren beharrik bizitzeko, bere esku dauzkalako, besteak beste, erakunde ideologiko ugari –hezkuntzaren sistema bera eta hedabideak berak barne–.*

- Marcuse-k ondokoa du idatzia:

*Aldi berean da errepresorea eta atsegin-emailea gizarte kapitalista. Hedabideen zereginik handiena beharrian faltsuak sortzea da, ondoren,*

*sortutakoei erantzuna emateko. Sortze- eta betetze-lan horretan, hedabideek sistema kapitalista prestijiatzen dute.*

- Enzensberger-ek, bere aldetik, hauxe baieztatzen du:

*Hedabideek kontsumitzaileen pasibotasuna areagotu dute batetik; eta, bestetik, estatu errepresorearen legitimazioa bermatu dute.*

Marxisten ustez, klase-dominazioaren gainean eraikitako gizartea da gizarte kapitalista. Hedabideak, testuinguru horretan, klase-kontzeptzioari buruzko debate ideologikoan aktiboki borrokatzen duten bitartekoak dira.

Botereak munduari buruz duen ikuspegi zehatza ematen dute hedabideek. Munduaren iragazki izatearen ardura aitortzen diete marxistek hedabideei.

### 7.1.2. Funtzionalisten ikuspuntua

Gaur egungo gizarte konplexuetan duten pisu espezifikogatik, hedabideek gizarte-kontrola eta gizartea-orientazioa bermatzen dutela diote funtzionalistek beren lanetan.

Ikuspuntu orokor horretatik abiatuta, funtzionalistek aspaldi idatzia dute estatu autoritarioetako hedabideak gizarte osoaren kontrolerako erreminta eta instrumentu zuzenak direla.

Eredu funtzionalista nagusiari segituta, demokrazia liberaletan, kontrolaren helburuak talde organizatuen beharrei lotuta daudela aldarrikatzen da. Teoria horietan azaltzen denaren arabera, talde horiek ez dira, derrigorrez, klase sozial bakarrekoak eta, bestetik, gaur agintean dagoen taldeak ez du, derrigorrez, bihar ere agintean zertan egon.

- Ball-Rokeach eta De Fleur autoreek, beren lanetan, hurrengoa diote:

*Entzulegoak zenbat eta konfidantza handiagoa hedabideetan, eta gizartea bera zenbat eta krisialdi larriagoan egon, handiagoa izango da, seguru asko, masa-hedabideek entzuleen artean edukiko duten eragina.*

### 7.1.3. Eredu alternatiboak botere-harremanetan

Marxisten eta funtzionalisten teoria eredu-emaile nagusien gaitetik, mendearen erdialdetik aurrera batez ere, bestelako ahotsak goratu dira komunikazioaren ereduak aztertzerakoan; horiei guztiei eman diegu “alternatibo” izendapen orokorra.

1970. urteaz gero batez ere, errealismo sozialistak eta liberalismo kapitalistak ezartzen dituzten muga interpretatiboak gaindituz, komunikazioaren teorizatzaileen artean, gero eta ahots gehiago goratzen ari da hedabideak benetan emanzipatzaileak izan daitezkeen.

Polita dirudien horrek, praktikan, oso gutxitan ikusi du argia. Hedabide askatzaile-masiboaren berririk ez da gaur egun ezagutzen munduan. Maila txikiko



hedabideen artean, ordea, herri-irratietan edo herri-noizbehinkarrietan, errazago gauzatu daiteke amets hori.

Gaur-gaurkoaz, talde eratuek, presio-taldeek, nork bere hedabidea gura du, bere kontrolaren menpekoa.

HEDABIDEEK GIZARTE-KONTROLAREN MAILAK SENDOTU ALA GUTXITU EGITEN DITUZTE? BITARTEKO ERAKUNDEAK –FAMILIA, SINDIKATUA, HERRI ELKARTEAK ...– ESTIMULATZEN AL DITUZTE HEDABIDEEK, ALA, KONTRARA, ITO EGITEN AL DITUZTE BEREN IRITZIAK? KONTSENTSUA BILATZEN AL DUTE HEDABIDEEK BEREN IHARDUERAN? KONDUKTA SOZIALA INDARTZEN AL DUTE HEDABIDEEK, EDO, KONTRARA, GIZARTEAREN DESOREKAK AREAGOTZEN AL DITUZTE?

#### 7.1.4. *Integrazioa marxistengan*

Integrazioaren kontzeptua oinarritzkoa da teoria marxistan. Teoriko marxistek garrantzi handia aitortu diote integrazioari, iraultza osteko prozesuetan. Mundu kapitalistan hedabideak klase-agintarien kolaboratzaile apartak badira, erraz uler daiteke, beraz, prozesu iraultzaileak bermatzeko marxistek hedabideen laguntza igurikatzea, erreformak berresteko.

Sovietarren teorian, esate baterako, Urriko Iraultzaren ostean, eraiki beharreko gizarte sozialistarako herritarrak prestatzeko ardura, besteak beste, hedabideei aitortu zitzairen behin baino gehiagotan.

Abiapuntu horretatik, zilegia da pentsatzea, marxismoak hedabideetan igurikatzen duela gizarte berriaren kohesioa, integrazioa. Kondukta sozial berria bideratzeko erreminta moduan ikusi du marxismo klasikoak hedabideen jarduera. Hartara, desoreka sozialak ezabatzeko ahalegin kolektibo moduan ulertu beharko lirake hedabideak testuinguru politiko horretan.

Marxista klasikoentzat, hedabideak herri-klasearen kontsentsua bultzatzeko gailu dira, ongizate soziala estimulatzeko erreminta.

Ildo horretatik, balore berriak hedatzeko aparteko garrantzia aitortu zieten boltxevikeek hedabideei.

#### 7.1.5. *Integrazioa eta funtzionalistak*

Funtzionalistek integrazioaren beharra ikusten dute edozein gizarteren eraketan, baldin eta gizarte horrek aurrerantzean ere bizi behar baldin badu. Integrazio barik, diote funtzionalistek, ez dago plangintza komunik egiterik, ezta plangintzak aurrera ateratzerik ere. Funtzionalistek hedabideei gizartea integratzeko ahalmena aitortzen diete. Integrazioaren izenean, gizartearen integrazioak eskatuta, kapitalismo aurreratuan, hedabideek ez dute zenbait erakunde eta instituzio *funtsezkori* buruzko kritikarik zabaltzen, ezta zabaldu behar ere. Enpresari, erlijioari eta familiari ez zaie, normalean, eraso egiten hedabideetatik, *mundu zibilizatu eta garatuan*, jakina.

Funtzionalistek igurikatutako integrazioak gizarte *klasikoan* dauzka pausaturik bere oinarriak. Gizarte klasiko deitzen diogun horren eusle, *hiru instituzio sakratu* dira: enpresa *librea*, erlijio *moralizatzailea* eta familia *babeslea*. Funtzionalisten irizpideei jarraituta, ez dago erlijioagaz, enpresagaz eta familiagaz konpromezu *baikorra* bultzatuko duen hedabide bako gizarte *integraturik*.

Funtzionalistek hedabideei aitortutako eta ezagututako ikuspuntu horretatik begirata, hedabideek konformismoa hedatzen dutela pentsatu du batek baino gehiagok. Gizarteak informazio- eta entretenimendu-eskariak egiten ditu eta eskari horiei beren erantzuna ematen diete hedabideek. Hala eta guztiz ere, hedabideek *beren* estilo, gustu, beharizan eta zerbitzu berriak sortzen dituzte jendearengan. Hedabideek, sarri askotan, gizarteak berak bere egin aurretik, aurrerakuntza teknologikoen berri eman eta iritzi eta ideia berriak argitaratzen dituztelarik, beharizan berriak sortzen dituzte herritarren artean. Oinarrizko ideia hauxe da: hedabideek balore-sistema pertsonalean eragiten dituztela aldaketak; batez ere, kontsumo, arrakasta eta berrikuntzen alorretan.

- Rosengren autoreak, oso modu salomonikoan, hauxe dio:

*egitura sozialak kulturaren du eragina eta, berebat, kulturak berak bere eragina du egitura sozialean.*

Hedabideek parte zuzena hartzen dute kanpaina pertsuasiboetan; kanpaina horiek osasungintzakoak, hezkuntzakoak edota politiko-ideologikoak izan daitezke. Hedabideek, normalean, bertsio uniforme eta kontsentsuatuak zabaltzen dituzte. Bertsio uniformatuak eta kontsentsuatuak entzulegoaren akulturazioa dakarte atzetik: izan ere, kontrastatzeko aukerarik ez duenak, bertsio bakarraren morroi geratu behar du. Hedabideek, batez ere telebistak, beren mezuaren izaera sistematikoagatik eta beren erredundatzia iraunkorragatik, eragin zehatza dute entzuleengan; entzuleak, azkenean, ontzat ematen du hedabideen bertsioa, beste barik. Ildo horretatik, hedabideak gizartea modelatzen dutela esan daiteke.

Munduko hedabide transnasionalek *mendebaldeko baloreak* zabaltzen dituzte munduan zehar. Mendebaldeko baloretzat hartu diren horiek oso arraza-*aukera garbikoak* dira, oso egitura sozial zehatzekoak dira eta oso hizkuntza-alor ezagunekoak dira. Mendebaldeko kulturaren zutabetzat aurkeztuak diren *balore* horiek mundua ari dira konkistatzen, *besteen baloreak* itota. Munduko hedabide transnasionalek eragin izugarria dute *besteen* kulturetan, kultura guztietan mendebaldearen eta, batez ere, Estatu Batuen estiloa txertatzen baitute.

Hedabideen bitartez burutzen ari den integrazio hori uniformizatzailea, akritikoa, akulturala eta desmobilizatzailea da demokrazia liberaletan.

#### 7.1.6. Hedabideek gizarte-aldaketako bi eredurako bidea ematen dute:

- Batetik, hedabideek indar zentripetua daukate. Hedabideek integrazio-ereduak hedatu dituzte historian zehar eta horretan dihardute egun ere. Hedabideek interdependentziak sortu dituzte gizarte-elementuen artean. Hedabideen indar aglutinatzailea, indar zentripetu hau, gizarte-masak sortzeko

baino ez du balio, masa akritiko eta dominatuak sortzeko baino ez du balio.

- Bestetik baina, eta hau ahanztezina da, hedabideek gizartearen fragmentazioarentz eta indibidualizazioarentz daramate mundua. Zelanbait esatearren, indar zentrifugo ikaragarria dute hedabideek: gizarte-elementuak elkarrengandik urruntzen dituzte. Ezaguna da gure artean, indibiduoek gero eta lokarri gutxiago dutela beren artean eta lokarri apur horiek gero eta *naturaltasun* gutxiagokoak direla.

Beraz, hedabideek, batetik, gizabanakoaren isolamendua bultzatzen dute fikziozko mundu batean txertatzen dutelarik; eta, bestetik, hedabideek masa akritiko eta menperatuak bultzatzen dituzte. Isolamendua eta masifikazioa dira hedabideen eraginik aipagarrienetarikoa.

Hedabide eta gizartearen arteko lokarriak sarritan aztertu dira. Komunikazioak –hedabideek zehatzago berba eginda– gizarteak eta botereak oso harreman estuak eduki dituzte jaio direnez gero. Hedabideek, egia esan, bakoitzak bere interesak babesten ditu, nor bere burua babesten duen moduan. Hedabideek, *beraz*, beren interesen arabera funtzionatzen eta informatzen dute. *Interesek* gidatzen dituzte hedabideen ildo periodistikoak; hori bai, interesak oso desberdinak izan daitezke, eta badira.

Boterearentzat, talde eraginkorrenzat, alderdi politiko eta sindikatuentzat, hedabideak beharrezkoak dira, baldin eta masen gaineko kontrola bermatu gura baldin badute. Aipatutako iritzi-sortzaile diren talde eta publiko zabalaren artean zubi-lana egiten dute hedabideek.

Azken hamarkadetan, bigarren mundu-gerraz gero batez ere, hedabideek gizartea ulertzeko oso modu zehatzak hedatu eta zabaldu dituzte. Azken urteotan, hedabideetan botere-kontzentrazioa gero eta handiagoa da, eta dibertsitatea arriskuan dago.

Satelite bidezko igorpen masiboak, bestalde, komunikazio-askatasuna, nazio-soberania, kultura-burujabetasuna eta jabego-eskubideak jar ditzake kolokan. Telebista bilakatzen ari da sozializazio eta kontrol-agenterik erabakiorrena munduko nazio guzti-guztietan...

Ataleko lehen berbetara itzulita, zelan ulertu eta ulertzen ditugu hedabideen funtzioak gizartearen?

Lekuan-lekuan, modu diferentean ulertu izan dira.

Egin dezagun errepasso bat teoria eredu-mailerik garrantzitsuenak gogoratzeko.

## 7.2. Teoriak masa-komunikazioan

### 7.2.1. Aginte-teoria

Aginte-teoriaz berba egitean, lehen begiratuan, hasierako prentsa, hasierako hedabide idatziak dauzkagu gogoan; batez ere, monarkia europarrek beren indarririk handienari eusten zioten garaian sortu ziren lehen hedabide haiek dauzkagu gogoan.

Hasiera hartan, jakin badakizunez, prentsak itsu-itsuan segitu zituen estatu-boterearen eta agintari-klaseen aginduak.

Urteak ugari joan arren, eredu horrek bizirik dirau gaur egungo hedabideen artean; gaur egun, orduan legez, makina bat hedabide dira agintari-klaseen morroi, makina bat hedabide dira botere-kontrolaren agente eta errepresiorako erreminta zorrotz.

Ildo horretatik, orduko eta gaurko hedabideen artean dagoen berdintasuna honako hau da: alegia, kazetariak ez dutela ezelako burujabetasunik lan egiteko eta lan egiten duten hedabideak erabat menpekoak direla; monarkia absolutuen garaian kontearen menpeko eta egun estatu-aparatuen menpeko.

Aginte-ereduak alde zurretiko zentsura ahalbidetzen du batetik; eta, bestetik, zentsuraren ildo nagusiak apurtzen dituztenentzako zigor-neurriak aurrikusten ditu.

Aginte-ereduak legeria, ekoizpenaren kontrol estatala, zerga bereziak argitalpenentzat, zigor ekonomikoak lege-hausleentzat, hedabideetako arduradunak izendatzea... aurrikusten ditu, bere bideari eusteko eta errepresioari ekiteko.

Aginte-ereduak bertikaltasunean hartzen du bere bereizgarria; agindukate bertikala da, goitik beherakoa; eta aginduaren betekizunetan etenik ez da onartzen. Behekoak gora begiratu behar du. Laburbil dezagun aginte-eredu komunikatiboaren funtsa:

#### **Aginte-teoria, ezaugarriak**

- 1.- Ezarrita dagoen autoritatea edo indarrean dagoen ordenua kokolan jar dezakeen ezer ez dute argitara ematen hedabideek.
- 2.- Agintariengandik datozen irizipideak oro onartzen dituzte hedabideek, beti.
- 3.- Hedabideek ez dituzte indarrean dauden balore moralak, sozialak eta politikoak iraintzen.
- 4.- Zentsura justifikagarria da, agintarien printzipioak ezartzeko.
- 5.- Autoritateen, politika ofizialaren eta indarrean dagoen kode-moralaren aurkako irainak ofentsa kriminaltzat har daitezke.
- 6.- Kazetariak eta hedabideetako gainerako langileek ez dute burujabetasunik beren lanean.

### 7.2.2. *Prensa-askatasunaren teoria*

Prensa-askatasunaren teoriaren oinarrian, XVIII. mendeko prentsaren jarduera aurkitzen dugu eta egungo demokrazia liberaletako komunikazio-paradigmen arteko nagusi bat da berau. Gizabanako guztiek gura dutena argitaratzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du eredu horrek. Ildo horretatik, prentsa-askatasuna gizarte libre eta arrazionalaren zutabeetariko bat dela aldarrikatu da maiz.

Prensa askeak gizarteko kideek zer uste duten, zer gura duten eta nora jo gura duten jakitea ahalbidetzen du. Alderdi horretatik ikusita, prentsa askea demokraziaren babesleatariko handienetarikoa da. Baina, egia esan, ezein estatuk ez du onartzen prentsa-askatasun erabatekorik, luzaroan prentsa horrek kolokan jar baitezake gobernuak –berau hauteskunde askeetan onartua izan arren–.

Hala ere, eta hauxe da garrantzitsuenak, prentsa-askatasunaz berba egiten denean, *iritzi-askatasunaz* berba egiten da gehienbat; ez *informazio-askatasunaz* eta, jakina, ez da gauza bera. Egun, demokrazia formaletan, informazio-askatasuna tintontzian gordetzen den altxorra da. Prentsa-askatasuna aldarrikatzen duten estatu askok eta askok, beren eskuetan dagoen informazioa ukatzen diete hedabideei, boterea, formalki demokrata dena, kolokan jar ez dadin. Testuinguru horretan, prentsak iritzi desberdinak argitara ditzake, baina iritzi horiei oinarri peridistikoa emango dion *urrezko* informazioa ezkutuan gorderik dago, estatuaren beraren putzu beltzetan sarritan.

Ez dugu esango askatasunarena falazia bat denik, utopia bat baino. Prentsa askea, benetan askea, nehon ez dago; prentsa askea, formalki askea, erraz da aurkitzen nonahi. Eredu askearen defendatzaileek, hurrengoa proposatzen dute:

#### **Prensa-askatasuna, ezaugarriak**

- 1.- Argitalpenek aske egon behar dute alde zurretiko gobernu-zentsura orotik.
- 2.- Edozein pertsonak edo taldek du argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea, ezelako lizentzia- eta baimen-eskari barik.
- 3.- Ez dira zigorgarriak gobernuaren, alderdien edo funtzionarien kontrako salaketak; bizi pribatukoak salbu.
- 4.- Gobernuak ez du ezer publikatzera derrigortu behar.
- 5.- Iritzi- edo sinesmen-gaien argitalpenak ez dira zigorgarriak.
- 6.- Estatuak ez du trabarik jarri behar informazio bilaketetan, horiek legezko bideetatik egiten baldin badira.
- 7.- Estatu-mugek ez dute inolako traba izan behar informazioaren garraioan.
- 8.- Kazetariak autonomia profesionala behar dute.

### 7.2.3. *Gizarte-erantzukizunaren teoria*

Gizarte-erantzukizunaren teoriak Estatu Batuetan du bere iturria, konkretuki Prentsarako Askatasun-Komisioan. 40ko urteetan garatutako teoria da eta beraren helburua hauxe da, alegia, prentsa-askatasuna eta gizartearen beharrianak uztartzea.

Hedabideek politika demokratikoaren oinarritzko funtzio komunikatiboak bermatzen dituztela defendatzen du, gizarte-erantzukizunaren eredua deitutako horrek. Ildo horretatik, hedabideek informazioa, bizitzarako ereduak eta kultur modeloak zabaldu behar dituzte gizartean. Lan hori egin ahal izateko, hedabideek askeak behar dute izan; hala ere, askatasunak askatasun, eredu horren arabera, hedabideek ez lukete ahaztu behar gizartearen zerbitzari direla. Hedabideen jabego eta kontrola ez liratekeela jabego partikular moduan ulertu behar, zerbitzu publiko moduan baino, hori dio gizarte-erantzukizunaren eredua deitu diogun teoria horrek.

Gizarte-eredu burges eta kapitalistetako komunikazio-eredua da eskuartean duguna, balizko askatasunaz diharduena, baina gizarteko talde-eragileen indarraren erabatekotasuna, nonbait, ahaztu egiten duena. Gizarte-erantzukizunaren eredu deitu diogun horrek ez du gizartearen askatasuna bermatzen, ezta horretan bere helburua ezartzen ere. Gizarte-erantzukizunaren teoriak boterearen garapen-ideiekaz ezkontzen ditu hedabideak.

Hedabideak gizartearen zerbitzari moduan aurkezten dituen arren, *gizarte-erantzukizunaren eredu komunikatiboak* boterearen aldeko irakurketa egiten du beti. Gizarteaz berba egiten duenean, boterea kolokan jartzen ez duten gizarte-ereduei buruz dihardu, eredu horiek faktozkoak edota helburuzkoak izan.

#### **Gizarte erantzukizuna, ezaugarriak:**

- 1.- Hedabideek gizartearekiko dituzten zorrak onartu eta kitatu, hots, bete egin behar dituzte.
- 2.- Hedabideek gizartearekiko dituzten betebeharrak aurrera eramateko, informazio egiazkoa eskaini behar dute kualifikazio handiko profesionarien bidez.
- 3.- Ezarritako lege eta instituzioen onarmenean behar dute funtzionatu hedabideek.
- 4.- Hedabideek muzin egin behar diete krimenari, biolentziari eta matxinadetarako deiei buruzko informazioa eskaintzeari, baita talde minorizatuak min ditzakeenak oro argitaratzeari ere.
- 5.- Hedabideek pluralista behar dute izan eta gizartearen aspektu guztiak eta desberdinak erakutsi behar dituzte.
- 6.- Kazetariak eta hedabideek erantzukizun sozialak dituzte gizartearekiko; eta ez lituzkete ahaztu behar.

#### 7.2.4. Teoria soviatarra hedabideetan

Prensa errusiarra goitik behera eraberritu eta birrantolatu zen 1917ko Iraultzaz gero. Prentsaren birjanzte, eraberritze, horretan, Marx-en, Engels-en eta Lenin-en irizpideei jarraitu zitzairen. Gizarte sozialistan, langileek dute boterea, definizioz. Botere horri eusteko, langileek boterean irauteko, hedabideen kontrola segurtatu beharra dago eredu soviatarrean. Errusia Sovietarrean, hedabideak Alderdi Komunistaren esku geratu ziren.

Gizarte sozialistak klase gabeko gizartea bilatzen du eta, hartara, klase-konflikturik edukiko ez duen gizartea da helburu. Testu soviatar klasikoetan kontsulta daitekeenez, prentsak berebiziko garrantzia du gizartea helburu sozialistetara hurbiltzeko ahaleginetan. Prentsak egitateen eta gertakizunen interpretazio pertsonalak ekidin behar ditu eta, horien orde, interpretazio kolektiboak bermatu behar ditu, eredu soviatarren arabera. Estatuari egin ahal zaizkion irainak ekiditeko, zentsura eta zigorra aurreikusten dira, kontrol-neurri gisa.

Eredu soviatarrean, ez duarik izan, aginte-teoria klasikoaren eta erantzukizun-teoriaren berrikusketaren aurrean gaude. Kapitalismoko familia boteretsuetatik eta kasta sozialetatik urrun, orain langileen alderdiak agintzen du, eskusibitatez agindu ere, ordekaritza herrikoia duen arren; eta, agindu, entzule, ikusle eta irakurleen beharizanei erantzuteko agintzen ei da modu monopolistikoan.

#### **Teoria soviatarra, ezaugarriak**

- 1.- Hedabideak langile-klasearen zerbitzura daude eta hedabideen kontrola langile-klaseari dagokio.
- 2.- Esku pribatuen jabegorik ez da onartzen hedabideetan.
- 3.- Legeen sozializazioak, hezkuntza sozialistak, informazioaren bitarteko motibazioek eta herri-mobilizazioek leku garrantzitsua eduki behar dute hedabideen mezuetan.
- 4.- Entzuleen beharizanei erantzun behar diete hedabideek.
- 5.- Publikazio antisozialei aurre egiteko, gizarteak zentsura eta zigorra erabil ditzake.
- 6.- Printzipio marxista-leninistek jarraituta, hedabideek munduari buruzko ikuspegi objektibo eta osoa erakutsi behar dute.
- 7.- Kazetariak zentzuzko profesionariak dira eta beren objektibo eta helburuek bat etorri behar dute gizararenekaz.
- 8.- Hedabide soviatarrek aberriko eta atzerriko mugimendu progresisten aldeko jarrera erakutsi behar dute.

### 7.2.5. Teoria desarroilista

Garapen-bidea dauden herrietako hedabideak daude gure buruan eredu berri hau aipatzean. Garapen bideak desberdinak dira leku batean eta bestean eta, hartara, teoria desarroilistaz berba egin beharrean, egokiago litzateke eredu desarroilistez berba egitea. Hemen UNESCOk 70-80ko urteetan garatutako teoria komunikatiboa azaltzen da.

UNESCOren ereduaren arabera, garapen-bidea dauden herrietan, gehienetan, masa-komunikazioa oso egoera eskasean aurkitzen da; komunikazio-sistemak mundu gutxi-garatuan ez du azpiegitura egokirik, ezta profesionari kualifikaturik eta publiko gertaturik ere. Eredu desarroilistak afer edo gai horri erantzun gura lioke; hori bai, garapena *mendebalde garatuan* ulertzen den modu berean ulertuta eta praktikatuta.

Jakina denez, mundu azpigaratua mundu garatuaren morroi da, preso dago, haren teknologien beharra baitauka. Mundu garatuak, komunikazioaren teknologiaz batera, kultur eredu zehatzak esportatzen ditu. Konkista teknologikoak konkista kulturala ekarri ohi du bere atzetik; gaur bide beretik goaz eta teknologia-eredu *aurrerakoiak* eredu kultural *berriak* ezartzen ari dira munduaren lau bazterretan.

Garapen-bidean dauden herrietan, helburu kolektiboak norbanakoaren helburuen gainetik ei daude eta hedabideek lehentasun-lerroak jakin, ezagutu eta errespetatu behar dituzte.

Ildo horretatik, garapen-bidean dauden herrietan, *garapena bera* da helburu nagusia eta komunikazioak oso leku txikia hartzen du estatu-lehentasunen artean.

#### **Garapen-eredua, ezaugarriak**

- 1.- Estatuak ezarri dituen lehentasunekaz bat etorriko diren helburuak hartu beharko lituzkete hedabideek beren gain.
- 2.- Herriaren lehentasun ekonomikoen eta gizartearen garapenerako lehentasunen zenbitzari da prentsa-askatasuna herri azpigaratuetan.
- 3.- Hedabideek herri-hizkera eta kultur ereduak zabaldu eta bultzatu beharko lituzkete.
- 4.- Hedabideek garapen-bidean dauden beste herriei buruzko informazioa zabaldu beharko lukete.
- 5.- Kazetariak eta gainerako hedabide-langileak ez dituzte eskubideak bakarrik, baita erantzukizun sozialak ere.
- 6.- Garapenaren izenean, estatuak hedabideak kontrola ditzake zentsuraz eta zigorrez.



### 7.2.6. Teoria demokratiko-partehartzailea

Teoria utopikorik handiena eta ederrena, fikzioa baino ez dena, baina masa-komunikazioan berriro sinesten hasten lagundu diezagukeena dugu, eredu demokratiko-partehartzailea deitu dioguna. Teoria demokratiko-partehartzailearen helburu nagusia, komunikazio *bertikala* ordezkatuta, komunikazio *horizontala* ahalbidetzea da.

Gaur egungo ustezko prentsa-askatasunak porrot egin duela dio teoria horrek; gizarte-erantzukizunaren teoriak ere porrota jasan du, azkenean hedabiderik gehienak estatu burokratikoaren menpe jausi direlako; demokrazia parlamentarioak herria ahaztu du eta harengandik aparte bizi da, hedabideak oro bere zerbitzura dituelarik.

Eredu demokratiko-partehartzaileak egiazko informazio pertinentea exijitzen die hedabideei, baita azpikulturen eta talde gutxiengotuen eskubideak babestea eta bermatzea ere. Eredu horrek hedabide zentralizatuak, uniformizatuak eta burokratizatuak arbuiatzen ditu. Kontrara, hedabide txikiak, lokalak, instituzioetatik kanpokoak, horizontalak, eta igorle eta hartzaile-paperak trukatzea ahalbidetzen dituztenak aupatzen ditu.

Zeintzuk dira, baina, mota horretako hedabideak? Izan ere, asko dira formula baliagarriak, nahiz eta oraindino gutxi diren funtzionatzen duten era horretako benetako hedabideak; agian *komunikabideak* deitu beharko genieke horiei. Prentsa “undergrounda”, irriti piratak, kable bidezko telebista komunitarioa, herri edo auzo-aldizkariak, plakat edo kartel politikoak... izan daitezke eredu demokratiko-partehartzailea indartu ditzaketen bideak. Teknologia berriek aukera berriak ireki ditzakete estilo horretako komunikabideak ugal daitezen, baina hori, oraindino, ikusteko dago. *Bertikaltasuna* barik, *horizontaltasuna* bilatzen duena da eredu partizipatiboa.

#### **Eredu demokratiko-partehartzailea, ezaugarriak**

- 1.- Gizabanakoei eta talde gutxiengotuei hedabideetarako sarbidea zor zaie eta eskubide osoa dute, hedabideek beren intereseko gaiez egin dezaten berba.
- 2.- Hedabideen edukiek ez dute egon behar kontrol burokratikoaren menpe, ezta estatuaren nahikeria politikoaren zerbitzura ere.
- 3.- Hedabideek entzulegoa dute helburu eta ez hedabideak kontrolatzen dituzten eragin-taldeak. Taldeek, elkarteek eta herri-erakundeek beren hedabideak eduki beharko lituzkete.
- 4.- Komunitate txikietarako hedabide interaktibo eta partehartzaileak dira demokratikoenak. Komunikazioa garrantzitsuegia da esku profesional hutsetan uzteko.

### 7.2.7. Azken aburua.

Teoriak teoria, mende-amaiera honetan, 80-90eko urteetako munduan, hiru formulak funtzionatu izan dute nagusiki, hedabideen teoria arau-emalderi

gagozkielarik, J.H. Altschull ikerleak bere lan klasifikatzaileetan argitu digunaren arabera:

- prentsa liberal-kapitalista
- prentsa soviatar eta sozialista
- garapen-bideko herrietako prentsa

Lehena, prentsa liberal-kapitalista, merkatuaren sistemakoa dugu; bigarrena, prentsa soviatar eta sozialista, nekez aurki daiteke Europan gaur; eta hirugarrena, garapen-bidean dauden herrietakoa da.

Ereduak eredu eta teoriak teoria, *de facto*, hedabideek oso jarduera konkretua dute munduaren lau bazterretan. Hona hemen, J. H. Altschullek proposatzen dituen irizpide nagusiak.

*Eredu nagusiak:*

- 1.- Sistema guztietan, guzti-guztietan, hedabide nagusiek botere ekonomikoa eta politikoa duten taldeen mesedetan dihardute, edozein delarik botere horren ildo politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta kulturala.
- 2.- Hedabideetako edukiek argiro azaltzen dute zeintzuk diren prentsa finantziatzen duten taldeen interesak.
- 3.- Sistema guztiek diote prentsa-askatasuna bermatzen dutela, nahiz eta sistema bakoitzak bere erara ulertzen duen prentsa-askatasun hori zer den.
- 4.- Sistema guztiek diote gizarte-erantzukizunaren doktrinari laguntzen diotela, publikoaren interesei erantzuten dietela eta jendearen eskuhartzea ahalbidetzen dutela. Sistema guztiek diote, esan, hori.
- 5.- Sistema bakoitzak tendenziosotzat jotzen ditu besteak.
- 6.- Kazetaritza-eskolek eta fakultateek ideologia eta balore-sistema oso zehatzak irakasten dituzte. Ideologia eta balore-sistemek botereari laguntzen diote, informazioaren gaineko kontrolgintzan.
- 7.- Hedabideen munduan, maiz gertatu ohi denez, teoria eta praktika ez datoz beti bat.

### **7.3. Irakurgaiak**

Barbero, D. (1994). “Nola defendatu hedabideen aurrean” in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.

Бочаров, А.Г. (1973). *Основные принципы типологии современных советских журналов*. Moskuko Unibertsitatea argit. Mosku.

Idoiaga, P. (1994). “Etika profesionala eta informazio-antolaketa” in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.

Sarasua, J. (1996). “Euskarazko prentsaren diagnostikoa” in *Jakin*, 96. Jakinkizunak, Donostia.



## **Zortzigarren atala: Ordezkapena, ezkutaketa eta ilusioa masa-komunikazioan**

### **8.1.- Hedabideetako komunikazioaren oinarrizko paradigmak**

8.1.1. Komunikazioaren osagaiak hedabideetako jardueran

8.1.2. Komunikazioa, egitatea bari, ilusioa

### **8.2.- Ilusioa, ordezkapena eta ezkutaketa**

8.2.1. Masa komunikazioa, ilusioak egitatea ezkututzen du

8.2.2. Autobabesa: irakurketa kritikoa

### **8.3.- Irakurgaiak**

Gizarte-komunikazioa deritzona giza komunikazio indibidualaren garapen naturalaren ondorio da eta beraren eboluzioa hiru estadio jarraituren amaiera dela esan daiteke.

“... (gizarte-komunikazioaren) *lehen mailan, giza komunikazio indibidualen arteko elkarbizitza ikusten dugu; komunikazio horien aspektu soziala beren aniztasunean datza beste barik; gizartetasuna, maila honetan, errealitate estadistiko hutsa besterik ez da;*

(gizarte-komunikazioaren) *bigarren mailan, giza komunikazioak dimentsio soziala bereganatzen duela ikusten dugu: giza komunikazioa, kasu honetan, masahedabideen eskuetara heldu da eta haien bitartez korritzen du mundua;*

(gizarte-komunikazioaren) *hirugarren mailan, komunikazio sozial hutsa denaren agerkundearen lekuko gara: komunikazioa arautua da, erakundeei lotua; lengoaia kodetua sortzen da eta giza komunikazio espontaneoaren eredu normatibo bilakatzeko da araututako lengoaia hori”*

Baylon eta Mignot. (1996). *La comunicación*. Cátedra, Madril.

## **8.- Ordezkapena, ezkutaketa eta ilusioa masa-komunikazioan**

Beste inoiz ere, ikastaldi honetan bertan egin dugu berba honetaz: mezua ez da egitatea. Gogoan al duzu?

Zer da komunikazioa? Honezkero, jakin dakizun legez, *komunikazioa zentzuen eta egitateen ordezeko informazio-trukaketa da. Zentzua igortezina izanik, igortzen dena informazioa da.*

Hedabideetako komunikazioa zentzuen eta egitateen ordezeko informazio-igorpena da, eta, horrez gain, salmenta ere bai.

Informazioa interesen arabera komunikaturik, egitateak barik ilusioak komunikatzen dira normalean gure artean.

Hedabideek, egitatearen ordezkari, errealitate bat komunikatzen digute eta errealitate hori ilusiozkoa da.

- Komunikazio-egintzetan igorleak zentzua komunikatu gura du eta horretarako seinaleak igortzen dizkio hartzaileari.
- Hartzaile horrek seinaleak hartzen ditu –eta ez zentzuak–.
- Hartzaileak, seinale horien bidez, seinale horiek direla bide, ulertu beharko du igorleak helarazi gura dion zentzua.
- Baina, seinaleen aurrean ez dugu guztiok berdin funtzionatzen, seinaleak *seinale* direlako eta ez zentzu.
- Mezuak ez du zentzurik, igorleak zentzu bat aitortzen dio –bera– eta hartzaileak berea –agian bera, agian antzekoa, agian desberdina–.


Komunikazioa, bada, paradoxikoa da, ordezkapenen bitartez funtzionatzen du.

### **8.1. Hedabideetako komunikazioaren oinarritzko paradigmak**

Komunikazioaren fenomenoak zenbait osagai desberdin hartzen ditu bere baitan; guk Jakobsonen paradigma ikusia dugu, giza komunikazioaren oinarritzko funtzionamendua analizatzeko, aztertzeko. Oinarritzko eskema horretan, *igorlea, hartzailea, mezua, bidea, kodea eta erreferentea* kontzeptuei buruz egin dugu berba.

Egin dezagun orain urrats berri bat. Komunikazio publikoaren egintza batean, informazio-iturriak mezu kodifikatua igortzen du kanal zehatz baten bidez,

beste norbaitek, hartzaile dei geniezaiokeena, mezu hori hartu, deskodetu eta uler dezan, bidean erantsitako zaratei aurre eginda. Esan berri duguna laburbiltzeko eta ilustratzeko, Komunikazioaren eta Informazioaren Eskoletan Baylon-en ondoko eskema orokor hau erabili ohi da:



Aurreko eskema horrek, Jakobsonena dauka bere oinarrian. Erantsi zaion berri bakarra hau da: komunikazio publikoa eta masiboa bermatzeko beharrezko dituen atributu *teknologikoen* zerrenda laburra.


Esana dugu lehenago ere: errealitatea norberarena da –egitate eta gertakizunak munduan baizik ez dira existitzen, errealitatea, aldiz, norberaren buruan– eta, hartara, errealitatez komunikatzen zaiguna –alegia, egitatez eta gertakizunaz esaten zaiguna– eta munduari buruzko informazioa deitu ohi dena –keinuak, seinaleak, zeinuak–, beti ere, haien ordezeko dira.

Esan dezagun berriro ere: informazioa ez da zentzua. Esangurak gizakiak berak sortzen ditu eta makinek garraiatzen dutena informazioa da, mezu.

Aipatutako mintzaira komunikatiboa aztertzeko 1980. urtean ezagutzera emandako eskema da, Catherine Kerbrat-Orecchioni andereak paratua; zenbait kasutan Jakobsonena berarena ordezkatzeko balio dezakeena, Jakobsonenak zeuzkan zenbait zehazgabetasun gaitzetzeko bide eman duena.

Kerbrat andereak proposatutako eskemak zerbait berri azaltzen baldin badigu, hurrengoa da, alegia, *ekoizpen-eredua* eta *interpretazio-eredua*, berez, desberdinak direla, hots, arau desberdinez dihardutela eta bakoitzak bere arrazoi propioak dituela desberdin izateko.

Ikus dezagun eskema:



*Gaitasun linguistikoa eta paralinguistikoa* deitutakoak *gaitasun berezkoak* dauzkagu. Komunikazioaren gaitasunak dira bi horiek. Gizakiak dauzkan gaitasunak dira, mezua eratzen edo konposatzen parte hartzen dutenak, batez ere zentzuaren sorkuntzan. Gaitasun linguistikoa gizakiak mintzaira eratzeko duen gaitasuna da; paralinguistikoa mimika eta keinuteria besarkatzen ditu. Aurrez aurreko komunikazioan mezuak *entzun* eta *ikusi* egiten dira, aurrez aurreko komunikazioan ez du hizkuntzak bakarrik komunikatzen.

*Gaitasun ideologiko eta kulturala* deitutakoez ere egiten da berba lehentxeago. Gizakiak berak, bere testuinguruak lagundurik, bere egin dituen *gaitasun ikasiak* dira.

Komunikazio-egintza orotan, igorlearen eta hartzailearen *egoera psikologikoa* ez da beti bera izaten eta egoera horrek baldintza dezake informazio-trukaketa.

Gaiak berak dauzkan zailtasunak eta zailtasun erretorikoak bildu dira *berbaldiaren zailtasunak* deitutako ataltxoan. Zenbait gairi buruz berba egitea errazagoa da; beste batzuei buruz, ostera, gaitzagoa. Gaiak berak zail dezake komunikazio-prozesua.

Bi dira komunikazio-egintza batean parte hartzen duten jardule nagusiak: igorlea eta hartzailea. Nork bere modua, bere eredu dauka. Igorleak mezua eredu zehatz baten arabera ekoizten du, bere baldintzen arabera, bere gaitasun guztiek



ahalbidetzen dioten modura. Hartzaileak, bere aldetik, antzera dihardu eta interpretazio-ereduak eta eredu propioak dauzka, bere-bereak, mezua bere modura ulertzea daramatenak. Ekoizpena eta interpretazioa, izatez, Kerbratek aurreratu zigunez, diferenteak dira. Nola aurrez aurreko komunikazioan, hala publikoan.

### 8.1.1. Komunikazioaren osagaiak hedabideetako jardueran

Giza-komunikazioaren eredia ulertzeko baliagarriak izan zaizkigu orain arte ikusitakoak, nola Jakobsonenak hala Kerbratenak. Har dezagun, berriro ere, masa-komunikazioaren testuingurua. Lehenago ere esana dugu: masa-komunikazioa informazio-salmenta bat da, norbaitek zerbait saltzen du, saldutakoa informazioa da eta informazio horrek itxura desberdinak har ditzake egunkariaren, irratia edota telebistaren esku. Salmenta horretan, masa-komunikazioaren egintza horretan, osagai propioak, berezkoak, dauzkagu; Lasswell irakaslearen arabera ondorengoak:

<b>Igorlea:</b> nork dio?
<b>Mezua,</b> zer dio igorleak?
<b>Igorlea:</b> nork dio?
<b>Audientzia,</b> nori diotso?
<b>Eragina:</b> zein emaitzez dio?

#### **Igorlea: nork dio?**

Masa-komunikazioak berezkoa duen kultura sortu du, kultura hori hedatu egin da kontsumogai moduan, mundu garatuan jakina. Masa-kultura horren atzetik, jendearengan beharizan artifizialak sortzen dituzten monopolio ekonomiko pribatuak eta multinazionalak daude.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, kultura eta kulturaren oinarritzkoa den informazioa, merkantzia da, sal eta eros daitekeen gaia.

Kultura eta informazioa *merkantzia* izate horrek merkatu bilakatu du komunikazioaren mundua. Kultura esportatu eta inportatu egiten den gaia da. Ikusentzunekoen enpresa multinazionalak komunikazio-produktu eta informazio-produktu ugariak darabiltzate hara eta hona, muga politiko eta kultural gutzien gainetik.

Enpresa multinazional horien artean, indartsuenak, estatubatuarrak dira; produktu kultural eta informatibo estatubatuarrak hegemonia mundiala du, beste gutzien gainetik.

Testuinguru horretan, *esan* estatubatuarrak dio eta estatubatuarrak, *esan*, masa-kulturaren produktua *dio*.

#### **Mezua: zer dio igorleak?**

Masa-produktuak ideologia komunikatibo propioa du, berea. Ideologia komunikatibo horren azpian, egitatea deformatzen duten mitologia modernoak dauzkagu. Eduki kulturalak, industrializazio-prozesuen eraginaren menpe eta

kultura-saltzaile transnazionalen eskuetan, kontserbadore bilakatu dira. Produktu masiboek instrukzioa eta hezkuntza paralizatu dituzte; egun telebista, esate baterako, presentego dago umeen hezkuntzan eskola bera baino.

Igorle masiboak, beraz, kultura masifikatua, *sasikultura*, jartzen du gure berrien aurrean, mitologia modernoaz zamatutako *ideologia* oparitzen du bere produktuen bidez.

### **Zein bideren bitartez komunikatzen du igorleak?**

Hedabideak, formaz eta edukiaz, baldintzatu egiten ditu bere bitartez zabaltzen diren mezuak. Zabalkunde horretan, garrantzia du mundu garatuan, beste guztien gainetik, hedabide batek: telebistak.

Telebista da, egun, hedabiderik masiboena, bizitzan presenteen dagoena. Telebista da, gaur egun, produktu sasikulturalen saltzailerik indartsuena. Telebista tresna elektriko beharrezko bilakatu da gizarte modernoetan. Telebistak etxe guztietara sartzeko enpresa multinazionalak ekoiztutako produktu masiboak, kulturalak eta komunikatiboak. Monopolio ekonomiko eta politikoak dira telebistaren bidez etxeratzen diren kontsumogaien sortzaile eta kontrolatzaile nagusiak. Estatubatuarrek kontrolatutako ekoizpen kultural-homogeneizatzaileak, batez ere, telebista bidez heltzen dira gure etxetara. *Igorle masiboa* telebistaz *profitatzen* da gehienbat. Estatubatuarrek, beraz, *telebistaz* dio.

Ikusentzutekoak Aztertzeke Europako Taldeak kaleratutako datuen arabera, Europar Batasuneko estatuetak telebistek 1995. urtean eskaini duten *fikzioaren %70* Estatu Batuetan ekoiztua izan da. Esan gura baita, telebista europarretan erakutsi eta oinarri informatiborik eduki ez duten programen arteko 10etik 7 estatubatuarrek izan direla. Eraitza horien aurrean, erraz kausi daiteke munduko fikzioan EEBBak direla nagusi. Hori batetik; eta, bestetik, jakin beharko genuke, Europak ekoiztutako beste %30 ekoizpen-herrian bertan baino ez dela ezaguna hein handi batean; alegia, produktu frantsesa Frantzia baino ez dela ezaguna edota italiarra Italian baino ez. EEBBeko produktuak Europa inbaditzen duen bitartean, produktu europarrak ez du bere estatu-mugak gainditzen asmatzen. Estatubatuarrek telebistaz dio, europarrak, ostera, esan ere, ia ez dio.

### **Audientzia: nork entzuten du igorleak dioena?**

Kultura eta informazio-produktu masiboen kontsumoak oso ideologia zehatza komunikatzen dute, eta ideologia horren atzetik presio-talde boteretsuak daude. Hegemonia ideologiko atzerakoi horrek hauxe sortu eta finkatu du gure artean:

a.- Sedentarismoa. Areagotu egin da; eta, indartu den heinean, harreman pertsonal zuzena, ez-mediata, behera etorri da. Gero eta gutxiago ateratzen da gizakia bere babesetik. Eta ateratzen denean, hedabideek gonbidatuta irteten du askotan.

b.- Mailakatzea. Besteak beste hedabideei esker, gizartean ezaguna den mailaketa-eredu soziala *normal eta legezko* moduan ulertzen da. Estratifikazio sozial onartu horrek bermatu egiten ditu muga ekonomikoak eta sozialak. Masa-komunikazioak ezer gutxi egiten du jendearen arteko mailaketa sozial hori hausteko.

c.- Zentsura eta autozentsura. Kontsumitzen diren kultur produktuak zentsuratuak direnez, zentsura horrek onartzen duen egitatearen ordezkio ilusioa da ikusgai den bakarra.

Produktu manipulatuak besterik kontsumitzen ez duen audientziak, bere ahalmen kritikoa galtzen du, bere ahalmen intelektuala bortxatzen du, bere ahalmen linguistikoa irudiaren menpekioa izatera kondenatzen du.

Kultura merkantzia da eta *merkantziatasun* horrek, *fetitxismo* bilakatu du kultura.

### **Eraginak: ideologia sasikulturala**

Hedabide masiboek, goian esan dugu, informazioa eta kultura mediatuak eta atzerakoiak eskaintzen dituzte. Monopolio transnazionalak eta hedabideek berek ezartzen dute mediarioa. Mediarioak, ideologia bakar bat aurkezten du modu masiboan munduaren aurrean, eta ideologia horrek sasikultura saltzen du.

Diogun ideologia sasikulturala, honela definitzen da: historian zehar gizakiak sortu dituen eredu eta balore kulturalen degradazioa bermatzen duen prozesua. Prozesu degradatzaile hori kontsumo-gizarteagaz dago lotuta, jakina; halaber, prozesu degradatzaile horrek efektu politiko eta sozial konkretua du jendearengan, zeren populazioaren gehiengoa monopolioek eraikitako kosmobisio sinboliko beraren menpeko izatera kondenatzen baitu. Kontsumogai bilakatzen dira hedabideen eskuetan sistema ideologikoak.

Sasikultura deitzen diogun hori gizarte-klase ertain eta behekoetan kontsumitzen da, batez ere klase horien aisia betetzeko tresna erosoia delako.

Sasikulturak *mitologiazioa*, *azpikultura* eta *superstizioa* ekarri ditu. Errepikapenak eta durunditasun mediatikoak *arinkeria* hedatu dute munduaren lau bazterretara. *Estereotipo* masiboak, *aurreiritzi* sozialak eta *irrazionaltasun* kolektiboak ekarri ditu sasikultura deitzen diogunak. Kultura masibo-mediatuak balore eta kategoria mental homogeneizatuak sortzen ditu.

### **Laburbilduz:**

1. Munduan, *esan* estatubatuarrak *dio*
2. Esan, estatubatuarrak *masa-kulturaren produktua* dio.
3. Igorle masiboak kultura masifikatua *saldu* eta ideologia homogeneizatzailea *oparitzen* du.
4. Munduan esan, *telebistaz* dio ideologia kontserbadoreak.
5. *Entzun*, klase ertainek eta behekoek *dantzute*.
6. Entzun, modu *sedentarioan* eta *zentsuratuan* egiten da.
7. Estatubatuarrak gidatutako monopolio informatiboaren bidez zabaltzen diren telebista bitartezko mezu zentsuratuek eta sedentarizatzaileek *arinkeria* eta *irrazionaltasuna* hedatu dituzte lau bazterretako gizarte-klase herrikoiaren artean.

### 8.1.2. *Komunikazioa, egitatea barik ilusioa*

Hiru esaldi diferente ekarriko nituzke gogora atal honen amaierarako. Hirurak dute ilusioa mintzagai eta gure inguruko hiztegi arau-emaileetan aurki daitezke, lan handi barik:

*Putzu asko zituen oasia, ilusioa besterik ez zela konturatu ziren.*

*Haren ilusio bakarra etxera itzultzea zen.*

*Ilusio handia egin zion zure deiak, inondik espero ez zuen-eta.*

Lehen kasuan, ilusioa egitatearen interpretazio okerra da, bisio bat, irudipena, ametsa. Bigarren kasuan, ilusioa itxaropena da, une latzetan gure bizimodu eskasa eramaten laguntzen duen esperantza. Hirugarren kasuan, ilusioa poza eta asetzea da, ustekabe pozgarriaren ordaina.

Hiru esaldi horietatik zer atera genezake? Batetik, hautematen denaren interpretazio okerra dela ilusioa; bestetik, gogokoa den zerbait dela ilusioa; eta, azkenez, poztasunari lotutako sentipena dela ilusioa. Bada, hedabideetako komunikazioa ilusioa da, ilusioa hiru alderditik begiratuta:

**Ilusioa**, egitatearen ordeztan helarazten dena informazioa delako eta informazio hori monopolio ideologikoen egitatearen *interpretazio dudazkoa* delako. Ildo horretatik, masa-komunikazioak irudipena eta ametsa zabaltzen ditu.

**Ilusioa**, kontsumitzen dena gogokoa delako, itxaropen faltsuz zamatutako produktu sasikulturalak direlako.

**Ilusioa**, sasikulturak asetu egiten duelako gizakia, bete egiten dituelako haren beharrak, etxera lotzen duelako eta egitateetatik isolatzen duelako. Ilusioa, gizakia etxean bakarrik eta isolaturik poztera kondentzen duelako.

### 8.2. *Ilusioa, ordezkapena eta ezkutaketa*

Jar dezagun abian, orain, iragana gogoratzeko makina. Ikus dezagun, begi kritikoz, iragan hurbileko pasarte esanguratsu bat. Bidaia dezagun denboran eta goazen Golko Pertsiarreko denbora asko ez dela han izandako gatazka armatura.

Golko Pertsiarreko konfliktu hura bezalako istilu armatu garrantzitsu batean, zein da hedabide nagusietatik, eredu-emaileetatik espero genezakeen jokaera? *Nazioarteko hedabideek bandoetarikoren baten aldeko apostua egin behar zuten, ala neutraltasunari eutsi behar zioten?*

Fair izeneko ikerketa-etxe estatubatuarrek egindako azterketa baten arabera, Estatu Batuetako prentsak bere espazio guztiaren %1 eskaini zion, bakar-bakarrik, gerra horren aurka zegoen iritzi-sektoreari. Baina, arazoa ez da estatubatuarrena bakarrik; Europan, esate baterako, antzeko proportzioa aurki daiteke garaiko egunkariak eskuetan hartuta; zazpi hilabetetan, Le Soir eta Le Monde izen handikoek ez zioten ezelako artikulua osorik eskaini gerraren aurkako azalpen sistematikoari. Zergatik funtzionatu zuten horrela aliatuek? Modu argian esan ez zaizkigun interesak eduki al dituzte aliatuek istilu armatu hartan? Ikus dezagun.

Estatu Batuek argiro erakutsi gura izan zuten komunitate internazionalaren aurrean, berak zirela ordenuaren ezarle nagusi. Estatubatuarrek Israelen posizioa indartu gura izan zuten Ekialde Hurbilean; izan ere, estatu hori baita mendebaldeko interesen berme nagusia zonalde horretan. Itsuenak ere ikus dezake: petrolioaren kontrol estrategikoa dago istilu armatu horren azpian. Zergatik ez dute horretaz berba egin nazioarteko hedabide eredu-emaile nagusiek?

Zein izan zen Irak-en *bekatua*? Zer dela-eta merezi zuen Iraker halako *gaztigu eredugarria*? Irak al zen Ekialdeko *gaiztakeria* orearen sorburua?

Gatazkan buru-belarri aritutako Ekialde Hurbileko hiru estatuak konparatzen baldin baditugu –Saudi Arabia eta Kuwait batetik, eta, bestetik, Irak–, zer dugu? Zein da hiruren arteko desberdintasuna? Erregimenaren *kolorea*?

Diferentzia nagusia honetan datza: ez zituztela berdin inbertitzen beren petrodolarrik. Saudi Arabiak eta Kuwaitek petroliotiko diru-sarreren %93 atzerrian inbertitzen zuten, gerra aurretik. Saudi Arabia eta Kuwaiteko dirua oso dago presente, besteak beste, Daimler-Benz etxean; Kuwait da munduko bankaririk handiena. Irak-ek, ostera, petroliotik irabazitakoaren gehiena etxean bertan inbertitzen zuen. Gerra aurreko azken urteetan, Irak zen, alde hartan, garapen ekonomikorik handiena erakusten ari zen estatua. Irak-ek, bertan ziharduten petrolio-konpainiak nazionalizatu zituenean, 1972. urtean, CIAk eta Iran-ek kurdiarrak armatu zituzten, Bagdadeko boterearen aurka. Zergatik ez dute horretaz berba egin nazioarteko hedabide eredu-emaile nagusiek?

Gerra hasi aurretik, Irak zen, bere barne-kontraesan guztien gainetik, alde hartako estaturik progresisteena, laikoena, emakumeak belo barik kalean onartzen zituen bakarra. Saudi Arabia eta Golkoko beste estatu feudal batzuek, kontrara, diruz hornitzen dituzte han-hemenka diharduten zenbait talde islamiar integrista.

Zer zigortu da, beraz, gerra hartan? Independentzia-ahalegin bat, jakina; disidentzia bat.

Hedabideetan entzun ditugun arrazoiak Kuwait-en askatasuna eta eskubide internazionala izan badira ere, benetako arrazoa, esan ez dena, ordenu berria izan da, petrolioaren kontrola, petrodolarren administrazioa.

Datuen ordezkapenak eta ezkutaketa sistematikoak ilusio faltsuak hedatu ditu gudan.

### 8.2.1. Masa-komunikazioan, ilusioak egitea ezkutatzeko du

Asko eta luze berba egin zen, nola gerra-bezperetan hala gerran bertan, Irakiarren aparatu militarraz, Irakiarren industria militarraz. Luze berba egiteaz gain, kritikatu ere egin zen artsenal irakiarra.

Noiz aipatu da konplexu industrial militar estatubatuarra, testuinguru horretan? Jakina da, azken horien artsenal militarra lehenena baino handiagoa eta deuseztatzaileago da.

Jakin al daiteke zergatik ez diguten esan hedabide nagusiek Golko Pertsiarrean Iraken aurka bildutako, pilotutako armategia Hirugarren Munduaren kanpo-zor osoa ordaintzeko bestekoa zenik? Jakin al daiteke zergatik ez diguten esan hedabide arau-emaile nagusiek, aliatuen Jaguar hegazkin bakoitzaren aire eraso bakoitzean 500 ikaslerentzako eskola bat eraikitzeko besteko dirua inbertiturik zegoela? Jakin al daiteke zergatik ez diguten esan hedabide nagusiek Estatu Batuek 10 urte zeramatzatela Iraken inbasioa antolatzen, disziplinar deitu gura zutelako Irakeko petrolio-produkzioa 1975. urteaz gero? Jakin al daiteke zergatik ez diguten esan hedabide nagusiek, Estatu Batuek prentsa-kanpaina bat abian jarri zutela 1988. urteaz gero Irak desprestijiatzeko? Zergatik ez digute esan hedabide nagusiek, Estatu Batuek 1989. urteaz gero Golko Pertsiarrean base iraunkorrak ezartzea deliberatzen ari zirela? *Informazioa ezkutatu egin zaigu, ezabatu egin da, komunikazioan ziri ederra sartu digute.*

Estatu Batuek, eta nazioarteko komunitateak haren atzetik, oso tratamendu diferentea eduki dute ekintza *arbuigarriekaz*, estatu horiek beraiekin (Estatu Batuekaz edota gainerako Estatu Aliatuekaz) zituzten harremanak zertan oinarritzen ziren kontutan hartuta. Ekintza militar *arbuigarrien* aurrean, Estatu Batuek oso erregela diferenteagaz funtzionatu dute historia modernoan, aliatuak eta arerioak saritu edo zigortzeko.

<b>Estatua</b>	<b>EBBBekiko statusa</b>	<b>ekintza arbuigarria</b>	<b>urtea</b>	<b>hildako zibilak</b>	<b>EBBBen laguntza</b>
Turkia	aliatua	Ipar Zipre hartu	1974	3.000	6.000 M\$
Indonesia	aliatua	Eki Timor hartu	1975	100.000	2.000 M\$
Maroko	aliatua	Sahara hartu	1975	5.000	1.500 M\$
Israel	aliatua	Hego Libano hartu	1982	20.000	25.000 M\$
Irak	arerioa	Kuwait hartu	1990	700	0 \$

Hedabideek, estatubatuarrak eta europarrak, ke-gortina bat hedatu dute gure begien eta Golko Pertsiarreko gerraren artean, egitateak ezkutatzeko eta ordezkatzeko.

Hedabideak, estatubatuarrak eta europarrak, marketing-kanpaina baten partaide izan dira, Etxe Zuriak gidaturiko marketing-kanpaina bategaz kolaboratu dute. Hedabideek gerra arina eta garbia izango zela esan ziguten: *ilusioa*. Bonbaketak operazio kirurjikoekaz gonbaratu ziren, bonbaketa aliatuek jende txarra bakarrik zigortzen zuten, ez jende onik: *ilusioa* berriro ere.

Golkoko Gerrara, 1400 kazetari abiatu ziren eta ez zuten gerraren mina kontatu, inork ez zuen gerraren krudelkeria ikusi. Kazetariak Golkoko Gerrara begiak itxita edukitzera abiatu ziren, agindu hori baitzeukaten. Gerra horretan, hedabideen zeregina militar estatubatuarren ekintzak zuritzea izan zen: *ilusio faltsuak* hedatzea.

Hedabideek, kazetariak, egitatea ezkutatu zuten. Ezkutatzeko lan horretan, ilusio faltsuak eraki zituzten.

Kazetari-hizkuntzak berak ere metamorfosi izugarria pairatu zuen komunikatzaile profesionalen eskuetan, ordezkapenak eta ezkutatzeko gorengo maila birsemantizatzailea deskubritu zuten gatazka armatu hartan.

Estatubatuarren ekintzak deskribatzeko orduan, militarrek berek inposatu zieten komunikatzaileei hizketa:

Ez esan: Hegazkin batek x hiria bonbardatu du. Esan: Hegazkin batek irteera bat egin du x hirira.
Ez esan: Zibilak hil dira. Esan: Min kolateralak egin dira.
Ez esan: Gerraren lehen fasea indarrean da. Esan: Basamortuko operazioaren lehen fasea indarrean da.
Ez esan: Arerioak hil dira. Esan: Helburuan asmatu da.

#### ostera, esan:

<u>tonu arbuia garrian</u>	<u>tonu neutralean:</u>
IRAK:	EEBB:
Saddamen tropak	Marine amerikarrak
Kuwaiteko inbasio krudela	Golko Pertsiarreko interbentzioa
Irakeko errejimena	Saudi Arabia, Kuwait
Jordaniak bat egin du Irakegaz	Belgika solidario da aliatuekatz

Mundua, telebistan ikusia, filme bat da, teatro-lan bat. Telebista ez da leihobat zeinaren bitartez ikusten baita mundua; telebistak mundua dramatizatu egin du, antzetzuta, eta, guk antzerki-lana sinetsi egiten dugu. Mundua, telebistan, ikuskizuna da; gu ikuskizun horren begirale gara, ikusleak. Telebistak suspentsea sortzen du gugan, interes dramatikoa pizten du.

**Ilusioak** gertakariak ordezkatzeko ditu. **Ilusioak** egitatea ezkutatzeko du.

#### 8.2.2. *Autobabesa: irakurketa kritikoa*

Ilusio horien kontra, zer? Ordezkapen eta ezkutaketa horien kontra, zer? *Ilusioaren kontra: autobabesa.*

Egunero bizi ditugun denbora-estutasunak direla eta, presa dela eta, zaila da denbora hartzea informazioak modu kritikoz ikusteko. Egia da, hedabideek eskaintzen diguten informazioa, ilusioz betetako hori, hausnartzeko bezainbeste denbora ez dugula normalean hartzen.

Baina, geure burua eraso ilusionista horretatik babesteko, denbora hartu behar dugu. Manipulaziotik babesteko, ilusioa eta egitatea desberdintzeko astia hartu behar dugu.

Hausnarketa informatiborako, autobabes informatiborako hurrengo koadroko *eredu zuzentzailea* proposa daiteke, hots, ondoko pauso hauek proposa daitezke:

### Galdetu zeure buruari:

- 1.- **Iturriak:** Erakusten zaizun informazioaren iturria bakarra al da, edo batzuk al dira? Hedabideek informazio zuzena dute ala beste batzuek esanda dakite? Burujabeak al dira aipatutako iturriok?
- 2.- **Zehaztasuna:** Zer dakizu aipatzen diren pertsonen, ekintzen eta datez? Ba al dakizu zer den, probabilitatez gerta zitekeena? Banatzerik al duzu egitatea eta ilusioa?
- 3.- **Kontraesanak:** Konparatu al duzu hedabide erraldoiek ematen duten informazioa publikazio espezialduen eman dutenagaz?
- 4.- **Eztabaida:** Informazioa, kritika daitekeen informazioa al da? Dogmatikoa al da? Argumentazio diferenterako biderik irekitzen al da hedabide horretan?
- 5.- **Adituak:** Hedabideak kontsultatzen dituen adituen artean, denak al dira iritzi berekoak? Alderdi berekoak ala alderdi diferentetakoak dira? Hedabide handietatik baztertuak izan diren aditu disidenteeek informazio garrantzitsua eduki dezakete; non dago informazio hori?
- 6.- **Logika:** Hedabideek erakusten dizkizuten ondorioak logikoak al dira? Ondorioztatzen dena benetan ondorioztatzen da, ala *a priori* erabakitakoa da?
- 7.- **Berbak:** Hedabideek darabiltzaten berbak, zehatzak ala hutsak dira? Berba neutralak dira ala birsemantizatuta daude, zentzu baikorrez ala ezkorrez?
- 8.- **Zifrak:** Benetakoak al dira? Kontrastatuak al dira?
- 9.- **Historia:** Hedabideek esaten dutenak ba al du zerikusirik historiaren joan-etorriagaz? Kontatzen dutena, isolaturik kontatzen da ala bere testuinguru historikoan kontatzen da?

### 8.3. Irakurgaiak

Basterretxea, J. I. (1996). “Kazetari profesioak kode deontologikorik behar al du?” in *Euskaldunon Egunkaria*, 1996/06/04.

Collon, M. (1995). *Ojo con los media*. Hiru argitaletxea, Hondarribia.

Kerbrat-Orecchioni, C. (1980). *L'énunciation*. Armand Colin, Paris.





## Bibliografia

- Abril, G. (1997). *Teoría general de la información*. Cátedra, Madrid.
- Abril, Novella et al. (1987). *Investigación sobre informaciones en radio, tv. y prensa*. Universidad Autónoma de Barcelona, Barcelona.
- Agirreazkuenaga, J. (1988). "Prensa euskaraz, 1936.eko gudaldian" in *Jakin*, 50. Anaidia, Arantzazu.
- Aizpuru, M. X. (1988). "Euzkadi eta *El Liberal* egunkariaren azterketa" in *Jakin*, 49. Anaidia, Arantzazu.
- Albert, P. (1990). *Historia de la prensa*. Rialp, Madrid.
- Albertine, G. (1990). *Historia de la escritura*. Pirámide, Madrid.
- Aldamiz-Etxebarria, E. (1982). "Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Althusser, L. (1971). "Ideology and Ideological State Apparatuses" in *Lenin and Philosophy*. New Left Books, Londres.
- Altschull, J. H. (1984). *Agents of Power: the Role of the News Media in Human Affairs*. Longman, New York.
- Amatiño. (1982). "Prensa idatziaren arazoak" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Amezaga, J. eta Arana, E. (1995). "Telebista publikoa, ETB eta zerbitzu publikoa" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Amezaga, J. (1996). "H. Habermas: komunikazioaren aldeko proposamena" in *Uztaro*, 16. UEU, Bilbo.
- Anabitarte eta Lerma. (1986). "*La voz de España*: 1936-1945 bitartean" in *Jakin*, 40. Anaidia, Arantzazu.
- Arana Martija, J. A. (1994). "Euskal Herriko inprentaren historia" in *Uztaro*, 12. UEU, Bilbo.
- Arana, E. (1991). "Gerra telebisatua" in *Jakin*, 63. Jakinkizunak, Donostia.
- Arana, E. (1992). "Telebista-albistegiak eta errealitatearen errepresentazioa" in *Uztaro*, 5. UEU, Bilbo.
- Arana, E. (1996). "Lurraldetasunaren mugarriak telebista albistegietan" in *Inguruak*, 16. EHU, Leioa.
- Aranberri, L. A. (1995). "ETB: 25. urteurrenaren bidean" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Aranberri, L. A. (1996). "Biharko euskal komunikabideak" in *Euskaldunon Egunkaria*, 1996/07/04.
- Aranguren, Eguzkitza eta Zubizarreta. (1997). "Telebista eta bikoizketa" in *Jakin*, 99. Jakinkizunak, Donostia.
- Aranzabal, J. (1992). "Herri-aldizkari baten taxuketa" in *Jakin*, 69. Jakinkizunak, Donostia.
- Argia. (1982). "Gure astekariaren projektua zertan den" in *Jakin*, 23. Anaidia, Arantzazu.

- Aristarco, G. (1968). *Historia de las teorías cinematográficas*. Lumen, Bartzelona.
- Armentia, J. I. (1991). "Prensa koloredunaren etorkizuna" in *Jakin*, 65. Jakinkizunak, Donostia.
- Armentia, J. I. (1992). "EEBBetako kazeten azterketa" in *Uztaro*, 6. UEU, Bilbo.
- Armentia, J. I. (1993). *Las nuevas tendencias en el diseño de la prensa*. EHU, Leioa.
- Armentia, J. I. (1994). "Euskal Herriko egunkarien irudi berria" in *Uztaro*, 11. UEU, Bilbo.
- Arregi, S. (1995). "La telemática no seduce a todos" in *EGIN*. 1995/03/1.
- Arriaga, M. (1994). "Identitate kolektiboak" in *Uztaro*, 12. UEU, Bilbo.
- Arriola, Julen. (1997). "Afrikako hainbat lekutan hitz bakarrak bost tonalitate eta bost esanahi ditu" in *Euskaldunon egunkaria*, 1997/02/04.
- Arzamendi, A. (1988). "Gerraurreko Argia asterokoaren azterketa" in *Jakin*, 49. Anaidia, Arantzazu.
- Aumont, J. et al. (1988). *L'analyse des films*. Fernad Nathan, Paris.
- Azkargorta eta Xamardo. (1990). "Egia eta egiantzekotasuna: prentsa Euskadin" in *Uztaro*, 0. UEU, Bilbo.
- Azkargorta eta Xamardo. (1991). "Herri mugimenduak eta komunikazio prozesua" in *Uztaro*, 3. UEU, Bilbo.
- Azkargorta, A. (1992). "Kazetarien tipologiarako zenbait ohar" in *Uztaro*, 6. UEU, Bilbo.
- Azpillaga, P. (1990). "Industria kulturaren garapena" in *Uztaro*, 0. UEU, Bilbo.
- Azpillaga, P. (1997). "Ikus-entzunezko industria Hego Euskal Herrian" in *Jakin*, 99. Jakinkizunak, Donostia.
- Azurmendi, J. (1979). "*Lantzen*: ELAren aldizkari sindikala sortu da" in *Jakin*, 10. Anaidia, Arantzazu.
- Azurmendi, J. F. (1982). "Komunikabideen jabegoa eta objetibotasuna" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Ball-Rokeach eta De Fleur (1976). "A Dependency Model of Mass Media Effects" in *Communication Research* 3.
- Barbero, D. (1994). "Nola defenditu hedabideen aurrean?" in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.
- Barthes, R. (1970). *Mithologies*. Seuil, Paris.
- Barthes, R. (1971). *Elementos de Semiología*. Paidós, Madril.
- Barthes, R. (1996). *Idazkuntzaren zero gradua*. Klasikoak, Bilbo.
- Basterretxea, J. I. (1980). "Hauteskundeak eta euskara propagandan" in *Jakin*, 14/15. Anaidia, Arantzazu.
- Basterretxea, J. I. (1993). "Pravda eta Izvestia soviatar egunkarien diseinu aldaketa 91eko estatu-kolpe ahaleginean" in *Uztaro*, 8. UEU, Bilbo.
- Basterretxea, J. I. (1995). "M. S. Gorbaxoven Perestroika" in *Inguruak*, 12. EHU, Leioa.
- Basterretxea, J. I. (1995). "Publizitatea ulertzen I" in *Comunicación, medios y mensajes*. EHU, Leioa.

- Basterretxea, J. I. (1995). "Publizitatea ulertzen II" in *Medios de comunicación y sociedad*. EHU, Leioa.
- Basterretxea, J. I. (1996). "Hedabide errusiarrak 90eko urteotan" in *Inguruak*, 16. EHU, Leioa.
- Basterretxea, J. I. (1996). "Kartel politiko soviatarra: propaganda eredu baten azterketa eskripto-ikonikoa" in *Uztaro*, 17. UEU, Bilbo.
- Basterretxea, J. I. (1996). *Dualitatea kartel politiko soviatarrean: Iraultza, Aberri Gerla Haundia eta Perestroika*. EHU, Leioa.
- Basterretxea, J. I. (1997). "Telebistak 25 urte Hego Euskal Herrian" in *Jakin*, 98. Jakinkizunak, Donostia.
- Bateson et al. (1994). *La nueva comunicación*. Kairos, Bartzelona.
- Batzuk. (1995). *Boletín de la fundación Fundesco 166-167-168*. Fundesco, Madril.
- Baylon eta Mignot. (1996). *La comunicación*. Cátedra, Madril.
- Beaud eta Panese. (1996). "Los nuevos amos del pensamiento" in *Telos N. 46*. Fundesco, Madril.
- Becker, J. (1995). "Tendencias globales en la comunicación" in *Comunicación social-Tendencias*. Fundesco, Madril.
- Berque et al. (1993). *La passion radio*. Syros, Paris.
- Blanchard, G. (1988). *La letra*. CEAC, Bartzelona.
- Bloomfield, L. (1994). *Hizkuntza*. Klasikoak SA, Bilbo.
- Бочаров, А.Г. (1973). *Основные принципы типологии современных советских журналов*. Moskuko Unibertsitatea argit. Mosku.
- Bodin, J. (1994). *L'univers des signes*. Masson, Paris.
- Bogart, L. (1985). *La prensa y su público*. Universidad de Navarra, Iruñea.
- Borderia et al. (1996). *Historia de la comunicación social*. Síntesis, Madril.
- Botrel, J. F. (1988). *La diffusion du livre en Espagne*. Velázquez, Madril.
- Bourdon, J. (1996). "Les médias, une éthique en transgression" in *Reseaux*, 78. CNET, Paris.
- Bryant eta Zillman. (1996). *Los efectos de los medios de comunicación*. Paidós, Bartzelona.
- Burgelman, J-C. (1996). "Service universel, service public" in *Reseaux*, 78. CNET, Paris.
- Caminos, J. M. (1994). *Transformación de la prensa en Guipúzcoa durante la transición política*. EHU, Leioa.
- Caminos, J. M. (1995). "Irekitze eta ixteak: burualde berriak" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Cano Ballesta, J. (1994). *Las estrategias de la imaginación. Retórica política bajo el franquismo*. Siglo XXI, Madril.
- Champagne, P. (1990). *Faire l'opinion. Le nouveau jeu politique*. Ed. Minuit, Paris.
- Chardon eta Samain. (1995). *Le journalisme de radio*. Médias-Poche, Paris.
- Chartier eta Martin. (1990). *Histoire de l'édition*. Fayard, Paris.
- Chomsky, N. (1996). *Cómo se reparte la tarta*. Icaria, Bartzelona.

- Chrétien, J-P. (1995). *Rwanda, les médias du génocide*. Karthala, Paris.
- Cirlot, J. E. (1982). *Diccionario de símbolos*. Labor, Bartzelona.
- Collon, M. (1995). *Ojo con los media*. Hiru argitaletxea, Hondarribia.
- Coltice, J-J. (1995). *Comprendre la presse*. Chronique sociale, Lyon.
- Croussy, G. (1990). *La communication audiovisuelle*. Organisation, Paris.
- Crowley eta Heyer, (1977). *La Comunicación en la Historia*, Bosch, Bartzelona.
- Dader, J. L. (1983). *Periodismo y pseudocomunicación política*. Universidad de Navarra, Iruñea.
- Desvois, J. M. (1977). *La prensa en España (1900-1931)*. Siglo XXI, Madril.
- Diaz Noci, J. (1990). “Txistu: euskarazko lehen komiki-aldizkaria” in *Jakin*, 60. Jakinkizunak, Donostia.
- Diaz Noci, J. (1995). “Euskal informazio-kazetaritza abertzalea” in *Uztaro*, 15. UEU, Bilbo.
- Díaz Noci, J. (1996). “Kazetaritzaren sorrera Euskal Herrian” in *Zer*, 1. EHU, Leioa.
- Durandin, G. (1990). *La mentira en la propaganda política y en la publicidad*. Paidós, Bartzelona.
- Durandin, G. (1995). *La información, la desinformación y la realidad*. Paidós, Bartzelona.
- Dzioubenko, G. (1988). *La perestroika et la presse soviétique*. Progrés, Mosku.
- Edward Epstein. (1974). *Television and the News*. Vintage Book, New York.
- Einsteinstein, S. M. (1970). *Reflexiones de un cineasta*. Lumen, Bartzelona.
- Elkoroberezibar, M. A. (1992). “Prentsa lokala Euskal Herrian” in *Jakin*, 69. Jakinkizunak, Donostia.
- Enzensberger, H. M. (1974). *Elementos para una teoría de los medios de comunicación*. Anagrama, Bartzelona.
- Europar Batzordea. (1994). *Crecimiento, competitividad, empleo. Retos y pistas para entrar en el siglo XXI. Libro Blanco, 1994*.
- Expósito, M. (1995). “Emakumearen irudia aldizkari femeninoetan” in *Uztaro*, 13. UEU, Bilbo.
- Expósito, M. (1996). “Alkoholaren kontrako kanpainak” in *Uztaro*, 16. UEU, Bilbo.
- Faus Belau, A. (1995). *La era audiovisual*. Ed. Internacionales Universitarias, Bartzelona.
- Febvre eta Martin. (1971). *L'apparition du livre*. A. Michel, Paris.
- Fernandez, J. M. (1995). “La televisión en la guerra de Viet-nam” in *Telos* 41. Fundesco, Madril.
- Fernandez, L. (1996). “Euskal kazetariaren profila” in *Jakin*, 96. Jakinkizunak, Donostia.
- Fernandez, L. (1997). “Telebista digitalaren bataila” in *Euskaldunon Egunkaria*, 1997/02/02.
- Ferrer, M. (1994). “Komunikabideak erakundeen gatibu” in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.
- Festinger, L. (1975). *Teoría de la disonancia cognoscitiva*. Centro de estudios

- constitucionales, Madril.
- Fidler, Roger F. (1995). "La aparición de los medios de impresión digital" in *Comunicación Social 1995. Tendencias*. Fundesco, Madril.
- Frutiger, A. (1981). *Símbolos, signos, marcas, señales*. G. Gili, Bartzelona.
- Ganz, P. (1990). *Le reportage radio-télé*. Presse et formation, Paris.
- Garitaonandia, Idoiaga eta Ibáñez. (1987). "Euskal Telebista eta 1986ko hauteskunde autonomikoen kanpaina" in *Jakin*, 42/43. Anaidia, Arantzazu.
- Garitaonandia, K. (1990). "Euskal prentsa, 1936ko uztailaren 18aren aurretik" in *Jakin*, 58. Jakinkizunak, Donostia.
- Garzia, J. R. (1993). "Bertsolaritza hedabideetan" in *Jakin*, 75. Jakinkizunak, Donostia.
- Gasteiz, X. (1979). "Baionako euskal irrati-telebistak" in *Jakin*, 10. Anaidia, Arantzazu.
- Gendron, L. (1996). "Les médias menacent la démocratie" in *L'actualite*, 13. L'actualite, Paris.
- Gomis, L. (1991). *Teoría del periodismo*. Paidós, Bartzelona.
- Gonzalez Abrisketa, M. (1991). "Zurumurrueen mekanismoak" in *Uztaro*, 1. UEU, Bilbo.
- Gonzalez Abascal. (1996). "Internet, beste ikuspuntua" in *Elhuyar* 112. 1996ko urria.
- Gottfried, J. (1995). *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua*. Klasikoak SA, Bilbo.
- Gubern, R. (1982). *Historia del cine*. Lumen, Bartzelona.
- Gutierrez, A. (1996). "Tokiko irratia, herri-partaidetasunaren guneak" in *Uztaro*, 19. UEU, Bilbo.
- Idoiaga eta Garitaonandia. (1985). "Telebista Europako erregio, nazionalitate eta nazioetan" in *Jakin*, 36. Anaidia, Arantzazu.
- Idoiaga, P. (1994). "Etika profesionala eta informazio-antolaketa" in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.
- Intxausti, J. (1978). "Prentsa katalana krisian" in *Jakin*, 6. Anaidia, Arantzazu.
- Iñurrieta, I. (1991). "Telebistako lehiaketen azterketa-saioa" in *Jakin*, 67. Jakinkizunak, Donostia.
- Irigoién, J. M. (1992). "Ttipi-Ttapa" in *Jakin*, 69. Jakinkizunak, Donostia.
- Iris, A. (1996). *Les autoroutes de l'information*. PUF, Paris.
- Iturriotz, A. (1991). "Komunikabideen eraginari buruzko ikerketa: ikuspegi historiko bat" in *Uztaro*, 3. UEU, Bilbo.
- Jakin. (1997). "Murrizketa euskal prentsarako dirulaguntzetan" in *Jakin*, 98. Jakinkizunak, Donostia.
- Jakobson, R. (1975). *Ensayos de lingüística general*. Seix Barral, Bartzelona.
- Jauregi, M. (1997). "Harpidedunentzako telebista" in *Argia*, 1612. Argia, Donostia.
- Kerbrat-Orecchioni, C. (1980). *L'énonciation*. Armand Colin, Paris.
- Lafrance eta Brouillard. (1996). "A la conquete électronique" in *Reseaux*, 78.

- CNET, Paris.
- Landa, J. (1996). "Komunikabide mota berri baten atarian" in *Jakin*, 96. Jakinkizunak, Donostia.
- Larrinaga, J. (1980). "Kazetaritza eta karneta" in *Jakin*, 14/15. Anaidia, Arantzazu.
- Lasswell, H. (1948). "The structure and function of communication in society" in L. Bryson ed. *The communication of ideas*. Harper, New York.
- Leibniz, G. (1997). "Hirugarren liburua, hitzak" in *Giza adimenari buruzko entseiu berriak*. Klasikoak, Bilbo.
- Leon, J. L. (1984). *Persuasión de masas*. Ediciones Deusto, Bilbo.
- Levi-Strauss, C. (1996). *Antropologia estrukturala*. Klasikoak SA, Bilbo.
- Linares eta Ortiz Chaparro. (1995). *Autopistas inteligentes*. Fundesco, Madril.
- Litton, G. (1971). *Del libro y su historia*. Bowker, Buenos Aires.
- Lopez Garcia, E. (1990). "Fikzio poliziakoaren logika, gaur eguneko irudian" in *Uztaro*, 0. UEU, Bilbo.
- McQuail, D. (1991). *Introducción a la teoría de la comunicación de masas*. Paidós, Bartzelona.
- Malye et al. (1996). "La guerre electronique" in *Sciences et avenir*, 589. Sciences et avenir, Paris.
- Mamou, Y. (1991). *Essai sur la fabrication de l'information*. Payot, Paris.
- Mansell, R. (1996). "Les nouveaux marchés de la communication" in *Reseaux*, 78. CNET, Paris.
- Marcuse, H. (1970). *L'home unidimensional*. Edicions 62, Bartzelona.
- Mariniello, S. (1990). *Lev Kuleshov*. La nova Italia, Florentzia.
- Martin Sabaris, R. M. (1991). "Euskal telebista, Golkoko gerlan" in *Uztaro*, 3. UEU, Bilbo.
- Martin, H. J. (1984). *Livre, pouvoirs et société*. Droz, Geneva.
- Martin, J. (1985). *Caligrafía*. Herman Blume, Madril.
- Martin, J. (1977). *La sociedad cableada*. Fundesco, Madril.
- Martinet, A. (1974). *Elementos de lingüística general*. Gredos, Madril.
- Marx eta Engels (1970). *La ideología alemana*. Grijalbo, Bartzelona.
- Masuda, Y. (1983). *La sociedad informatizada*. Fundesco, Madril.
- Mathie, M. (1995). "L'étude des médias: un champ ouvert à la transdisciplinarité" in *Communication et langages*, 106. Communication et langages, Paris.
- Mathieu, M. (1992). *Les journalistes et le système médiatique*. Hachette, Paris.
- Mattelart, A. eta Mattelart, M. (1997). *Historia de las teorías de la comunicación*. Paidós, Bartzelona.
- Mendiguren, I. (1992). "Arrasate press" in *Jakin*, 69. Jakinkizunak, Donostia.
- Mendizabal, L. (1994). "Agintea, gizartea, informazioa eta kazetariak" in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.
- Meunier, J-P. (1993). *Introduction aux théories de la communication: analyse sémio-pragmatique*. Boeck-Wesmael, Brusela.
- Millares Carlo, A. (1971). *Introducción a la historia del libro*. Fondo de cultura económica, Mexiko.
- Mingolarra, J. A. (1982). "Komunikazioa prozesu gisa" in *Jakin*, 22. Anaidia,

- Arantzazu.
- Miquel, P. (1972). *Histoire de la Radio et de la Télévision*. Richelieu, Paris.
- Miranda, J. (1996). "A cien años del cine, del espejo al arma" in *Telos N.46*. Fundesco, Madril.
- Molet, J. (1992). "Kazetal enpresaren antolakuntza" in *Jakin*, 69. Jakinkizunak, Donostia.
- Moorhouse, A. (1988). *Historia del alfabeto*. Fondo de cultura, Mexiko.
- Noelle-Neumann, N. (1995). *La espiral del silencio. Opinión pública: nuestra piel social*. Paidós, Bartzelona.
- Ogiza, J. (1993). "Euskarazko publizitatea prentsan" in *Uztaro*, 7. UEU, Bilbo.
- Orive, P. (1988). *Los españoles ante los telediarios*. Estudios de comunicación para autonomías, Madril.
- Ortega, F. (1995). "Los orígenes de la cultura de masas" in *Telos N. 39*. Fundesco, Madril.
- Ortoleva, P. *La société des médias*. Casterman, Paris.
- Otermin, J. M. (1982). "Irratigintza egun Euskal Herrian" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Pagola, M. (1977). "Deia, Euskal Herriko lehen egunkaria" in *Jakin*, 3. Anaidia, Arantzazu.
- Palazio, G. (1991). "Euskal komunikabideetako euskara" in *Uztaro*, 1. UEU, Bilbo.
- Palazio, G. (1993). "Exotoponimiazko problemak kazetagitzean" in *Uztaro*, 7. UEU, Bilbo.
- Peignot, J. (1967). *De l'écriture à la typographie*. Gallimard, Paris.
- Peñafiel, C. (1995). "Irratiaren historiarako 20 urte Euskal Herrian" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Pizarroso, A. (1993). *Historia de la propaganda*. Eudema Universidad, Madril.
- Porcher, L. (1994). *Télévision, culture, éducation*. Armand Colin, Paris.
- Prédal, R. (1995). *Les médias et la communication audiovisuelle*. Organisation, Paris.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1990). "1989ko urriko hauteskundearen islada Hego Euskadiko egunkarietan" in *Jakin*, 58. Jakinkizunak, Donostia.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1991). "Politikariak-kazetariak: boterearekiko lilura" in *Uztaro*, 3. UEU, Bilbo.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1994). "Prentsa-bulegoak" in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1995). "Komunikazioaren norabide berriak, diktaduraren ostean 1975-1995" in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Ramírez de la Piscina, Tx. (1997). "Masa-hedabideak eta bortizkeria politikoa" in *Jakin*, 99. Jakinkizunak, Donostia.
- Regourd, S. (1992). *La télévision des européens*. La documentation française, Paris.
- Righter, R. (1982). *El control de la información*. Pirámide, Madril.
- Rodriguez, N. (1992). *La televisión: historia y desarrollo*. Mitre, Bartzelona.



- Rodrigo, M. (1991). *Los medios de comunicación ante el terrorismo*. Icaria, Bartzelona.
- Rosengren, K. E. (1981). *Mass Media and Social Change*. Sage, Londres.
- Sadoul, G. (1984). *Historia del cine mundial*. Siglo XXI, Mexiko.
- Salvaggio, Jerry L. (1989). *The Information Society*. Economic, Social and Structural Issues, New Jersey.
- Sandoval, V. (1995). *La télévision interactive*. Hermes, Paris.
- Santoni, M. (1995). “La prensa y los nuevos medios” in *Comunicación Social 1995. Tendencias*. Fundesco, Madril.
- Sarasola, P. (1997). “Ba ote dago euskal industria audiobisualik? ” in *Jakin*, 99. Jakinkizunak, Donostia.
- Sarasua, J. (1996). “Euskarazko prentsaren diagnostikoa” in *Jakin*, 96. Jakinkizunak, Donostia.
- Saussure, F. (1960). *Cours de linguistique générale*. Payot, Paris.
- Schefflen, A. (1973). *Communicational Structure*. Indiana University Press.
- Schiller, H. I. (1977). *El imperialismo USA en la comunicación de masas*. Akal, Madril.
- Schiller, H. I. (1996). *Aviso para navegantes*. Icaria, Bartzelona.
- Shannon, C. (1949). *The Mathematical Theory of Communication*. University of Illinois Press.
- Shapiro, M. (1973). *Words and Pictures*. Mouton, La Haya.
- Siebert, Peterson eta Schramm (1977). *Cuatro teorías sobre la prensa*. La Flor, Buenos Aires.
- Silberman, A. (1981). *Communications de masse: éléments de sociologie empirique*. Hachette, Paris.
- Simova, J. (1995). *El poder y la prensa*. Ed. Internacionales universitarias, Bartzelona.
- Sirera, T. (1992). “Eskualde prentsa Katalunian” in *Jakin*, 69. Jakinkizunak, Donostia.
- Swerdlow, J. (1996). “Informazioaren iraultza” in *Uztaro*, 17. UEU, Bilbo.
- Taufic, C. (1976). *Periodismo y lucha de clases*. Akal, Madril.
- Timoteo et al. (1989). *Historia de los medios de comunicación en España*. Ariel, Bartzelona.
- Tocqueville, A. (1989). *El Antiguo Régimen y la revolución*. Alianza, Madril.
- Torrealdai, J. M. (1993). “ETB eta euskara” in *Jakin*, 75. Jakinkizunak, Donostia.
- Trujillo, D. (1996). “El arte de la manipulación” in *El Mundo/Comunicación*. 1996/02/23.
- Tuchman, G. (1983). *La producción de la noticia*. Gustavo Gili, Bartzelona.
- UNESCO. International Commission for the Study of Communication Problems. McBRIDE, 1980.
- Uria, I. (1995). “Euskal prentsa sortzen” in *Jakin*, 89. Jakinkizunak, Donostia.
- Urrutia, S. (1994). “Komunikabideak: nazioa eta boterea” in *Uztaro*, 12. UEU, Bilbo.
- Urzelai, P. (1996). “Genero informatiboaren gainbehera” in *Jakin*, 96.

- Jakinkizunak, Donostia.
- Vallaud, P. (1996). *Les manipulations de l'image et du son*. Hachette, Paris.
- Vedel, T. (1996). "Les politiques des autoroutes de l'information dans les pays industrialisés" in *Rezeaux*, 78. CNET, Paris.
- Velázquez, T. (1992). *Los políticos y la televisión*. Ariel Comunicación, Bartzelona.
- Viallov, P. *Analyse du discours de la tv*. PUF, Paris.
- Vilches, L. (1993). *La televisión*. Paidós, Bartzelona.
- Vilches, L. *La lectura de la imagen*. Paidós, Bartzelona.
- Vygotsky, Lev S. (1962). *Thought and language*. Cambridge, Massachussets.
- Williams, R. (1992). *Historia de la comunicación*. Bosch, Bartzelona.
- Wolf, M. (1994). "Los medios de comunicación en la estructuración de la identidad colectiva" in *Comunicación Social, Tendencias*. Fundesco, Madril.
- Wolton, D. (1997). *Penser la communication*. Flammarion, Paris.
- Woodrow, A. (1996). *Les médias: quatrième pouvoir ou cinquième colonne?* Félin, Paris.
- Zabaleta, I. (1995). "Hurbiltasun koizientea irratitelebistako kazetaritzan" in *Uztaro*, 14. UEU, Bilbo.
- Zalakain, J. (1993). *Euskal prentsa herri proiektua da. Joxemiren uzta*. Txalaparta, Tafalla.
- Zalakain, J. M. "Komunikabidez komunikabide" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Zalakain, J. M. (1978). "Euskadiko komunikabideak aztertzen" in *Jakin*, 7. Anaidia, Arantzazu.
- Zalakain, J. M. (1994). "Kazetaritzaren ajeak, kazetarien malurak" in *Jakin*, 83. Jakinkizunak, Donostia.
- Zalakain, J. M. (1994). "Prentsa nazionala eta prentsa lokala" in *Uztaro*, 12. UEU, Bilbo.
- Zallo, R. (1993). "ETB: txosten bati buruzko txostena" in *Jakin*, 75. Jakinkizunak, Donostia.
- Zallo, R. (1994). "Informazioa krisi-garaian" in *Jakin*, 81. Jakinkizunak, Donostia.
- Zorrilla, R. (1982). "Informazioaren manipulazioa" in *Jakin*, 22. Anaidia, Arantzazu.
- Zubiria, P. (1996). "Euskal prentsaren desafio berriak" in *Jakin*, 96. Jakinkizunak, Donostia.
- Zylberberg, J. (1986). *Masses et postmodernite*. Méridiens, Paris.



## Indize alfabetikoa

- Aberrantea, 93  
Aberri elektronikoa, 136  
Abiadura handiko igorpena, 129  
Abiadura handiko kommutazio malgua, 129  
Acta Diurna, 91  
Adieraziaren ekoizpena, 157  
Adierazia, 69, 72  
Adierazlea, 69, 72, 153  
Adierazpena, 69  
Ahanzteia, 170  
Albiste-agentzia, 30, 31, 151  
Albistea, 33-38, 96, 148, 153, 167, 176  
Alfabetakuntza informatikoa, 127  
Alfabeto fonetikoa, 62  
Almanakea, 92, 93  
Amanuenseia, 82  
Associated Press, 31, 111, 149  
ATT, 113  
Audientzia/Entzulegoa, 203  
Aurreiritzi soziala, 204  
Autobabesa, 208, 209  
Autobidea, 121, 122, 136-139  
Autoikasketa, 91  
Bahiketa, 177  
Baimena, 177  
Balizko enpresa, 133  
Barruko subertsioa, 146  
BBC, 112, 114  
Berba bako komunikazioa, 69  
Berba-komunikazioa, 67, 68  
Berba-komunikazioaren prozesua, 76  
Berba-sistema lotuak, 74  
Berbaera, 144  
Bidea, 27, 77  
Bideokonferentzia, 131  
Bideotefonoa, 126  
Bideotestua, 125  
Bigarren eskuko errealitatea, 33  
Borondatezko itaunketa, 176  
CBS NEWS, 152  
CD-ROM, 125  
Corriere della Sera, 149  
Dagerrotipoa, 102  
Daily Courant, 94  
Denotazioa, 74, 75  
Der Spiegel, 146  
Desinformazioa, 143-148, 151, 153, 165, 170, 174  
Desitxuraketa, 170, 173  
Deskodeketa, 27, 201  
Diario de Madrid, 175  
Digitalizazioa, 117  
Diskurtsoa, 144  
Disonantzia kognitiboa, 154  
Edukia, 69  
EFE, 31  
Egiatasuna, 34, 144  
Egia, 144, 165-167  
Egitatea, 32-34, 37, 68, 144, 148, 170, 200, 202, 205, 209  
Egokitzaille interaktiboa, 129  
Egunkari herritarra, 96, 97  
Egunkaria, 93-99, 146  
Egutegia, 92  
Ekoizpen-eredua, 200, 201  
EMI, 116  
Emitron, 116  
Enpresa birtuala, 133  
Eragina, 204  
Eredu alternatiboa, 185  
Eredu demokratiko-partehartzailea, 194  
Erloju soziala, 36  
Errakuntza, 144, 145  
Errealitatea, 33, 34, 37, 144, 165, 174, 184, 199, 200  
Errealtasun birtualeko telebista, 123  
Erreferentzia, 27, 28, 36, 144, 167, 201  
Errepresentazio piktografikoa, 53  
Errepresentazioa, 144  
Errepresioa, 93  
Erretorika, 154  
Estandarizazioa, 91  
Estereotipoa, 204  
Estrategia psikodinamikoa, 154, 155  
Estrategia soziokulturala, 156, 157

- Euskara moldiztegia, 90  
 Euskarri eramangarria, 62  
 Ezabadura/Ezabaketa, 170, 171, 173, 207  
 Ezagutza, 144  
 Ezkutaketa, 205, 207, 208  
 Fantaskopia, 101  
 Fenakistikopia, 100  
 Fetixismoa, 204  
 France Presse, 31, 149  
 Funtzionalismoa, 185-187  
 Gainegitura komunikazionala, 30  
 Gaitasun ideologikoa, 201  
 Gaitasun linguistikoa, 201  
 Gaitasun paralinguistikoa, 201  
 Gazeta, 91, 92  
 Gerra psikologikoa, 146  
 Gertaera, 32, 33, 37, 68, 144, 148  
 Gertakizuna, 200  
 Gezurra, , 33, 34, 144-146, 165, 166-168, 170, 174  
 Giza komunikazioa, 24, 32, 47  
 Giza komunikazioaren paradigma, 23  
 Gizaki zibernetikoa, 134  
 Gizarte birtuala, 134  
 Gizarte-erantzukizuna, 191  
 Globalizazioa, 136, 143  
 Globaltasuna, 153  
 Gutun konfidentziala, 147  
 Hargailua, 23  
 Harreman komunikatiboa, 23  
 Hartzailea, 23, 24, 26, 31, 32, 77, 167, 201  
 Havas, 110  
 Hedabidea, 36-39, 174, 183-185, 187-189, 191-193, 199, 201, 203, 204, 206, 208, 209  
 Herald, 96  
 Hersant, 149  
 Hieroglifikoa, 56, 60, 62  
 Hizkuntza, 71  
 Hizkuntzaren funtzioak, 77  
 IAN, 128  
 Idazkera fonetikoa, 61  
 Idazkera kuneiformea, 59  
 Idazkera logografikoa, 59  
 Idazkera piktografikoa, 53, 57  
 Idazkera piktorikoa, 55  
 Idazkera primitiboa, 54  
 Idazkera, 46, 49, 53, 55, 62  
 Idazkera-hieroglifikoa, 56  
 Identitate kolektiboa, 184  
 Ideograma, 53  
 Igandekaria, 94  
 Igorgailua, 23  
 Igorlea, 24, 26, 31, 32, 77, 167, 201, 202  
 Ikonoskopia, 116  
 Ilusioa, 199, 205-209  
 Indizea, 55, 68  
 Infobidea, 122, 123, 133  
 Informazio publikoa, 47  
 Informazio-askatasuna, 190  
 Informazio-iturria, 23, 32  
 Informazio-kanpaina, 145  
 Informazioa, 21, 22, 27-30, 31, 32, 34, 36-38, 52, 68, 82, 121, 143-149, 151, 153, 155, 165-168, 171, 174, 176, 190, 192, 193, 199, 200, 202, 204, 208, 209  
 Informaziorako azpiegitura nazionala, 122, 130  
 Informazioaren Gizartea, 121, 124, 131-136  
 Informazioaren kontsumoa, 133  
 Inkomunikazioa, 131  
 Inkunablea, 89  
 Inprenta Euskal Herrian, 89, 90  
 Inprenta, 29, 47, 82, 86  
 Integrazioa, 186, 187  
 Interaktibitatea, 128  
 Interakzioa, 39  
 Internet, 134  
 Interpretazio-eredua, 200, 201  
 Intoxikazioa, 148  
 Iradokizuna, 179  
 Iragazkia/Galbahea, 34, 148, 151, 174  
 Irakurketa kritikoa, 208  
 Iratxetura, 170, 171, 173  
 Iritzi publikoa, 33, 143, 148, 159, 160, 162-165  
 Iritzi-askatasuna, 190  
 Irrati domestikoa, 112  
 Irrati klasista, 113, 114  
 Irrati komertziala, 113  
 Irrati propagandistikoa, 113, 114  
 Irratia, 111, 147  
 Irratitelefonoa, 111  
 Irrazionaltasun kolektiboa, 204  
 Irudikapena, 33, 34

- Isiltasunaren espirala, 159-161  
Isolamendua, 188  
Itar-Tass, 31  
Iturria, 151  
Itxiera, 178  
Jario komunikatiboa, 23  
Kable bako telegrafoa, 111  
Kable bidezko telegrafoa, 109  
Kaleidoskopia, 101  
Kamara iluna, 100, 102  
Kanala, 24, 27  
Kanpoko subertsioa, 146  
Karakter higikorra, 86  
Kazetaria, 40, 95  
Kazetaritza horia, 97  
Kazetaritza sentsazionalista, 97, 98  
KDKA, 112  
Keinua, 200  
Kineskopia, 116  
Kinetoskopioa, 103  
Kodea, 24, 27, 71, 76, 167  
Kodeketa, 27, 201  
Komunikabidea, 194  
Komunikazio globala, 40  
Komunikazio interaktiboa, 127  
Komunikazio linguistikoa, 72  
Komunikazio masiboa, 40  
Komunikazio mediatikoa, 40  
Komunikazio primitiboa, 48  
Komunikazio publikoa, 40  
Komunikazio unidirekzionala, 24  
Komunikazio-kanpaina, 145  
Komunikazioa, 21-28, 31, 35, 39, 47, 68, 70, 121, 170, 188, 190, 199, 201-206  
Komunikazioaren eskema, 23  
Konnotazioa, 74, 75  
Konposagailua, 89  
Konposizioa, 85  
Konpresioa, 117  
Kontrola, 174, 184-188, 191, 192  
Korantoa, 92  
Krasnaå Zvezda, 146  
Kultura mediatikoa, 40  
Kultura, 39, 52, 121, 123, 202, 204  
L'Express, 149  
La Stampa, 149  
Langabezi egiturala, 127  
Langabezi teknologikoa, 133  
Le Journal de Paris, 94  
Le Monde, 205  
Le Soir, 205  
Lengoaia lotuak, 74  
Lengoaia, 50-52, 71  
Lengoiaren funtzioak, 50  
Linotipia, 89, 94, 95  
Linterna magikoa, 100, 101  
Mailakatze soziala, 203  
Manipulazioa, 33, 146, 165  
Marrazki bizidunak, 100  
Marxismoa, 184-186  
Masa, 21, 22, 31, 95, 96, 100  
Masa-hedabidea, 39, 47  
Masa-komunikazioa, 31, 32, 40, 47, 128, 189  
Mehatxua, 179  
Mezua, 22-27, 52, 68, 70, 148, 153, 155, 166, 167, 201, 202  
Mitologia modernoa, 202  
Mitologizazioa, 204  
MMI, 126  
Monotipia, 89  
MTA, 126  
Multimedia, 41, 99, 123, 129, 136  
Narkompros, 106  
NBC, 113  
New York Sun, 96  
New York Times, 152, 153  
Nickelodeon, 104  
Norabide aniztuneko komunikazioa, 23-25  
NTSC, 116  
Ordezkateta/Ordezkapena, 199, 205-208  
PAL, 116  
Papiroa, 62  
Pertsuasioa, 105, 154, 155, 165, 174  
Piktograma, 53, 55, 59, 60, 62  
Pravda, 115  
Prensa Latina, 31  
Prentsa, 94- 99, 189, 192, 195  
Prentsa-askatasuna, 94, 190, 194  
Prentsa-bulegoa, 151, 178  
Presioa, 179  
Profesio-sekretua, 178  
Proiekzioa, 100, 101  
Proletkult, 107  
Propaganda beltza, 145  
Propaganda urdina, 145

- Propaganda zuria, 145  
 Propaganda, 105, 145, 146, 153, 154, 165-167  
 Publipropaganda, 147  
 Publizitate interaktiboa, 123  
 Publizitatea, 98, 145, 146, 150, 151, 165-168  
 R.A.V., 31  
 RCA, 113, 116  
 RDSI-BA, 126, 128, 130  
 Reuter, 31, 110, 149, 153  
 Sare digitala, 122  
 Sareartea, 121  
 Sasikultura, 204  
 SECAM, 116  
 Sedentarismoa, 203  
 Seinalea, 23, 68, 69, 71, 199, 200  
 Seinaleen aroa, 46  
 Seinaleen bidezko komunikazioa, 46, 47  
 Sekretua, 176  
 Silabarioa, 61, 62  
 Sistema interaktiboa, 127  
 Sistema logografikoa, 61  
 Sistema logosilabikoa, 61  
 Stress iraunkorra, 135  
 Subertsioa, 146  
 Sunday Monitor, 94  
 Superstizioa, 204  
 Suspentsioa, 177  
 Taumatropoa, 100, 101  
 Teatro optikoa, 100  
 Teknologia komunikatiboak, 22  
 Telebankua, 123  
 Telebista digitala, 123  
 Telebista laua, 123  
 Telebista, 115-117  
 Telebizitza, 134  
 Teleegunkaria, 123  
 Telegrafia, 30  
 Telegrafo elektrikoa, 109  
 Telegrafoa, 108, 110  
 Telehezkuntza, 123, 134, 138  
 Telejolasa, 123  
 Telekomunikazioa, 41, 108, 121, 123, 124, 136, 137  
 Telelana, 123, 133, 138  
 Telematika, 133, 136-138  
 Telemedikuntza, 123, 134  
 Teleteknologia, 135  
 Teletestua, 125  
 Teoria desarroilista, 193  
 Teoria soviatarra, 192  
 Testu elektronikoa, 125  
 Testuingurua, 27, 76  
 The Times, 94  
 The Yelow Kid, 98  
 TIME, 152  
 Tipo higikorra, 85  
 Tipografia, 29, 47, 85, 86  
 Turismo telematikoa, 134  
 Txantaia, 179  
 Txina Berria, 31  
 Uhin hiritarra, 127  
 Ukapena, 170  
 UMTS, 130  
 United Press International, 149  
 United Press, 31  
 WEAf, 113  
 Wolf, 111  
 Xilografia, 84  
 Zarata, 23, 112  
 Zeinu abstraktua, 53  
 Zeinu ikonikoa, 53  
 Zeinua, 68, 69, 72, 200  
 Zeinuteria, 27  
 Zeitunga, 92  
 Zentsura, 175, 176, 189, 190  
 Zentzua, 69, 70, 199, 201  
 Zerbitzu interaktiboa, 123  
 Zigilu bidezko inpresioa, 83  
 Zigorra, 93  
 Zinema, 100, 103-106  
 Zinezkotasun-klausula, 179  
 Zootropoa, 100  
 Zuntz optikoa, 129  
 Zurrumurrua, 147